

**San Joan Bautista La Sallekoa
(1651-1719)**

**KRISTAUAREN
BETEBEHARRAK**

San Joan Bautista La Sallekoa

**KRISTAUAREN JAINKOAREKIKO BETEBEHARRAK
ETA EGOKIRO BURUTZEKO BALIABIDEAK
KB 1**

Itzultzailea: Anai Joxe Ertzibengoa

**La Salle Probintzial Etxea
Donostia
2011**

KB1 KRISTAUAREN JAINKOAREKIKO BETEBEHARRAK ETA EGOKIRO BURUTZEKO BALIABIDEAK

Lehenengo atalaren sarrerarako balio duen aitzinsolasa.

Bertan kristau erlijioaz tratatzen da, kristauetz, ezagutzeko zeinuez eta berezkoak diren bertuteez.

KB1 0.0.1 Lanbide bat edukitzea eta zertan datzan ez jakitea, ezagutzeke, are eta gehiago, zer esan nahi duen daraman izenak, zer egitera obligatzen duen, eta zein diren lanbide horren oinarritzko betebeharrak, badirudi erabat arrazoiaren aurkakoa dela eta sen onaren kontra doala. Alabaina, nahiko ohikoa dirudi honek kristau gehiengo batentzat. Kristauak dira horrek zer esan nahi duen jakiteke, eta oso gutxi hartzen dute ardura zer egin behar duten lanbide horren arabera bizi ahal izateko.

Horregatik, kristaua formatzeko asmoarekin eta bere bizibideari eta daraman izenari dagokion bizitza duina eramatearren baliabideak eskaintzeko, pentsatu da nahitaezkoa zela ezagutzera ematera, oroz gain, zer den hainbeste harrotzen duen kristau erlijioa; zer esan nahi duen ohorezko kristau izen horrek; zein diren bereizmena egiteko balio duten zeinuak, eta zein diren biziera santu eta goren mailako lanbide honetarako izena emana dutenen berezko bertuteak. Hau da egin nahi dena, oroz gain, liburu honen lehenengo atalean, zeinak kristauaren oinarritzko betebeharrak tratatu nahi dituen.

KB1 0.0.2 Erlijio hitzak, zehazki hitz eginez, Jainkoarekiko gure obligazioak betetzera bultzatzen gaituen bertute bat da. Horregatik erlijio izena eman zaio Jainkoak merezi duen kultura ematen dion batzarrari. Horregatik, baita ere, Jainko bakar bat onartu eta ondartzeko biltzen direnek, erlijio bat jarraitzen dutela aldarrikatzen dute. Alabaina, bat bakarra dago izen hau eramatea merezi duena, eta kristau erlijioa da.

KB1 0.0.3 Erlijioa deitzen da (eta kristaua da) Jainkoarekiko obligazioak betetzeko eginbidea hartu duten nazio ezberdinetako estatu edo gizarteko hainbat pertsona, pribatuki zein publikoki, Jesusek erakutsi zigun ereduaren arabera bizi ahal izateko.

Erlijio hau betetzen dutenek eginbide hauek hartzen dituzte bataioaren sakramentua errezibitzen dutenean, bataioak sarrera ematen baitu erlijio honetan, erdaintzuzak judutarrenean sarrera ematen zuen moduan.

KB1 0.0.4 Jainkoari lau gauza zor dizkiogu, eta kristau erlijioan betetzen dira: ezagutu behar dugu, gurtu behar dugu, maitatu behar dugu, eta obeditu. Fedearen bitartez ezagutzen dugu Jainkoa. Otoitzaren eta sakrifizioaren bitartez gurtzen dugu. Haren manamenduak eta Elizarenak betez obeditzen diogu, eta Hark debekatzen digun bekatua saihestuz. Haren graziaz soilik maita dezakegu Haren aitzinean atseginak egiten gaituelako, eta grazia hori otoitzaren eta sakramentuen bitartez soilik erdiets dezakegu. Lau gauza hauek osatzen dute erlijio kristauan eta katolikoan ikasten eta praktikatzeko dena, eta honetan soilik bete ditzakegu Jainkoarekiko obligazioak. Eta, era berean, hau da egiazko erlijioa, eta izen hau ebasten duten beste guztiak faltsuak eta irudizkoak dira, bada horietan ez da egiazko Jainkoa ezagutzen ezta behar bezala ondartzeko ere, Hark agintzen duen bezala.

KB1 0.0.5 Erljio honetako partaide guztiei kristau izena ematen zaie. Izen hori Kristo izenetik dator, eta Jesusen jarraitzaile eta imitatzaile esan nahi du. Alabaina, beren burua kristautzat duten guztiak ez dira Jesusen egiazko jarraitzaileak. Asko dira kristauaren itxura eta izena besterik ez dutenak, eta hala jokaera txar horrek Jesusen ohorea eta beren erlijioaren santutasuna antzarak ferratzera bidaltzen ditu.

Hauek dira: 1. Benetako Elizatik urrundu diren hereseak eta zismatikoak. 2. Katolikoan artean, Jainkoaren maitasunik gabe mugitzen direnak, aberastasunekin bat eginda daudenak, zentzumenen plazerretara lerritzen direnak, mundu honetako banitateekin bat eginda daudenak, eta Jainkoaren zerbitzua eta norberaren salbamena oroz gain kontuan hartzen ez dutenak.

KB1 0.0.6 Kristaua izateko nahikoa da bataiatua egotea. Horregatik hereseak eta zismatikoak, hauen bataioa erlijio katolikoak onartzen baitu, gurea bezalako bataioa delako, kristauak dira, gu bezala.

Baina hau ez da aski egiazko erlijioan egoteko. Katolikoa izan behar da, Jainkoa eta Jesus sinestea eta, halaber, hark irakatsi zigun guztia betetzea, bai berak eta bai Elizak, eta denen aitzinean aitortzea.

Hala ere, hau guztia ez da nahikoa kristau on bat izateko; nahitaezkoa da Gure Jaunaren Espirituaz animatuta egotea, haren aginduak betetzea eta haren araberako biziera eramatea; hau dena Ebanjelio Santuan eta Itun Berrian adierazten zaigu.

KB1 0.0.7 Hereseek kristau izena baitaramate, katolikoak bezala, nahitaezkoa da seinale batzuk edukitzea kristau katolikoak direnak eta ez direnak bereizteko.

Elizan beti onartu dira kristau katoliko gisa erlijioan eskuarki praktikatzeko diren jarduerak egin izan dituztenak, hala nola, meza santura eta jainkozko ofizioetara joatea, Jesusen eraiki zituen sakramentuak hartzea, katolikoan elizetan Jainkoaren hitza entzutea, igandetakoa eta jaiegunetakoa betetzea, eta, baita ere, aginduta dauden haragia hustearekin eta barauarekin konpliztea. Izan ere, zail samarra ematen du pertsona bat egiaz lanbide batekoa izatea, eta batik bat erlijio batekoa, itxuraz guztiak egiten dutena egiten duenean, eta haiekin deusetan ez ezberdintzea, ezta nolabaiteko biolentzia egin gabe egiterrik ez dagoen gauzatan ere.

KB1 0.0.8 Dena den, motiboren bat egon denean pertsona bat egiazki katolikoa zen edo ez zalantzan jartzeko, batik bat Elizan asaldatzeren bat izan denean eta zisma edo heresiaren bat sortu eta gero, ez da aski izan delako pertsona horrek gure erlijioa ohiko jarduerak betetzea, baizik eta eskatu egin zaio denen aitzinean bere fedearen profesioa aitortzea. Eta horretara behartzen zaie errorea alde batera utzi nahi duten herese guztiei, Elizaren barnean onartuak izan aurretik; bada obrek fedearen lekukotasuna ematen duten arren, ez dute egiten, alabaina, iruzur egingo ez duten segurtasuna emateraino; eta dauzkaten sentimenduak ez dira ezagutzera ematen, eskuarki, baizik eta hitzez adierazita.

KB1 0.0.9 Denen aitzinean egin beharreko fede-aitorpen hau izan da beti hartua Elizan seinalerik fidagarriena bezala, eta hobekien bereizten duena zein den kristau katolikoa eta zein ez. Alabaina, zail samarra zenez katoliko guztiak une bakoitzean

beren sinbologia eta fede-aitorpena erakustea, batik bat hereseen artean bizi behar dutenei, zein zitekeen beren erlijioa eta sinestea, Elizak jakinduriaraz ezarri du gurutze santuaren zeinua norberarengan egina, baliagarria delako orokorrean kristau katolikoak bestelako pertsonetatik bereizteko.

KB1 0.0.10 Gurutze santuaren zeinua eskuin eskuak bekokira eramanez egiten da eta esanez: *Aitaren*; gero bular aldean, esanez: *eta Semearen*; gero ezker aldeko besagainean, esanez: *eta Espiritu*; eta handik eskuin aldeko besagainean, esanez: *Santuaren izenean. Amen*. Edo bestela, latinez: *In nomine Patris, et Filii et Spiritus Sancti. Amen*.

KB1 0.0.11 Zeinu honen erabilera Elizarena bezain aspaldikoa da. Tertulianok, bigarren mendearen azken aldian bizi izan zenak, ziurtatzen digu tradizioak utzi zigula, ohiturak konfirmatu zuela eta fedea praktikan jartzera eramaten gaituela. Berberak testifikatzen du bere garaiko kristauak gurutze santuaren zeinua beren bekokietan markatzeko ohitura zutela bidean, etxean sartzerakoan, irteterakoan, janzerakoan, lotarazterakoan, gela batean sartzerakoan, mahaira esertzerakoan, kandela bat pizterakoan, esertzerakoan, elkarrizketan eta, bukatzeko, egintza guztietan.

Eta San Jeronimok, Eustokiori idazten dihonean, gomendatzen dio edozein egintza eta jarduera egiterakoan bere eskuaz gurutze santuaren zeinua egiteko. Eta ez dago kristaurik gauza bera egin beharko ez lukeenik.

KB1 0.0.12 Hain da handia gurutze santuaren seinalea eginez erdiesten den faborea, San Zirilok esaten zuen fededunen grazia dela eta deabruen terrorea.

Izan ere, zeinu honen bitartez une oro erakusten dugu, nahi badugu, kristauak garela; eta, baita ere, zeinu honen bitartez Jainkoari gure bihotza goratzen diogu, gure egintzak eskaintzen dizkiogu, bere grazia eta laguntza eskatzen dizkiogu, eta tentazioak arbuizatzen ditugu. Eta San Anbrosiok egiaztatzen digu zeinu honek deabru guztien aurka babesten gaituela.

KB1 0.0.13 Alabaina, fabore hauek ez dira erdiesten gurutze santuaren seinalea ohituraz egiten denean, sarri askotan kristau gehienek egiten duten bezala, baizik eta fedez, begirunez eta benetakako barne debozioz soilik egiten denean.

Zeinu adoragarri hau egiten den bakoitzean, gogoratu beharko litzateke Jainkoari esaten diogula egitera goazen egintza Hirutasan Donearen izenean egingo dela; eta graziaren bat eskatzen badiogu, Jesus Gure Jaunaren izenean eskatzen diogula, eta haren Pasioaren meritu infinituen bitartez. Ezbairik gabe, ez dago beste erarik nahi duguna errazago eta bedeinkapen handiagoz erdiesteko.

KB1 0.0.14 Baldin itxurazko seinaleak badaude gizaki guztiek kristaua dena ezagut dezaten permititzen dutena, era berean badira barne praktikak Jainkoaren aitzinean aurkezteko balio dutenak, eta hauek dira berezko bertuteak.

KB1 0.0.15 Bertute arruntak moralak deitzen dira, ohiturak erregulatzeko balio dutelako. Bertute mota hauek hereseek, fedegabeek ere praktika ditzakete, egiazko kristauak bezala. Baina berez kristauenak badira, egintzak graziaraz egiten dituztelako dira berezkoak, Espiritu Santuaren indarrez eta hari atsegin izateko asmo hutsez.

KB1 0.0.16 Hiru bertute daude izaera honetakoak ez direnak, eta hain direnak kristauenak beste inork ezin ditu praktikan jarri. Bertute hauek fedea, esperantza eta karitatea dira, teologalak deitzen dira Jainkoaren inguruan direlako eta Jainkoa objektutat dutelako.

KB1 0.0.17 Fedea bertute bat da eta naturaz gaindiko argia eta honen bitartez Jainkoaren aldetik Elizak proposatzen duen guztia sinesten da. Esperantza naturaz gaindiko bertute bat da eta honen bitartez Jainkoagan konfiantza jartzen da eta harengandik betiko salbamena itxaroten da, eta, halaber, erdiesteko eskatzen zaizkion graziak, Jesus Gure Jaunaren bitartez. Karitatea naturaz gaindiko bertute bat da eta honen bitartez Jainkoa norbera baino gehiago eta beste edozein gauza baino gehiago maitatzen da, eta lagun hurkoa norbera bezala, Jainkoaren maitasunagatik.

Bertute hauek naturaz gaindikoak direla esaten da, hots, natura baino goragokoak, Jainkoa delako ematen dituen eta, gure indarrez soilik ezin ditugulako ez erdietsi, ez merezi, eta, are, ezta praktikatu ere.

KB1 0.0.18 Hiru bertute hauek dira egiaz kristaua egiten dutena, eta erlijioan irmoki eusten diotenak. Eta nahiz eta hirurak oso beharrezkoak izan beti, hala ere, esan daiteke bi soilik direla betebehar guztiak osatzen dutenak, eta fedea eta karitatea dira.

Bi bertute hauek dira egiazko kristaua egiten dutenak; hauek gabe ezin da ez kristau bizitza egin eta ez Jainkoari atsegina izan, ezta zoriontsua izan ere sekula. Izan ere, mundu honetan kristau batek egin dezakeen guztia Jainkoa ezagutzea eta maitatzea da. Hauek dira betebehar guztiak. Jainkoa fedea bitartez ezagutzen dugu, eta karitateak maitatzea permititzen digu.

Hala gauzak, bada, bi gauza hauek, Jainkoa ezagutzeak eta maitatzeak kristauaren okupazioa bete behar dute, eta, orobat, lehenengo atal honetako bi tratatuen gaia izango da.

.....

Lehenengo atala
KB1 100 KRISTAUAREN JAINKOAREKIKO BI BETEBEHARREZ:
EZAGUTZEA ETA MAITATZEA

Lehenengo tratatua
Kristauaren lehenengo betebeharraraz, Jainkoa ezagutzea

KB1 101 **1 Kapitulu**

Fedeaz, honen bitartez ezagutzen dugu Jainkoa mundu honetan

Jesusek Ebanjelio Santuan betiereko bizitza egiazko Jainko bakarra ezagutzea dela esaten duenez, eta Jesus, bere Seme, lur honetara igorri zuena, kristauak bizitza honetan egin behar duen guztia Jainkoak den bezala ezagutzea da, eta egin duen guztia, eta Jainkoaren Semea gizon egina, eta gure salbamenerako egin zuen guztia. Hau da ezagutu behar dugun guztia, ez besterik.

KB1 101.1 Lehenengo saila
Zer da fedea.

KB1 101.1.1 Gure espiritua berez mugatuegia denez gero Jainkoaren gauzak ulertzeko, eta Jainkoaren borondatea ez denez gero bizitza honetan denak berez konpreni ditzagun, diren bezala, gauza hauek guztiak ulertu behar ditugu, erabateko otzantasun-espirtuarekin. Honetarako nahitaezkoa da Jainkoak argi gaitzan eta Harengandik jaso dezagun naturaz gaindiko argia, hots, fedea deitzen duguna.

KB1 101.1.2 Fedea edukitzea esan digutena sinestea da, eta gauza bat sinestea besteak esanda ezagutzea da, eta hark esandakoa baiestea. Bi fede mota daude, jainkozko fedea eta giza fedea. Giza fedea gizakiek dioskutena sinestera garamatza. Sinesten ditugunean nahas gaitzke, zeren gizakiak, hita santuenak ere, jakitunenak eta argitsuena, errorean eta gezurrean eror daitezkeen.

KB1 101.1.3 Jainkozko fedea Jainkoak errebelatu digun oro bihotzezko eta espirituzko otzantasunez sinestera garamatzen bertute bat da, eta irmoki, Elizak sinestu beharrekoa proposatzen duena. Otzantasun-espirtuaz, Jainkoak esan duelako, eta irmoki, Jainkoa ezin delako nahastu eta ezin digulako iruzur egin. Egia da ez dugula Jainkoak esan duena ezagutu eta proposatzen diguna sinetsi, Elizak ziurtatzen digulako baizik; alabaina, horretaz oso ziur egon beharko ginatke, Jainkoak berak esandakoa balitz bezala. Elizak Jainkoaren agintearen eta boterearen jabetzaz gozatzen duelako, eta ezagutzera eman nahi dizkigun egia sagaratuen gordailua delako. Hau da San Agustini bultzatzen diona esatera ez lukeela Ebanjelio santua sinetsiko horretara behartuta ez balego Elizaren aginteaz.

KB1 101.1.4 Jainkoak soilik ematen digu fedea gure espiritua argitzeko eta Haren bidez baizik atzeman ez duguna ezagutzera emateko. Bataioan hartzen dugu doe baliotsu hau.

KB1 101.1.5 Eskuarki, denok gaude Elizak sinesten eta proposatzen duena sinestera derrigortuta, zalantzarik gabe, ezbairik gabe eta inongo kuriostasunik gabe. Baina ez da aski orokorrean sinestea Elizak proposatzen diguna; badira misterio batzuk derrigorrez ezagutu eta argi eta garbi sinetsi behar ditugunak, eta hauek dira: Jainko bakar bat dela,

hiru pertsonatan, Aita, Semea eta Espiritu Santua; Jainkoaren Semea, Hirutasun Donearen bigarren pertsona, gizon egin zela eta gurutzean hil gu bekatuetatik urrundu eta infernuko penetatik libratzeko; bizitza honen ondoren paradisua izango dela onentzat, eta infernu bat gaiztoen zigortzat, eta ez duela azkenik izango. Batek ez baditu argi eta garbi eta berez sinesten misterio hauek, ezingo da salbatu, bada dauzkaten egiaak gure erlijioako oinarriak eta funtsezko printzipioak dira.

KB1 101.2 Bigarren saila **Fede ekitaldiak egiteko obligazioaz.**

KB1 101.2.1 Gure erlijioako misteriorik printzipalena ezagutzera eta sinestera obligatuta bagaude, ondorioz, noizean behin eta sarritan, jainkozko misterio hauen inguruan fede ekitaldiak egin behar ditugu. Are eta gehiago, badira abagune batzuk fede ekitaldiok nahitaez egin behar direnak eta, batez ere, hauek dira: helduerara heltzen garenean, fedearen aurkako tentaldian gaudenean, sakramenturen bat errezibitzen dugunean eta norbait hiltzorian aurkitzen denean.

Bi manera ezberdin daude fede ekitaldiak egiteko, bada orokorki egin daitezke, gure erlijioako misterio guztien inguruan, edo partikularki, misterio horietako baten inguruan, esate baterako, Hirutasun Donearen edo Gizakundearen inguruan.

KB1 101.2.2 Fede ekitaldi bat orokorki egiten da, era honetan: Ene Jainko, Elizak sinestu behar dela esaten duen guztia irmoki sinesten dut, Zeuk errebelatu diozulako. Fede ekitaldi bat partikularki, gure erlijioako misterioaren baten inguruan, esate baterako, Hirutasun Donearen inguruan, era honetan egiten da: Ene Jainko, sinesten dut zinez Jainko bakar bat zarela hiru pertsonatan, Aita, Semea eta Espiritu Santua, Eliza santuak proposatzen digulako eta Zeu zarelako errebelatu diozuna. Baita ere, fede ekitaldiak Gizakunde misterioaren inguruan egin daitezke, Aldareko Sakramentu Txit Santuaren inguruan, edo beste edozein misterioaren inguruan.

KB1 101.2.3 Ez da aski bi fede ekitaldi espekulatibo egitea, hots, sinetsi behar diren egiez soilik. Gainera, sarritan, fede praktikoa inguruko ekitaldiak egin behar dira, esan nahi baita, praktikatu behar diren egiez.

Fede ekitaldi praktiko mota hauek egitekotan batez ere Jainkoa iraintzeko tentazioan zaudenean egin behar dituzu, edo egia praktikoa hausteko zorian zaudenean, edo praktikan jartzeko oztopoak edo eragozpenak dituzenean.

Esate baterako, arerioei barkamena emateko oztopoak izaten dituzunean, komeni da esatea: ene Salbatzaile, Jesus, irmoki sinesten dut ez dela arerioei soilik barkamena eman behar, baizik eta maitatu egin behar ditudala, Jainkoari haien alde erregutuz eta on eginez, bada Zeuk esana da eta horrela erakutsi duzu Ebanjelio Santuan.

Èa berean, garbitasunaren aurkako abagunean zaudenean, komeni da esatea: ene Jainko, uste dut ez-garbiek ez dutela Jainkoaren erreinua izango, Zeuk irakatsi diguzulako San Pauloren ahoz.

Honela egin behar dira fede ekitaldiak egia praktiko ororen inguruan, ajeari behar diogun herra betetzeko, ongiaren alde jokatzeko eta bertutean hazteko.

KB1 101.2.4 Ez da derrigorrezkoa egiten ditugun fede ekitaldiak ahoz egitea, non-eta ez dugun lekukotasunen bat eman nahi gure fedea denen aitzinean azaltzeko; aski da bihotzak sortzea eta burutzea, Jainkoari egiten dizkiogulako, eta gure bihotzaren sakonetik hitz egiten diogu.

Fede ekitaldi forma hauek, noizean behin egindakoak, oso eraginkorrak dira eta gure fedeari bulkada emateko balio dute, orobat Jainkoaren maitasuna indartzeko, halaber bertuteekiko afektua mantentzeko, eta gure baitan hazteko. Hau dela-eta sarri askotan egin behar ditugu, eta hauxe da gurasoek bultzatu behar dutena, kontu handiz irakatsi eta arduraz saiatu seme-alabek egunero praktikara eramán dezaten.

KB1 101.3 Hirugarren saila

Liburu Santuetan eta tradizioan ezagunak diren idatzitako eta ez-idatzitako fedezko egiez.

KB1 101.3.1 Bi egia mota daude jainkozko fedez sinetsi behar ditugunak, eta Jainkoak Elizari errebelatuak bezala begiratu behar ditugunak. Batzuk idatzita daudenak dira, eta beste batzuk, tradizioaz soilik ezagutzen ditugunak.

Idatzi diren gauzak eta Jainkoak errebelatuak bezala hartu behar ditugunak, eskuarki, Liburu Santuak deitzen diren liburuetan dauden hitz guztiak dira.

KB1 101.3.2 Tradizioaz baino ezagutzen ez ditugun gauzak Jesusek berak erakutsitakoak dira eta idatzi ez zirenak, baizik eta Apostoluek Jesusen ahoz ikasi baitzituzten, gero haiek ere ahoz predikatu zituzten, eta jarraitzailei utzi zizkieten; eta Elizako artzainek fededunei irakatsi zizkieten, eta transmititzen joan dira hurrenez hurren, mendez mende, gaur arte, Jesusen dotrina gisa.

Badira, baita ere, egin izan diren azalpenak eta, Liburu Santuetako hitzez, Eliz Gurasoen eta Elizako artzainen oniritziak oraindik ere egiten direnak.

KB1 101.3.3 Tradizioak erakusten digu, esate baterako, lau ebanjelio daudela, zazpi sakramentu daudela eta haurrak bataiatu behar direla; bada halako gauzak eta beste asko ere, ez dira Liburu Santuetan irakurtzen.

KB1 101.3.4 Egia asko daude Jesusek tradizioaren bidez soilik utzi dizkigunak; eta San Joanek dioskuna da, idatzi gabe dauden gauza asko egin zituela Jesusek. Eta San Paulok Tesalonikako herritarrei diotse leialtasunez jokatu behar direla, berberak bai ahoz eta bai eskutitzez emandako tradizioekin.

Fedezkoak bezala sinetsi behar ditugu tradizioak irakatsitako gauzak Elizak hala proposatzen dizkiogulako; eta, Jesusek esan zuen bezala, Elizari entzuten ez diona pagano eta publikano gisa hartu behar da.

KB1 101.3.5 Liburu Santuak, beste era batera Biblia deitua, hots, liburuak, bi zatitan banatuta daude. Lehenengo zatia Itun Zaharra deitzen da, eta bigarrena, Itun Berria. Itun Zaharrean lege zaharrean idatzitako liburuak sartzen dira, Moisesen garaitik Jesusen garairaino.

Itun Zaharrean lau liburu mota daude: legearen liburuak, liburu historikoak, jakinduriarako liburuak eta liburu profetikoak.

Legearen liburuak Moisesek idatzi zituenak dira: Genesia, Irteera, Lebitikoa, Zenbakiak eta Deuteronomioa, eta bost liburuok batera bildurik Moisesen Pentateuko deitzen dira.

KB1 101.3.6 Genesiak, jatorria esan nahi du, eta Adanen eta beste sorkari guztien sorkuntza kontatzen du, eta halaber, Adanetik Joseraino izan ziren patriarken egintza nagusiak.

Irteerak, israeldarrek Egiptotik egin zuten irteera miragarria kontatzen du, eta Jainkoak Moisesi Sinai mendian eman zion legearen onarpena.

Lebitikoa sakrifizio eta lebiten inguruko kontaketa egiten du, hauek, lebitak, lege zaharreko sakrifizioen ministroak ziren.

Zenbakiak kontatzen du nola Moisesek eta Aaronek israeldarren artean armak hartzeko gaitasuna zuten israeldar kopuru dezente bat bildu zuten; era berean, kontatzen du israeldarrek egin zutena Sinai menditik irten eta Kanaango lurraldean sartu ziren arterainokoa.

Deuteronomioak errepikapena esan nahi du, eta aurreko hiru liburuetan dauden gazarrik garrantzizkoenak biltzen ditu, batzuk errepikatuz eta beste batzuk laburtuz.

KB1 101.3.7 Liburu historikoek herriko gobernuburuak, erregeak eta epaileak egindako historia eta balentriak kontatzen dituzte eta, era berean, judutarren arteko izen handikoen egintzak.

Liburu historikoak hamazazpi dira: Josueren liburuak, Epaileenak, Rutena, Egerrearen laurak, Paralipomenoen biak, esan nahi baita, Errereen liburuetan esan gabe gelditu direnak, Esdrasen biak, Tobitena, Juditena, Esterrena, Jobena eta Makabearren biak.

KB1 101.3.8 Jakinduriarako liburuak judutarrak bertutera eramateko idatzi ziren liburuak dira. Bost dira: Esaera Zaharrak, Kantarik Ederrena, Kohelet, Ben Sirak eta Jakinduria.

KB1 101.3.9 Profeten liburuek Jainkoak profetei judutarrei gertatuko zitzaizkien gauzen inguruko errebelazioak daukate, batik bat, Mesiasen etorrerari buruzkoak: Hemezortzi dira: Daviden Salmoak, Isaias, Jeremias, Baruk, Ezekiel, Daniel, Oseas, Joel, Amos, Abdias, Jonas, Mikeas, Nahu, Habakuk, Sofonias, Ageo, Zakarias eta Malakias.

KB1 101.3.10 Bibliaren bigarren zatia Itun Berria deitzen da lege berriaren inguruko guztia daukalako, eta lau liburu motarekin osatuta dago: Ebanjelioak, apostoluen historia, apostolu santu batzuen eskutitzak eta profezien liburuak.

Ebanjelioek Jesusen bizitza, mirariak eta irakaspenak narratzen dituzte. Lau dira: San Mateorena, San Markosena, San Lukasena eta San Joanena. Apostoluen historia San Lukasek idatzi zuen Apostoluen Eginak liburuan.

KB1 101.3.11 Apostolu santuen eskutitzek haietako batzuek eman zituzten aholkuak eta irakaspenak dauzkate, idatziz eta beren garaiko fededunei. Bost dira eskutitzak idatzi zituzten apostoluak: San Paulo, Donejakue Gazteena, San Petri, San Joan eta San Judas.

KB1 101.3.12 San Paulok hamalau eskutitz idatzi zituen: bat Erromatarrei, bi Korintiarrei, bat Galaziarrei, bat Efesoarrei, bat Filipinoarrei, bat Kolosarrei, bi Tesalonikarrei, bi Timoteori, Efesoko gotzainari, bat Titori, Kretako gotzainari, bat Filemoni, Kolosako gizon oso inportantea zenari, eta bat Hebrearrei, esan nahi baita, munduan zehar sakabanatutako judutarrei, eta era bereziz Judean zeudenei.

KB1 101.3.13 Donejakuek eskutitz bat bakarra idatzi zuen, garai hartan munduan zehar herri ezberdinetan sakabanatuta zeuden judutarrei zuzendua, eta arrazoi honengatik katolikoa deitzen zaio, hots, unibertuala.

San Petrik bi eskutitz idatzi zituen: lehenengoa Grezian zeuden judutarrei, eta bigarrena fededun guztiei zuzendua.

San Joaneke hiru eskutitz idatzi zituen: lehenengo Partoei, San Agustinek dioen bezala; bigarrena Elekta deitu andere bati; eta hirugarrena bere adiskideetako bati, Kaiori; San Paulok honetaz hitz egiten du Erromatarrei idatzi zien eskutitzean, 16. kapituluaren eta 23. txatanean.

San Judasek eskutitz bakarra idatzi zuen, fededun guztiei zuzendua.

KB1 101.3.14 Itun Berriko profezien liburua Apokalipsia da, San Joaneke idatzia Patmoseko uhartean, erbesteratua zegoela, eta edukia da gertatu behar den garrantzi handikoa Jesusen etorreratik munduaren azkeneraino.

Liburu hauek guztiak Trentoko Kontzilioak aipatu zituen, eta Espiritu Santuak goiargituztat hartu, eta beren baitan jainkozko fedez sinetsi behar ditugun egia guztiak daude.

KB1 101.4 Laugarren saila **Fedezko egien Sinboloa laburtuaz.**

KB1 101.4.1 Kristauek sinesteko eta ezagutzeko duten obligazioa, Apostoluen Sinboloan dago, zeina gure fedearen egia nagusien laburpena den; San Agustinek dioen bezala, Apostoluek tradizio gisa, arau eta fede profesio gisa utzi zuten, fededunek donon sineste berberak edukitzeko.

Dirudienez, apostolu santuek munduan zehar Ebanjelio Santua predikatzeraz joan aurretik egin zuten sinbolo hau.

KB1 101.4.2 Sinbolo hitzak seinalea edo laburpena esan nahi du, zeren errezitatzerakoan egiten den fede profesioak kristauak direnak eta ez direnak bereizteko balio baitu, eta gure erlijio santuko egien laburpena delako.

KB1 101.4.3 Apostoluen Sinboloak hamabi artikulua dauzka, eta hiru atal nagusitan partitu daiteke. Lehenengo atalak lehenengo artikulua jasotzen du, eta Jainko Aita eta munduaren sorrera ditu aztergai. Bigarren atalak hurrengo sei artikulua dauzka, Jainkoaren Semeaz, gizakien erredentzioaz eta azken epaiketaz. Eta hirugarrenak azken bost artikulua jasotzen ditu, Espiritu Santua, Eliza, Espiritu Santuak bizitza honetan ematen dituen graziez eta besterako agintzen duen aintzaz.

KB1 101.4.4 Apostoluen Sinboloa erreztatzea bertan dauden egiak beste fede ekitaldiak egitea da, eta arrazoi honengatik da oso eraginkorra eta oso gomendagarria askotan erreztatzea, eta are gehiago, egunero esatea, ohetik jaikitzerakoan, egunean zehar Jainkoari kristaua bezala bizi nahi dela erakusteko; eta oheratzerakoan, Elizaren fedean hil nahi dela preparametako, lotan hilko bazina.

Hau da San Anbrosiok eta San Agustinek kristauei eta katekumenoiei irakatsi ziena, praktika hau obligazio bat bezala aurkeztu zienean. Ezbairik gabe, arrazoi honengatik agintzen du Elizak kristauek buruz jakin dezaten; eta gurasoek seme-alabei irakasteko obligazioa dute. Apostoluen Sinboloko hitzak hauek dira: Sinesten dut Aita ahalguztiduna, etab.

KB1 102

2. Atala

Jainkoaz eta Jainkozko hiru Pertonez

KB1 102.0.1 Sinetsi behar dugun lehenengo egia eta gure fedearen oinarria dena zera da, Jainko bat dagoela, eta bat bakarra dagoela, eta gainera ezin direla batzuk izan, bada, Santo Tomasek dioenaren arabera, bat bakarra da independente izan daitekeena eta perfekzio bikaina eta subiranoa eduki dezakeena.

Ezin dugu biziki ongi ezagutu Jainkoa ezta Jainkoa zer denik ere, bada pentsa dezakegunaren gainetik eta gure hitzez adierazi dezakegunaren gainetik dago. Esan dezakegun guztia zera da, espiritu izugarri perfektua dela, hots, perfekzio mota guztiak dauzkala, berez infinituak direnak. Hau da Liburu Santuek eskaintzen diguten ideia.

KB1 102.0.2 Jainkoari soilik dagokio berez izatea, eta sorkari guztiek daukaten izaera eta bizia Jainkoaren menpean dago. Jainkoak sortu ditu denak, denak kontserbatzen ditu, eta Jainkoa da egunetik egunera eta hurrenez hurren sortzen diren guztiei izaera, bizia eta mugimendua ematen dizkiena.

KB1 102.2.3 Ikusten ditugun gauza guztiak bata bestearen atzetik gertatzen dira eta aldakorak dira eta ustelkeriak jota daude. Jainkoa da aldatzen ez dena, eta haren izaera eta jokaera beti bera da. Sorkariak, halaber, izaten hasi dira; baina Jainkoa betierekoa da, hasierarik izan ez duelako eta amaierarik gabekoa delako. Alde guztietan dago eta zero-lurra betetzen du.

KB1 102.2.4 Nahiz eta Jainkoak ezagutu argi eta garbi munduan gertatzen den guztia, nahiz eta alde guztietan egon, eta gauza guztietan dagoen bere izaera propioaz, guk, alabaina, ezin dugu ikusi gure begioz, ez duelako gorputzik eta ez delako ez materialik eta ez sentigarririk, izan ere gure begiok ikus dezaketena gure zentzumen-munduko gauzak dira, besterik gabe.

KB1 102.2.5 Jainkoak dena zuzentzen eta kontrolatzen du manera harrigarri batez eta jakinduri handiaz; hain da ona, berak sortutako sorkari guztiak zaintzen ditu; hain da zuzena, gutako bakoitzari merezi duguna ematen digu; eta hain da ahalguztiduna, nahi duen oro egin dezake, eta izatez nahi duen oro egiten du, beraz, ez ezerk eta ez inork ezin dio uko egin haren nahiri.

KB1 102.2.6 Jainkoa berez bat eta bakarra baita, alabaina Jainkoagan hiru pertsona daude: Aita, Semea eta Espiritu Santua. Lehenengo pertsonari Aita deitzen diogu, betidanik sortu duelako Semea. Bigarrena Semea deitzen da, Aitak sortu duelako. Eta hirugarren pertsona Espiritu Santua da Aita eta Semearengandik bereizteko, ez baitauka izen partikularrik, bada ezin da esan nola datorren Espiritu Santua ez Aitarengandik eta ez Semearengandik.

KB1 102.2.7 Hiru pertsona hauek oso ezberdinak dira, bada Aita ez da Semea, eta Semea ez da Espiritu Santua. Baina ez daude bananduta, bada hirurek naturaleza bera daukate eta perfekzio berberak. Aitaren boterea Semearena da, eta Semearen borondatea Espiritu Santuarena da. Jakinduria, ontasuna eta zuzentasuna berberak dira hiru pertsonotan. Horregatik, Jainkoak sorkarrietan egiten duena beragandik at, hiru pertsonok egiten dute.

Baina ez da gauza bera gertatzen Jainkoak bere baitan egiten duenean: Aitak bakarrik sortzen du Semea, eta Aitak eta Semeak bakarrik sortzen dute Espiritu Santua, bada Jainkoaren operazioak eta egikerak hasiera berezkoa dutenen pertsona partikular eta propioenak dira, besteez honetan esku hartzerik ez dutelarik.

KB1 102.2.8 Aitak Semea sortzen du bere burua ezagutzuz ezagutza horren terminoa sortzen duelako, bere espresio bera dena, eta Jainkoa bera Hura bezala. Aitak eta Semeak Espiritu Santua sortzen dute, bada elkar maitatuz beraien maitasunaren helburua sortzen dute, hots, Espiritu Santuaren pertsona. Jainkoaenez Aitaren eta Semearen maitasunaren helburua, Espiritu Santua Aita eta Semea diren Jainkoa bera da.

Nahiz eta Aitak Semea sortu eta Aitak eta Semeak Espiritu Santua, inor ez da bestea baino lehenagokoa, eta hirurak dira betierekoak. Alabaina, betiereko bat bakarrik dago, zeren hiru pertsonok ez baitira hiru jainko, baizik eta Jainko bat soilik.

KB1 102.2.9 Ezin da adierazi jainkozko hiru pertsonok zer diren, ezta irudikatu ere; eta baldin batzuetan Betiereko Aita agure bat bezala irudikatzen bada, Itun Zaharrean Danieli halatsu agertu zitzaiolako da. Semea hogeita hamar urteko gizona bezala irudikatzen bada, gizona egin zelako egiten da, munduari agertu zitzaiolako, eta urte horiekin hil zelako. Eta Espiritu Santua uso baten itxurarekin irudikatzen bada, Gure Jaunaren bataioan forma hori hartu zuelako egiten da.

KB1 103

Hirugarren atala Munduaren sorreraz

KB1 103.0.1 Jainkoak gauza guztiak kreatu zituen ezerezetik sortuz bere guztiahaltasuna dela medio; hitz bat besterik ez zuen behar izan sorkari guztiak sortzeko. Ziurtasunez eman ziezaikeen izaera une batean, baina bere jakinduria agerian uzteko eta orobat bere boterea halako obra neurrigabeen, mundua sei egunetan egin zuen.

KB1 103.0.2 Lehenengo egunean, Jainkoak argia egin zuen. Bigarren egunean, zerua eta lurra egin zituen. Hirugarren egunean, itsasoa eta lurra bereizi zituen eta lurretik belarrak, zuhaitzak eta landare guztiak sorrarazi zituen. Laugarren egunean, eguzkia egin zuen, eta ilargia eta izarrak. Bosgarren egunean, arrainak eta hegaztiak egin zituen. Seigarren egunean, lurretik beste piztiak sorrarazi zituen, eta ondoren gizakia egin zuen bakarka, aurretik egin zituen animalia guztiaren ganean agintea izateko. Zazpigarren egunean, Jainkoak atsedena hartu zuen, hots, ez zituen sorkari gehiago egin.

KB1 103.0.3 Jainkoak sortu eta egin zituen sorkaririk ederrenak eta garrantzitsuenak aingeruak eta gizakiak izan ziren, eta hain juxtu haientzat egin zituen gauza guztiak.

Hasiera liburuan ez da aingeruen sorreraz hitz egiten. Alabaina, San Agustinekin dio lehenengo egunean sortuak izan zirela, Jainkoak argia sor zedila esan zuenean, eta zalantzarik ez dago denak Zeruan sortuak izan zirela.

KB1 103.0.4 Aingeruak gorputzik ez duten espirituak dira, eta erabat bananduta daude materiatik. Inoiz edo behin gizakiei gorputzarekin agertu bazitzairen, itxurazko gorputza baino ez zen izan.

Aingeruak deitzen ditugu, hots, mezulariak edo enbaxadoreak, askotan gizakiei Jainkoaren nahia ezagutzera emateko erabiliak izan direlako.

KB1 103.0.5 Den-denek grazia jaso zuten beren kreazioaren unean, baina denek ez zuten kontserbatu: espiritu horietako kopuru dezente bat bekatuan erori zen Jainkoari laudorioak eskaini beharrean, horregatik beren harrokeria eta norberaren gehiegizko gozamina zirela medio, bat-batean infernuetara amildu zituzten. Jainkoarekin leialtasunez jokatu zirenei dagokienez eta grazian iraun zirenen inguruan, grazian konfirmatuak izan ziren, eta Zeruan iraun zuten, amaigabeko zorianaz gozatzen dutelarik betiko.

KB1 103.0.6 Zorioneko espiritu hauetako batzuk Jainkoaren jargoiaren aitzinean daude beti, beren omenaldiak eta gurtza eskaintzeko, eta beste batzuk daude Jainkoagandik gizakiak gobernatzeko agindua hartu dutenak, beren salbamina erdiesteko; arrazoi hau dela-eta aingeru zaintzaileak deitzen ditugu. Izan diren, orain diren edo gero izango diren gizakietako bakoitzak, munduaren hasieratik amaiera arte, dio San Jeronimok, du edo izango du hauetako aingeruren bat, zaintzeko.

KB1 103.0.7 Aingeru bihurriak, hots, deabruak edo txerrenak, okupazio erabat aurkakoa dute, bada gizakiak tentatzen saiatzen dira, eta San Petrik dioen bezala, beti daude gizakien inguruan bekatura lerratzeko, zoritxarrekoak egiteko asmoz, beraiekin.

KB1 103.0.8 Aingeru zaintzaileak, nahiz eta ez egon Zeruan, beti ikusten dute Jainkoa; eta alderantziz, lurrean dauden deabruak eta gizakiak tentatzen dituztenak infernuan bezala dira zigortuak eta zorroztasunez tormentatuak.

KB1 103.0.9 Gizakiari dagokionez, arrazoi duen sorkari bat da, gorputz eta arima duena, Jainkoaren irudira egina.

Bere lehenengo eta garrantzizko zeregina Jainkoa ezagutzea eta maitatzea da, bada horretarako soilik dago mundu honetan. Eta honetan ere Jainkoaren irudia da, eta

Haren antzeko izan behar du bizitza honetan; are eta antz handiagoa hartu Zeruan, den bezala ikusiz eta beti-betiko maitatuz.

KB1 103.0.10 Lehenengo gizona Adan izan zen, eta haren gorputza lurreko buztimez formatua izan zen. Lehenengo emakumea Eva izan zen, eta Jainkoak haren gorputza Adanen saihets batetik formatu zuen, adierazteko biek ala biek banandu ezinezko batasuna behar zutelako izan, emakumearen gorputza gizonaren gorputzetik formatua izan zenez gero.

KB1 103.0.11 Adan eta Eva grazia oparoz sortuak izan ziren, eta honek egia erraztasunez ezagutu eta praktika zezaketen, inolako oztoporik gabe. Sortuak izan ziren egoera honi jatorrizko justizia deitzen diogu, eta Jainkoaren aitzinean justu eta santuak egiten zien. Haien gorputzek ez zituzten ez gaixotasunak eta ez minak jasaten, eta sorkari guztien gaineko agintea zuten, haiek Jainkoaren agintepean zeudelako. Ez zatekeen hilko halako egoera zorionekoan iraun izan baziren, eta biziko ziren lekutik beretik Zerura igoko ziratekeen.

Jainkoak, gizon eta emakumeok sortu ondoren atsegina zen baratze benetan atsegin batean jarri zituen, zeina, arrazoi honengatik, zoragarriko paradisia deitu baitzion.

KB1 103.0.12 Aldi berean maita eta zerbi zezaten agindu zien, eta baratzea zaintzeko; baina gauza bat galarazi zien, betiko heriotzaren mehatxua eginez, alegia, ongiaren eta gaizkiaren zientziaren zuhaitzeko fruitutik ez jateko. Ez delako fruitua txarra zelako, baizik haien leialtasuna frogatzeko soilik.

Alabaina, deabruak suge baten forma hartu eta Eva tentatu zuen eta honek bere senarra, orduan Adanek Jainkoari desobeditu zion eta Jainkoak jatea debekatu zion fruitutik jan zuen.

Halako orden gabezia erori bazen harrokeriatik izan zen, eta bere emazteari amore emateko, zeinak fruitua jatera eraman baitzuen. Jainkoak Adan zigortu zuen bekatu honengatik eta paradisu horretatik egotzi zuen, emaztea eta seme-alabak bizitza honetako penetara kondenatu zituelarik, eta orobat heriotzara. Emakumeari haurrak min ez erdituko zituela esan zion, senarra bultzatu herra egitera bultzatu zuelako.

KB1 103.0.13 Une hartan gizakia zorigaitzoko egin zen, Jainkoaren maitasuna eta grazia baztertu zituelako, bizitza honetan benetako zoriona ematen dutenak direlarik, jakina.

Adanen bekatuak mundu honetan sorrarazten dizkigun gaitzik nabarmenenak dira: batetik, ez dugu Jainkoa ezagutzen, ezta gu edo gure betebeharrak ere; bestetik, ez dugu jarrera egokirik Jainkoak agintzen diguna burutzeko, debekatzen digun gaizkia egiteko joera dugu, eta orobat gorputzeko min eta miseria guztiak jasan behar ditugu.

KB1 103.0.14 Pairamen hauen guztien kausa zera da, Adanek bekatua egin zuelako, gu guztiok jaiotzen gara bekatuarekin; eta denok Adanengan egin dugun bekatu hau jatorrizko bekatua deitzen da, sortu eta jaiotze unean berean kutsatzen garelako, nahiz eta ez dakigun eta ezin dugun adierazi nola gertatzen den.

**KB1 104.1 Lehenengo saila
Jainkoaren Semea gizon eginaz.**

KB1 104.1.1 Jainkoak ez zuen gizakia bere bekatuan laga, aingeru gaiztoekin gertatu zen bezala, eta haiekin justizia aplikatu ondoren, Adanekin eta honen ondorengoekin errukitu zen, bere Seme propioa bidaliz bekatuaren esklabutzatik erabat libratzeko, nahiz eta ez zuten merezi eta jakin arren askok bere ondasunez eta graziez abusatuko zutela.

KB1 104.1.2 Jainkoaren Semea mundu honetara etorri zenean gizon egin zen, bere pertsonari giza izaera lotuz substantziaren batasuna. Aita eta Espiritu Santua ez ziren gizon egin, Semea soilik baizik, eta kondizio honetan Jesus deitzen da, edo Hitza Gizon egina. Aldi berean da Jainko eta gizon, berez daukalako jainkozko izaera eta beraz honi esker da Jainko, eta bere izaerari itsatsi dio giza izaera, eta honi esker da gizon.

KB1 104.1.3 Jesusengan bi izaera dauden arren, pertsona bakarra dago, Jainkoaren Semea, Hirutasun Donearen bigarren pertsona.

Bere jainkozko izaera dela-eta, Jesus bere Aita bezalakoa da, eta bere giza izaera dela-eta, garai zehatz batean jaio da, eta bere Aita hura baino nagusiagoa da. Lurrean bizi izan zen bitartean beste gizaki guztien antzekoa izan zen, ez ordea ezjakintasunean, ez gaizkiari eta bekatuari dagokionean, noski; ez zuen bekatuak egin, ezta jatorrizko bekatua deitzen duguna ere.

KB1 104.1.4 Jainkoaren Semea mundu honetara etorri zenean, Espiritu Santuak formatu zuen haren gorputza instante batean, Birjina Txit Santuaren odolik garbienaz, eta aldi berean haren arima sortu zuena, eta formatu zuen gorputzari erantsi ziona, eta une horretan berean Jainkoaren Semea lotu zitzaizen bieie ala bieie. Era honetan gauzatu zen Gizakundearen misterioa, zeina Jesusen gorputz eta arima Semearen pertsonarekin uztartzea baita.

KB1 104.1.5 Espiritu Santuak Jesusen gorputza formatu zuela esaten denean eta orobat haren arima eta gorputz eta arima horiek Semearen pertsonari lotu zizkiola, ez du esan nahi Aitak eta Semeak ez dutela esku hartu egintza horretan, Espiritu Santuak esku hartu duen moduan; bada misterio hori jainkozko hiru Pertsonen elkarrekin egin zuten, Jainkoaren operazioa delako beragandik at. Baina Espiritu Santuak egintza hori egin zuela esaten da, zeren, Jainkoaren gizakiekiko maitasunaren efektua izanik, Espiritu Santuari leporatzen diogu, Aitaren eta Semearen oinarrizko maitasuna baita.

KB1 104.1.6 Jesusek, Jainkoa den aldetik, aita bat du, eta Betiereko Aita da, hasieratik sortu duena; baina gizona den aldetik ez du aitarik; ama bat besterik ez du, Birjina Txit Santua, sabelean eraman ondoren erditu zuena. San Josef ez zen aita izan nahiz eta Ebanjelio Santuan halatsu izendatzen zaion; bizitzan zehar aita nutrizioa soilik izan zen, eta haren zaintza izan zuena.

KB1 104.1.7 Birjina Txit Santua egiaz da Jesusen ama hark ernalduta eta erditu zuelako; era berean da egiaz Jainkoaren ama, ez dibinitatea sortu duelako, baizik eta Jesusen

gorputza sortu duenez, eta hau Jainkoaren Semeari lotuta dagoen, eta orobat Jainkoa baita, egiaz da gizona eta Jainkoa denaren ama. Aldi berean ama eta birjina izateko pribilejioa izan zuen, eta beti birjina iraun zuen, eta edonolako bekatutik libre.

KB1 104.2 Bigarren saila
Jesusen jaiotzaz eta bataiatu arte egin zituen egintza printzipalenez.

KB1 104.2.1 Jesus Augustoren inperioaren garaian jaio zen, negu gorrian, gauerdian, Belen hiritik gertu zegoen korta batean. Jaio eta handik zortzi bat egunera erdaindu zuten, eta egun horretantxe Birjina Txit Santuak eta Josefek, aingeru baten bidez Jainkoagandik jaso zuten aginduaren arabera, Jesus jarri zioten izen, salbatzaile esan nahi duena, gizakiak salbatzera eta bekatutik bezala infernutik ere libratzera etorri zelako, bere bizia emanaz gurutze batean.

KB1 104.2.2 Jesusen izenari Kristo gehitu behar diogu, eta sagaratua edo gantzutua esan nahi du, ez ordea fisikoki sagaratua izan zelako, baizik eta Espiritu Santuaren grazia guztiekin jantzia izan zelako.

Jesusi, baita ere, Gure Jauna deitzen diogu, kristau guztien gaineko eskubide partikularra duelako, bere odolaren prezioaz berrerosi baitzituen.

KB1 104.2.3 Jesus erdaindua izan eta handik egun gutxi batzuetara, hiru magok Jainko eta errege gisa errekonozitu zuten, Ekialdetik propio etorri baitziren adoratzeko asmoz. Jaio eta berrogei egun geroago, Birjina Txit Santuak eta San Josefek Jerusalemgo Jauretsera eraman zuten Jainkoari aurkezteko, judutarren legean ezarrita bezala, premua zelako. Aldi berean, Birjina Txit Santuak garbikuntza-legea bete zuen eta orobat bere semearen eta beraren aldetik legeak agintzen zuena eskaini zuen; nahiz eta bietako inor ez zegoen behartuta legeak zioena betetzera.

KB1 104.2.4 Handik denbora pixka batera, San Josefek, aingeruaren bitartez, Egiptora ihes egiteko agindua jaso zuen, eta Jesus Birjina Txit Santuarekin, bere amarekin, batera eramateko, Herodes erregeren jazarkundea saihesteko, zeinak, magoei entzun ondoren judutarren errege jaio zela, eta Lege Maisuen ahotik jakinda Belenen jaiotzekoa zela, Jesus aurki zezatela agindu zuen harekin akabatzeke, eta Belengo eta inguruko haur guztiak, bi urtetik beherakoak, akabatzea agindu zuen.

KB1 104.2.5 Aingeru batek San Josefi Herodes hila zela jada esan zionean, Judeara itzuli zen, eta Nazaretera joan zen bizitzera, hara Jesus haurra eraman zuen; honengatik Nazaretarra deitu zioten aurrerantzean, Nazaretetako zeukaten eta.

KB1 104.2.6 Ebanjelioek ez digute beste ezer garrantzizkorik esaten Jesusi buruz hogeita hamar urte bete zituen arte, gauza bakarra da hamabi urte zituela gurasoek Jerusalemara eraman zutela Pazkoa ospatzera, judutarren ohitura zenez; eta jaia erabat amaitu zenean, Jesusen gurasoak bidean jarri ziren itzultzeko; baina hura Jerusalemen gelditu zen gurasoek jakin gabe. Ondoren, gurasoek, haiekin ez zetorrela ikusita, egun oso bat eman zuten bila eta bila, baina alferrik; horregatik Jerusalemara itzuli ziren eta Jauretsean aurkitu zuten, adituen inguruan eserita, entzunez eta aldi berean hainbat galdera eginez; harri eta zur gelditzen ziren ez baitzekiten nondik zetorkion mutikoari hainbeste jakinduria eta zuhurtzia.

KB1 104.2.7 Jesusek hogeita hamar urte bete zituenean Jordan ibairantz abiatu zen, hots, San Joanek bataia zezan. Aldi berean, Espiritu Santua gainean pausatu zitzaion uso baten antzera, eta Betiereko Aitak Jesusi bere Seme kuttuna zela esan zion ozen eta grabe zeru-goienetik.

Bat-batean Espiritu Santuak Jesus basamortura eraman zuen, eta berrogei gau eta berrogei egun barau egin zuen, jan eta edan barik, lurrean etzaten zelarik. Jesusen jan eta edate uzte hau oroitzeko, Elizak Garizumako baraua ezarri du.

KB1 104.2.8 Beste batean, hiru aldiz tentatu zuen txerrenak, tentazioei beldur ez izateko eta datozenean eutsi egin behar diegula guri irakasteko. Basamortuan egindako erretiro honen bidez preparatu zen Jesus Ebanjelioa aldarrikatzeko, eta manera honetan Judeako bazter guztietan ibili zen hiru urtetan predikatzen, bataiatu zenetik hil zuten arte.

KB1 104.3 Hirugarren saila
Apostoluen bokazioaz eta misioaz, predikazioez, Jesusen mirariez eta biziera txiroaz.

KB1 104.3.1 Jesus gizakiei lege berria ekartzera etorri zen, eta hogeita hamar urte behar izan zituen preparatu eta aldarrikatzeko; basamortua utzi bezain azkar hamabi jarraitzaile aukeratu zituen eta apostolu deitu zien, hots, bidaliak, Berarekin Ebanjelioa aldarrikatzeko nahi zituelako, gizaki guztiei lege berria hots egiteko, alegia.

KB1 104.3.2 Hamabi apostoluak hauek izan ziren: Simon, Petri deitua, eta Andres, honen anaia; Donejakue eta Joan, Zebedeoren semeak; Felipe eta Bartolome; Mateo eta Tomas; Donejakue, Alfeoren semea; Judas edo Tadeo, eta honen anaia, Simon Kananearra, eta Judas Iskariote, Jesus traditu zuena.

KB1 104.3.3 Jesusek aukeratu zituen lehenengoak Simon eta honen anaia Andres izan ziren; Zebedeoren semeak, Donejakue eta Joan, egun berean deitu zituen, eta Felipe, hurrengo egunean. Den-dena utzita deitu ahala jarraitu zitzaizkion.

Denbora pixka bat geroago, zergen bulegotik igarotzen ari zela, Mateo publikanoari, hots, zergen biltzaileari deitu eta jarraitzeko esan zion, honek, bat-batean, dena laga eta jarraiki zion; pixka bat geroago Jesusi eta honen jarraitzaileei otoruntza eskaini zien, publikano askori luzatu zien gonbidapena, baina Jesusek hain atsegina ez zuen konpainia duintasunez jasan zuen, berak esana zuen bezala, bekataria konbertitu eta penitentzia egin zezaten etorri zelako.

Era berean deitu zien beste apostoluei. Gero hiriz hiri eta herriz herri igorri zituen predikatzen, eta Bera ere joan zen.

KB1 104.3.4 Hiru urtetan Judea osoa zeharkatu zuen herriak eskolatzeko, apostoluak ez ezik, beste hirurogeita hamabi jarraitzaile, berarekin eraman zituelarik; hauek binaka bidali zituen Berak joan behar zuen herrietara, jendeak egin behar zituen irakaspen guztiak ongi uler zituzten.

Edonon eta edonoiz mirari asko egiten zituen, aldarrikatzen zuen dotrina egiaztatzeko, gaixoei osasuna emanez eta itsuei ikusmena; errenak zuzendu eta elbarriak

osatuz. Hiru hildako ere piztu zituen: Nain alargunaren semea, Kafarnaumgo sinagogako nagusiaren alaba eta Lazaro, Magdalako Mariaren eta Martaren anaia. Mirari hauetan guztietan helburu bakarra arimen salbamena zen; hauei bekatuak barkatzen zizkien gorputzeko gaixotasuna sendatzen zien bitartean, eta berriro bekaturik ez egiteko gomendioa ematen zien.

KB1 104.3.5 Judeako leku guztietatik, baita Siriatik ere, edozein gaixotasun larri pairatzen zituztenak, esan nahi baita, deabrutuak, ilargi-joak eta elbarriak ekartzen zizkieten, eta denak sendatzen zituen. Hainbeste mirari egiten zituen, Galileako, Dekapoliseko, Jerusalemgo eta Jordan ibaiaren haraindiko jende asko eta asko etortzen zitzaion sendatu nahiz.

KB1 104.3.6 Jende hura guztia eskolatzen ematen zuen denbora eta orobat dotrina berria irakasten, hitzaldien bidez jakinaraziz zenbatenez hobea den lege berria lege zaharra baino, zertara behartuak zeuden eta zer-nolako perfekzioa eskatzen zien.

Jende hura hain gelditu zen liluratuta eta txundituta Jesusen dotrinarekin, bost bat mila pertsona, emakumeak eta haurrak kontatu gabe, jarraiki eta lagundu zioten hiruro egunetan, mokadurik hartu gabe eta horregatik kezkatu gabe; jarrera honek eraman zuen Jesus mirari bat egitera jende hura elikatzeko, bost ogi biderkatuz, denak ase gelditu zirelarik; baina pobre baitzen, pobre elikatu zituen, garagarrezko ogia emanaz arrain pixka batekin.

KB1 104.3.7 Nahiz eta Jesusek nahi izanez gero denetik eduki zezakeen, hala ere, beti bizi izan zen era txiroan; honela dakigu sarritan ez zuela zer jan eta zer edan, eta ez zuela etxerik atsedena hartzeko. Hamabi apostoluak, ia denak jatorri apalekoak, bera baino aberatsagoak egin ez eta berak pairatu zuen pobrezia bera pairazi zien, galsoroetan galburuak jancez.

KB1 104.3.8 Abagune batzuetan zein estimu gutxitan zituen aberatsak erakutsi zuen eta zenbat maite zituen pobreak; eta hau guztia denen agerian uzteko halaberrezko gauza gisa hartu zuen ehuntari baten etxera joatea honen morroia sendatzera, eta ez zuen joan nahi izan gorteko gizon baten etxera, honek arren eta arren eskatu zion arren, Kafarnaumen zuen semea sendatzera. Orobat, arrazoi honengatik proposatu zuen Epulon aberatsaren parabola, eta ezagutzera eman zuen, pairatzen zituen oinazeak zirela-eta, zein zoritxarrekoak izango diren infernuan aberastasunekin bat eginda daudenak; eta zein zorionekoak izango diren Zeruan, eta halaber kontsolamenduz beteak, Jainkoaren maitasunagatik pazientziatzat pairatu duten pobreak bizitza honetako lazeriak.

KB1 104.3.9 Jesusek Ebanjelioa aldarrikatzen zuen bitartean, hil baino urte bat lehenago, erakutsi nahi izan zuen zein handia zen bere gizatasun santuak gozatzen zuen aintza, bada haren gorputza, nahiz eta hilkorra, beti izan zen, sortua izan zen unetik beretik, orain Zeruan den bezain aintzagarria, nahiz eta bere aintzaren distira ez erakutsi inoiz denen agirian. Horretarako, mendi garai batera erretiratu zuen bere jarraitzaileetako hirurekin, Petri, Donejakue eta Joan; eta otoitzean ari zela haien aitzinean antzaldatu zen, aurpegia eguzkia bezain distiratsua bilakatu zitzaiolarik, eta jantziak elurra bezain zuriak. Bat-batean, hiruro jarraitzaileek Moises eta Elias ikusi zituzten agertzen manera aintzatsuan, Jesusi gertatu behar zitzaionaz solasean eta Jerusalemen nozitu behar zuenaz. Petrik, zur eta lur gertatzen ari zenaz, Jesusi hantxe gelditu nahi zuela esan zion,

eta Jesusek horretarako baimena ematen bazion, hiru denda eraikiko zituela, bat Berarentzat, bestea Moisesentzat eta hirugarrena Eliasantzat.

KB1 104.3.10 Petri hizketan ari zela, Jesus, Moises eta Elias argi handiko hodei batean bilduta gelditu ziren, eta hodeiaren barrualdetik ahots bat entzun zuen honela zioena: *Hau da nire Seme kuttuna, horrengan soilik dut atsegina: entzuiozue*. Hiru jarraitzaileak hain izuturik gelditu ziren, ahozpe erori ziren lurrera. Berehala Jesusek altxatzeko agindu zien, eta Hura bakarrik ikusi zuten. Harekin menditik beherantz zihozela ikusi zutenaz mintzatzea debekatu zien piztu ondoren arte.

Jesusen antzaldatze hau hiru apostolu hauen aitzinean gertatu zen misterio honen lekukotasuna eman ahal izateko, honela bermatu nahi izan zien bera piztuko zela, eta haien gorputzak ere egunen batean era berean piztuko zirela zoriekoak izango ziren guztiakin batera

KB1 104.4 Laugarren saila
Jesusek konbertitu zituen garrantziko pertsonez.

KB1 104.4.1 Jesusek, bere bizitza santuan emandako etsenpluz eta egindako predikazioez, jarraitzaile asko ekarri zituen beragana eta arima anitz eraman zituen Jainkoagana. Konbertitu zituen garrantziko pertsonen artean Samariarra dago, Magdalako Maria, emakume adulteriogile bat eta Zakeo, publikanoren buruzagia.

KB1 104.4.2 Samariarra ohaidegoan bizi zen emakume bat zen. Jesusek, hura ura ateratzera joaten zen ur putzu batean eserita, bere bizitzako txarkeria guztiak jakinarazi zizkion; eta emakumeak ura atera behar zuela-eta graziazko uraz hitz egiteko abagunea aprobetxatu zuen, hainbeste behar zuen uraz, azkenean atseginez hartu zuen Jesusek esandakoa. Hau guztia ez zen alferrikako izan, efekturik izan zuen, bada emakumeak oso pozik jaso zuen Jesusek esandakoa eta berehala joan zen Sikar herriko guztiengana, esanez Jesus ikustera joateko. Hala egin zuten, eta herrian sar zedila eskatu zioten, eta eskolatu zitza. Eta hain ongi jaso zuten Jesusek irakatsi ziena, esan zuten ez zutela jada sinesten emakumeak esandakoagatik, baizik eta haiek ikusi eta entzun zutenagatik.

KB1 104.4.3 Magdalako Maria izan zen Jesusek konbertitu zuen garrantziko bigarren pertsona; hau nahiz eta Betania hiriko andere gailena izan, bazen, dena den, bekatarari publikoa eta hala bezala ezaguna. Baina bihotz-min izugarri batez damutu zitzaion egindako bekatu guztiaz, eta Jesusekin topo egitera atera zen, Simon fariseuaren etxean jateko asmoa baitzuen, eta leku bertsuan bizi zen. Oinetara makurtuz, negar malkoez busti zuen, eta ile adatsez xukatu, gero baso bat alabastro hustu zion, baltsamu usaingarriz bete, alegia. Fariseu hark ez zuen begi onez ikusi bekatarari batek hala tratatzea; baina Jesusek esan zion bekatarari hari bekatu asko barkatu zizkiola, asko maite izan zuelako. Gero gazte hari bakean joateko esan zion, eta hoben guztiak barkatuak zituela.

KB1 104.4.4 Jesusek otzantasun harrigarriaz Jainkoagana eraman zuen hirugarren pertsona, bekatu gehiagorik ez egiteko esanez, emakume adulteriogilea izan zen. Judutar batzuek Jesusengana eraman zuten eta ondoren zer egin behar zuten galdetu, izan ere legearen arabera harrika egin behar zioten. Jesusek bat-batean ihardetsi zien, esanez beraien artean norbait bazegoen bekatu egin gabekorik lehenengo harria botatzeko; eta haietako inork ez baitzuen harririk bota, emakumea bakarrik utzi zuten,

Jesusekin, eta honek ez zuen kondenatu nahi izan, ezta akusatzaileetako inork ere, aitzitik, bizitzeko manera aldatzeko esanez animatu zuen.

KB1 104.4.5 Era berean, Jesusek Zakeoren, publikanoren buruzagi baten, bihotza ukitu zuen, eta hola egin zuen. Jesus Jerikoko hiria zeharkatzen ari zela, gizon honek, txikia bai baina ikusi nahi baitzuen, jendetzak eragozten zionez basapiku batera igo zen, Jesusek iragan behar zuen leku batean. Jesusek ikusita, berehala jaisteko esan zion, haren etxean ostatu hartu nahi zuela-eta. Zakeok atsegin handiz hartu zuen Jesus bere etxean, eta bere ondasunen erdia behartsuei emango ziela esan zion, eta norbaiti dirua ebatsi bazion, ebatsitakoa baino lau aldiz gehiago itzuliko ziola. Jesusek, orduan, salbamena bere etxean sartuta zegoela jakinarazi zion, eta harekin jan nahi izan zuen, jarrera hura zenbat eskertzen zion erakustearren.

KB1 104.5 Bosgarren saila
Fariseuek Jesusi zioten gorrotoaz eta Jesusek sentitzen zuen haiekiko ezinikusiaz.

KB1 104.5.1 Batetik prediku hunkigarriek, konta ezinezko mirariak eta Jesusen bizitza txit santuak lortzen bazuten mundu guztiaren estimua eta jarraipena, bestetik fariseuek, judutarren artean jakitunenak eta garrantzizkoenak, gorrotoa erakutsi eta eraso egiten zioten. Hauek ahaleginak eta bost egiten zuten irabazita zeukan sona kentzeko, legea betetzen ez zuela esanez, sendatu eta mirariak zapatuan egiten zituelako. Era berean bizpahiru aldiz ezustean harrapatu nahi izan zuten, galdetu ziotenean ea permititua zegoen Zesarri zerga ordaintzea edo zein izango zen zeruan zazpi senar eduki zituen emakumearen senarra, zein zen legeko manaturik handiena, edo Joanen bataioa Jainkoagandik zetorren. Baina Jesusk beti halako jakituriaz ihardetsi zien nahastu egin zituen eta ez ziren galdera gehiago egitera ausartzen.

KB1 104.5.2 Jesusek fariseuei ezinikusia eta gaitzidura bazien, haien harrokeria eta sasi jaiaragatik izan zen, mundu guztia seduzitzen zuelako halako portaeraz. Hau abagune askotan jakinarazi zien. Adibidez, Simon fariseuaren etxean bazkaltzen ari zelako hartan bere pertsonari eduki zion begirune gutxi leporatu zionean, eta Magdalako Mariaren lekukotasuna agerian jarri zionean, haren maitasun itzela eta benetako konbertsioa, erakutsi ziolarik; harengatik sentitzen zuen estimua eta bekatuak barkatuz eman zion graziaz; eta nola, haren espirituan eta bihotzean, aurre hartzen ziola fariseuari, nahiz eta honek bekatari gisa begiratzen zuen, Jesusekin egoteko duintasunik gabea, eta honek nola permititzen zion beragandik hain hurbil egotea.

KB1 104.5.3 Orobat, fariseuei erakusteko zenbatekoa zen haiekiko sentitzen zuen ezinikusia, fariseuaren eta publikanoaren parabola proposatu zien; parabola honetan biak ala biak ari ziren jauretxean erreztatzen; haietako lehenak Jainkoaren iraina ekarri zuen beragana, harroa zelako, baina bestea justifikatua izan zen apaltasunean otoitzi egiten eta bere bekatuengatik kontrizioa erakusten zuelako.

KB1 104.5.4 Halaber, haiekiko zuen ezinikusia denen agirian uzteko, hamaika aldiz kondenatu zituen, eta honela ikus dezakegu San Lukasen 11. kapituluaren eta San Mateoren 23.ean; bertan zorrotzasunez egiten die errieta hipokresiaz jarduten zutelako, eta gizakien aitzinean pertsona onak bezala azaldu nahi zutelako, legeak agintzen zituen gutxieneko praktikak eginez, kontuan hartu gabe Jainkoari atsegin zitzaiatzion edo ez eta gogoan izan gabe bihotz garbiaz eginak ziren, arima erabateko lizunkeriaz eta lapurretaz

zutelarik. Horregatik, abagune batzuetan, Jesusek hilobi zirituak baino ez zirela esan zien, alegia, gizakien begien aitzinean itxura onekoak, baina barrutik ustelak eta hildako hezurrez beteak.

KB1 104.5.5 Gauzak hala, hauek edozein aukera aurkitu nahi izaten zuten harrapatu eta heriotzara kondenatzeko, hain zen handia-eta leporatzen zien bekatua, hipokresia eta itxurakeria. Baina Jesusek ez zituen kontuan hartzen haien egitasmoak, bazekielako ezingo zirela aitzineratu Aitak jarritako orduari. Bestalde, fariseuak ez ziren ausartzen egun argiz egitera burutu nahi zutena, herriari beldur ziotelako, Jesus eta honen dotrina maitatzeaz gain estimu handitan baitzuten.

KB1 104.6 Seigarren saila Jesusek Jerusalemen egin sarreraz eta Afariaz.

KB1 104.6.1 Fariseuen gogorkeria muturreraino iritsi zen eta Jesusen aurkako gorrotoa mugagabea zen; iristear zegoen Aitak aukeratu zuen unea bere Semea sakrifikatu eta justiziaren menpean jartzeko; eta Jesusek jakinik bere momentua ailegatzear zegoela, errege gisa azaldu nahi izan zuen jendearen aitzinean, gehien gorrotatzen zutenen begien aurrean, fariseuen malizia eta judutarren errukirik eza nahasteko, heriotzara kondenatuko baitzuten, gaizkile bati legez, egun batzuk geroago. Honetarako, hain zuten, jo zuen Jerusalemera bere jarraitzaileekin.

KB1 104.6.2 Hiritik hurbil zegoela, apostoluak bidali zituen asteme baten bila, gero han igo zen. Zela abere gainean sartu zen Jerusalem hirian eta jauretzeraino joan zen, jarraitzaileak eta bestelako jendetza ondoan zituela; haietako batzuek bidean zabaltzen zituzten euren longainak, eta beste batzuek zuhaitzetako abarrak ebaki eta hark iragan behar zuen bidean barreiatzen zituzten; jarraitzen zutenek honela oihukatzen zuten: *Hosanna* Daviden Semeari; bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena; *Hosanna* zeru goienetan.

KB1 104.6.3 Hiria erabat hunkitu zen eta askok galdetzen zuten nor zen; herriak erantzuten zuen Jesus zela, Nazareten sortutako profeta. Jauretjera heldu zenean, han saltzen eta erosten ari zirenak egotzi zituen, zergalarien mahaiak hankaz gora jaurti zituen eta sakrifiziorako uso saltzaileen apalak txikitu, esanez ez zutela inola ere profanatu behar leku hura, zeren, Aitaren etxea izateagatik, otoitz-lekua izan behar baitzuten.

KB1 104.6.4 Sacerdoteen printzeek eta eskribauek, gauza harrigarri haiek guztiak ikusi zituztenean eta haurrek *Hosanna* Daviden Semeari oihukatzen zutela, biziki haserretu ziren. Horregatik Jesusek interpelatu zien ea ez zuten Liburu Santuan irakurri zera hura, alegia: Haurren ahotik errebitu duzu aintza perfektua.

KB1 104.6.5 Jauretmetik at zegoela, Jesusek jarraitzaileei, ikusirik eraikin haren edertasunaz txundituta zeudela, hartatik ez zela harri bat bera ere geldituko esan zien. Eta Jerusalem hirira hurbiltzen ari zela, begiratu zuen eta negarrari eman zion, bazekielako hiri hura erabat suntsituta geldituko zela.

KB1 104.6.6 Hil aurretik, Jesusek judutarren aitzinean halako profezia harrigarria egiteaz gain, gainera, beste bat egin zuen, bere heriotzaren bezperan, pasioa jasan baino pixka bat lehenago, esanez zer-nolako maitasuna sentitzen zuen bere apostoluen alde. Haiekin ospatu zuen Pazkoa pazko bildotsa janez, eta esan zien izugarri pozik zegoela

haiekin Pazko hura ospatu izanaz, nozitu behar zuena nozitu baino lehen. Zeremonia hura egin nahi izan zuen judutarren legea betetzeko zeinak, Pazko eguneko jaian familia bakoitzak bildots bat jan behar zuela agintzen baitzuen.

KB1 104.6.7 Pazko bildotsa jan ondoren, mahaitik altxatu zen, gaineko arropa erantzi zuen, xukadera gerribueltan jarri eta konketa batean ura bota ondoren bere apostolu guztiei oinak garbitu zizkien. Berriro mahaira bilduta, bereak izugarri maite baitzituen, dio Ebanjelioak, bizitzaren akaberan emateko zeukan maitasun-seinalerik sentikorrena eman nahi izan zien, eta sakramentua sortu zuen eta bere gorputzaren eta odolaren sakrifizioa, ogia eta ardoaren itxurapean.

KB1 104.6.8 Honetarako, ogi hartu, bedeinkatu eta Jainkoari eskerrak emanez, partitu zuen eta bere apostoluei eman zien, esanez: Hartu ezazue eta jan, hau da nire gorputza zuentzat emango dena heriotza arte. Ondoren ardoz betetako kopa bat hartu, eta eskerrak eman ondoren apostoluei eman zien, esanez: Edan ezazue denak honetatik, bada hau nire odola da, aliantza berriko odola, bekatuak barkatzeko askoren alde isuriko dena.

KB1 104.6.9 Ematen du Jesusen apostoluen oinak garbitu nahi izan zituela, sakramentu hau sortu baino pixka bat lehenago, erakusteko Jainkoaren graziaz garbituak eta txukunduak egon behar garela, eta bihotz aratza eta garbia eduki, Jauna duintasunez hartzeko; eta ogiaz eta ardoaz baliatu zela, sakramentu honen materialiaz, guri aditzera emateko gure arima elikatzeke ematen zaigula, ogia eta ardoa gorputza zaintzeko jaten diren bezala.

Sakramentu honetan gelditu nahi izan du Elizarekin menderen mendetan.

KB! 104.7 Zazpigarren saila **Jesusen Pasioaz, Olibadian eta Kaifasenean pairatu zuenaz.**

KB1 104.7.1 Jesusen helburu nagusia mundu honetara etortzerakoan gizakion alde hil eta guztien bekatuak barkatzeko pairatzea izan baitzen, honengatik, bere bizia osoan pairatu ondoren, heriotza zigorra ezarri zioten eta, San Paulok dioen bezala, nahita eskaini zuen bere burua, den-dena honela gertatu zelarik.

KB1 104.7.2 Bere jarraitzaileekin afaldu zuenean, jakinik bere ordua iritsia zela eta judutarren eskuetara entregatua izango zela, bere apostoluekin otoitz egitera joan zen, Olibadian zegoen muino batera. Heldu bezain azkar ikara batean sartu zen eta bihotza tristeziaren lezean erori zitzaion, hain izan zen delako tristezia sakona eta sentibera ezen gorputz osoan odol itxurako izerdia barreiatu baitzitzaion; Aitak egoera ikusita aingeru bat igorri zion indartzeko.

KB1 104.7.3 Egoera latz hartan zegoela Aitari kaliz hura urrun ziezaiola eskatu zion, ongi iruditzen bazitzaion; baina, hala ere, eskatzen zuena haren nahia ez bazen, ez emateko. Gizona zenez higuin garria egiten zitzaion pairamena, eta horrek bultzatu zuen lehenengo hitzak esatera; baina bere Aitaren nahia eta aginduei ziotsen mendetasuna, azkenekoak esatera eraman zuten. Hala jokatu zen guri erakusteko beste gizakioi bezala hari ere pairamenak ez zitzaizkiola batere atsegin, sentikor zela, baina, hala ere, gure higuin guztiak nola garaitu behar diren eskuzabaltasunez erakusteko.

KB1104.7.4 Jesusek bere otoiiza amaitu zuenean, Judasek, apostoluetako batek, afal ostean besteengandik banandu zenak, Olibadira jo zuen pertsona talde batekin, ezpatak eta makilak zituztela, Jesus atxilotzeko. Traidore hura hain izan zen ausarta, Jesusengana joan eta musukatu zuen, bada seinale hura izan zen laguntzen ziotenei esan ziona, hots, musu ematen ziona zela atxilotu beharrekoa. Alabaina, Jesusek ontasun apur bat izan zuen zeren hala ere adiskide deitu baitzion esan zionean ea musu batez saltzen zuen bere maisua. Gero, Judasekin etorri ziren soldaduei esan zien bera zela bilatzen ari zirena, eta bat-batean denak ziplo eginda erori ziren lurrera.

KB1 104.7.5 Erorketa honek, harrigarria bezain ustekabea, eta balio behar izan beharko zuena gogoeta egiteko eta Jesusren agintea onartzeko, ez zituen pittin bat ere hunkitu; eta altxatu bezain azkar, Jesus hartu eta lotu zuten, eta bere jarraitzaileek, heriotzaraino jarraituko zutela esan zutenek barne, utzi eta ihesari eman zioten.

KB1 104.7.6 Hasteko, jende haiek Kaifasen aitaginarreba zen Anasen aitzinera eraman zuten Jesus, urte hartan apaiza nagusia baitzen. Hark jarraitzaileei buruz galdaketa egin zion, eta orobat zabaltzen ari zen dotrinaren inguruan, eta Jesusek esaten baitzion galdera horiek berak irakatsi zienei egiteko, zaintzaileetako batek, bat-batean, masaileko bat eman zion.

KB1 104.7.7 Apaiz nagusiek bai baitzekiten ezin ziotela inolako krimenik leporatu, bi sasi-lekuko bilatu zituzten berehala heriotzara kondena zezaten erdiesteko. Baina halako asmoa ez zitzaien ongi atera, lekukoak ez zetozelako bat beraien artean esaten zutenarekin; horregatik Jesus galdekatu zuten, eta apaiz nagusiak eskatu zion zinarean azpian ea Kristo, Jainkoaren Seme, zen esateko; eta Jesusek baietz, bazela, esan baitzion, eta egunen batean Aitaren eskuinaldean eserita ikusiko zutela, pontifizea zutitu zen, jantziak urratu zituen, eta Jesusek birao egin zuela esan zuen, eta ez zela lekukorik behar; heriotza merezi zuela, eta hau apaiz nagusiek egiaztatu zuten eta orobat hantxe zeuden eskribauek.

Orduan, Jesus preso zeukatenek tua bota zioten aurpegira, eta oihal batez estali eta begiak bendatu ondoren, batzuek ukabilkadak eta beste batzuek belarrondokoak ematen zizkieten, esaten zioten bitartean: Igarri, Kristo, nork jo zaitu?; eta beste hamaika birao esaten zioten aurka.

KB1 104.7.8 Zerbitzariak eta soldaduek Jesusi lotsaizun hauek jasanarazten zizkieten bitartean, Petrik, Jesusen atzetik apaiz nagusiaren etxean sartu zen lehenengo jarraitzaileak, beste pena askoz ere latzagoa sorrarazi zion. Bada, atea zaintzen zegoen andere zerbitzariak esan baitzion bera ere Jesusen jarraitzaileetako bat zela, hark ez zela erantzun zion. Gero, apaiz nagusiaren zerbitzariak eta zaintzaileak patioan berotzen ari zirela, eta Petri haiekin, pertsona haiek esan zioten bera ere gizon haren jarraitzaileetako zela, baina hark ukatu egin zuen, eta ez zuela ezagutzen zin egin zuen.

KB1 104.7.9 Pontifizeren zerbitzari batek esan zuen Olibadian ikusi zuela Jesusekin, eta Petrik, protesta eginez, berriz zin egin zuen ez zela hura egia, eta zerbitzari hark ez zekiela zer esaten zuen. Jesus, itzulita, Petriri begiratu zion hobeto pentsatzeko esan nahi izan balio bezala, eta une hartan berean gogoratu zuen nola Jesusek hiru aldiz ukatuko ziola esan zion; kanpora irten eta saminki negarrari eman zion.

KB1 104.7.10 Petriren jokaera honek erakusten digu zein handia den gizakiaren iraupenik eza eta zein eskasa bertutearen sendotasuna. Petri, pixka bat lehenago, prest zegoen Jesusekin batera hiltzeko, eta zerbitzari baten lehenengo hitza aski izan zen ez zuela ezagutzen ihardesteko.

KB1 104.8 Zortzigarren saila
Jesusek Pilatosen etxean nozitu zuenaz.

KB1 104.8.1 Goizaldean, apaizen buruek eta herriko agureek kontseilua egin zuten Jesus hiltzeko modua aurkitu ahal izateko. Kaifasen etxetik pretoriora eraman zuten, han Pontzio Pilatori entregatu zioten, esanez nazio gaiztotzen ari zela, Zesarri zerga ez ordaintzeko agintzen zuela eta mesias erregea bera zela ziurtatzen zuela. Pilatosek esan zien beraiek hartzeko eta legearen arabera epaitzeko; baina judutarrek erantzun zioten beraiek ezin zutela inoren bizia kendu. Gauzak hala, Pilatok Jesusi ea judutarren erregea zen galdetu zion, eta baietz erantzun zion, bazela; ondorioz Pilatok herriari gizon harengan ez zuela inolako krimenik aurkitzen esan zion. Baina haiek gero eta ozenago eskatzen zioten, esanez herria matxinatzen zuela zabaltzen hasia zen dotrina batez, Galileatik Jerusalemairaino.

KB1 104.8.2 Pilato, Jesus Galileakoa zela jakin zuenean, eta pozik bere eskuak libre uzteko abagunea aurkitu zuelako, Herodesengana, eskualde hartako erregerengana, bidali zuen, zeina egun haietan Jerusalemen baitzegoen. Baina Herodesek, presente zeuden eskribauek eta apaizen buruek Haren aurka egiten zituzten salaketez galdekatu ondoren, eta ez baitzuen inolako ihardespenik jasotzen, gutxietsi zuen, tunika zuriz janzteko agindua eman zuen, isekatzeko, eta Pilatorengana itzuli zuen.

KB1 104.8.3 Pilatok, judutar nagusi askok baino zuzentasun handiagoa baitzuen, Jesus askatu nahi izan zuen, apaizen buruek bekaizkeriaz entregatu zutela uste baitzuen. Dena den, ez baitzuen nahi jendearen aitzinean matxino eta iruzur egile bat askatzen zuelako itxura egin, herriari enperadoregoari zergak ez ordaintzeko agintzen baitzuen, judutarren nahari amore eman nahi izan zion. Gauzak hala, Jesus salatzen zutenak deitu zituen eta ez Herodesek eta ez hark ez zutela inongo errurik aurkitzen Harengan salatzen zizkioten krimenetan esan zien, eta kontentatzeko bederen zigor zezaten aginduko zuela gero libre uzteko. Baina judutarrak ez ziren konformatu proposamen horrekin, horregatik Pilatok beste erremedio bat bilatu zuen, oso egokia zela uste zuena, Jesus libre uzteko.

KB1 104.8.4 Ohitura baitzen Pazko egun handian gobernadoreak preso baten askapena herriari ematea, haiek eska zezatena, eta sasoi hartan bat oso famatua zuenez, hots, Barrabas, lapurra zena, sedizioegilea eta gizerailea, Pilatok bertan zeudenei bietako nor nahi zuten askatzea, Barrabas edo Jesus, galdetu zien. Ez zuen uste inola ere Barrabas askatzea nahi izango zutenik, ez baitzuen Jesusengan errurik aurkitu. Baina apaizen buruek herritarrei jabearazi zien Barrabas eska zezatela, horregatik denak batera deiadar egin zuten Jesusek gurutzean hil behar zuela eta Barrabas, aldiz, askatu. Benetan harrigarria da ikustea zenbaterainokoa zen Jesusen aurkako judutarren pasioa.

KB1 104.8.5 Pilatok ikusirik apaizen buruei eta herriari egindako proposamenek ez zutela arrakastarik izan, eta ez baitzuen beste biderik ikusten Jesus askatzeko, krudelki azota zezatela agindu zuen, denen aitzinean odolez beteta erakusteko unean erukituko zirelakoan.

KB1 104.8.6 Azotatu ondoren, soldaduek pretorioko patiora eraman zuten, eta kohorte guztia bilduta, soinekoak erantzi zizkioten eta purpurazko soineko luzeaz jantzi zuten. Gero arantzazko koroa egin eta buru gainean ezarri zioten, eta eskuinean kanabera bat; haren aitzinean makurtzen ziren, eta burla egiten zioten, esanez: Agur, judutarren errege; eta aurpegira tua botatzen zioten, eta kanabera eskuaz hartuz buruan kolpatzen zioten. Hara hemen nolako manera lazgarriaz tratatu zuten Jesus.

KB1 104.8.7 Pilatok Jesus halako egoera lazgarrian ikusita, judutarren aitzinera eraman zuen, esanez ezen halako manieraz zigortu arren ez zuela beragan inolako krimenik aurkitzen, hola haien bihotza bigundu eta libre utziko zutelakoan. Alabaina, apaizen buruek eta haien lekaioek, ikusi zutenean deiarar egin zuten: Gurutzera, gurutzera. Berrito esan zien beraiek gurutzean hiltzeko, ez zuelako harengan krimenik ikusten. Baina judutarrek lege bat zutela ihardetsi zioten eta legearen arabera hil behar zuela, Jainkoaren seme zela aldarrikatu zuelako.

KB1 104.8.8 Dena den, Pilatok Jesus libratzeko beste manera bat bilatu zuen, Liburu Santuak aipatzen ez duena. Baina judutarrek, haren heriotza ez atzeratzearren, indar handiz oihukatu zuten Pilatok libre uzten bazuen ez zela Zesarren adiskidea izango. Hitzok Pilato Jesus heriotzara kondenatzera behartu zuten, bada beldur zen egiten ez bazuen Enperadoreak begi txarrez ikusiko zuela.

KB1 104.9 Bederatzigarren saila Jesusen heriotzaz eta hobiratzeaz.

KB1 104.9.1 Pilatok Jesus pretoriotik kanpora atera zuen, bere oholdan eseri zen eta judutarrei esan zien: Hona hemen zuen errege. Judutarrek oihukatu zuten gurutzean hiltzeko. Zuen errege gurutzean hil behar al dut?, galdetu zuen delako hitzek uzte barruak bigunduko zizkietelakoan. Apaizen buruek erantzun zioten: Gure errege Zesar da ez besterik. Orduan Pilatok nahi zutena egin zezatela agindu zuen, eta Jesus gurutzean hiltzeko entregatu zien.

KB1 104.9.2 Gobernadorearen soldaduek, Jesus izugarri zigortu ondoren eta irain pila jasanarazi eta gero, purpurazko jantziak erauzi zizkioten, eta gurutzean hiltzeko eraman zuten. Baina zamatu zioten gurutzera pisu handikoa baitzen, eta Jesusen ahuleziak ezin baitzuen hura eraman, soldaduek delako Simoni, laborantzatik etxera zetorrena, agindu zioten Jesusi laguntza eman diezaiola.

KB1 104.9.3 Kalbario deitu leku batean izan zen gurutzean josia, Jerusalemetik oso gertu, eta bi ohoien artean jarri zuten, bat eskuinaldean eta bestea ezkerrean; eta esakune bat gurutzearen goialdean: Nazaretoko Jesus judutarren errege. Handik igarotzen ari zirenek iraintzen zuten, burua mugituz eta esanez: Jauretzea suntsitzen duzun Horrek eta hiru egunetan eraikitzen, salba ezazu zure burua; Jainkoaren semea bazara, jaitsi zaitez gurutzetik. Apaizen buruek, eskribauek eta agureek, baita ere, iseka egiten zioten eta esaten: Beste batzuk salbatu ditu eta ezin du bere burua salbatu. Harekin batera gurutzean josita zeuden bi ohoinek, erantzuki berak zuzentzen zizkioten. Alabaina, haietako bat azkenean konbertitu zen, eta Jesusi honen erreinuan egon zedinean beraz gogoratzeko; orduan Jesusek ziurtatu zion egun hartan berean gozatuko zuela Harekin batera paradisu aintza.

KB1 104.9.4 Jesusek Betiereko Aitari eskatu zion heriotza eman zioten guztiak barka zitzala. Hirurretan, gutxi gorabehera, ahots indartsu batez deiadar egin zuen: Aita, zure eskuetan uzten dut nire espiritua, eta bat-batean bere espiritua entregatu zuen. Pixka bat geroago soldadu batek saihesta ireki zion lantza batez, eta hortik odola eta ura sortu ziren.

KB1 104.9.5 Hona hemen Jesusek pairatu zuen guztia gu maite gintuelako. Bazuen halako pairamen iraingarriak eta heriotza izugarria saihesteko manerarik, bada haren odol tanta bat soilik, baita egintza bakar bat ere, meritu infinitua izango baitzuen, aski izango baitzatekeen gu berrerosteko eta gurutzearen bitartez erdietsi zizkigunak atzemateko.

Baina Betiereko Aitak bere Semea entregatu nahi izan zuen gurutzeko heriotzara, berak hala nahi izanda, guk hobeto ulertzeko zenbatekoa den bekatuaren larritasuna, erakutsi digun maitasun neurrigabearen lekukotasuna emateko, bere Semearen bitartez apaltasunaren eta egonariaren goreneko maila erakusteko, eta gure bihotz guztiaz hura maitatzeko, eta orobat bidal diezazkigukeen nahigabe eta pairamen oro gogo onez eramateko.

KB1 104.9.6 Jesusek, Jainko zen aldetik, ezin zuen ez pairatu eta ez hil. Dena den, esaten dugu, Jainkoak pairatu zuela eta guregatik hil zela, zeren Jainkoaren Semearen pertsonari egokitzen diogulako bai giza naturari dagokiona eta bai jainkozko naturari dagokiona.

Jesusek bere heriotzaz merezi zizkigunak izan ziren gaizkiari ihes egiteko eta ongia praktikatzeko behar genituen baliabideak, bekatutik eta infernutik libre gelditu, eta zeruan betiko zoriontsuak izateko grazia.

KB1 104.9.7 Jesus hil eta handik gutxira, Arimateako gizon aberats batek, Josek, ezkutuan Jesusen jarraitzaileak, Pilatori Jesusen Gorpua eskatu zion. Pilatok Jesus hila zegoela jakin bezain azkar, gizonari eman ziezaiotela agindu zuen. Josefek berehala batean jaitsi zuen gurutzetik, eta Nikodemo, hau ere Jesusen jarraitzaile bat harekin bat eginda, berarekin eraman zuen mirra eta aloeko ehun librazio pisua. Bien artean Jesusen gorpua hartu zuten eta oihal batzuetan bildu zuten lurrinez, judutarrek hildakoak lur emateko zeukaten ohituren arabera. Josefek harkaitz batean preparatzeko agindua eman zuen hobian jarri zuten, oraindik inork erabili ez zuena, eta hobia sarrean jarri zuten harlauza handi batez estali zuten.

KB1 104.9.8 Jesusen gorpua hobian egon zen bitartean, haren gorputza eta arima, nahiz eta bakoitza bere aldetik, beti egon ziren itsatsita Jainkoaren Semearen pertsonari. Haren arima lurreko lekuri hondoenera jaitsi zen, linbo deitzen duten lekura, Jainkoaren graziaz eta Jainkoaren maitasunean hil ziren santuen arimak libratzeko, hots, Jesusen heriotza baino lehen hil zirenak. Jesus leku hartan sartu ahala, han zeuden guztiak aintzaren argiaz izan ziren argituak, eta Jainkoa zeruan ikusiko zuten bezala ikusi zuten orduantxe. Ondoren, aintzazko zeruratze egunean, Jesusekin batera igo ziren hara.

KB1 104.10 Hamargarren saila
Pizkundeaz, Jesusen zeruratzeaz eta Espiritu Santuaren etorreraz.

KB1 104.10.1 Itxura onekoa ez baitzen Jesusen gorpua, Jainkoa izanik, usteltzen uztea, eta komenigarria baitzen Jesusesk guri bere pertsonaren bidez gure pertsonak ere piztuko ginelako ziurtasuna, arrazoi horienatik Aitak eta Espiritu Santuak piztu zuten, eta berak bere burua piztu zuen, hil ondorengo hirugarren egunean igande goizaldean. Momentu batez bizia hartu zuen berriro, baina hilezinezko bizia eta oraingo bizitza honetako miseriarik gabekoa, eta haren arimak gorputzarekin bat egin zuen; baina hura, batze honen bitartez, ez zuen aintza berria erdietsi, beti izan zelako zoriontsua bikaintasunean, Jainkoaren ikusteaz gozatzen zuelako, eta Hitzarekin bat eginda zegoelako.

KB1 104.10.2 Jesusesk pizkundearen bitartez profeziek alde aurretik iragarri zutena bete nahi izan zuen, gure fedea bere jainkotasunaren eta gizatasunaren inguruan ziurtatu, bere gorputzari merezi izan zuen aintza eman eta gure piztuera aseguratua.

Jesusesk, piztu eta gero, lurtean berrogei bat egun eman zituen, eta egun horietan Birjina Txit Santuari, apostoluei eta bere beste jarraitzaileei agertu zitzairen eskolatzeko eta bera piztua zela egiaztatzeko.

KB1 104.10.3 Piztu eta ondorengo berrogeigarren egunean, Zerura igo zen gorputz eta arimarekin, bere botere propioaz, bere jarraitzaileek ikusten zuten bitartean, linbotik atera zituen zintzoen arimak berarekin eramanez.

Pasioan egin zizkieten orbanak kontserbatu nahi izan zituen, bekatuaren aurkako garaipena adierazten digutelako, heriotzaren eta haragiaren aurkako seinale direlako, munduaren eta deabruaren aurkako garaipen ikurrak direlako, eta haren gorputzaren pizteaz sinesteko, Jainkoaganako konfiantza indartzeko, haren zurien bitartez gure alde pairatu zuena gogoan izan genezan, epaiketaren egunean, pairatu zituenak aprobetxatu ez dituzten bekatarien gaiztotasuna kondentatzearen, eta gure salbamena obratu zuten grazia-iturburuaren ikuskizunaz zoriekoak kontsolatzeko.

KB1 104.10.4 Zerura igo zenetik Jesus Zeruan dago. Apostoluen Eginak dioskute Aitaren eskuinaldean eserita dagoela, ez Aitak eskuin bat eta ezker bat daukalako, ez baitu gorputzik, baizik eta guri aditzera emateko Jesus bere Aita bezalakoa dela, eta Zeruan Aitaren agintea bera, ohorea bera eta aintza bera dituela. Era berean eserita dagoela esaten dute, jasandakoak jasan ondoren atsedenean dagoela, eta bere erreinuaren posesioan.

Jesusen misioa eta okupazioa Zeruan, Jainko-Gizon gisa, eta gizakientzako bitartekari gisa, fededunen oitoz guztiak Jainkoari, hots, bere Aitari, eskaintzea da, eta haien izenean Berak bere burua aurkeztea, bitartekari gisa orobat Jainkoaren aitzinean.

KB1 104.10.5 Jesus zerura igo eta ondorengo hamargarren egunean, apostoluei eta jarraitzaileei Espiritu Santua igorri zien, agindu bezala. Espiritu Santua suzko mihiren itxuraz jaitsi zen Apostolu santuengana, baina, hauek jada grazia ugari errezibitu bazuten ere, alabaina, ez zeukaten oraindik ez kartsutasunik, ez ahalmenik eta ez balore nahikorik, Ebanjelioa aldarrikatzeko inolako beldurrik gabe, eta jaiotzen ari zen Eliza sostengatzeko. Predikatu behar zituzten egia guztiak irakatsi zizkien eta, bat-batean, hizkuntza mota oro hitz egiten ikasi zuten; grazia ugariz jantzi zituen eta adore eta kemen harrigarriak eman zizkien munduan zehar Ebanjelioa zabaltzeko; orobat mirariak

egiteko ahalmena eman zien, eta profeziak egitekoa, iragarri behar zituzten egiak sinestarazteko eta fedea ezartzeko behar-beharrezkoa baitzuten.

KB1 104.10.6 Espiritu Santua ez da komunikatzen orain ikusteko eran, Mendekoste egunean Apostoluekin egin zuen bezala. Orokorrean jada ez du hitz doea ematen, ezta profeziak egiteko gaitasuna edo mirariak egiteko ahalmena, hastapenetako lehenengo jarraitzaile batzuekin egin zuen legez. Baina egunero komunikatzen da ez-ikusteko eran Jainkoaren grazian bizi diren arimekin edo sakramentuen bitartez erdiesteko abagunean jartzen direnekin, eta grazia ugari ematen dizkie, nolako jarrera erakusten duten errezipitatzeko.

Bekatutan dauden arimen inguruan eta saihesteko deusik egiten ez dutenen gainean, bada, Espiritu Santua ez dago haiengan, eta bere doerik gabe uzten ditu.

KB1 105.

5. Kapitulu Elizaz

KB1 105.1 Lehenengo saila Eliza zer den eta ezagutzeko seinaleez.

KB1 105.1.1 Mundu honetara etorri zenean, Jesusek ez zuen nahi izan, lege zaharrear bezala, nazio partikular batekin atxiki eta bere herri gisa hartu. Gizakiak bekatutik libratzeko eta santifikatzeko etorri baitzen, denei salbatzeko baliabide bertsuak eman zizkien, eta haiekin guztiak gorputz bakar bat osatu nahi izan zuen. Honetarako erlijio berri bat ezarri zuen eta lege berri bat eman zion.

KB1 105.1.2 Apostoluak eta jarraitzaileak, leku berean bilduta eta batuta, Mendekoste egunean Espiritu Santua errezipitu zuten eta fededun talde berri bat osatzen hasi ziren, San Petrik egun batean konbertitu zituen hiru mila pertsonarekin, eta handik egun batzuetara konbertitu zituen beste bost milarekin. Elkargo honi fede eta erlijio berakoa Eliza deitzen diogu, bada hitz honek familia, elkargoa, batzarra esan nahi du.

KB1 105.1.3 Eliza honek gaur arte jarraitu du izaten apostolu santuen garaitik gure garai arte eta menderen mendetan jarraituko du izaten, sinesmenean deusik aldatu gabe, eta eten gabe. Hau da sinetsi behar duguna, nahiz eta ez jakin nabarmen, eta Ebanjelioaren eta tradizioaren bidez bai, ordea.

KB1 105.1.4 Fededunek lurra elkarrekin bat eginda dauden bezala, eta elkarrekin gorputz bat eta bera osatzen duten moduan, era berean osatzen dute elkargo bat eta bera hil diren fededunekin eta bizitza honetatik betikora pasatu direnekin. Alabaina, ezberdintasun bat dago: bekatu larriarekin bizi diren fededunak Elizarenak dira, fedea dutelako eta Jainkoaren grazia eta maitasuna jaso ahal dutelako, bekatutik urruntzen badira; aitzitik, bekatu larrian hil diren fededunak eta kondenatuta badaude, ez dira jada Elizarenak, nahiz eta oraindik fedea eduki, jada ez lirajteke gauza izango grazian bizitzeko, eta ez lukete inola ere Jainkoa eduki eta maitatuko.

KB1 105.1.5 Betidanik izan da Eliza bat, baita Jesusen aurretik ere, eta Adanetik Bera azaldu arte. Munduaren hastapenetik Jesus etorri arteraino salbatu direnak, Jesusen

beraren merituengatik salbatu ziren, itxaroten zuten Mesiasengan sinetsi zutelako eta hala agindu zietelako, eta Jainkoak santifikatu bazituen, Jesusek bere heriotzaz merezitu zielako izan zen. Orduan ez zuten ikus zitekeen fededun elkargorik osatzen, alegia, orain den bezalakoa; fedeak eta karitateak bultzatzen zituen soilik Jainkoarekin uztartuta egotera.

Eliza, orokorrean, fededun guztien elkargoa da, hala bizidunena nola hildakoena, Jesusekin bat eginda baitaude.

KB1 105.1.6 Eliza, horrela ikusita, eskuarki militante, garbitzaile eta garaitzaile gisa hartzen da. Eliza garaitzailea Zeruan dauden santuen elkargoa da. Eliza garbitzailea Jainkoaren graziarekin hil zirena da eta garbitokian denbora batean jasan behar dutenena. Eliza militantea lurlean fede berearekin eta egiazkoarekin bizi direnen elkargoa da. Honi militantea deitzen diogu etengabe borroka egin behar duelako erlijioaren eta fedearen arerioen aurka, eta osatzen duten fededunek salbamenaren arerioen aurkako guduak daudelako beti.

KB1 105.1.7 Elizaren hiru aspektu hauen artean erabateko batasuna eta etengabeko elkar harremana dago espirituzko ondasunetan. Batak besteari komunikatzen dizkion espirituzko ondasunak, graziak eta merituak dira, otoitzak eta pozak, eta bataren zein bestearen obra onak; izan ere, zeruan dauden santuak beren otoitzez laguntzen digute, gauza bera egin dezakete baita ere garbitokian daudenak, eta guk haien arrangurak arintzen ditugu gure otoitzez; eta bizidunek Zeruan dauden santuak ondrazten dituzte eta laguntza eska diezaiakete beharrean aurkitzen direnean.

KB1 105.1.8 Aipatzen dugun Eliza militantea da, Jesus ezkerro izan dena eta gaur ere dena; eta Eliza hau Jainkoa eta Jesus sinesten duten guztien batzarra edo elkargoa da, eta irakatsi zuen dotrina sinesten dutenena, gorputz bereko kideak direnena eta aita santuaren esanetara daudenena, ikusten den burua baita, eta honen artzainena.

Eliza hau ez da bizirik gabeko gorputz bat, bada Espiritu Santuak animatzen du graziaren eta karitatearen bitartez, zeinak fededunen bihotzean isurtzen baitu baitaio santua hartzen dutenean, zeruko ateak zabaltzen baitizkie honek.

KB1 105.1.9 Lurrean elkargo batzuk baitaude, era bereziz hereseena, Elizaren izena hartu eta ebasten dutenena, nahitaezkoa da seinale esanguratsu eta ikusgarri batzuk edukitzea egiazko Elizarena eta halako izena ebasten dutenen nortasuna bereizi ahal izateko, ez baitira benetako Eliza.

Lau seinale daude egiazko Eliza zein den igartzeko balio dutenak, eta zera hauek dira: bat izatea, santua izatea, eta katolikoa eta apostolikoa izatea.

KB1 105.1.10 Eliza bat da: Eliza bakar bat dagoelako, zeinaren kanpoan batek ezin baitu salbamenik erdietsi; zeren osatzen duten katolikoek fede bera profesatzen baitute, sakramentu beretan esku hartzen dute, espiritu beretsuaz animatuta daude, karitate beraz elkar maite dute; helburu bera dute jomuga eta artzain beretsuei ematen diete kasu.

KB1 105.1.11 Eliza santua da: Kristo buru duelarik santutasuna bera delako; bere dotrina, bere manatuak eta sakramentuak santuak direlako; eta osatzen dutenek

santifikatuta daudelako, batzuk bataioaz eta beste batzuk beraiengan dagoen graziaz; eta denek dutelako santuak izateko obligazioa.

KB1 105.1.12 Eliza katolikoa da, hots, unibertuala; osatzen duten pertsonen dagokienez, nazio, sexu eta baldintza guztietakoek osatzen dute; lekuei dagokienez, lur zabalean hedatzen da; eta denborari dagokionez, mundua bezain zaharra da eta mendeen azkeneraino iraungo du.

Eliza apostolikoa da: Apostoluek Jesusek irakatsi zizkien egia guztiak zabaldu zituztelako; eta gaur arte etengabe kontserbatu dituelako.

KB1 105.2 Bigarren saila Elizako kideez.

KB1 105.2.1 Nahikoa da bataiatua izatea eta fedea edukitzea Elizako partaide izateko. Horregatik dira Elizako kideak zintzoak bezala gaiztoak ere; eta sinesten duten guztiak ez dira baztertuak, salbu eskomikatuak, Elizaren aurka egiteagatik honek bere komunitatik baztertu baititu denbora batez, eskandaluzko obediterik eza eta agerizkoagatik, bere akatsengatik umiliatu eta penitentzia egin arte.

KB1 105.2.2 Egia da bekatu larrian dauden fededunak ez daudela elkartuta grazian dauden beste fededunekin; alabaina, haiekin uztartuta daude bataioaz eta fedeaz, eta Elizaren espirituzko ondasunetan esku har dezakete

KB1 105.2.3 Elizatik erabat berezita dauden sei pertsona mota daude, eta hauek dira: paganoak, erlijio praktikarik gabe bizi direnak; ateoak, Jainkoa denik sinesten ez dutenak; idolatrak, sasi-jainkoak gurtzen dituztenak; fedegabeak, Jainkoa dela sinesten dute, baina Jesus ez; hereseek, Jainkoa eta Jesus direla sinesten dute, baina ez dute Jesusek irakatsi zuen guztia sinesten eta ezta Elizak sinetsi behar dela esandakoa ere onartzen; eta zismatikoak, hots, bananduak, Elizaren sineste berak dituzte baina ez dira ez Elizaren eta ez aita santuaren, ikusten den buruaren, mendeen egon nahi.

KB1 105.2.4 Oraindik bataioa hartu ez duten helduak baina erlijioan eskolatzen ari direnak, antzinatean katekumenoak deitzen ziren. Nahiz eta Elizako kideak osotoro ez izan, ez baitaude bataiatuak, dena den Elizan onartuta daude, partaideak izateko preparatzen ari direlako, Elizan esku har dezakete eta bertan ematen diren aginduetan presente egon, baita Mezaren hasieran ere, ezen arrazoi honengatik, hastapeneko Elizan, katekumenoen Meza deitzen baitzen.

KB1 105.3 Hirugarren saila Elizaren agintaritzaz eta botereaz.

KB1 105.3.1 Jesusek, zerura igo aurretik, apostoluei oso berezkoak zituen bi gauza utzi zizkion: boterea eta dotrina. Bi botere mota utzi zizkien: ordenaren boterea eta eskumen boterea.

KB1 105.3.2 Ordenaren boterea Elizako apaizek eta ministroek dutena da ordenatuak izan direnez gero. Ordenaren botereaz, Elizak bekatu mota guztiak barkatzeko ahalmena dauka Jesusek eman zion eta berak bakarrik egin dezake. Aginpide hau gauzatzen dutenak apaizak dira, artzainak, eta, izan gabe ere, gotzainen zilegitasuna dutenak.

KB1 105.3.3 Eskumen boterea aita santuak eta gotzainek gauzatzen dutena da, apostoluen ordezkioak direlako, zera honetarako: 1 Elizan behar diren ministroak ordenatzeko. 2 Lotzeko eta askatzeko, hots, bere esku dauden arimen debekuek ezartzeko edo barkatzeko; eta barkatu zaizkien bekatuengatik ezarritako penak ezabatzeko, Jesusek jasan zituen sufrimendu oparoen merituak aplikatuz, induljentzien bitartez. 3 Arimak gobernatzeko Elizaren dotrina eta diziplinaren arabera.

KB1 105.3.4 Elizaren diziplinatza hartu behar da ezartzen dituen arauak, Jesusek eman zion botereaz, ohiturei buruz, elizgizonei buruz, erabilerei buruz, eta jainkozko zerbitzu eta sakrifizioei buruz.

Eskumen botere hau, zeina Jesusen ministroengan eta Elizako artzainengan baitago, Elizaren mendean dauden guztiengan du eragina, bataio santua hartzean, baina ez ordea erabat bananduta daudenengan, hala nola fedegabeengan eta hereseengan.

KB1 105.3.5 Jesusek Elizari utzi zion dotrina berak irakatsi zuena da, eta horrekin eskolatu zituzten apostoluek beren garaiko fededunak, eta hauen jarraitzaileek ondorengo artzainei utzi zieten bera, hala ahoz nola idatziz.

KB1 105.3.6 Elizak ezin dio deusik aldatu eta ezer erantsi dotrina honi, eta dotrinaren eta fedezko gaien inguruan duen eskubide erlatiboa, Liburu Santuetako hitzek eta misterioak esplikatzeak osatzen dute, eta Liburu Santuetako zein liburuk sinetsi eta gogoan hartu behar ditugun, Espiritu Santuaren eraginez idatziak izan direlako. Horregatik dio San Agustinek ez zukeela Ebanjelioa sinetsiko Elizaren agintaritzak horretara bultzatu izan ez balu.

Hizak Jesusek emanda jaso zuen agintaritza hau, Berak esan zuenean: *Zuei entzuten dizuenak, entzuten dit. Eta norbaitek Elizari entzuten ez badio, har ezazue paganotzat eta publikanotzat.*

KB1 105.3.7 Elizak kontzilioen, aita santuen, mende bakoitzeko zilegizko artzainen, eta hastapenetako doktoleen ahoz hitz egiten digu. Eta Elizaren hitzak kontzilioen eta aita santuen esanetara jarri entzuten ditugu, eta orobat antzinako doktoeren eta santu guztien aho betezko sentimenduekin bat eginez.

KB1 105.3.8 Kontzilioa gotzainen batzar nagusiari deitzen diogu, katolikoek izenean egindakoa, dela hereseen aurka fedea defenditzeko, dela gure fedea azaltzeko, dela ohiturak, praktikak eta Elizako elizkizunak erregulatzeko.

Ekumenikoak deitzen diren kontzilioek ezartzen dutena fedezkoa da, berezko batzarretan ospatzen direnean. Horregatik, San Gregoriok lau lehenbiziko kontzilioei lau Ebanjelioei zor zaien begirunea erakustea nahi izan zuen.

KB1 105.3.9 Elizari Jesusi eta Jainkoari bezala entzun beharra, eta fedeari eta dotrinari buruzko erabakiak fedezko artikuluek bezala kontsideratzea, Elizak Jesusen

agintaritza bera duelako da, eta bera egiaren oinarria eta funtsa delako, eta ez da inoiz federik ezan eroriko, Jesusek berak ziurtatzen digun bezala San Petriren pertsonagan.

KB1 105.3.10 Elizak proposatzen diguna zalantzan jartzea ere debekatuta dago. Gure espirituak erabakitzen duen esanetara jarri behar dugu, batik bat fedezko eta erlijiozko gaietan, gutxienez Ebanjelioa onartzen jartzen dugun indar bertsuaz.

KB1 105.4 Laugarren saila Elizaren gobernamenduaz.

KB1 105.4.1 Nahiz eta Jesus bere apostoluengandik banandu eta Zerura igo zenean begien bistan laga Elizatik urrundu zela, ez du bazterreratu honen zuzendaritza. Elizako burua izaten jarraitzen du, eta Bera baita eraiki duena, egunetik egunera eraikitzen jarraitzen du, fededunak elkargo bertsuaz batuz; eta Berak legeak eman zituen bezala, era berean Berak zuzentzen du oraindik ageri gabe bere Espirituaren bitartez.

KB1 105.4.2 Orobat kide fededunei barneko bizia komunikatzen die; denak daude Harekin uztartuta, baina bi manera ezberdinez: zuzenak Berarekin batuta dauden barneko eta espirituzko batasunaz, animatzen dituen Espiritu Santuaren bitartez eta daukaten grazia dela medio; batasun honi 'santuen komunio'-a deitzen diogu; bekariak batuta daude baita ere, baina kanpoko eta ageriko batasunaz soilik, fede profesioa egiten dutelako, sakramentuetan esku hartzerik dutelako, eta Elizako artzainei erakusten dieten esanekotasunaz, delako batasunari 'Elizaren komunio'-a deitzen diogu, ezen nahikoa bada ere katoliko eta Elizako kide izateko, hala ere, salbatzeko ez die balio, baldin Jesusekin bat eginda ez bazaude barnean.

KB1 105.4.3 Baina Elizaren gobernamendurako ez da aski Jesusen agintaritza ezin ikusizkoa. Elizak kanpoko eta ageriko gorputza baitauka, beharrezkoa zen ageriko burua gobernatu ahal izateko. Hau hala gerta zedin lagundu zuen Jesusek piztu eta berehala, eta Elizaren gobernamendua San Petriren eskuetan jarri zuen, Elizako artzain eta buru gisa jarri zuen, eta beste apostoluak nazio ezberdinetara igorri zituen mezua zabaltzera eta herri ezberdinetako artzainak izatera, San Petriren gidaritzapean.

KB1 105.4.4 Gainera, beste apaizak eta beste ministroak egon zitezela nahi izan zuen, eta fededunak eskolatzen saia zitezela, sakramentuak eskaintzen eta aldare sakratuetan zerbitzen.

Elizaren ageriko gobernamendu hau menderen mendetan luzatu da, apostoluen garaietatik hasi eta gure egunera arte. Bata bestearen gibeletik etorri izan diren aita santuak, eta San Petriren ondorengoak izan direnak, beti izan zuten Elizaren gaineko erabateko agintaritza.

KB1 105.4.5 Apostoluei jarraitu zaizkien gotzainak herrialde txikietako artzainak izan ziren, elizbarrutiak deituak izan zirenak, eta apaizak Eliza partikularak gobernatzeko ezarri ziren, hiri bateko Eliza gobernatzeko edo hiri bateko zatiren bateko edo besteko Eliza gobernatzeko, edo nekazal basoko herrixka bat gobernatzeko. Hau izan da beti Elizaren jokamolde arrunta eta agerikoa; artzain guztiek Jesusen agintaritza dela medio eta haren merituen banatzaile gisa soilik gobernatu dutela.

KB1 105.5 Bosgarren saila
Elizako buruaz eta artzainez, bere eskumenaz eta mendekotasunaz.

KB1 105.5.1 Elizak lur guztian hedatu behar duenez, artzain ugari eduki behar zituen, bertan ordena ziurtatu ahal izateko. Nahitaezkoa zen artzainen artean mendekotasuna izatea, eta batzuek beste batzuen gaineko agintaritza edukitzea, eta ministerioa zela-eta mendekoak zirenak haien esanetara egotea. Hau hala izan da ezarria Elizan bai Jesusen garaian eta bai gaur egun ere.

Jesusek, apostolu santuak eta tradizioak jarritako artzainak hauek dira: aita santua, patriarkak, artzapezpikuak, gotzainak, erretoreak eta eliza partikularren batean lanean dihardutenak.

KB1 105.5.2 Gauza jakina da aspalditik ordenaren botere berdina dutela aita santuek, gotzainek, erretoreek eta Elizako beste apaizek; eta aita santuek eta gotzainek ez dutela botere gehiago Jesusen gorputza sagartzeko eta bekatuak barkatzeko edozein apaizak baino. Baina ez da gauza bera gertatzen eskumen boterearekin, hau zabalagoa eta ezberdinagoa da, nortaz ari garen, Elizan dituzten funtzioak, handiagoak, zabalagoak edo garrantzitsuagoak baitira.

KB1 105.5.3 Aita santua ez dago inoren mendean eta agintepean; patriarkak aita santuaren menpean daude; artzapezpikuak, beren nagusiak diren patriarken mendean; gotzainak beren metropoliko artzapezpikuaren mendean; erretoreak, elizbarrutiko gotzainaren mendean; parrokia bateko apaizak, bertako ardura duen erretorearen mendean.

Aita santua Erromako gotzaina da, Jesusen bikarioa, Elizaren ageriko burua eta San Petriren ordezkaria; eta San Petrik bezala, Eliza guztiaren gaineko agintaritza eta boterea du.

KB1 105.5.4 Aita santuak duen Eliza guztiaren gaineko agintaritza eta boterea arrazoia da Eliza 'erromatarra' deitua izateko, Elizako artzain eta fededun guztiek Erromako gotzainari erakutsi behar dioten esanekotasuna adierazteko, eta harekiko obligazioak betetzera derrigorputa daudela jakiteko.

KB1 105.5.5 Patriarkak edo primatuak gotzainak dira, erregio edo probintzi batzuetako gotzain eta artzapezpikuen gaineko eskumena dutenak; artzapezpikuak probintzi bateko edo batzuetako eskumena duten gotzainak dira.

KB1 105.5.6 Gotzainak probintzi bateko edo probintzi baten zati bateko -elizbarrutia deitzen da- artzain orokorrak dira zilegitasun osoz sagaratuak eta ezarriak, apaizak eta bestelako ministroak sagartzeko agintaritza guztia dutenak, beren elizbarrutian, eta beren mendean dauden arima guztien gaineko eskumenak dituztenak.

Gotzainek soilik dute aitortza eta ordena sakramentuak kudeatzeko agintaritza.

KB1 105.5.7 Erretoreak elizbarruti bakoitzean gotzainak jarritako apaizak dira, elizbarrutiko eliza partikularren bat gobernatzen dute, gotzainaren eskumenaren

agintepean, beren eskuetan dauden arimen espirituzko gidaritzaren ardura dute, hauei sakramentuak eman behar dizkiete, Jainkoaren hitza aldarrikatu eta haien zaintza begiratu, Ebanjelio Santuaren araberako bizimoldea egin dezaten.

KB1 105.5.8 Aita santuek, gotzainek eta erretoreek ez dute beste apaizek dutena baino ezer gehiagorik, salbu beraiei dagokien eskumena.

Erretoreak Elizaren ministroak dira, gotzainek ordenatuak; Jesusen gorputz eta odola, oghiaren eta ardoaren espezie edo itxuraz, sagartzeko eskumena dute, bekatuak barkatzeko, sakramentuak kudeatzeko eta Jainkoaren hitza aldarrikatzeko.

KB1 105.5.9 Apaiza guztiak, beren ordenatzea dela-eta, bekatuak barkatzeko eskumena izan arren, sakramentuak kudeatzeko eta Jainkoaren hitza aldarrikatzeko, alabaina, ezin dute delako ahalmena gauzatu, non-eta ez diren erretoreak edo artzainak, edo non-eta horretarako gotzainaren baimenik ez duten; bada ez dute elizbarritu bateko edo parrokia bateko arimen gaineko eskumenik gotzainak ez badio ematen, honek duelako eskumen osoa horretarako.

KB1 105.5.10 Antzinatean, gotzainek ez zituzten apaizak ordenatzen beren elizbarrituak parrokiatan beharrik ez bazegoen, beren eskuetan zeuden arimei sakramentuak eta espirituzko laguntza guztiak eskaintzeko. Apaiza guztiei eta ordenatzen zituzten beste ministroei parrokia bat ematen zieten, denek lan horretarako beren buruak gaitzat jo zezaten, eta hala gotzainaren nola erretoreen zuzendaritzapean beren ministerioko funtzioak bete zituzten.

KB1 105.6 Seigarren saila Elizako behe mailako ministroez.

KB1 105.6.1 Jesusek nahi izan zuen gainera Elizan beste ministro batzuk egotea gotzainek eta apaizek behariko zuten laguntza izan zezaten, Elizek bete behar dituzten hainbeste funtzio beraiek bakarrik ezingo zutelako bete, adibidez, Meza santuaren sakrifizioarako, jainkozko zerbitzu guztirako, fededunen eskolatzeko eta santifikazioarako.

Ministro hauek diakonoak dira, diakonoen ordezkariak, mezautilak, exorzistak, irakurleak eta ostiarioak.

KB1 105.6.2 Diakonoak Elizako ministroak dira eta gotzainei eta erretoreei zerbitzu nagusiak emateko agintea dute, sakrifizioaren momentuan, Ebanjelioa ageriko irakurketan, bataioa eta eukaristia sakramentuen administratze unean eta Jainkoaren hitza aldarrikatzerakoan.

KB1 105.6.3 Komunioa bi espezieekin ematen zenean, gotzainak edo erretoreak fededunei Jesusen gorputza banatzen zien bitartean, diakonoek odol baliotsua eskaintzen zieten, eta batzuetan baita Jesusen gorputza ere, beharrezkoa bazen.

Hastapeneko Elizan diakonoek bazuten, baita ere, Elizaren ondasunen gaineko ardura, eta gotzainek esan bezala erremusinak banatzen zituzten.

KB1 105.6.4 Azpidiakonoak Elizako ministroak dira eta beren zeregina ogia, ardoa eta sakrifizioarako ontzi sagaratuak preparatzea da, gainera, diakonoari Meza santuan zerbitzea eta bertan epistola abestea; azpidiakonoak deitzen dira diakonoen mendean daudelako.

KB1 105.6.5 Meزامutilak Elizako ministroak dira eta beren zeregina da kandelak piztea, suzia argimutilarekin eramatea, Meza santuaren sakrifizioarako ur-ardo ontziak aurkeztea eta meza erreztatuetan laguntzea. Meزامutila deitzen zaio, hots, laguntzailea, sakrifizioan funtzio sagaratuak egiten dituenari jarraitzen eta laguntzen diotelako.

KB1 105.6.6 Exorzistak Elizako ministroak dira, deabruak exorzitatzeko eta konjuratzeko eta deabrudunen gorputzetatik botatzeko; ur bedeinkatuaren eta ur hau jasotzen den ontzien ardura du, eta apaizari aurkeztea ihintzatzea egin behar duenean.

KB1 105.6.7 Gaur egun, jada ez dira exorzistak deabrudunak exorzitatzeko dituztenak, funtzio honek diskrezio eta domeinu handia eskatzen dituelako horretan ari izateko. Elizak uste izan du egokia dela gotzainek beren esku edukitzea zein apaizari gomendatu lan hau; jaiera on eta zuhurtzi handikoa izan behar du.

KB1 105.6.8 Irakurleak Elizako ministroak dira eta beren zeregina jainkozko ofizioan Liburu Santuak irakurtzea da eta baita haurrei eta ez dakiten fededunei ere, kristau ikasbidearen hastapenak irakastea.

Ostiarriok Elizako ministroak dira, beren ordenazioaren ondoren Elizako ateari zabaldu eta itxi behar dituztenak, sartzea debekatua dutenei sartzen ez uztea, laikoak aldarera hurbil ez daitezen zaintzea, eliza ordenatzea eta eskobatzea eta kanpaiak astintzea.

KB1 105.6.9 Antzinatean, Elizako ministro txiki hauetako batzuk gotzainak izendatzen zituen, eta beste batzuk erretoreak, elizbarrutiko beharren arabera eta parrokiak eta hauen mendean dauden beste eliza partikularrak zaintzeko. Gaur egun ez dira orokorrean aritzen inongo Elizan, baina bai Meza santuko sakrifizioari dagokionez.

6. Kapitulu

KB1 106 **Epaiketa unibertsalaz, gorputzen pizteaz eta betiko bizitzaz.**

KB1 106.0.1 Nahiz eta Jesus zerura igo den bere gízatasunean betiko zoriontsua izateko, eta jainkotasunean Aitarene parekoa, egia da mendeetako azken egunean, mundua bukatuko den egun hartan eta Jainkoak soilik dakienean, zerutik jaitsiko dela denek ikusteko moduan hilik izango diren gizaki guztiak epaitzeko, bai zuzenak eta bai bekatariak, edozein mendetakoak, adinekoak, sexuak, edozein egoera eta baldintzetan izan direnak eta, baita ere, lur honetan bizirik izango direnak Jesus zerutik jaisten denean epaitzeko; haiek guztiak, alabaina, hilko dira, eta azken epaian azaldu aurretik piztuko dira.

KB1 106.0.2 Egia da gizakia hil ondoren nor bere kasa epaitua dela, eta Jesusek epaituko dituela, beren pentsamenduen gainean, hitzen inguruan, egindako eta egin gabeko obrei buruz, ondasun guztiez, naturak emandako graziez, gorputzaz eta arimaz, hots, bizitzan errezipitu zituzten ondasun guztiez, eta Jainkoak salbatzeko eman zien

denboraren inguruan egin duten erabilera on edo okerraz. Epaiketa hau behar bezalakoa izango da, eta ezin baliogabetuzkoa; eta berehala, zintzoak, hots, Jainkoaren graziarekin hil direnak eta bekatuen ordaina erabat pagatu dutenak, zerura joango dira, aingeru zaintzaile baten gidaritzapean; beren bekatuen ordaina pagatu behar dutenak oraindik, garbitokira joango dira; eta gaiztoak, hots, bekatu larriarekin hil direnak infernuetara joango dira deabruak tormentatuko dituztelarik. Eta une horretatik aurrerantzean, batzuk zorionekoak izango dira eta beste batzuk zorigaiztoak, betirako.

KB1 106.0.3 Baina Jainkoak ez du epaiketa partikularra soilik ezarri; gainera epaiketa orokorra ezarri nahi izan du munduaren akaberan; han gizaki guztiak agertuko dira eta banaka epaituak izango dira, hil orduan epaituak izan ez balira bezala.

KB1 106.0.4 Epaiketa hau epaiketa partikularren justizia munduari agertzeko egingo da; gizakien meritu gordeak agerian uzteko, bertute ezkutua eta eman zaien aintza; orobat, gaiztoen bekatu ezkutua eta higuigarriak ezagutzera emateko, hala beren nahasmendua nola beren kondena; eta gorputzei saria edo zigorra emateko, eta beren arimen ditxa edo zoritxarra betiko lagun egiteko.

KB1 106.0.5 Jesusek dio epaiketa handi honen aitzinean zeinu batzuk izango direla; ikusgarriak eta sentikorak izango direla epaiketaren aitzinean; toki ezberdinetan lurrikarak, izurriteak, goseteak eta zeruan gertakari handi eta izugarriak ikusi ahal izango direla; nazio bat beste nazio baten aurka matxinatuko dela, eta erresuma bat beste erresuma baten kontra.

KB1 106.0.6 San Paulo apostoluak diosku beste hiru zeinu garrantzitsu ere izango direla: mundu zabalean aldarrikatua eta errezibitua izango dela Ebanjelioa; ia kristau guztiak erlijioa eta fedea galduko dutela; eta antikristoa, zein apostolu beraren aburuz galmenaren gizaki eta seme baita, halako moldez matxinatuko da Jainkoa deitzen den edozein gauzaren aitzinean, ezen Jainkoaren jauretxean oholta bat eraikiaraziko baitu, Jainkotzat pasatu ahal izateko.

KB1 106.0.7 Beste zeinu batzuk ere izango dira epaiketa baino dezente lehenago. Eguzkian, ilargian eta izarretan zeinua agertuko dira; eta lurtean gizakiak erabat nahigabetuak agertuko dira itsasoko uhinen dunbotsarekin zeharo nahastuta; gizakiak beldurrak txundituta geldituko dira, lur osoan zer gertatuko zain.

KB1 106.0.8 Harrezkero, eguzkia iraungiko da, ilargiak eta izarrek ez dute jada argirik emango, eta zeruko izarrek erortzeaz daudela emango du; horregatik egun horri ilunbe eta aizaro deituko zaio.

Orduan, Jesus, gizakiak epaitzera etor dadinean, argizko hodei batean agertuko da, kerubinez inguratuta, gurutzea eramanez eta aingeru aldra baten konpainian, maiestatez, agintez eta aintzaz dirdira eginez. Bere aingeruak igorriko ditu eta munduaren bazter guztietako gizaki guztiak bilduko ditu, lurreko mutur batetik zeruaren beste baztererraino.

KB1 106.0.9 Une hartan zeruan eta infernuaan aurki daitezenak lurrera etorriko dira, azken epaiketa ikaragarrian presente egoteko. Une berean, gizaki guztiak piztuko dira eta bizitzara itzuliko dira, eta lurtean bizi zirelarik izan zituzten gorputzek beren

arimekin bat egingo dute; izan ere, arima hauek ez baitzioten inoiz uko egin bizitzari, hilezkorrak direlako.

KB1 106.0.10 Santuak gorputz aintzatsuz piztuko dira, argiz dirdira eginez, eguzkia bezain distiratsuak, Jainkoaren aitzinean, ezingo dutelarik nozitu ez goserik, ez egarririk, ez hotzik, ez berorik edo bestelako edozein minik; eta espirituzkoak izatera helduko dira, izan daitezkeen heinean, jakina. Gaiztoak, aitzitik, gorputz beldurgarri eta izugarri batez piztuko dira.

KB1 106.0.11 Aita eta Espiritu Santua ez dira epaiketa horretan izango; Jesus bakarrik, Jainko-Gizon baita, epailea izango da, berak bakarrik, ebanjelio santuan esaten den bezala, epaitzeko boterea hartu duelako, Gizonaren Semea da eta.

KB1 106.0.12 Badirudi komeni dela gizakiok beste gizaki batek epaitu gaitzan. Eta esango genuke Jainkoaren Semea gizon egina gizaki guztien epaile izateko dagoen arrazoietako bat zera izan dela, alegia, epaitzerakoan kondenatuak nahasmenduan hondora daitezela, ikusirik zein axolagabeak izan diren Jainkoaren zerbitzuan eta zein esker txarrekoak Harekin; ez dutelako aprobetxatu nahi izan Jainkoa egin denaren heriotzaz, bekatuak gabekoak eta haren errugabetasunaz, baina, hala ere, bizitza osoan nozitu behar izan zuenaz eta heriotza lotsagabe baten besoetan etzan zenaz bere erreinuko edukiaz eta eskubideaz gozatzeko, eta zoritxarrez haiek beren bekatuez ditxa horretaz aprobetxatu ez zutenak.

KB1 106.0.13 Gizaki guztiak azken epaiketa horretan azalduko badira ere epaituak izateko, alabaina, epaiketa hau oso denbora laburrean egingo da. Jesusek bertan ozenki eta denen aitzinean azalduko du aukeratuentzako eta kondenatuentzako epaia; batzuk berehala zerura joango dira eta beste batzuk infernura, orduan ez delako jada garbitokirik izango.

KB1 106.0.14 Egun hartan bekatuen ordaina pagatu ez dutenek oraindik, ordaina pagatu beharko dute, eta denbora eskas batean pagatu beharko dute garbitokian pagatu beharko zuten haina, beren bekatuen ordaina erabat ordaintzeko.

Orduan lur guztia sute unibertsal batean kiskalita geldituko da; eta unibertso guztia eraberitua izango da, denbora amaituko da eta ez da betierekotasuna baino geldituko.

KB1 106.0.15 Epaiketa unibertsalaren ondorenean santuak zerura joango dira eta han betiereko bizitzaz gozatu dute, hots, Jainkoa den bezala ikusiko dute, eta betiereko maiteko dute; han Jainkoak merezi duen manieraz gurtuko eta laudatuko dute; eta han ondasun mota guztiak edukiko dituzte, inolako gaitzik gabe; eta zenbat eta hobekiago Jesus imitatu eta pazientzia handiagoz nozitu, orduan eta zoriontsuagoak izango dira.

KB1 106.0.16 Jainkoaren graziarekin hil direnek bakarrik gozatu ditzuten ondasun hauek guztiak. Aitzitik, bekatu larrian hil direnek infernua izango dute egoitatzat, non ez duten inoiz Jainkoa ikusiko eta non imajina ditzakegun gaitz guztiak jasan beharko dituzten, inongo ongirik eta kontsolamendurik gabe; ez dute deabruena baino beste konpainiarik izango, eta betiereko suak hartuko ditu, hala gorputza nola arima, biak ala biak; Jainkoaren izen santua irainduko dute etengabe eta beren buruak madarikatuko

dituzte paradisua beren erruz galdu dutelako, halako galera garrantzitsua berreskura ezina izango zaielarik.

KB1 106.0.17 Hona bada zein izango den gizaki guztien patua; zein izango den batzuen ditxa eta beste batzuen zoritxarra; eta zertan geratuko den sinetsi eta itxaron behar duguna bizitza honetan, eta, era berean, zerk beldurtu behar gaituen, bekatutan bizitzeko lain burugabeak bagara, eta zenbaterainoko axolagabeak gure salbamenari dagokionez damutasunean hiltzeko.

KB1 200

**Bigarren tratatua
Kristauaren bigarren betebeharrak, Jainkoa maitatzea**

KB1 201

**1 Kapituluak
Jainkoa maitatzera eramaten gaituen karitateaz**

**KB1 201.1 Lehenengo saila
Jainkoa maitatzeko beharrak.**

KB1 201.1.1 Kristautentzat alferrik izango litzateke fedea edukitzea eta Jesus aldarrikatzera etorri zen betiereko egiak sinestea eta orobat Elizak proposatzen dituenak gogoan hartzea, baldin bere fedea obra onez eta karitateaz animatuak ez baleude. Horregatik Donejakue apostoluak dio fedea obrarik gabe hilik dagoela, hots, ez duela deusik balio salbamenerako; eta apostolu berak obra onez lagunduta ez dagoen fedea deabruen obrekin alderatzen du; ez duelako fruiturik ematen daukatenengan, eta mundu honen erantzule egiten dituelako Jainkoaren aitzinean eta, azkenik, bizitza hau utzi ondoren deabruen antzeko egiten dituelako, hauek Jainkoa sinesten dutenak izanik ere, gorroto diotenak betiereko.

KB1 201.1.2 Beraz, nahitaezkoa da kristautentzat karitatea izatea, eta honetan datza mundu honetan obratu behar duten guztia salbamena erdiesteko: ongia praktikatu eta zerura garamatzen bertutea, eta harengandik urrutiratu litzakeen bekatua saihestea, horretan eroriko bagina, eta haren aitzinean ez-duin egingo litzuke zoritarreko egoera horretan hilko balira.

Bertute honen praktikan datza, baita ere, Jainkoak agintzen digun guztia, bada horren mendean daude Jainkoaren manamendu guztiak, Jesusek Ebanjelio Santuan ziurtatzen digun arabera.

KB1 201.1.3 Karitateak bi gauza ditu: Jainkoa maitatu eta lagun hurkoa maitatu. Hauxe da Jesusek adierazi nahi duguna lege osoa laburbiltzen duten bi manamendu baino ez daudela esaten digunean; aurrena, Jainkoa maitatzea gure orobateko adimenaz, bihotzeko txeraz eta ahalmen guztiaz; bigarrena, lagun hurkoa maitatzea norbere buruaren neurriaz.

Hala gauzak, bada, karitatea Jainkoak ematen digun bertute bat da, eta Jainkoa gauza guztien gaintik maitatzera garamatzana, eta gure lagun hurkoa gure buruaren antzera, Jainkoaren maitasunagatik.

KB1 201.1.4 Bertute hau ezin dugu gure kabuz erdietsi, Jainkoa da ematen diguna. Baina, errezipitzeko prest bagaude, bere poza eta atsegina da horren esku hartzaile

izatea; bada Bera gure jomuga baita eta orobat gure xedea, ez du gehiago pozten eta alaitzen gure joera harenganako delat ikustea baino, eta behar dugu izan, hots, gure afektuak harekin bat egitera eta gozatzera bideratuak. Eta Hark jarrera honetan ikusten gaituenean, orduan berak karitatea ematen digu, bere maitasun santua, alegia; are eta gehiago, delako jarreak gure baitan izanda haren ontasunaren efektua dugula esan nahi du.

KB1 201.1.5 Jainkoa maitatzeko bi forma ditugu: 1 Bera delako, funtsezko ontasuna, hots, berez azkengabe ona delako; honi Jainkoa maitasun hutsez maitatzea da. 2 Maita dezakegu guregatik, gure ontasun gisa, esan nahi baita, bizitza honetako gure atsegin gisa eta beste bizitzan gure sari gisa; honi deitzen diogu Jainkoa interesdun maitasunaz maitatzea.

Jainkoa bera delako maitatzeko araztasunez maitatzea da, bere baitan perfektzio guztiak dauzkalako, azkengabeak direlako eta azkengabe maitekor egiten dutelako.

KB1 201.1.6 Jainkoa guregatik maitatzea, sortu gaituelako maitatzea da, bekatutik libratu gaituelako, maitatzen gaituelako, kondenatik gu libratu eta Berak saritu gaitzan nahi dugulako; eta gure maitasunerako beste motiborik ez edukitzeagatik hauetakoren bat ez bada.

Jainkoa maitatzeko lehenengo forma oso garbia eta interes gabekoa da; eta sortzen duen maitasunari gozamen maitasuna deitzen diogu.

KB1 201.1.7 Jainkoa maitatzeko bigarren forma, gure buruarekiko maitasunarekin nahastuta baitago, gure interesarekin kutsatuta agertzen da. Baina delako interes hau gure salbamenarena denez, eta Jainkoak nahi baitu desira eta horren alde lan egin dezagun, eratorzen den maitasuna ona, zuzena eta santua da; eta Trentoko Kontzilioaren arabera Jainkoaren doea da eta Espiritu Santuaren mozioa.

KB1 201.1.8 Oso onuragarria da motibo hauetaz baliatzea, gure arimaren espirituzko ontasunari begira daudenak bestalde, Jainkoarekiko maitasunera osorik lerratzeko eta benetako zerbitzariak ez garenean eta bekatua zinez gorrotatzen ez dugunean edo Jainkoarenak diren obrak praktikatzan ez ditugunean; eta Jainkoa maitasun garbiaz eta ez beste inolako asmoz, baizik-eta berez eta funtsez santua delako maitatuko dugula hitza emateko.

KB1 201.1.9 Alabaina, ez da zilegi Jainkoa maitatzea Beragandik hainbeste on, mesede eta fabore jaso ditugulako soilik, edo Harengan itxaropena jarria dugunez guk nahi duguna erdiesten lagunduko digulakoan. Maitasun mota hau ez litzateke egiazko Jainkoarekiko maitasuna izango, baizik-eta sorkariarena, bada egiaz denborazko ontasunak soilik maitatuko genituzke, eta Jainkoari erakutsi beharko genion maitasuna denborazko ontasunak hartuko lukeela mende, hauek izango zirelako helburu, xede eta jomuga; eta gure benetako helburua denborazko ontasunak izango lirateke eta ez Jainkoa gure baitan edukitzea, gure helburu bakarra izan beharko zena bestalde, eta, orobat, gure ontasuna gorena.

KB1 201.2 **Bigarren saila**
Jainkoa maitatu behar dugun manieraz eta Harenganako maitasuna dugula erakusten duten seinaleez.

KB1 201.2.1 Gure Jaunak dio Jainkoa gure indar guztiaz maitatu behar dugula, gure arima, adimen eta ahalmen guztiaz.

KB1 201.2.2 Jainkoa gure bihotz guztiaz maitatzea gure txera guztiaz maitatzea da, zokoan ezer utzi ez eta gure bihotzean Jainkoa ez den deusi lekua eman gabe, Hark jabetu behar baitu osotero, guk ere betierekoan erabat jabetu nahi dugulako. Beraz, ezin gaitezke ibil gure bihotza bitan partitzen Jainkoaren eta munduaren artean, eta gure bihotza batean Jainkoagan itsasten eta beste batean munduarekin uztartzen; zatiketa hau iraingarria izango litzateke Jainkoarentzat, ezin duelako halako nahasketa ametitu. Hala ere, permititua dugu sorkariak eta gauza batzuk mundu honetan maitatzea, baina beti Jainkoarekiko harremanak direla medio maitatu behar ditugu; orduan ez da sorkariak maitatze hutsa izango, Jainkoa sorkarietan maitatzea baizik.

KB1 201.2.3 Jainkoa gure arima guztiaz maitatzea emateko beti preparatuta eta jarrera egokiz egotea da, ez bakarrik gauza guztiak, baita gure bizitza ere, arima hitzaz adierazia, Jainkoaren maitasuna erdiesteko eta kontserbatzeko, eta gure bizitzako denbora guztia hura maitatzen eta zerbitzen emateko.

Jainkoa gure adimen guztiaz maitatzea Hartaz etengabe pentsatzea da, edo gure pentsamendu guztiak Hari zuzentzea, deusik ez pentsatzeko baldin Bera maitatzera eta haren maitasun santua gogoan hartzera ez bada.

KB1 201.2.4 Jainkoa gure indar guztiaz maitatzea Jainkoari zor diogun maitasuna gure bamean itxita ez edukitzea da, baizik eta kanpora proiektatzea gure egintza guztien bitartez; eta, baita ere, egin dezakegun edozein ongia egiteaz ez konformatzea da, Jainkoari diogun maitasuna testifikatzeko.

KB1 201.2.5 Zalantzarik gabe baldintza hauek guztiak, arestian azaldu ditugun bezala azalduta, Jainkoaren maitasunaren perfekziora garamatzate, eta hori da dirudienez Jesusek nahi izan duena manamendu honen erakustez. Baina zertara behartzen gaituen zehatz-mehatz esateko, esan behar da Jainkoa bihotz guztiaz maitatzea (eta beste baldintza guztiak honetan bil daitezke) gauza guztien goitik maitatzea dela, beste edozer ez maitatzea Haren goitik, eta beti prest egotea gauza oro galtzera, baita bizitza bera ere, Hura iraintzea baino, eta hala egitea zinez abagunea izaten bada.

KB1 201.2.6 Mundu honetan Jainkoa maitatzeko baino ez gaude, eta erlijioa Jainkoa maitatzen dugun heinean dugu; ezin dugu Jainkoaren atseginerako deusik egin maitatu gabe. Jainkoarekiko maitasun hau hain dugu beharrezkoa, ez dago beste ezer, hura izan ezik, Jainkoaren manamenduak betetzera eraman gaitzakeena eta gure arimaren bizia kontserbatu ahal diguna, zeina bizitzekotan duen grazia eta karitatearen arabera biziko baita. Horregatik San Joaneke ziurtatzen digu Jainkoa maitatzen ez duena heriotzarekin dagoela, esan nahi baita, Jainkoaren aitzinean hilik balego bezala dagoela.

KB1 201.2.7 Nahiz eta, lur honetan bizi garen bitartean, ezin dugun esan Jainkoarekiko egiazko maitasuna dugunik, dena den, badira seinale batzuk nolabait adierazi liezagutenak. Lehenengoa Jainkoaren nahia betetzeko borondatea dugun jakitea da. Bigarrena, leialtasunez betetzen dugun Jainkoak eskatzen digula dakiguna. Hirugarrena, Jainkoaz maiz pentsatzen dugun eta Hari buruz atsegin handiz mintzatzen garen. Laugarrena, denei ongia egiten diegun, are gorrotatzen gaituztenei edo gaizkia

egin edo egiten digutenei. Bosgarrena, mundua benetan bazter batean uzten dugun eta orobat lur honetako gauza guztiak.

KB1 201 2.8 Hala, bada, Jainkoarekiko egiazko maitasuna izan nahi badugu, oroz gain kontu handia izan behar dugu gure egintzak Jainkoaren maitasunagatik egiteko. Egunean zehar, baita ere, Jainkoarekiko maitasun ekitaldiak egin behar ditugu, bada ohiturak lortzekotan ekitaldien bitartez erdiesten dira. Are gehiago, nahitaez burutu behar ditugu Jainkoa maitatu behar dugulako ezaguerara iritsi bezain azkar, tentazio bortitzen batek eraso egiten dugunean, eta heriotza arrisku garbian aurkitzen bagara.

KB1 201.2.9 Jainkoarekiko maitasun ekitaldi bat honela egiten da: ene Jainko, gauza guztien eta nire buruaren goitik maite zaitut, txit ona zarelako. Nahiago nuke hiltzea zu iraintzea baino.

Ez da inola ere sinetsi behar Jainkoari 'ene Jainko gauza guztien goitik maite zaitut' esaten dugun aldi guztietan, Jainkoa egiaz maite dugunik. Honela hitz egitea zerbait bada zera da Jainkoari erakustea maite dugula eta maite nahi dugula, baina ez zehatz-mehatz maite dugula; eta lekukotasun hau ez da egia baldin ez bada zinez maite dugula erakusten, eta hori egintzen bitartez gauzatzen da. San Joanek diosku Jainkoa maite dugula esan bai baina haren nahia betetzen ez bada, gezurtia dela bat, eta egia ez dagoela harengan.

KB1 201.3 Hirugarren saila Gure lagun hurkoa maitatzeko dugun obligazioaz.

KB1 201.3.1 Ezin gara konformatu Jainkoa maitatzeaz, gure lagun hurkoa ere maitatu behar dugu. Hauxe da Gure Jaunak proposatzen digun legearen bigarren manamendua, eta lehenengoa bezalakoa dela diosku, barnean sartuta dagoelako; bada, San Joanek dio: lagun hurkoa maite ez duena eta Jainkoa maite duela dioena, gezurtia da; izan ere, ikusten duen anaia maite ez badu, ikusterik ez duen Jainkoa maite dezake?

KB1 201.3.2 Gure lagun hurkoa maitatu behar dugula esaten denean, gizaki guztiak maitatu behar ditugula ulertu behar da, denak direlako gure lagun hurkoak eta gure anaiak, denok aita beretik baikatoz. Alabaina, ez ditugu denak modu berean maitatu behar, bada batzuk beste batzuk baino gehiago maitatu behar ditugu, eta hauen artean daude egiazko kristauak, legearen eta Jaunaren aginduen arabera bizi direnak; era bereziz baitatozkigu, jainkozko jaiotzaren bitartez gure anaiak direlako bataioaren bidez; honek Jainkoaren seme-alaba egin zituen; bestelako gizakiak, berriz, gure anaiak dira soil-soilik giza eta jaiotza natural hutsaren bitartez.

Kristauekin beste lotura are estuagoa ere lortu dugu, esan nahi baita, denak garelara Jesusen eta Elizaren kideak, eta haiekin gorputz bat osatzen dugu. Espiritu Santuak, Eliza adoretzen duenak, sortzen du batasun hau fededunen artean, eta, orobat, denak Jesusekin uztartzen dituena.

KB1 201.3.3 Derrigortuta gaude gure aita eta gure ama maitatzera, bizitza eman eta hezi gintuztelako, eta eskerrak eman behar dizkiegu haiengandik errezibitu ditugun ondasun guztiengatik. Jainkoak gure eskuerakutsia eman diezaiegun nahi du, eta, orobat, gure senideak maita ditzagun bestelako gizakiak baino gehiago.

KB1 201.3.4 Lagun hurkoarekiko maitasunak, Jainkoaren maitasuna dela-eta, geure buruari bezala maitatzera garamatza. Nork bere burua maite dezake bi manera ezberdinez, hauetako bat txarra da, eta bestea, ona.

KB1 201.3.5 Lehenengo manera nork bere burua pozteko maitatzea da, atsegina hartzeko eta nork bere buruari dion maitasunarekin plazer izateko, eta ez, noski, Jainkoa maitatzeko edo harekin zerikusia duten gauzak estimatzeko.

Bigarren manera nork bere burua maitatzeko, esan nahi baita, manera ona dena, Jainkoagatik nork bere burua maitatzea da, Jainkoak ematen dizkigun ondasunak maitatzea, alegia, graziaren eta betiko bizitzaren ondasunak desiratzea, eta horretara garamatzen guztia; eta Jainkoak saihestea nahi duen guztia guk baztertzea, hots, bekatu eta bekatuan erortzera garamatzen guztia.

KB1 201.3.6 Gure burua maitatzeko lehenengo manera zeharo naturala da, bada graziak ezin du egin geure buruak maitatzea, baldin eta Jainkoagatik ez bada, eta ez atsegina hartzeko bizitza honetako plazerretan. Baina geuri buruari diogun maitasuna eta gainera gure arimarentzako ondasunak desiratzera garamatzana eta bizitza honetan zein bestean egiazko ditxa izatera, naturaz gaindiko maitasuna da; izan ere, graziak bakarrik eraman gaitzake Jainkoarekiko posesioa eta irrika lortzearren baliabide egokiak erabiltzera, lortzeko.

KB1 201.3.7 Ezin gara konformatu gure lagun hurkoa norbere burua bezala maitatzeaz manera natural hutsez. Lagun hurkoa maitatzea zera da: nork bere buruari bezala hari ere guretzat nahi ditugun ondasunak eskaintzea. Eta nork bere buruari eskaini behar dizkion salbamena eta hau erdiesteko baliabideak, hauxe da, era berean, karitateak eskatzen digun ongia gure lagun hurkoarentzat.

KB1 201.3.8 Lagun hurkoarentzat denborazko eta kanpo aldeko ondasunak eska daitezke eta eskatu behar dira, lanean eta negozioetan arrakasta, osasuna, bizitza honetako gorabeheretan bakea eta lasaitasuna. Baina ondasun hauek ez zaizkie eskaini behar baldin Jainkoak nahi dituen gauzak lortzeko ez badira, eta salbamena erdiesteko balio duten heinean, baina ez naturazko eta giza poza lortzearren.

KB1 201.3.9 Ez da nahikoa gure bihotzean lagun hurkoarekiko maitasuna sentitzea, praktikan ere erakutsi behar diogu, haren beharraren arabera eta gure ahalbideen arabera. San Joanek diosku gure lagun hurkoa egiaz maitatzen badugu, Jesusek maitatu gintuen bezala maitatu behar dugula, esan nahi baita, prest egon behar garela gure bizia emateko haren alde eta salba dadin, Jesusek gure alde bere burua heriotzara entregatu zuen bezala.

KB1 202

Bigarren kapitulua Jainkoaren manamenduez orokorrean

KB1 202.0.1 Jainkoa eta lagun hurkoa benetan maite ditugula adierazteko egin dezakegun gauzarik ederrena zera da, Jainkoaren manamendu santuak leialtasunez eta zehatz-mehatz gordetzea; bada Jainkoa maite duenak Hark nahi duena behar du nahi izan eta agintzen duena bete; eta zeren harengandik jaso ditugun manamenduak zinez maitatzea eskatzen baitigute, gure lagun hurkoa maite behar dugun bezala.

KB1 202.0.2 Jainkoaren manamenduak Hark ezarri dituen legeak dira gure zeregina finkatzeko; eta Jainkoarekiko betebeharrak ditugu eta orobat lagun hurkoarekikoak, nahitaezkoa zen Jainkoak bi manamendu mota ematea: batzuk Jainkoarekin zerikusia dutenak eta beste batzuk lagun hurkoarekin lotuta daudenak.

KB1 202.0.3 Jainkoaren manamenduak hamar dira. Hauetako hiru lehenengoek Jainkoarekiko ditugun betebeharrak azaltzen dizkigute, eta azkeneko zazpiak lagun hurkoarekikoak. Ezagutzeko obligazioa dugu, betetzera behartuta gaude eta.

KB1 202.0.4 Jainkoaren hamar manamenduak Liburu Santuan daude eta manera honetan adierazten dira:

1. Ni naiz Jauna, zure Jainkoa. Ez duzu beste jainkorik izango, baizik eta ni. Ez duzu eskulturarik egingo, ezta inolako irudirik ere gurtzeko edo zerbitzeko.
2. Ez duzu alferrik erabiliko Jaunaren, zure Jainkoaren, izena.
3. Gogora ezazu atsenden eguna errespetatu behar duzula, hots, *igande santua*.
4. Ondra itzazu zure aita eta zure ama, zoriotsu izan zaitezten eta lur honetako bizitzan luzaro iraun dezazun.
5. Ez duzu hilko.
6. Ez dituzu ekitaldi lizunak egingo.
7. Ez duzu ebatsiko.
8. Ez duzu lagun hurkoaren aurkako gezurrezko lekukotasunik emango.
9. Ez duzu zure lagun hurkoaren andrea desiratuko.
0. Ez dituzu desiratuko ez bere etxea, ez bere morroia, ez bere idia, ez bere astoa, ez berea den deusik.

KB1 202.0.5 Jainkoaren manamenduok zehatz-mehatz betetzen ez dituztenak zorigaiztoko izango dira infernuetan, han betiko kiskaliko dira eta ez dute sekula santan Jainkoa ikusiko. Haatik, leialtasunez betetzen dituztenak betiren beti zorioneko izango dira zeruan, han Jainkoa ikusiko dute eta denetako atsegin motaz gozatuko dute, ez dute gizakiek izaten duten inolako zoritxarririk eta miseriarik izango.

KB1 202.0.6 Hamar manamenduok Jainkoak Moisesi lege zaharrearman emandakoak dira, Irteeraren 20. kapituluak adierazten digun bezala. Munduaren hasieratik Jainkoak sartu zituen gizakiaren bihotzean; baina naturaren usteltzeak eta bekatuarekiko joerak traza gehienak ezabatu zituenez, Jainkoak harrizko tauletan grabatu zituen eta Moisesen ministerioaren bitartez judutarrei ospe handia eman zien, portaera guztian arau gisa zerbitzeko.

Jesusek, graziaren legean, apostoluen eta diszipuluen pertsonengan aldarrikatu eta iragarri zion berriro bere Elizari, eta bete behar zuten forma irakatsi zien, graziatz eta karitateaz, Jainkoa eta lagun hurkoa santutasunez maitatzea helburu bakarra delarik.

KB1.203

Hirugarren kapitulua Berezoak diren Jainkoaren manamenduez Jainkoaren lehenengo manamenduaz

KB1.203.0.1 *Ni naiz Jauna, zure Jainkoa. Ez duzu beste jainkorik izango, ni baizik. Ez dituzue eskulturak egingo, ezta inolako irudirik ere, gurtzeko edo zerbitzeko.* Jainkoak

lehenengo manamenduan agintzen diguna zera da, bera egiazko Jainko gisa onartzea, eta Bera soilik gurtzea.

Jainkoa gurtzea Hari soilik dagokion erabateko ohorea eskaintzea da; hitz batez esateko, gure Jauna kreatoraile eta subirano gisa onartzea, zeinaren mendean baikaude gauza guztietan; eta ikuspegi honekin, begirune sakonaz barneratzea.

KB1.203.0.2 Jainkoa gurtzeko bi manera ditugu: barnean eta espirituan gurtzen dugu, gure arimaren hondoan ondratuz eta onartuz gure lehenengo hasiera eta azken helburua bailituz; gurtu ere kanpoan gurtzen dugu, gorputzaren apaltasun eta esanekotasun ekitaldiak erakutsiz, haren jainkozko maiestatearekiko estimua eta begirunea eskainiz.

KB1.203.0.3. Era batera zein bestera Jainkoa gurtzeko obligazioa dugu, merezi duen ohorea eskaintzeko; baina gure gorputza eta gure arima era berean diren Jainkoarenak, bien ala bien omenaldia eskaini behar diogu, Haren erabateko menpetasunean gauden lekukotasuna erakusteko, gure baitan dauden gauzetan eta geu garen oroetan.

Ez da nahikoa Jainkoa kanpotik soilik gurtzea. Baldin gure kanpoko gurtzea bat ez badator barrukoarekin, mereziko genuke Jainkoak guri egitea Jesusek judutar herriari egin ziona bera: ezpainez bakarrik gurtzen dugula, baina ez bihotzaz.

KB1.203.0.4 Egutero jasotzen baitugu Jainkoagandik izatea, bizia eta daukagun guztia, era berean gurtu behar dugu egun batean bai eta beste egunean ere bai. Are eta gehiago, erlijioak horretara behartzen gaitu Jainkoaren izen santuaren inguruan blasfematzen entzuten dugunean.

Gurtze ekitaldi bat era honetan egiten da: ene Jainko, nire kreatoraile eta Jaun subirano gisa gurtzen zaitut, benetan zure menpean naukazu eta, gauzak hala, merezi duzun ohore guztia eskaintzen dizut.

KB1.203.0.5 Jesus Gure Jauna aldi berean gizon eta Jainko baita, nahitaez adoratu behar dugu, horrek ez duelarik eragotzi behar Jainkoaren lehenengo manamendua betetzea. Era berean ezin dugu gurtu gabe laga bere gizatasun sagaratua, bere jainkozko pertsonari lotuta dagoelako, eta Jainko Semearen pertsonari dagokion adorazioa bera dagokio uztartuta egotea funtsean Harekin lotuta dagoenari.

Manera bertsuaz adora daiteke Jainko Semearen gizatasunari dagokiona eta honekin harremana duena. Arrazoi hau dela-eta adora ditzakegu honen arropak eta Jesus Gure Jaunaren irudiak, iltzatuta egon zen gurutzeta eta haren eskuak eta oinak zulatu zituzten iltzeak; baina ez gauza hauek arreta berezia merezi dutelako, gauza hauek Jesusekin eta honen jainkozko pertsonarekin zerikusia dutelako baizik.

KB1.203.0.6 Jainkoari egin behar diogun adorazioak ez digu deusik kentzen Ama txit Birjinari eman behar diogun ohorea, edo aingeruei eta santuei, ez; are eta gutxiago pentsatu behar dugu Jainkoa iraintzen dugunik besteoi eskaintzen dieguna egiten dugunean, Jainkoa bera gurtzen duguna besteok ondratzen ditugunean.

Santuei diegun ondra ezin dugu esan adorazioa denik, hots, Jainkoari eskaintzen dieguna bezalakoa, bada beti sorkari gisa hartzen ditugu, eta Jainkoa soilik da gure kreatorailea eta denetan haren esanetara gaude.

KB1.203.0.7 Mariari beste edozein sorkariri eskain diezaiokegun ohorea baino dezente handiagoa zor diogu, Jainkoaren Ama delako, zerura jaso delako, grazia ugari errezibitu zituelako, eta jasotako grazia, doe eta jarrera guri mesede egiteko erabiltzen dituelako.

Baita ere, aingeruak eta santuak ondartzeko obligazioa dugu, Jainkoaren adiskideak eta zerbitzari leialak direlako, santu handiak izan baitziren, eta zeruan Jainkoaren aintzaz eta aginteaz gozaten ari dira, gainera, gure beharretan laguntza eskaintzeko dohaina jaso dute.

KB1.203.0.8 Birjina Txit Santua eta santuak ondartzan ditugu agurtzen ditugunean, errezatzen diegunean, dei egiten diegunean, eskerrak emanez eta haien obrak imitatuz.

Begirune- eta benerazio-zantzuak emanez agurtzen ditugu. Jainkoari haien bitartez fabore batzuk eskatzen diegunean errezatzen diegu. Dei egiten diegu haien laguntza eskatzen dugunean gure oztopoetan eta tentaldietan. Eskerrak ematen dizkiegu lortu diguten mesede edo graziaren bat dela-eta gure esker ona erakusten diegunean. Eta imitatzen ditugu haiek egin bezala gu ere kontu handiz santifikatzen saiatzen garenean, haien jarraibidea segituz eta egin zutena praktikatuz.

KB1.203.0.9 Nahiz eta santuak ondartzeko azken manera hau onuragarriena izan guretzat eta gehien atsegin zaiena, hala ere, oso egokia da maiz santuei otoitz egitea kristau zintzoek egiten duten bezala; izugarri lagundu diezaguketelako eta haien otoitzez Jainkoari eskatzen dieguna helarazi, esan nahi baita, bestela, ezingo genituzkeela erdietsi haien laguntzarik eta ahalmenik gabe.

Dena den, ez dugu pentsatu behar santuek erdietsi diezaguketena berezko grazia berezi batez erdiesten digutenik, ez; Jainkoak soilik dauka botere hau. Santuek egin ahal duten guztia Jainkoaren aitzinean gure alde erregutzea da.

KB1.203.0.10 Elizan zerbait lortu ahal izateko Jainkoarekiko eta bestelako jainkozko pertsonetik irudi batzuk egin izan dira, nahiz eta ezin den inola ere Jainkoaren irudirik egin, ez berarena eta ezta Hirutasun Donearen baitan dauden hiru pertsonena ere; izan ere, ez baitira gure moduan izaki materialak eta sentikorrak, horrek erraztasun handiagoa ematen digu Jainkoaz pentsatzeko, gure espirituari presenteari edukitzeko, gurtzeko eta gure alde egin dituen ontasun guztiak eskertzeko.

Era berean, arrazoi are eta gehiagorik aurkezten dira elizetan Birjina Txit Santuaren eta santuen irudiak. Haiekin gogoratzeko balio dute, haien egintzarik garrantzikoena ezagutzeko, haien jarraibideak segitzeko eta erreza diezaiagun saiatzeko.

KB1.203.0.11 Aita Jainkoaren irudiak gurtu behar ditugu eta orobat beste jainkozko pertsonak; eta Birjina Txit Santuaren eta beste santuen irudiei zor diegun ohorea beren pertsonari zor dieguna bera da..

Ezin dugu pentsatu irudiei eskaintzen diegun ohorea harriek, egurrei edo paperari etab., eskaintzen diegula. Honela jokatuko bagina idolatrak izango ginateke. Aita Jainkoaren eta beste jainkozko pertsonen irudiei eskaintzen diegun gurtza, Jainkoari

berari eskaintzen diogu; eta Birjina Txit Santuaren eta santuen irudiak ondartzeko eskaintzen ditugun kultuak ez dizkiegu irudiei eskaintzen, santu horiei baizik; eta irudiei eta imajinei eskaintzen badizkiegu, Jainkoarekin eta santuekin duten loturagatik izan ohi da.

KB1.203.0.12 Honela ondartzan da errege baten koadroa edo gizairudi bat; eta, beren erretratuaren edo estatuaren aurka aritzea iraintzea izango zen bezala, era berean izango zen Jainkoa mesprezatzea irudikatzen dituzten irudiak ez errespetatzea; eta manera berezi batez irainduko genituzke Birjina Txit Santuaren eta santuen irudiak, imajinak ondratuko ez bagenitu.

Horregatik Elizak, VII. Kontzilio Ekumenikoan, herese gisa kondenatu zituen imajinei ez zitzaiea kulturik eskaini behar defenditu zutenak, edo ez zirela elizetan erakutsi behar.

KB1.203.0.13 Elizaren espirituaren barruan sartzen da santuen gorpuzkinak ondartzea, hots, beren gorpuak edo lurrean gelditzen diren beren gorpuenak; beren gorputzak arimen santifikaziorako balio izan dutenez, Jesusen kideak izan direnez, Espiritu Santuaren Jauretsi biziak, eta egunen batean aintzaz beteko direnez, bidezkoa da erabat haiei ohoreren bat eskaintzea; eta are eta gehiago jakinik Jainkoak grazia ugari eman diezazkigukeela haien bitartez.

Permititua dago eta on da belaunikatzea eta otoitz egitea gorpuzkinen aitzinean, santuen irudien aitzinean bezala, haien bitartez Jainkoari graziaren bat eskatzeko.

KB1.203.0.14 Batzuetan gorpuzkintzat hartzen dira erabili zituzten zenbait gauza, hots, arropak, jantziak edo objektu batzuk, Jainkoak botere bereziren bat eman dienak, beren gorputzak ukitu zituztelako edo haietaz baliatu zirelako. Gorpuzkin mota hauei ere nolabaiteko ohorea eskain dakieke, eta haien bitartez faboreren bat erdietsi, dela ukituz, dela benerazio zantzu batzuk emanez.

KB1.203.0.15 Lehenengo manamenduaren aurka akats egiten dute fedearen, itzaropenaren, karitatearen edo erlijioaren aurkako bekatua egiten dutenak.

Badira Elizatik at daudenak, hots, fedegabeak, Jainkoa denik ere sinesten ez dutenak, edo fedezko egietan sinesten ez dutenak; apostatak, fedea besarkatu eta gero atzera egiten dutenak; hereseek, hauek nahiz eta bataiatuta egon, fedearen aurkako egiaeren bat mantentzen dute egoskor; zismatikoak, Elizatik banandu direnak eta aita santuari obeditzeari uko egiten diotenak.

KB1.203.0.16 Badira batzuk fedearen aurka bekatu egiten dutenak eta Elizako gorputzaren kideak direnak; iritzi heretikoren bat temoso-temoso defenditzen dutenak dira; beren burua heresetzat dutenak ekitaldiren bat dela medio; fedezko artikuluren bat zalantzan jartzen dutenak nahita. Hereseekin harremanak dituztenak, beren salbamena arriskuan jarrita, haien liburuak irakurtzen edo haien batzarretara joaten direnak; gure erlijio santuko egia nagusiak baztertzen dituztenak, Jainkoaren eta Elizaren manamenduak, eta eskolatzeko eragozpenak jartzen dituztenak.

KB1.203.0.17 Esperantzaren aurka bekatu egiten dute salbamenarekiko esperantza galtzen dutenak edo Jainkoaren errukiaz abusatzen dutenak.

Karitatearen aurka bekatu egiten dute Jainkoarekiko gorrotoa sentitzen dutenak; nahita bekatu larrian irauten dutenak; beren bekatuak barkatzeko penitentziarik egin nahi ez dutenak; egindako bekatuengatik loriatzen direnak, edo, are eta gehiago, egin ez dutenengatik; eta azkenik, atsekabeak dituztenean Jainkoaz marmarrean ari izaten direnak.

KB1.203.0.18 Erliijoaren aurka idolatrek egiten dute bekatu, hauek Jainkoari zor zaion ordaina sorkariei eskaintzen diete; esate baterako, sasi-jainkoak gurtzen dituztenak; baita ere, sorginak, deabruarekin ituna egiten dutenak hain ohikoak ez diren zenbait gauzez baliatzeko; sorginkeria eta magia botereak ematen dituztenak; gauza santuez baliatzen direnak, hala nola, ur bedeinkatua, helburu gaiztoetarako; eta magoak, deabrueri dei egiten dietenak, eta haiekin ituna eginda, beren laguntzaz baliatzen direnak.

Zenbaki honetan asmatzaileak sartu behar dira, gauza ezkutuak eta gerokoak ezagutu ahal izateko deabruarengana jotzen dutenak; superstiziosoak, ekitaldi batzuen efektua egikieran oinarritzen dutenak, eta ez Jainkoaren boterean; eta orobat ametsak sinesten dituztenak.

KB1.203.19 Ez da erlijioren aurkako bekatu arina gauza sakraturen bat profanatzea, hala egiten dute sakramentuak profanatzen dituztenak edo egindako botoren bat hausten badute; edo gauza sakratuz trufa egitea, hala nola, Liburu Santuez, sakramentuz, Elizako zeremoniez, apaizez, erlijiosoez, etab.-ez.

KB1.203.20 Eta azkenik, erlijiotan ohikoak diren jardueren aurka egiten dutenak. Esate baterako, egunero errezatzen ez dutenak, goiz eta arratsalde, edo jainkozko orduetara joateari muzin egiten diotenak, dotrinara edo igandeetako eta jaiegunetako predikuetara, bekatu egiten dute bertute honen aurka; eta are eta gehiago eskomikatuak, hauek ez baitira bide onera etorri Elizak bere komunitatik igorri zituenetik, eskandaluzko bekatuak egin zituzten ezkerro, eta gainera eskomikatuak izanaren barkamena jasotzeko ardura gutxi hauei.

KB1.204

Laugarren kapitulua Jainkoaren bigarren manamenduaz

KB1.204.0.1 *Ez duzu hartuko, hots, ez duzu alferrik erabiliko zure Jainko Jaunaren izena.* Bigarren manamendu honekin, Jainkoak diosku ez dugula alferrik erabili behar bere izan santua. Jainkoaren izena esaten denean Jainkoari ematen zaizkion izen guztiak esan nahi da: Jesusena, santuena, eta Jainkoarekin harreman zuzena duten gauza guztiena.

KB1.204.0.2 Zin egin esapideak esan nahi du Jainkoa lekukotzat hartzen dela esaten duguna egia dela ziurtatzeko; eta alferrik zin egitea balio gabeko gauzen alde zin egitea da. Ezbairik gabe, bekatu larria egitea da, Jainkoa iraintzea eta, hein batean, haren handitasuna eta maiestatea profanatzea.

Batzuetan permititua dago zin egitea; are eta gehiago, egintza santua eta erlijio ekitaldia izan daiteke. Baina Liburu Santuak diosku ekitaldi honi hiru baldintza erantsi behar dizkiogula Jainkoari atsegina izan dakion: egiaz, zentzuaz eta justiziaz zin egitea.

KB1.204.0.3 Egiaz zin egitea egiazko gauza bat zin egitea da, ziur zauden egiaz; edo zin eginez hitz ematea egin ahal eta nahi duzuna gauzatuko duzula.

Zentzuaz zin egitea, zuhurtziaz zin egitea da eta ez txoriburu baten gisa; ezta ohitura gisa ere, aldiz, beharrezkoa den gauza batengatik.

Justiziaz zin egitea bidezkoa den zerbait egingo duzula esatea da, baina zin eginez; izan ere, gauza txarra bada, bekatua da egingo dela zin egitea; eta beste bekatua izango litzateke jujamendua betetzea.

KB1.204.0.4 Ez da inoiz sorkari baten alde zin egin behar, edozein delarik ere. Jesusek Ebanjelio Santuan galarazten digu, Jainkoari soilik zor diogun ohorea sorkariari ematea izango litzatekeelako.

Beharrezkoa ez denean zin ez egiteko arau segurua zera da, ez egitea non-eta horretara beharturik ez zauden, dela epaile baten aldetik edo dela agintaritza eta eskubidea duen bestelako pertsona baten aldetik. Delako abagune hauetatik at konformatu behar da Gure Jaunak dioskunarekin, hots, bai edo ez esatearekin; izan ere, ziurtatzen digu beharrezkoa dena baino gehiago esanez gero oker dagoela eta ez dagoela permititua.

KB1.204.0.5 Jainkoa iraindu dezakegu bigarren manamendu honetan hiru maneraz: egokia ez denean zin eginez, biraoaz, edo egin diren botoak urratuz.

Era desegokiz zin egiten da egiaren aurka zin egiten denean edo zin egiten denaz ziur ez gaudenean; permitituta ez dagoen zerbaitez zin egiten denean, edo permitituta dagoen zerbait egingo dela zin egiten denean, baina konplitzeko asmorik gabe; eta jujamendu gaitzesgarriak egiten direnean, edo ohituraz zin egiten denean, begirunerik gabe edo beharrik gabe.

KB1.204.0.6 Biraoa Jainkoaren eta santuen aurka esandako hitz iraingarria da. Lau forma daude biraoa egiteko: 1 Jainkoari leporatzen diogunean komeni ez zaion zerbait, esate baterako *Jainkoaren sabela*, *Jainkoaren burua*, *Jainkoaren heriotza* esatea; izan ere, Jainkoak ez dauka ez gorputzik, ez bururik eta gainera ezin da hil. 2 Berea dena erauzten diogunean, adibidez, ez dela justua esaten dugunean asko nozitzen dugula esateagatik; bada Jainkoa txit justua baita, halako hitzak esaten ditugunean dagokion justizia erauzten diogu; edo Jainkoa ukatzen dugunean, Jainkoa ukatzen dugunean gure gaineko agintea erauzten diogulako. 3 Sorkariari Jainkoari soilik dagokiona aplikatzen diogunean, adibidez, deabruari leporatzen diogunean, edo *deabruak eraman nazala hau hala ez bada* esaten dugunean, Jainkoa edo santuak madarikatzen ditugunean, edo haietaz mintzatzen garenean mesprezuz eta isekaz.

KB1.204.0.7 Botoa Jainkoari zerbait onari buruz egin diogun promesa da, baina gauza hoberik eragozten ez duena. Beraz, botoaren objektua txarra bada, botoa baliogabea da; baina, aldiz, adibidez, erromesaldia egiteko botoa egin ondoren erlijio botoak egiten badira, ez dago bat derrigortua lehen betetzera, bigarrena dezente hobea delako.

KB1.204.0.8 Jainkoari soilik egin diezazkiokegu botoak, botoa erlijio ekitaldi bat delako eta ezin zaizkio Jainkoari ez beste inori egin; botoaren bidez Jainkoak gauza guztien eta gu guztien gainetiko domeinua duela onartzen dugu.

Beraz, gutxi eskolatu batek dionean botoa Birjina Txit Santuari egin diola edo bestelako santu bati jaso duen onginahia eskertzeko edo graziaren bat eskatzeko, ulertu behar da botoa Jainkoari egiten diola Birjina Txit Santua edo bestelako santuren bat ondratzeko; edo Jainkoari graziaren bat eskatzeko edo jasotakoren bat eskertzeko, Birjina Txit Santuaren bitartez edo bestelako santuren baten bitartez.

KB1.204.0.9 Botoaren aurka bekatu egiten da jaierrarik eta zuhurtziarik gabe egiten denean, betetzen ez denean, erabat edo zatiren bat, edo luzamendutan uzten denean arrazoi justurik gabe.

Botoak egitea gauza probetxugarria da eta Jainkoari atsegin zaio oso, hola behartuta zaude, behar santua dela-eta, gauza onen bat egitera; horrela Jainkoari bera zerbitzeko desioa duzula erakusten diozu. Baina gauza gaitzesgarria da botoak egitea bereizmenik gabe; horregatik ez dira inoiz egin behar pertsona zuhur eta aditu baten aholkurik gabe, esan nahi baita, gure arimaren sakona ezagutu beharko lukeela.

KB1.205 **Bosgarren kapitulua**
Jainkoaren hirugarren manamenduaz

KB1.205.0.1 *Gogora ezazu atsedeen eguna santifikatzea*, hots, igande santua.

Lege zaharrean Jainkoak agindu zuen asteko zazpigarren eguna santifikatu behar zela, eta *sabbat* deitu zion, mundua sortu ondoren zazpigarren egunean hartu zuen atsedena ondratzeko.

Baina bat-batean Gure Jaunaren zerura igotze ondoren, apostoluek, judutarrengandik bereizteko eta Jesus Gure Jauna berpiztu eta gero, asteko lehen eguna aukeratu zuten, Jesus egun horretan berpiztu zelako; horregatik egun horri Jaunaren eguna, atsedeen eguna, deitu zioten, eta horrexegatik deitzen diogu, eskuarki, igandea.

KB1.205.0.2 Jainkoak egun hori santifika dezagula nahi du, harentzako gauzetan, hari sagaratuz eta haren zerbitzurako erabiliz. Kontua ez da Jainkoa ez dugula, egunero gogoan izan behar, baizik Elizak nahi duela fededunek ez dutela lanik egin behar igandean, egun hori Jainkoaren zerbitzurako soilik erabili ahal izateko, eta beren arimen salbaziorako diren gauzetan.

KB1.205.0.3 Igandea behar bezala santifikatzeko esfortzua eskatzen duten egintzak saihestu behar dira, neke handikoak direnak, eskuarki artisauek eta zerbitzariak hirietan egiten dituztenak, eta laborariek landetan, bizimoldea irabazteko.

Gainera, Meza santua osorik entzun behar da, eta eguna jainkozko zerbitzuak egiteko erabili, parrokiari; eta jaierrazko ekitaldi ezberdinak egiten eman, honek denbora pasatzera permitituko du, kristauen erara eta probetxua atarez.

KB1.205.0.4 Ez dugu sinetsi behar inondik inora, Jainkoaren eta Elizaren manamendu hau betetzeko, aski denik igandero Meza santua entzutea; eta egunaren beste denbora guztia entretentzeko, jostatzeko, eta tabernetan jateko eta edateko denik, edo alferkeriatan eta zeharo laxokeriatan ibiltzeko, ez. Hola jokatzek Jainkoa irainduko luke.

KB1.205.0.5 San Gregoriok dio igandeetako gorputzez egin beharreko lana ez dela laga behar erabat otoitzean aritzeko ez bada, eta hola astean zehar Jainkoarekin izan ditugun hutsuneak bete ahal izateko.

KB1.205.0.6 Elizaren asmoa da fededunek erabil dezatela goizaldea uraren bedeinkapenera joateko, prozesiora, sermoira eta parrokiako mezarara, eta prepara daitezela sarritan penitentzia eta eukaristia sakramentuak maiztasunez errezipitatzeko. Eta arratsaldean joan daitezela predikura edo dotrinara, bezperetara eta arratseko otoitzera.

Debora sobran badute, parroketako funtzioak bukatuta, komeni da gurasoek denbora erabil dezaten beren seme-alabei liburuki on bat irakurrarazten, seme-alabak eskolatzen, seme-alabekin eliza batzuk bisitatzen, edo behartsuak beren etxeetan bisitatzen, edo ospitaleetan, edo presoak kartzeletan, edo bestelako jaierazko pertsonak, haiekin batasuna eta karitatea mantentzeko.

KB1.205.0.7 Noizbehinka permititua dago igandean lan egitea, baina horretara behartuta egon behar du batek, beraz, saihesti ezina edo luzarora utzi ezinezkoa, norberari edo beste bati kalte handiegirik egingo ez diona. Baina ezingo da egin aurrena Meza santua entzun gabe eta erretoreari baimenik eskatu barik, beharkizuna adierazi eta gero.

Elizak igandean egin edo saihesti nahi diguna urtean zeharreko jai egunetarako erabakitzen du era berean.

KB1.205.0.8 Jainkoaren hirugarren manamenduaren aurka bekatu egiten dute jaietan eta igandetan Meza santura joaten ez direnak eta, baita ere, osorik entzuten ez dutenak edo arreta berezia jartzten ez dutenak egokiro entzuteko.

Meza santuan limosna eskatzen duten behartsuak, Jainkoaren manamendu hau hausten dute; eta, baita ere, hausten dute seme-alabek eta zerbitzariak dotrinara eta Meza santura joatea errazten ez duten gurasoek.

KB1.205.0.9 Kondenatu egin behar dira, baita ere, manamendu honen hausle baitira, egun santuotan langileak eta zerbitzariak lanean aritzera behartzen dituzten artisauek eta laborariak, dendak zabaltzen dituztenak, merkantzia erakusten dutenak, azokak eta feriak egiten dituztenak edo hara joaten direnak beren salerosketak egitera.

KB1.205.0.10 Bestalde, ez da pentsatu behar jaietan eta igandetan beren denborarik gehiena jostatzeko, dantzatzeko edo paseatzeko, edateko edo tabernetan jateko erabiltzen dutenak, eta halaber egun horietan edariak eta janariak ematen dituztenak jainkozko zerbitzuen garaian, bekatutik libre direnik, ez; eta ezta manamendu hau haustea permititzen duten magistratuak ere.

KB1.205.0.11 Gauza bera esan daiteke joko-bilkurak dituztenak edo beren etxeetan jokalaria hartzen dituztenak, edo jaietan eta igandetan jainkozko zerbitzuaren garaian jokatzen dutenak; izan ere, hau guztia lege zibilek eta errege aginduek debekatzen dute.

KB1.206

Seigarren kapitulua
Jainkoaren laugarren manamenduaz

KB1.206.0.1 *Ondra ezazu zure aita eta zure ama, zoriontsua izateko eta lur honetan luzaro bizitzeko.*

Lehenengo hiru manamenduek Jainkoari eskaini behar diogun ohorea adierazten badigute, hurrengo zazpiek gure lagun hurkoari zor dioguna ezagutarazten digute, eta harekin portatu behar dugun manieraz.

KB1.206.0.2 Jainkoak laugarren manamenduan gure aitak eta gure amak ondartzeko agintzen digu. Aita eta ama izenpean gure gainean agintaritzaren bat dutenak hartu behar dira, hala nola, gurasoak, tutoreak, babesleak, aitabitxiak eta amabitxiak, jabeak, senarrak emaztearen gainean, jaunak, magistratuak, gotzainak eta Elizako artzainak.

KB1.206.0.3 Hala gauzak, bada, Jainkoaren manamendu hau egokiro azaltzeko eta honi dagokion guztia adierazteko, komeni da ezagutzera ematea zein diren gurasoen eta seme-alaben arteko betebeharrak; senarrenak eta hauen emazteenak; tutoreenak eta babesleenak eta hauen babestuenak; jabeenak eta morroienak, zerbitzarienak; magistratuenak eta hauen jurisdikzio pean daudenenak; artzainen zaintza eta zuzendaritza pean daudenenak, eta hauen espirituzko nagusienak.

KB1.206.0.4 Aitek eta amek beren seme-alabei lau gauza zor dizkie: elikadura, eskolatzea, zuzenketa eta jarraibide ona. Elikatu behar dituzte, jantzi eta hezi beren egoeraren araberak; eta ahaleginak egin lanbide bat ikas dezaten edo enplegu egoki bat erdiets dezaten.

KB1.206.0.5 Baita ere, gurasoen obligazioa da irakastea dela beraien edo dela besteen bitartez fedearen misteriorik garrantzitsuenak, Jainkoaren eta Elizaren manamenduak eta egunero, orokorrean, esan behar dituzten otoitzak. Eta seme-alabek bizitzako egoera zehatz batekin hitz emanda egon daitezenean, gurasoek Jainkoarekin hitz egin behar dute eta gogoeta serioa egin horretara deituta dauden edo ez jakiteko, bizitzako egoera horretarako behar dituzten obligazioak ezagutzen dituzten eta, orobat, lanbide horretan egin daitezkeen bekatuak.

Derrigortuta daude seme-alabak zuzentzera, esan nahi baita, errieta egitera eta zigortzera akatsen bat egiten dutenean; baina nahitaezkoa da emeki-emeki egitea, eta karitatez, eta ez gorrotoz edo irainez.

KB1.206.0.6 Gurasoak erne ibili behar dira beti beren seme-alabei jarraibide ona emateko eta haien aitzinean edozein gauza txarrak ez egiteko. Gogoan izan behar dute asko eta asko kondenatuak izango direla seme-alaben bekatuen kausa izan direlako, garaiz zuzendu ez dituztelako edo jarraibide txarra emateagatik.

KB1.206.0.7 Manamendu hau dela-eta, seme-alabek gurasoekiko bost betebeharrak dituzte: Maitatu behar dituzte, errespetatu behar dituzte, obeditu behar dituzte, bizitzan zehar laguntza eskaini behar diete, eta heriotzako orduan haien alde errezzatu eta errezzatzea agindu.

Seme-alabek gurasoak maitatu behar dituzte zeren ahal dezaketen espirituzko eta denborazko ongia desiratu eta egin behar baitiete.

KB1.206.0.8 Errespetatu behar dituzte, haiekiko estimu handia erakutsi, eta hitzez azaldu; beren akatsak gorde eta desenkusatu behar dituzte, eta haien aitzinean iraindu edo molestatu liezaiekeen deusik egin ez.

Obeditu behar diete eta ahalik eta azkarren eta pozik agintzen dieten guztia egin, Jainkoaren legearen aurkakoak ez badira; izan ere, Jainkoari gurasoei baino lehenago obeditu behar zaio, eta halakoetan gurasoei obeditzea Jainkoari irain egitea izango litzateke.

KB1.206.0.9 Seme-alabek gurasoen negoziotan esku hartu eta lagundu behar dute, zahartzaroan, gaixotasunean eta pobrezian, eta arranguretan kontsolamendua eskainiz. Batik bat kontu handiz eskaini behar dizkiete sakramentuak heriotzako arriskuan egon daitezenean. Eta zendu ahala, hilburukoa bete behar dute, eta Jainkoari oitutz egin eta oitutz egitea agindu beren arimen atsedenerako.

KB1.206.0.10 Nahiz eta manamendu honetan Jainkoak bizitza luzea eskaintzen duen gurasoekiko obligazioak egokiro bete dituztenentzat, ez da pentsatu behar, alabaina, Jainkoak ez duela bere hitza beteko gurasoekin begirune handikoak eta esanekoak izan zirenak gazte hil badira. Jainkoak promes hau judutar herriari egin zion, eta denborazko ongiei buruz ari zen, landugabeak zirelako, eta ditzat hartzen zuten lurretik atera zitzaizkien mozkinak; eta baldin kristauei eta lege berrian bizi direnei bizitza luzea opa badie, Zeruan gozaten den bizitzaren inguruan ari da, oso luzea dena, betierekoa delako.

KB1.206.0.11 Gurasoak maite ez dituenak, obeditzen ez dituztenak edo marmarka eta atsekabez egiten dutenak, eta behar bezala ondrazten ez dituztenak, berengana ekartzan dituzte, portaera kaxkarra dela-eta, Jainkoaren madarikazioa eta gaitzidura.

Senarrek maitasuna zor diete beren emazteei eta orobat begirunea, fideltasuna eta mantenua. Emazteek zor diete beren senarrei begirunea, maitasuna, esanekotasuna eta fideltasuna ezkontzan, eta etxeko ondasunak zaintzeko obligazioa dute.

KB1.206.0.12 Tutoreek beren kargu dituztenen heziketa eta zuzenketa lortu behar dute eta, halaber, beren ondasunak errentagarri bihurtu eta kontuak leialtasunez eman.

Aitabitxiak eta amabitxiak, aitak eta amak falta badira, salbazioarekin zerikusia duen guztian eskolatu behar dituzte pontean euren eskuetan eutsi zituztenak, akatsak zuzenduz eta jarraibide eta kontseilu onak emanez.

Tutoreak aitabitxiak eta amabitxiak maitatu behar dira, obeditu, eta gogo onez entzun ematen dizkiguten kontseiluak.

KB1.206.0.13 Jaun eta jabeek beren morroiak elikatu behar dituzte, eskolatu, zuzendu eta beren akatsak zigortu, eta bekatu larria egiten dute ez badute hola egiten.

Kontu handia eduki behar dute beren etxeko zerbitzuetan zerbitzari biziotsuak eta lizunak ez erabiltzeko. Maitasun handiz jakinarazi behar diete zein diren beren obligazioak, eta ez badute portaera aldatzen, egotziko dituzte. Nahitaezkoa da egunean zehar okupatuta egon daitezen, eta diskrezioz egin dezatela, neurritasunez eta beren indarren arabera. Eta azkenik, soldatak ordaindu behar dizkiete, eta hola egingo ez

balute, bekatu larria egingo lukete, Jainkoaren aitzinean mendekua eskatzeraino, alafede.

KB1.206.0.14 Morroiek jaun eta jabeak errespetatu, maitatu eta obeditu behar dituzte; afektuz zerbitu eta ondasunak leialtasunez zaindu.

Magistratuak derrigortuta daude orden ona ezartzera eta kontserbatzera; gainera, bakea eta justizia egitera, eskandaluak saihestera eta zigortzera eta Jainkoaren, Elizaren eta erregeren legeak bete daitezen saiatzera.

KB1.206.0.15 Magistratuekin eta agintea duten bestelako pertsonekin tutoreekin dauden betebeharrak berberak daude, eta halaber denborazko ondasunak eta heziketa zaintzen dutenekin.

Eliztaren betebeharrak beren gotzainarekin, parrokiakoak parrokoarekin eta menpekoak espirituzko nagusiekin zera hauek dira: maitatzea, errespetatzea, obeditzea, Jesusi herari balitz bezala, ordezko lanak egiten baitituzte, eta hamarrenak eta zor zaizkien bestelako eskubideak leialtasunez ordaintzea.

KB1.207

7. Kapitulua **Jainkoaren bosgarren manamenduaz**

KB1.207.0.1 *Ez duzu hilko.* Jainkoak bere bosgarren manamenduan gure lagun hurkoari kalte egitea debekatzeko digu dela desiraz dela obraz, bai gorputzean edo bai ariman.

KB1.207.0.2 Lagun hurkoari kalte egiten diogu bere gorputzean zauritzen dugunean, hiltzen edo egiteko desira erakusten dugunean. Lagun hurkoari kalte egiten diogu ariman eskandalizatzen dugunean, eta jarraibide edo aholku txarra ematen diogunean.

Eskandalua kausatzen da kanpoko egintza txarren bat eginez, edo Jainkoa irainduko dituzten hitzak lagun hurkoari esanaraziz, edo horretara bultzatzeko gauza diren hitzak bederen.

KB1.207.0.3 Ez da nahikoa aitortzea aipatu diren forma hauetako batez edo bestez lagun hurkoari kalte egin diogula; beharrezkoa da erabat egin den kaltea ordaintzea ahal den neurrian.

Gorputzean izan bada, ordainduz, diruz ahal bada, zauritu dugun pertsonari, edo hil dugun pertsonaren ondorengoei bestela, izandako istripuan sortutako kalte guztiengatik.

Norbait eskandalizatu badugu, egindakoaren aurkako portaera izatera bultzatu behar dugu; eta aholku okerra eman baldin badiogu, jarraitzeko ideia kendu behar zaio burutik, eta aholku txarrak sortutako mina ordainduko diogu.

KB1.207.0.4 Manamendu honetan Jainkoak, baita ere, lagun hurkoa gorrotatzea debekatzeko digu, bada, San Joanek dioskun bezala, bere anaia gorrotatzen duena gizerailea da. Gainera, ezin da lagun hurkoa gorrotatu, gaizkia ez badiogu desiratzen; eta beraz, gorrotatzea gorputzean edo ariman mina desiratzea da.

KB1.207.0.5 Norbaitek gorrotatzen edo sufriarazten digunean, gogo onez barkatu behar diogu eta hartaz gaizki esaka ez jardun; are eta gehiago, maitatu behar dugu, ongia egin, agurtu, eta afektuz hitz egin behar diogu, are, baita bisitatu ere, beharrezkoa balitz, haren adiskidetasuna gureganatzeko, eta Jainkoari haren alde eskatu.

Ez da nahikoa gaizkia ez desiratzea harentzat; harekin horretarako abagunerik badugu ongia praktikatuz behar dugu. Hori da frogarik argiena egin digun kaltea eta jasanarazi digun sufrimendua barkatzen diogula erakusteko.

KB1.207.0.6 Gure etsaiek barkatzea obligazioa da guretzat eta baita gorrotatzen gaituztenak ere, Jesusek honela agindu digulako. Eta ez digu eskatzen gure bekatuengatik soilik barkamena eskatzea, ez; gainera, nahi duena da lagun hurkoak sortu dizkigun atsekabeak eta harengandik jaso ditugun atsekabeak barkatzea. Are eta gehiago, jarraibide eman nahi izan zuen hil zutenak barkatuz, eta Betiereko Aitari, azken hatsa eman baino lehen, barka zitzala erregutuz.

KB1.207.0.8 Jainkoaren bosgarren manamendu honen aurka bekatu egiten dute norbait gorrotatzen dutenak, edozein delarik ere; atsekaberen bat desiratzen edo sortzen dutenak, are eta gehiago heriotza eragiten dutenak, bai beren buruei bai besteenei; kolpatzen dutenak, duela egiten dutenak, edo hiltzen dutenak; hitzez baliatuz edo isekaz edo laidoz gaitzesten dutenak; abortatzen saiatzen direnak edo aholkatzen dutenak; edo ohera eramandako haurrak itotzen dituztenak; beharrik izan gabe heriotza arriskuan beren burua jartzen dutenak edo lagun hurkoarena, erremusinarik ez emategatik behar gorrian daudenean; etsaiak barkatu nahi ez dituztenak, ikusi, agurtu, bisitatu nahi ez dituztenak... adiskide zirenean egiten zuten bezala; Jainkoa iraintzeko arriskuan jartzen direnak edo lagun hurkoaren bekatua egiteko erraztasunak ematen dituztenak, edozein delarik bekatu horretan eskua hartzeko manera.

KB1.208

8. Kapitulu

Jainkoaren seigarren manamenduaz

KB1.208.0.1 *Ez egin adulteriorik.*

Jainkoaren seigarren manamenduak adulteriori buruz soilik tratatzen badu ere, gauza segurua da, alabaina, horrekin Jainkoak garbitasunaren aurka kanpoko ekitaldiak ere debekatzeko dizkigula, Liburu Santuetako hainbat eta hainbat pasartetan bekatu gaitzesgarritzat hartuak izan direlako, eta batik bat San Pauloren testuetan; garbiak ez diren inguruan diosku, nahiz eta garbitasunaren aurka egiten dituzten egintzak sekretuak izan, eta hola egiten dituzte idolatrek, hots, gordean, dio ez batzuk eta ez besteak ez direla zeruetako erreinuan sartuko.

KB1.208.0.2 Hola, bada, manamendu honek garbitasunaren eta onestasunaren aurka zernahi gauza esatea eta egitea debekatzeko digu. Beraz, bekatu larria da hitz likitsak esatea edo atseginez entzutea, abesti lizunak kantatzea, lizunkerietara eramaten duten liburuak irakurtzea, edo sentimendu, bulkada edo afektu likitsetara garamatzatenak, eta atsegin sensual bezalako koadroak, irudiak edo estatuak begiratzea, biluzik badaude edo jarrera lotsagarria eta lizuna erakusten badute.

KB1.208.0.3 Bekatu larria da, baita ere, pertsona bati maliziaz edo intentzio txarrez musu ematea, edo begiratuak eta ukituak manera lizunez egitea berez atsegina hartzeko.

Baita ere, bekatu garrantzitsuak dira, manamendu honen aurkakoak, norbait lizunkerietara bultzatzea, hitzez, idazkiz edo opariz; edo haragizko bekatu egitea neska gazte batekin edo ezkonduetako emakume batekin: Ahaide batekin egiten bada, intzestua da; Jainkoari sagaratuta dagoen pertsona batekin eginez gero, sakrilegioa da.

KB1.208.0.4 Manamendu honen aurka beste bekatu garrantzitsuak daude. Aitorleen zeregina da orientazioak ematea beharra dutenei; edo, egin dituzten edo ez zalantzak dituztenei aholkuak ematea aitortzera doazenean.

Derrigorrezkoa da guretzat ez bakarrik kanpoko ekitaldiak saihestea, baizik eta horretara eraman gaitzaketen abagune guztiak; bada, arriskua maite duena eta haren aitzinean jartzean, nahitaez eroriko da, dio Jakitunak. Eta sakrilegioa izango litzateke barkamena jasotzea bekatu honi buruzko abaguneei uko egin ezean.

KB1.208.0.5 Bekatu doilor honetara garamatzaten abagunerik nagusienak konpainia gaitzokak dira, beste sexuko pertsonekin ditugun harremanak, janzteko erabiltzen dugun luxua, komediak, dantzak eta nagikeria. Gauza hauek guztiak laga behar dira eta ahal delarik hauetatik urrundu, beste hainbat bekatu-iturburu oparoetatik, bihotzetako likiskeriak sortzen eta berriztatzen baitituzte.

KB1.208.0.6 Abagune hauetatik urruntzeko ez da itxaron beharrik aitortzera noiz joango, eta are gutxiago aitorleak noiz behartuko horretara. Oso komenigarria da, eta, baita ere, oso garrantzitsua, denbora luze batez egitea aitorlearen aitzinera joan aurretik. Hau da baliabiderik egokiena bekatu hori errefusatzeko erabakitzeko eta orobat benetan utzi nahi duzula egiaztatzeko.

KB1.208.0.7 Kontu handiz ibili behar da halako bekatu motak ez ezkutatzeko aitortzetan, ezta bekatuak egiteko izan diren abaguneak ere, bada maiz bekatuen parte izaten dira; bestela baliorik gabeko aitortzak egitea izango litzateke eta kondenatzeko arriskuan jartzea.

Zorigaitzoko bekatu hau ezabatu nahi dutenak aitorle berarekin aitortu behar dira sarritan, jakintsua eta eliztarra denarekin, horretara garamatzaten abaguneak, lekuak eta pertsonak baztertu, nagikerian ibili ez eta Birjina Txit Santuari debozioa erakutsi, eta egunero otoitzen bat eskaini intentzio honekin.

KB1.208.0.8 Ezkondu dauden pertsonak ezin dute pentsatu ezin dutela manamendu honen aurkako deusik, edo ezkontzan ez dagoenik ezer lizunkeriarri dagokionez. Artzainek eta ezkontza garaian aitortzen dituztenek obligazioa dute esateko zein diren betebeharrak gai honi dagokionez; permititua dutena eta debekatua dutena.

Hauek ez badute egiten, ezkonduetako pertsona aditu eta eskarmentu handiko baten aholkua jaso behar dute; eta, ardura hau hartu ez bazuten ezkontzaren erabileran egin dituzten bekatu guztiak aitortzak baliogabetzat hartu beharko litzukete, hots, aitortza sakrilegiotzat; izan ere, zaila da ez jakitea zer egin behar den materia honetan ezkondu dauden pertsonen aldetik; gainera, bizibide bat hartu dutenek jakin behar dute zerekin besarkatzen diren eta zein diren egoera horretan egin daitezkeen bekatuak. Eta beraz, jakitera iritsi behar ziren ezkondu aitortza zertara hitz ematen zioten elkarri eta zein abagunetan iraindu zezaketen Jainkoa sakramentu honetan.

KB1.209.0.1 *Ez duzu ebatsiko.*

Zazpigarren manamenduan Jainkoak gure lagun hurkoarenak diren ondasunak jabetzea edo atxikitzea debekatzen digu.

Ez dezatela pentsa seme-alabek gurasoena den edozein gauza hartzeko edo atxikitzeko eskubidea dutela, haien baimenik gabe; ezta morroiei ere haien jabeena eskuratzeko. Batzuek eta besteek ezin dute holakorik burutu bekatu egin gabe, eta lapurtu dutena itzultzeko obligazioa dute, ahal bezain azkar.

KB1.209.0.2 Besteen ondasunak ebatsi edo atxiki dituztenek, nahiz eta haiek ez hartu, ez dute aski aitortzea. Atxiki zuten guztia dagokien pertsoneri itzuli behar diete; eta hauek zenduta badaude, ondorengoei. Eta ezin badituzte ezagutu, aitorle jakitun baten aholkua jarraitu behar dute, hots, haien alde otoitz egin behar dute, edo behartsuei limosna eman.

Itzultzea lehenbailehen egin behar da, are gehiago, aitortu aurretik, ahal bada; izan ere, ez bada berehala itzultzen bekatu berriak egiten dira itzultzeko intentzioa dagoen aldiro eta, ahal izanez gero, egiten ez bada.

KB1.209.0.3 Atxiki zena edo haren balioa itzuli behar da, gauza bera ez badugu; edo delako gauzak balioa galdu badu atxiki zenetik gaur arte, obligazioa dago balioa itzultzeko, eta ez gauza bera. Hartu eta atxiki zenean jabeari kalte egin bazitzaion, kaltea itzuli eta ordaindu behar da, eta aldi berean berea dena itzuli.

KB1.209.0.4 Itzultzeko obligazioa ez dute soilik bidegabeki ebatsi edo atxiki zutenek, baita lapurretan parte hartu edo aholkua eman zutenek ere, ez badu ebatsi zuenak itzultzen.

Zerbait aurkitu zutenek galdu zuenari itzuli behar diote, ezagutzen badute, edo, bestela, ahalegina egin behar dute nor zen jakiteko.

KB1.209.0.5 Manamendu honek gizaki guztiei bestena hartzea debekatzen badie, era berean obligatzen die aberatsei eta hazienda dutenei behartsuekin banatzea, haien beharren arabera, eta daukaten ahalbideen heinean.

Jakitunak egiaztatzen digu behartsua aginduta dagoen bezala zaindu behar dela esaten digunean, eta ez dugula behar gorrian laga behar. Eta San Joane bere buruari diotso ezen baldin norbaitek mundu honetako ondasunak badauzka eta bere anai beharrean ikusita bihotza ixten badio, nola egon daitekeen haren baitan karitaterik. Eliz Gurasoek aho batez esaten dute zera hau, alegia, behartsuei ahalmenaren arabera ematen ez diena, ebasten ari zaiela eta haiekin bidegabekeria galanta egiten ari dela. San Tomasek dio obligazioa dagoela behartsuei limosna emateko bi abagunetan. Pobre bat behar gorrian dagoenean eta norberak nahiko eta gehiago duenean bere burua eta bereenak elikatzeko, orduan obligazioa dago emateko, bestela bekatu larria egiten dela, dio. Eta hauxe da batek egin behar duena bere egoeraren arabera behar duena baino gehiago daukanean eta pobrea behar gorrian aurkitzen denean, honen egoera guztiz larria izan gabe ere.

KB1.209.0.6 Limosna hitzarekin behartsuei ondasun materialak eman behar dizkiegula esan nahi badugu ere, esan daiteke, hala ere, bi limosna mota daudela: bata, gorputzekoa, hitz egiten ari garenaz, pobrea bere gabeziatik ateratzeko balio duena, gorputzeko miseriatik, alegia; eta bestea espirituzkoa, lagun hurkoa espirituzko miseria eta gabeziatik ateratzen dugunean.

Gizaki guztiek ez dute ahalbiderik behartsu guztiei ondasun materialak emateko, baina denek lagun ditzakete espirituzko arloan, haien salbaziorako laguntza emanez, bai jarraibide onekin, bai instrukzioa eskainiz eta emanez. Hau egin dezakete era bereziz artzainek eta orobat besteak eskolatzeko, santifikatzeko eta salbatzeko ardura duten guztiek.

KB1.209.0.7 Asko dira Jainkoaren zazpigarren manamenduaren aurka bekatu egiten dutenak. Besteen ondasunak lapurtzen dituztenak dira, dela isilka-misilka edo dela gogorkeriaz, eta atxikitzen dituztenak. Baita ere, lagun hurkoari kalte egiten edo sortzen dizkiotenak, maliziaz, nagikeriaz edo ezjakintasunez, nahiz eta horretaz ez aprobeztatu. Eta lukurreriaz ematen dutenak, bai dirua edo bai merkantzia.

KB1.209.0.8 Manera lotsagarriaz beste baten ondasunak atxikitzea edo ebastea, txanpon faltsua fabrikatzea edo erabiltzea, pisu edo neurri faltsuaz saltzea, merkantziak trukatzea edo gehiegizko prezioaz saltzea, eta prezio miserableaz erostea ezjakintasunagatik edo saltzen dituztenen beharragatik.

KB1.209.0.9 Jainkoaren manamendu hau zorrak ordaintzen ez dituztenek bortxatzen dute, morroien soldata eta langileen lansaria pagatzen ez dutenak; eta, baita ere, beste baten jabegotik administrazioan iruzur egiten dutenak, batzuetan tutoreek eta kolonoek egiten duten moduan; eta azkenik, mesede baten truke dirua jasotzen edo agintzen dutenak, edo etekinen bat jasotzen dutenak beste bati pasatzekotan, hauek guztiek izan behar dute Jainkoaren manamendu honen bortxatzaile gisa hartuak eta errezibitu duten gutzia itzultzera derrigortuta daude.

KB1.210

10. Kapitulua Jainkoaren zortzigarren manamenduaz

KB1. 210.0.1 *Ez duzu gezurrezko lekukotasunik emango zure lagun hurkoaren aurka.* Jainkoak bere zortzigarren manamenduan lagun hurkoaren aurka egin daitekeen edozein bidegabekeria kondenatzen du, dela hitzez, zerbait faltsua esanez edo lagun hurkoaren izena kaltetuz.

Lagun hurkoari kalte egin diezaiokegu okerren bat eginez bai hitzez, egiaren aurka zin eginez, edo haren interesen kontra, gure hitzez iruzur eginez eta gure gaitz esatez belzten dugunean.

KB1.210.0.2 Gezurrezko lekukotasuna ematea egiaren aurka justiziaren aitzinean deklaratzeko da. Edozeinek ematen duelarik ere derrigortuta dago kontrakoa esatera eta, ahal den neurrian, egin zuen kaltea erreparatzera.

KB1.210.0.3 Jainkoaren manamendu hau gezurrezko lekukoek bortxatzen dute; hauek benetako eta egiazko epaileak galdekatzen dituztenean, gezurrezko zinez egia gordetzen,

zuritzen edo estaltzen dute. Delako kasuan, lekukoa derrigortuta dago erreparatzera eta egindako kaltea itzultzera.

Era berean, legegizonek eta kausa gaiztoak abiarazten dituztenek, edo beren nagikeria dela eta, defendatuaren kausa ona egokiro defenditzen ez dituztenek manamendu honen aurka egiten dute; horiek derrigortuta daude beren erruz defendituko zituztenei egindako kalteak eta interesak itzultzera.

Notarioek ere manamendu honen aurka egiten dute ezjakintasunagatik, edo bestelako edozein arrazoi dela medio, aktak eta kontratuak zuzentasunez defenditzen ez dituztenean, eta delako akten sekretua edo beren esku utzitako negozioena gordetzen ez dutenean; gauza bera esan daiteke isilmandatuzko eskutitzak irekitzen dituztenen inguruan. Hauek guztiak egin ahal izan duten kaltea erreparatzeko obligazioa dute.

KB1.210.0.4 Lagun hurkoari iruzur egiten diogu, pentsatzen dugunaren aurkako zerbait esan eta gezurra aieratzen dugunean. Hiru gezur mota daude: txantxa-isekazkoa, ez-ofizialak eta asmo txarrekoak. Txantxa-isekazko gezurrak broma egitekoak dira, elkarritzeta atsegina egiteko formulatzen dira eta presente daudenei une alaia pasarazteko. Gezur ez-ofizialak inor mintzen ez dituztenak dira, eta norbaiti zerbizturen bat emateko esaten dira. Asmo txarreko gezurrak lagun hurkoari kalte materiala edo espirituzkoa egiten diotenak dira.

KB1.210.0.5 Gezurra bekatua da eta larria den ala ez, esaterakoan egiten duen edo egin nahi duen kalteari begiratu beharko genioke. Berez bekatu larria da. Horregatik dio Jakitunak gezurra esaten duenak arima hiltzen duela. Eta Davidek: Zuk, Jauna, gezurretan diharduten guztiak galduko dituzu.

Oso gezur kaltegarria da lagun hurkoarentzat, adibidez, merkantzia balio duen baino prezio dezente garestiagoan saltzea, esanez eta aseguratuz hainbeste balio duela, gutxiago balio duenean.

KB1.210.0.6 Nahiz eta txantxa-isekazko eta ez-ofizialak diren gezurrak ez izan hain larriak, hala ere, kontu handiz baztertu behar dira, edozein bekatu mota egiteko abagune arriskutsuak direlako, edo haietaz ez damutzeko, batek ongi asko dakizkielako gordetzen eta ukatzen; edo noizean behin aitormen sakrilegoak egiteko beta ematen baitute.

KB1.210.0.7 Gezurra, edozein delarik ere, hain egiten zaio desatsegina Jainkoari, ezen Liburu Santuetan esaten den bezala Jainkoak oroz gain gorrotatzen duen gauza gezurra baita. Eta Gure Jaunak, horri erakutsi behar diogun laztura azaltzeko, esaten du egilea deabrua dela eta gezurra bera haren gauzarik preziatuena.

KB1.210.0.8 Lagun hurkoari kalte egiten diogu gaitz esatearekin, norbaiten aurka gaizki esaten dugunean aurrean ez dagoenean, belzteko. Bekatu hau oso larria da lagun hurkoari kalte handia egin badiogu; berari ohore kentzea baita eta hau haren ondasunak kentzea baino garrantzitsuagoa da.

KB1.210.0.9 Gaitz esatei ez diegu kasurik egin behar, eta bekatu oso larria da kasu ematea, bada lagun hurkoa jukatzea eta ausarkeriaz kondenatzea litzateke. Era berean, gaizki dago beste norbaiti jakinaraztea, non eta ez den karitatearen izenean egiten, erremedioa jar dezaketen pertsonen esateko edo gaizkia egin dutenei zigorren bat jartzeko, edo jakin gainean ez zeudelako kalte handiak jasan dezaketenei.

KB1.210.0.10 Norbaiten inguruan gaizki hitz egin dugunean obligazioa dugu esandakoa atzera botatzea, dela denen aurrean edo era pribatuan; hari buruz dakigun ongia esatea, alegia; eta erreparatzea, ahal den neurrian, egin genion kaltea, era horretan haren ohorea kenduz. Alabaina, haren inguruan esan zena egia bada, ezin da kontrakoa esan; bakarrik esan behar da ez genuela arrazoirik izan delako pertsonaren inguruan gaizki hitz egiteko, edo pasioak bultzatuta egin genuela.

KB1.210.0.11 Eskuarki, norbaiti buruz gaizki hitz egin daiteke bi manieraz: edo faltsua den zerbait esanez, honi gezur beltza deitzen diogu, edo egiazko zerbait esanez, honi gaitz esate deitzen diogu.

Egia den zerbaiti buruzko gaitz esatea lau manieraz egin daiteke: 1 Norbaitek egin duen gaizkia aldarrikatuz ordura arte gordeta bazegoen ere. 2 Puztuz. 3 Egin duen ongia oker interpretatuz. 4 Haren obra onak hozkeriaz laudatuz.

KB1.210.0.12 Norbaiten inguruan marmarka ari direla entzuten denean obligazioa dugu horrela ari denari isiltzeko eskatzea, agintea badugu horren gainean; edo bestela jakinarazi diezaiokegu informazio okerra duela, edo, baita ere, hizpidea aldatu. Ezin bada esamesa eragotzi, erakutsi behar da, isiltasunaren bitartez, ez direla atseginez entzuten delako hitzak; eta pertsonak bere horretan jarraitzen badu, egokia izango da alde egitea.

Gaizki hitz egin den pertsonari dagokionez, barkatu egin behar du eta bidea zuzendu gaizki obratu bazuen; eta erruduna izango ez balitz, gaitz esatea pazientziatz jasan. Ez du inola ere mendekurik hartuko edo gaitz esatearen truk gaitz esatea itzuli, bada Jainkoaren esku dago mendekua eta berak egoki ikusten duenean erabiliko du.

KB1.210.0.13 Lagun hurkoaren aurka hitzez egiten diren falta hauetan ez erortzeko, sei baldintza bete behar dira: 1 egia, gauzak diren bezala esanez; 2 zintotasuna, pentsatzen ditugun bezala esanez; 3 Jainkoaren maitasuna, haren gogokoa ez dena eta hari atsegin ez zaiona esan gabe; 4 lagun hurkoarekiko karitatea, harentzat mesedegarri ez den deusik esan ezik; 5 beharra, behar denean soilik hitz eginez; 6 diskrezioa, egokia dena soilik esanez.

KB1.210.0.14 Zalantzarik gabe, manamendu honen aurka bekatu egiten dute libeloak edo abesti difamatzaileak zabaltzen dituztenak, sasi-informeeekin zatiketak kausatzen dituztenak, eta ausarkeriazko epaiketak egiten edo besteen egintzak gaizki interpretatzen dituztenak.

KB1.211

11. kapitulua

Jainkoaren bederatzi eta hamargarren manamenduez

KB1.211.0.1 *Ez duzu lagun hurkoaren emaztea desiratuko. Ez duzu haren etxea...etab.* Jainkoak bere bederatzigarren manamenduan garbitasunaren aurkako pentsamenduak eta hitzak galarazten ditu, eta bere hamargarrenean bestearen ondasunak bidegabekeriaz desiratzea, eta zazpigarren manamenduan egitea debekatu zuen guztia.

KB1.211.0.2 Jainkoak pentsamenduak eta desira gaiztoak bi manamendu partikularrez debekatu izanaren arrazoia zera da, esatea Jainkoak eman digun legea, espirituala denez,

ez dela jarri gure kanpoaldeko egintzak soilik erregulatzeko, gure bihotzeko afektuak erregulatzeko baizik; eta gure erlijioa hain baita santua, ezin du onartu eta ez permititu inolako gaiztakeriarik, nahiz eta ez azaldu kanpoaldean.

Baita ere, guri argi eta garbi adierazteko izugarritzko gorrotoa eduki behar diogula, kanpoaldeko egintza horiei ez ezik, baita Jainkoaren legearen aurkako pentsamendurik ñimiñoiei ere; zeren bekatuak borondatean oinarria baitu, egintzak pentsamenduari edo desirari bakar-bakarrik eransten baitio eskandalua edo lagun hurkoari egin ahal izan diogun kaltea.

KB1.211.0.3 Izan ere, norbaitek ebasteko edo bestelako bekatu egiteko asmoa izanez gero, eta abagunea itxaroten dagoela ezin badu egin ustekaberen bat izan duelako, edo asmoa aldatu badu, ebatsi balu bezala egingo zuen bekatu. Diferentzia soil honekin: lapurreta egiaz egin izan balu, derrigortuta egongo litzatekeela izultzera; aitzitik, egiteko asmoa soilik izanda, aitorzera soilik egongo litzateke derrigortuta.

KB1.211.0.4 Jainkoaren beste manamenduetan Jainkoa desiraz iraindu badaiteke ere, hala ere, Jainkoak nahi izan duena haragiaren eta lagun hurkoaren aurkako desirak galarazita zera izan da, nabarmentzea gizakiek haragiekiko plazerretara jotzeko duten jaidura eta lur honetako ondasunei dieten ohiko biziki sentitzeko afektua; delako afektu hau oso urruti dagoelarik biziki sentitzeko egintza gaiztoen inguruan.

KB1.211.0.5 Beraz, Jainkoaren bederatzigarren manamenduaren aurka bekatu egitea da, eta larriki bekatu egitea, lizunak diren pentsamenduetan nahita eta atseginez gelditzea, pentsatzen den gaiztakeria egitea nahi ez izanik ere; plazer likitsetan oldoztea; edo lagun hurkoaren emazteaz abusatzea edo ezkongabe batez, bestela.

KB1.211.0.6 Pentsamendu eta desira gaiztoak ez dira beti bekatu, bada espirituan edo sentimen galduan formatu daitezke borondateak horretan esku hartu gabe. Batzuk eta besteak ez dira bekatu gure gogoia eta nahia horretan jartzen ez badugu eta bihotza inplikatzan ez den eta esku hartzen ez duen bitartean.

KB1.211.0.7 San Gregoriok dio pentsamendu eta desira gaiztoetan hiru gauza hartu behar direla gogoan, hau da: sugestioa, atsegintasuna eta onespena. Sugestioa gertatzen da deabruak permititua ez den desira edo pentsamenduren bat espiritura ekartzen digunean. Atsegintasuna plazerra da, hots, gure natura ustelak eta gaizkirako dugun jaidurak espiritura dakarkiguten atseginkeria. Onespena zera da, gure espirituan formatu diren pentsamendu eta desira gaiztoei ematen diegun baiezipena, edo sentitu dugun jaidurari eta plazerrari, edo pentsamendu eta desira gaiztoekiko sentitzen dugun zera horrengatik.

KB1.211.0.8 Pentsamendu edo desira gaizto batekiko sugestioa es da bekatu, bada gure adimenean bolondresak eta askeak ez diren pentsamenduak eduki ditzakegu. Gure natura ustelak zerbaitekiko sentiarazten digun plazerra, berez ez da bekatu, askotan senti dezakegulako bertan esku hartu gabe, edo, are, gure ahaleginak gorabehera, San Paulok hala egiaztatzen du, berari hala gertatu zitzaiola. Sugestioaz edo plazerraz ez da Jainkoa laidoztatzen, eusten diogunean, aitzitik, Jainkoaren aitzinean merezi egiten da.

KB1.211.0.9 Pentsamenduan edo desiran borondateak amore ematen duenean soilik, eta bertan sentitzen den plazerrean parte hartzen, egiten dugu bekatu; pertsona,

pentساتzen eta desiratzzen duenaz garbi ikusten duenean eta bertan nahita gelditzen denean.

Haragian arrazoiaren aurka jaiotzen diren pentsamendu desordenatuak berez ez dira bekatu, zeren bekatua ez baitago haragian, borondatean baizik; eta borondatearen nahia ez dagoenean, ez dago bekatuik. Jainkoak ez digu, ezta ere, ezer ezinezkorik eskatzen, hala nola noizean behin holako mugimenduak ez sentitzea; nahiz eta Jainkoaren graziaz litekeena den delako pentsamendu eta desira hauetan ez jauztea.

KB1.211.0.10 Pentsamendu eta desira gaiztoekin Jainkoa ez iraintzeko erabil dezakegun baliabidea, gure kanpoaldeko zentzumenak eta pasioak mortifikatzea da, eta gureru honelako pentsamenduak datozkigunean gure espiritua Jainkoarengana igotzea.

KB1.212

12. kapitulua Elizako manamenduez

KB1.212.0.1 Elizak, Jesusen aginte bera duenez eta gure ama baita, agindu diezaguke, Eliza delako, bere seme-alaba gisa. Esanekotasunarekiko profesio agerikoa egiten duten kristau guztiek, derrigortuta daude, bestela bekatu larria egingo lukete, Elizaren manamenduak gordetzera, non eta dispensatuta dauden arrazoi justuren bat dela kausa.

Elizari ez obeditzea, zeinari Jesusek agintea eta agintaritzari eman baitzizkion fededun guztien gainean, Jainkoari eta Jesusi ez obeditzea bezala da. Horregatik, nahi du paganoak eta publikanoak deitzea eta kontsideratzea Elizaren esanetara jartzen ez direnak.

KB1.212.0.2 Eliza, gobernatzen duen Espiritu Santuak zuzendua, fededunen portaera bideratzeko eta haien diziplina ordenatzeko, manamendu batzuk ezarri ditu, eta erabilera Kontzilio santuetan adierazita edo baimenduta dago.

Eskuarki sei zenbatzen dira eta katoliko guztiek obligazio bera dute Jainkoaren manamenduak bezalako zehaztasunez eta leialtasunez betetzeko.

Elizaren lehenengo manamendua Meza santua entzutea da igandeetan eta Elizak agindu dituen jaiegun guztietan.

KB1.212.0.3 Eliza ez da kontentatzen meza osoa entzutearekin, bertan gorputzez presente egonez; nahi duena da fededunak, manamendu hau betetzeko, Meza santuan jaierez egon daitezen, eta sakrifizio santuaren denbora guztian Jainkoari otoitz egin diezaioten merezi dituen omenaldiak eskainiz. Beste manera batez portatzea ez da Elizaren intentzioekin bat egitea eta ezta haren manamendua konplitzea.

KB1.212.0.4 Gurasoek, nagusiek eta besteen gobernamenduen ardura dutenek, obligazioa dute Meza santua entzuteko eta, baita ere, beren seme-alabek eta zerbitzariak entzun dezaten igandeetan eta urteko jaiegunetan, eta entzun dezaten egintza santu honek eskatzen duen begirunez eta erlijiozko zaletasunez, zeren Jainkoaren aitzinean beren ardurapean daudenen pertsonen jokaeren gaineko erantzukizuna baitute.

KB1.212.0.5 Ezin du batek Meza santura joateari utzi gaixotasunen bat tartean ez bada edo beste funtsezko arrazoiren bat ez badu; eta inoiz edo behin halako arrazoiren bat dela medio joaterik ez badu, erretoreari edo aitorleari arrazoia zilegizko den galdetu behar dio; izan ere, ez da komeni norik bere kontzientzia osatzea erabat begien bistakoak ez diren gauzatan.

KB1.212.0.6 Jaiegunetan eta igandeetan Meza santura joaterik ez dutenak gaixotasunen bat edo bestelako funtsezko arrazoiren bat tartean dagoelako, Jesusek izan zituen asmoekin bat egin beharko luke bere bihotzean, era berean apaizaren eta bertara joan diren asmoekin, eta denbora horretan Jainkoari bere izate osoa eskaini nahi dituen otoitzak eskainiko dizkiolarik.

KB1.212.0.7 Elizaren lehenengo manamenduaren aurka bekatu egiten dute jaiegunetan eta igandeetan Meza santura joateri uzten diotenak zilegizko arrazoirik gabe, edo osorik entzuten ez dutenek; beren parrokiari entzuten ez dutenek, bertan ematen diren oharrei kasurik egiten ez dietenek, nagikeria dela kausa, debozio eskasagatik edo mesprezua dela bitarte; edo arretarik, eraspenik eta erlijiorik gabe entzuten dutenek.

KB1.212.0.8 Elizaren bigarren manamenduak jaiak santifikatzea agintzen du, esan nahi baita, lan horietan ezin dela lanik egin eta Jainkoaren zerbitzuan erabili behar direla, igandero egin behar den bezala.

Jainkoaren hirugarren manamenduan azaldu dira nola egin behar diren betebeharrak.

KB1.212.0.9 Elizak arrazoi ezberdinak izan ditu hotsandiz ospatu nahi izan dituen jaiak ezartzeko. Gure Jaunaren jaiak ezarri zituen Jainkoa eta Jesus, haren Semea, ondratzeko; eskerrak emateko, egun santu horietan obratutako misterioen kausaz eskerrak emateko; eta guri salbamenerako baliabideak emate aldera.

Birjina Txit Santuaren jaiak ezarri zituen era bereziz ondratzeko, Jainkoak eman zizkion graziak eskertzeko, eta egunotan fededunengana, haren laguntza apartaz, Jainkoaren graziak oparotasunez.

Santuen jaiak ezarri zituen Jainkoari haiengan jarritako graziak eskertzeko; gozaten ari diren aintza eta praktikatu zituzten bertuteak ondratzeko; Jainkoari eskatzeko, haien bitartez, delako grazietan esku har dezagun; eta haien otoitzen eta ondasunen, bai denborazkoak eta bai espirituazkoak, bitarteko laguntza eskertzeko, Jainkoarengandik jaso baititugu haien merituen bitartez.

KB1.212.0.10 Jai batzuk oso handiak dira eta Eliza guztian ospatzen dira eta ez dute aldaketarik jasaten; batzuk elizbarruti partikular batzuetan ospatzen dira; eta beste batzuk, aldiz, batzuetan bai eta beste batzuetan ez; eta beste batzuk elizbarruti batzuetan ospatzen direnak eta beste batzuk batean edo bestean soilik.

Gotzainei dagokie, Elizak gauza hauetan agintea eman dienei beren elizbarrutietan, praktika hauek arautzea, jendearen debozioa pizteko jaiak jartzea, eta kentzea abusua eta profanazioa ekiditeko; eta elizbarrutietako eliztarrek derrigortuta daude obeditzera.

KB1.212.0.11 Elizaren hirugarren manamenduak eliztarrei urtean behin gutxienez norbere erretorearekin aitortzea agintzen die, edo honen baimena duen beste batekin eta gotzainaren baimena badu. Aitortza hau Bazko aldian egin behar da, aitortza eta jaunartzea egun berean egiteko, garai santu honetan horrela dagoelako agindua.

Elizari egoki iruditu zitzaion manamendu hau ezartzea salbamenarekiko sentiberatasun gutxikoak diren kristauak axolagabekeriak joka daitezkeelako eta, sakramentuetatik urrunduta eta aitortza alde batera lagata, arriskuan jar dezaketelako beren salbamenaren.

KB1.212.0.12 Haurrek manamendu hau betetzeko obligazioa dute eta aitortu egin behar dute Jainkoa iraintzeko gaitasuna duten urte beretik eta ongia eta gaizkia bereizteko ahalmena dutenetik. Eskuarki zazpi edo zortzi bat urterekin izan ohi da. Ez da beharrezkoa adin honetara arte itxaroten egotea aitortu daitezen; lehenago ohitu behar ditugu aitortzera, ongi egin dezaten irakasteko.

Laugarren manamenduaren bitartez, Elizak nahi duena da eliztar guztiak Eukaristia Txit Sakramentua, urtean behin gutxienez, beren parrokitan hartzea, Bazkoaren hamabostaldian.

Hala ere, aitorleak, egoki ikusten badu, jaunartzea beste garai batera pasatu dezake, orduan hola onartu behar da.

KB1.212.0.13 Ezin du inork pentsatu behar Elizaren manamendu hau betetzen duenik Jesus Gure Jaunaren gorputza bekatu larrian egonda hartzen denean; sakrilegio bat egiteaz gainera, beste bekatu bat egiten da manamendu honen aurka.

Haurrek jauna hartzekotan adimena formatu samarra izan behar dute, hamabi bat urterekin, eta gure erlijioa misterioan eskolatuak egon daitezenean. Horren inguruko juzkua egitea erretoreei eta artzainei dagokie.

KB1.212.0.14 Bazko jaunartzea betetzen ez dutenen inguruan, Elizak nahi du, erretoreek bizpahiru aldiz jakinarazi ondoren, obeditzen ez badute, eskomikatuak izan daitezela.

Elizaren bosgarren manamenduak Garizumako berrogei egunetako barau aldia agintzen digu, halaber Lau Tenporetan eta Elizak agintzen dituen jaien bezperetan. Barau egiteak esan nahi du ez dela okelik jan behar, otordu bakar bat egin behar dela egunean, eguerdian-edo, eta afari arin bat gauean, beharrezkoa bada.

KB1.212.0.15. Elizak Garizumako baraua Jesus Gure Jaunak basamortuan egin zuen berrogei eguneko barau aldia gogoratzeko ezarri zuen; fede jarraitzaileak bekatuak kitzatzeko baraua egitera bultzatzeko; eta Bazko jaunartzera penitentzia eginez preparatzeko.

Hogeita bat urte beteak dituztenek derrigortuta daude barau egitera eta manamendu hau betetzera, Elizaren baimena ez badute ez egiteko, zilegizko arrazoiren bat dela medio, ezingo luketelako baraurik egin.

KB1.212.0.16 Alabaina, ez da hogeita bat urte bete arte itxaroten egon behar baraua egiten hasteko. Apurka-apurka erakutsi behar zaie haurrei behartuta egon daitezenean egokiro eta erraztasunez egin dezaten.

Orokorrean baraua ez egiteko baimena izaten dutenak gaixoak dira, haurdun dauden emakumeak, titia ematen ari direnak, hirurogeita hamar urtetik gorakoak, lan gogorra eta nekagarria duten artisauek, zer jan eta nahikoa jateko aski ez duten behartsuak, ezin izango bailukete jasan barauaren zama jarraitua.

KB1.212.0.17 Ezin da pentsatu afariusian batek nahi duena eta nahi beste jateko obligazioa duenik. Elizak ogia eta frutaren bat jatea permititzen du, baina honetatik ere ez gehiegi; asko jota, otordu normal batean jango litzatekeen laurdena-edo. Kontuz ibili behar da, beraz, ez pasatzeko bazkari normal bat bihur ez dadin.

KB1.212.0.18 Elizaren seigarren manamenduak ostiralean eta larunbatean okela jatea debekatu du. Ostiralean Jesus Gure Jaunaren Pasioa gogora ekartzeko eta gure alde heriotza eskaintzerakoan egin zigun grazia onartzeko. Eta larunbata, haren hobiratzea ondratzeko, Birjina Txit Santuari dedikatuta dagoen egun honetan gure debozioa erakusteko, eta okela usteaz eta gorputzaren mortifikazioaz igande santua santifikatzeko.

KB1.212.0.19 Badira Elizaren beste manamendu batzuk hain arruntak ez direnak. Garrantzitsuenetako bat eskomikatuekin ez hitz egitea da, hots, Elizak bere komunitatik eta bere espirituzko ondasunetatik apartatu dituenak, gauza arrunta eliztar batzuen artean, bekatu oso larriak egin dituztelako.

KB1.212.0.20 Eskomikatuak ez zaie Elizan sartzen uzten, ezta Meza santuan esku hartzea ere, ezta ere, Jesus Gure Jaunaren gorputza eta/edo beste edozein sakramentu hartzea. Ez dute esku hartzen kristauen otoitzetan, santuei zuzendutako otoitzetan edo induljentzietan, eta are larriagoa dena, ezta Jesus Gure Jaunaren meritu infinituetan ere, edota haren heriotzaz erdietsi zizkigun grazietan. Arzuzainak espirituzko gidaritzatik at daude, aingeru onen babesetik eta Birjina Txit Santuaren laguntzatik oso urritu. Beren egintza guztiak, berez biziki onak izan arren, ez dute inolako meriturik Jainkoaren aitzinean; eta egoera horretan hiltzen badira, ez zaio haien alde erregutuko Jainkoari; beren gorpuak kristau hobiratzerik gabe gelditzen dira eta beren arimak deabruen entregatuta gelditzen dira infernua su hartzeko betierekotasunean.

KB1.212.0.21 Elizak eskomikatu duen pertsona batekin harremanak usu badituzu, zeu ere aldi berean eskomikatuta geldituko zara. Beraz, eskomikatuta egotea zoritxar handia da, eta bizitza honetan kristauak jaso dezakeen zigorrik beldurgarriena. Aita santuek eta gotzainek dute eskomikatzeko eskubidea; izan ere, Jesusengandik jaso zuten lotzeko eta askatzeko agintea apostoluen pertsonen bidez. Eta Jainkoaren edo Elizaren legeak buru-gogorkeriaz obeditzen ez dituztenak dira eskomika ditzaketanak, hots, behin baino gehiagotan jakinaren gainean egonda ere, dakitena azaltzen ez dutena; urte oso bat aitortu gabe eta beren parrokiara jauntatu gabe egon direnak; eta borrokan aritu direnak.

KB1.212.0.22 Elizan, hereseak eskomikatzen ziren igandero, halaber, saltzen, erosten, aholkatzen edo mesedeak saltzen laguntzen zituzten simoniakoak, edo besteentzat gordetzen zituztenak; magoak, sorginak, igarleak eta lukurariak; asmo txarrez elizgizonen bat kolpatzen dituztenak, eta bidegabeki Elizaren ondasunak atxikitzen

dituztenak; jainkozko ofizioetan fartsazko ikuskizunetan presente egoten direnak; eta dispensa jaso gabe Elizak debekatzen dituen graduetan ezkontzen direnak.

KB1.212.0.23 Batzuetan, aita santuek eta gotzainek eskomikatzeko izaten dituzten arrazoiak zera hauek izaten dira: egindakoaz berriz pentsa dezatela, bihotz berri daitezela eta beren salbazio kontua seriotasunez har dezatela. Baita ere, beste guztiak jakinarean gainean egon daitezen ezin dutela inola ere Jainkoa iraindu, zigor lazgarri honetan erori nahi ez badute bederen.

Eskomikatuei lehenbailehen damutu behar zaie eskomikatuak izateko egin zuten bekatuaz, ahal duten zor guztia kitatuz, sortu zuten eskandalua garbituz, emandako penitentzia hartuz, eta lehenbailehen eskomikatzearen barkamena bilatuz. Beren bekatua publikoa izan bazen, bai gotzainak edo gotzainaren eskutik horretarako agintea jaso duen apaizen batek publikoki barkatuko ditu.

KB1.213

13. kapitulua Bekatuaz orokorrean

KB1.213.0.1 Jainkoak bekatutik aldentzeko eman dizkigu manamenduak; horregatik uste dugu hau dela lekua fededunak eskolatzeko horri buruz.

KB1.213.0.2 Bekatua da munduan gerta daitekeen okerrik handiena, Jainkoa iraintzen duelako, hots, izugarri on eta subiranoa den Jainkoa. Mundu honetan nozi ditzakegun gaitz guztien kausa da eta imajina ditzakegun zigorrak merezi ditu. Horregatik izurrite bat baino areago baztertu behar dugu, heriotza baino areago, infernua eta infernuko pena guztiak baino areago; eta ez dago deusik nahiz eta gauza txit izugarria eta desatsegina iruditu, bekatuari bezain herra handiagoa erakutsi behar diogunik.

Bekatua zera da, Jainkoaren edo Elizaren manamenduen aurka pentsatzea, esan nahi baita, zerbait aurka egitea edo egin gabe lagatzea; edo, hitz batez, Jainkoari ez obeditzea.

KB1.213.0.3 Hiru manera ezberdin daude bekatuan jauzteko: ahuleziaz, ezjakintasunaz edo maliziaz. Ahuleziaz bekatu egiten da norbait bekatu abagunean aurkitzen denean edo erabat lerratuta horretara gozamenaz, eta oso biguna eta ahula sentitzen denean abaguneari eusteko. Ezjakintasunaz bekatu egiten da norbait arduratu ez denean gauza bat bekatu den edo ez den jakiteko, eta ez jakiteagatik bekatuan erortzen denean.

KB1.213.0.4 Maliziaz bekatu egiten da bekatua nahita egiten denean, eta ez abaguneak bultzatuta edo pasioaren gogorkeriak sustatuta, baizik eta bakar-bakarrik borondate txarra dela kausa edo zuzendu ez den ohitura bat dela medio edota zuzendu nahi ez den aztura bat dela arrazoi nagusia.

KB1.213.0.5 Orokorrean bi bekatu mota daude:jatorrizko bekatua eta gaurko bekatua. Jatorrizko bekatua Adanen bidez eskuratu duguna da; bera izan zen lehen gizasemea, eta harekin bat errudun egin gara obeditu ez zuelako. Jatorrizkoa deitzen da Adanengandik, gure jatorriarengandik, hartu dugulako; jaiotzearekin batera ekartzen dugulako; are eta gehiago, amaren sabelean sortuak garenean bekatu horrek kutsatzen

gaitu; harrezkero, Jainkoaren etsaiak gara, koleraren seme-alabak, eta deabruaren tiraniaren eta inperioaren menpean gelditzen gara eta betiereko kondenatze xedatuak.

KB1.213.0.6 Gizaki guztiak, Adanen garaitik gaur arte, delako bekatu honek markatu ditu, eta den-denak markatuta egongo dira munduaren akabera arte. Bekatu hau bataioaz ezabatzen zaigu, eta hartu gabe hiltzen direnek Jainkoa ikusi gabe geldituko dira betierekotasunean.

KB1.213.0.7 Bekatu honek ahulezia izugarria dakarkigu ongia egiteko, eta gaizkia egiteko joera beldurgarria. Honi haragi irritsa eta gizaki zaharra deitzen diogu; izan ere, hau da gure baitan dauden joera nahiz mugimendu desordenatu ororen iturria; hauek eramaten gaituzte, batzuetan pentsatu ezik, sorkariak maitatzera eta ongien goatzera eta sensual plazerretara.

Haragi irritsa hau guregan jaio eta hiltzen da eta ez gaitu sekula abandonatzen. Santuak berak ere ez daude honetatik libre, nahiz eta bekatuari gorrotoa dioten eta halaber Jainkoarengandik beste inor baino hurbilago bizi diren. Jainkoak hau onartzen du bekatuaren aurkako borrokan zaildu egiten direlako eta haragi irritsaren guduak garaile irteteko aukera izaten dutelako. Beste honetarako ere balio du, alegia, Jainkoaren ondasuna hobeto ezagutzeko eta orobat Haren graziaren indarra, zeinak gure etsai honek geure eta gure salbazioaren aurka jartzen dizkigun behaztopa guztiak gainditzen laguntzen baitigu.

KB1.213.0.8 Gaurko bekata geuk egiten duguna da, geuk nahi dugulako, ezaguera dugunean. Gaurko bekatu mota bi daude: bekatu larria eta bekatu arina. Bekatu larriak Jainkoaren grazia kentzen du gure arimatik eta betiko heriotzara darama. Horrela hilarazten du, zeren graziarik gabe utzi baitu, honek biziarratzen zuelarik.

KB1.213.0.9 Egia da arima ezin dela benetan hil, zeren hilezkorra izanik ezin baitu bere bizitza naturala galdu, bere natura bera delarik. Alabaina, espirituzko bizitza bai, galde dezake, zeren berau graziaren posesioa baita eta harekiko batasuna amore santua dela bitarte.

Bekatu larriak halako malizia dauka ezen gure baitan izugarritzko desordenuak eta garrantzizko nahasmenduak kausatzen dituen, eta ondorioak penagarriak dira, zinez. Izan ere, Jainkoaren etsai bihurtzen gaitu haren maitasun santua kentzen digulako, gure bihotzetatik, jauretxe biziak izaki, Espiritu Santua erauzten digulako, piztien mailan jartzen gaituelako, eta deabruen eta gure pasioen esklabu egiten.

KB1.213.0.10 Bekatu arina gure arimari grazia erabat kentzen ez diona da, baina murrizten dio, eta gure Jainkoarekiko maitasuna ahultzen du, haren zerbitzuan makalak egiten gaitu, eta ezarian-ezarian bekatu larria egiteko abagunean jartzen gaitu. Arina deitzen diogu zeren Jainkoak zeinak ontasun handia baitauka gizakiokin, datorren bizitzan barkatu egiten baitie Jainkoaren grazian hiltzen direnei, eta mundu honetan ere erraztasunez barkatzen du zorra kitatzeko jaierazko ekitaldiren bat egiten bada.

Honek ez du esan nahi bekatu hau irain arina baita barkamen azkarra eta erraza merezi duenik, bada, nahiz eta obra on asko praktikatu eta bizitza honetan asko nozitu, ezin da justizia zorrotza erabiliz gero bekatu arin batek merezi duena ordaindu, arinegia iruditu arren.

Beraz, sekulako garrantzia du kontu handiz baztertea, eta kondenatu ezin bagaitu ere, alabaina, hobe litzateke, mundu osoa suntsitzea hauetako bakar bat bera ere egitea baino.

KB1.213.0.11 Batzuetan Jainkoak zigor zorrotzez ordainarazi ditu bekatu arinak, baita heriotzarekin ere. Horrelako zoritxarreko adibideak Liburu Santuetan ditugu, hala nola, Loten andrearen heriotza eta Ozarena.

Bekatu larraren eta bekatu arinaren artean dagoen funtsezko ezberdintasuna zera da, bekatu larrian sorkaria Jainkoa baino gehiago maitatzen da, eta bekatu arinean, nahiz eta ez maitatu sorkaria Jainkoa baino gehiago, dena den, maitatu behar zen ez bezala maitatzen da.

KB1.213.0.12 Batzuetan ez da erraza bereiztea bekatua larria edo arina soilik den, ez gaudelako ziur eman genion baimena, edo bekatuaren edukia, nahikoak diren bekatu larria izateko. Bada bekatu bat arina izan den jakiteko kontuan hartu behar da baimena osoa izan den edo ez, edo materia oso arina denean; eta bekatu bat larria dela jakiten da egintza bat borondate osoarekin egiten denean eta egintza hori Jainkoak betiko gaitzespenaz zigortzen duenean.

KB1.213.0.13 Bekatu larria penitentzia sakramentuaren bitartez barka daiteke. Baina bekatu arina jaierezko egintza ezberdinez barka dakiguke, hala nola, mortifikazio praktika batzuez, Jainkoaren izenean plazerren bat baztertuz, erremusina emanez, otoitz batzuk errezatuz, adibidez, Gure Jaunaren otoitza, zazpi penitentzia salmoak edo *Miserere* salmoa. Ekitaldi eta praktika hauek oso eraginkorrak dira honetarako, baldin bekatuekiko benetako damuaz egiten badira, Jainkoarekiko konfiantzaz eta haren maitasunean sinetsiz.

KB1. 214

14. kapitulua

Zazpi bekatu edo ohitura gaizto nagusiez

Ohitura gaizto guztien artean batzuk nagusiak deitzen dira beste askoren iturri gisa hartzen direlako. Eskuarki, zazpi direla esaten da: harrokeria, zekenkeria, haragikeria, bekaizkeria, sabeldarraioa, haserrekeria, eta nagikeria.

Bekatuok mundu honetan aski ohikoak direnez, komeni da fededunak ongi eskolatuak egotea honi dagokionez, hauetaz babesteko eta hauetatik baztertzeko, batean edo bestean sartuta ibiliko balira.

KB1.214.1 Lehenengo saila Harrokeriaz

KB1.214.1.1 Harrokeria, ohitura gaizto nagusienetako bat, Jainkoak eman digun egoeraren ginetik egoteko desira eragabekoa da, edo gainalde horretan egoteko gozamena. Bekatu hau osa larria eta inportantea da, arrazoiaren aurka baitoa, zeinak esaten digun ez dugula deusik geure izatez; Jainkoari dagokion aintza ebasten diolako, eta bidegabeki lagun hurkoaren gainetik jartzera eramaten gaituelako.

KB1.214.1.2 Harrokeriaz bekatu egiten da Jainkoak bere graziaz eta ondasunaz eman diguna geurea balitz bezala hartzen dugunean; Jainkoarengandik jasotakoa geuk merezi izandakotzat hartzen dugunean; nor bere buruaren gaineko duen estimua besteenaren gainetik jartzen duenean. Liburu Santuak diosku harrokeria beste bekatu guztien jatorria eta iturria dela, dela harrokeria izan zelako gizakiaren eta aingeruaren lehenengo bekatua, dela bestelako bekatuek gure borondatearen matxinada adierazten dutelako, esanekotasunaren aurkakoa eta Jainkoaren borondateari zor diogun menpekotasunaren kontrakoa.

KB1.214.1.3 Alabaina, bekatu batzuk lotura estuagoa dute harrokeriarekin, eta berak sortzen dituela esaten da, zeren eskuarki laguntzen eta jarraitzen dutelako. Hauek dira: harrotasun hutsala, handinahia, arrandia, itxurakeria, ozarkeria, eta lagun hurkoarekiko mesprezia.

Harrotasun hutsalak gizakien estimua bilatzera garamatza eta gure baitan dagoen ontasuna asmo horrekin erakustera; alaitasunez eta gozamenegiz egiten dizkiguten laudorioak errezipitza; eta mesprezatzen gaituztenean edo guk nahi genukeen estimu guztia erakusten ez digutenean sakonki sentitzera.

KB1.214.1.4 Handinahiak duintasunak, karguak eta enplegu distiratsuak bilatzera mugiarazten gaitu, horietarako duinak izan edo ez izan, bakar-bakarrik ohore handikoak izan eta beste gizakien gainetik egoteko.

Arrandiak hain da iritzi ona sorrarazten diguna gure buruaz, ezen gure ahalmenaren gainetik dauden zenbait gauza egitera bultzatzen gaituen inolako begirunerik gabe.

KB1.214.1.5 Itxurakeriak jendeari iruzur egitera garamatza itxurazko eraspena aitzakiatzat, garena baino hobeak azalaraziz, edo bestela oso onak, egiaz ohitura gaiztokoak garenean.

Ozarkeriak gure ideiak besteenak baino gehiago nahi izatera eramaten gaitu orokorrean, batik bat delako beste horiek gu baino nagusiagoak badira; eta halaber eramaten gaitu haien zuzenketak gaitzestera, haien aholkuak baztertzerara eta haien aginduak zapuztera.

KB1.214.1.6 Lagun hurkoarekiko mesprezuak ez du uzten haren bihotzeko sakona estimatzen, eta bai hitzez eta bai egintzez manera harroaz eta iraingarriaz mesprezatzerara eramaten gaitu. Jainkoak harroak eta harropuzak bizitza honetan zigortzen ditu, bekatu lotsagarrietan eror daitezela permitituz, eta orobat nolabaiteko abaguneak igorri umilia daitezten.

KB1.214.1.7 Harrokeria-bekatuari erremedioa jartzeko kontura gaitzen oroz gain ez garelako bekatua eta ezdeusa baino, eta sarri askotan infernua merezi izan dugula; bestalde, pentsa dezagun nolakoa izan den Jesusen eta santuen umiltasuna; gainera, ez dezagun deus egin gizakien estimua irabazteko, baizik, alderantziz, jardun gaitzen egintza xumeetan, apaletan eta umilgarrietan, eta egonari handiz nozitu egin diezazkiguketuen mesprezuak eta irainak.

KB1.214.2 Bigarren saila Zekenkeriaz

KB1.214.2.1 Zekenkeria mundu honetako ondasunen eta aberastasunen estimua da, benetako ondasunak balira bezala, eta eskuratzeko desira desordenatua. Zekenkeriaz bekatu egiten da delako ondasunen bat eskuratzeko Jainkoaren aurka egiteko beldurrik ez dugunean; ondasunak gehiegizko antsiak bilatzen direnean; hauek galtzeko gehiegizko beldurra dugunean; beste baten jabetza bidegabekeriak nahi izaten denean; ondasunak ez direnean norberaren eta norbere familiaren beharkizunetarako erabiltzen; behartsuei erremusina ematen ez zaienean; eta egintza onak egiten direnean mundu honetako ondasunak lortzeko.

KB1.214.2.2 Orokorrean zekenkeria gaitz guztien iturria dela esaten da, zeren aberastasunak maite dituztenak oso erraz lerratzen baitira bestelako bekatuak egitera pilatzeko; eta aberastasunen pilatzea bestelako kezka, arranguraz eta miseriaz lotuta doalako.

Zekenkeriak sorrarazten dituen bekatuak hauek dira: behartsuekiko eta laguntza behar dutenekiko bihotz gogortzea, ebastea, gezurra esatea, zin faltsua egitea, iruzurriz baliatzea, eta liskarretan aritzea, eta kontuok guztiok lagun hurkoarekiko gorrotoa izaten dute ondorioztat.

KB1.214.2.3 Zekenkerian ez erortzeko edo horretaz libratzeko baliabidea da norberaren ondasunak kontserbatzeko edo lortzeko baliabideak moderatzea; gehitzekotan moderazioz gehitzea, antsiarik gabe, behartsuak maitatzea eta norberaren ahalmenaren arabera laguntza eskaintzea; ondasunak galduz gero egonarrria praktikan jartzea, zera hau gertatzen denean; eta maileguz emanaren truke deusik ez eskatzea.

KB1.214.3 Hirugarren saila Haragikeriaz

KB1.214.3.1 Haragikeria sexu-plazer desordenatuen irritsa da edo plazer mota horiekiko gozamena. Haragikeriazko bekatu egiten da norbaitek plazer hartzen duenean gauza lizunetan pentsatzean; irritsa likitsak desiratzen direnean eta horietara eramaten gaituzten abaguneak baztertzen ez direnean; hitz haragikioiak esaten direnean; kontu honetako gauzez mintzatzen denean edo hauetaz hitz egiten dutenei atseginez entzuten diegunean; kontu honen inguruan tratatzen dituzten liburukiek norbaitek atsegin handiz irakurtzen dituen; abesti lizunak gogoz abesten edo entzuten direnean, eta lizunkeriara bultzatzen dituzten gauzak atseginez begiratzen direnean; ukitu lizunak praktikatzan direnean, norberarekin edo beste norbaitekin, asmo maliziatsuak; eta sexu-ekitaldia ezkontzatik at praktikatzan denean.

KB1.214.3.2 Haragikeriak efektu oso txarrak ditu horretara lerratzen direnengan. Espirituaren itsukeria jausten dira, eta honek ez die uzten aholkua eta arrazoiak entzuten; batere pentsatu gabe doaz beren plazerrak asebetetzera; oso maite dute beren burua eta Jainkoa gorrotatzen, bekatuzko plazerrak debekatzan eta zigortzen dituelako; mundu honetako bizitza asko preziatzen dute, ustez hau delako bekatuzko plazer doilorrez gozatzeko duten sasoi bakarra; eta horrekin sakona diote hurrengo bizitzari, amaia jarriko diolako eramaten ari diren limurtasun errudunari.

KB1.214.3.3 Ohitura gaizto honekin bat egiten dutenak dohakabeak dira; Jainkoaren aitzinean doilorrak eta gizakien aitzinean, beren ondasunak galtzen dituzte, osasuna eta bizia, eta gaixotasun lotsagarriak hartzeko arriskuan daude, ondorioz miserian hiltzera eramaten dituztenak. Haragikeriaz libratzeko baliabiderik onenak hauek dira: hasieratik ez eman amorerik tentazioari, gorputza eta zentzumenak mortifikatu, abaguneetatik urrundu eta alfertasunetik ihes egin, aitorle berberarekin askotan aitortu eta Birjina Txit Santuari debozioa izan.

KB1.214.4 Laugarren saila Bekaizkeriaz

KB1.214.4.1 Bekaizkeria geure probetxuzkoa den maitasuna da, gure lagun hurkoaren arrakastaren eta ongiaren aitzinean penatzen gaituena, eta haren gaizkiaren aitzinean gozarazten gaituena. Ia beti harrokeriaren ondorioa da, beste batzuek gu baino gehiago direla eta geu gaingiditzen gaituztela azaltzen duen sentimendua, alegia. Sarritan etor dakiguke gure espiritua ahula delako, zeren mundu honetako ohoreak eta mesedeak besteengan ikusten ditugunean zorionekotzat hartzen baititugu eta, ordea, ez guregan zoritxarrekoak garena pentsatzen baitugu.

KB1.214.4.2 Bekaizkeriaren aurka bekatu egiten da besteen ohoreak eta aberastasunak atsekabez ikusten ditugunean eta esne mamitan bizi direla ohartzen garenean; tristeziari leku ematen zaionean gu baino talentua, jakituria eta trebetasuna duelako; bati amorrua ematen dionean ikustea gizakiek gu haina edo gu baino gehiago estimatzen, maitatzen eta ohoratzen dutela; delako horrek gu baino bertute handiagoa duelako min ematen digunean edo Jainkoak horri guri eman ez dizkigun graziak oparitu dizkiolako.

KB1.214.4.3 Bekaizkeriak sortzen dituen bekatuak hauek dira: lagun hurkoarekiko joera, nahi genituzkeen ondasunak erdiesteko oztopo ikusten dugulako; gertatzen zaizkion zoritxarretan gure poztasuna erakustean eta batik bat gaitzetsia dela ikusterakoan; gaitz esatea, haren aurka mintzatzera garamatzana, ahal dugun guztia beharrezko; eta ausarkeriazko epaiketak eta esaten edo egiten duenaren interpretazio okerrak egitea.

KB1.214.4.4 Inoren aurkako bekaizkeria ez sentitzeko baliabideak hauek dira: bihotza mundu honetako ondasunetatik, ohoretatik eta plazerretatik etetea; besteek dituzten ondasunak, graziak eta mesedeak alaitasunez hartzea; eta beti ongi hitz egitea guk desiratzen bai baina besteek dituzten gauza horien edukitzaileen alde.

KB1.214.5 Bosgarren saila Sabeldarraioaz

KB1.214.5.1 Sabeldarraioa jaterakoan eta edaterakoan sentitzen den plazerraren irrisia desordenatua da, edo plazer horrekiko atxikitasuna. Sabeldarraioaz bekatu egiten da gehiegizko limurtasunaz jaten edo edaten denean, edo debekatutako elikagaiak edo delikatuegiak jaten edo edaten; Elizak agintzen dituen egunetan baraua ez egiten, eta beharrezkoa ez denean jaten, edo gehiegizko irrikaz, gustuz edo plazerraz.

KB1.214.5.2 Sabeldarraioaz egiten den bekatuak handiena hordikeria da, zentzumenak galarazten duelako; eskuarki sumintzera zaramatza; gogorkeriara eta Jainkoaren izen santua iraintzera eramaten du; eta, sarri askotan, familien artean liskarrak sorrarazten ditu.

Eskuarki sabeldarraioak sorrarazten dituen bekatuak hauek dira: neurririk gabeko alaitasuna eta lasaikeria, kalakan errazegi egitea eta haragikeria hitzetan eta ekitaldian.

KB1.214.5.3 Gehienetan, ohitura gaizto honek espiritua aberetzen du, eta bertan murgiltzen direnek ez dute ez Jainkoarekiko eta ez bere salbazioarekiko inolako sentiberatasunik; ez dira gai edozein asmo aurrera eramateko; jende ondratu guztien mesprezua irabazten dute, beren familiari porrot eragiten diote, beren osasuna kakazten dute eta ezgaraiz hiltzen dira, gehiegikeriak direla eta.

KB1.214.5.4 Ohitura gaizto honetan jausi nahi ez bada eta ez gehiegirik jan eta edan, pertsona lizunak saihestu behar dira, tabernetara gutxitan joan, ardoa edatekotan beti neurritz, eta ur dezente nahastuz, eta ohitura hartuz mahaitik altxatzen erabat asebeste gabe.

KB1.214.6 Seigarren saila Haserrekeria

KB1.214.6.1 Haserrekeria arimaren bulkada da eta gogokoak ez dituen gauzak gogorkeriaz errefusatzera darama, era berean ere bada jasotako irainen aurka mendekua hartzeko irrika. Haserrekeriaren arrazoaia zera da, plazerrekin, aberastasunekin eta ohorearekin dugun atxikitasuna.

Haserrekeriaz bekatu egiten da batere gogokoak ez ditugun gauzak egonarriz jasaten ez ditugunean; norbait haserretzen denean gure nahia betetzen ez duenarekin, eta mendekua bilatzen denean.

KB1.214.6.2 Haserrekeriak lagun hurkoari mesprezua eta gorrotoa opa dio eta, gainera, liskarrak, hitz mingarriak, biraok, gorputzeko eta arimako kalumniak eta gaitz esateak sorrarazten ditu eta, halaber eragiten ditu hilketak eta lagun hurkoari mendekua hartzeko egiten zaizkion gaitz guztiak.

KB1.214.6.3 Haserrekeriak kalte larriak sortzen dizkie horretara lerratzen direnei. Arrazoaia kentzen die eta beren zentzua aztoratzen, arimaren bakea eta sentimendu on guztiak galtzera daramatza; deabruen pareko egiten ditu, haserretuta eta biraoka dihardute Jainkoaren izenaren aurka. Gizakien gizartean ere kalte larriak sortzen ditu, eta anaien arteko karitatea desegiten, honek erabat oztopatzen duelarik batzuek besteekin harmonian bizitzea.

KB1.214.6.4 Haserrekeriaren aurkako erremediorik egokiena lehenengo bulkadak galgatzea da eta horretara garamatzanetik urruntzea; txutxu-mutxuei gor egitea; pertsona liskartien konpainia baztertzea, eta oso jabetuta egotea gure okerrek izugarri eragotzen dutela gure ondoan bizi direnak.

KB1.214.7 Zazpigarren saila Nagikeria

KB1.214.7.1 Nagikeria Jainkoarekiko eta Harengana garamatzaten gauzekiko tristezia, gogorik eza eta gogaitasuna da. Halaber bada baita ere artagabekeria, ahultasuna eta gure betebeharra burutzeko higuina.

Nagikeriaz bekatu egiten da lanbide bat duzunean eta ardura gutxi jartzen duzunean ongi egiteko; hartu duzun obligazio bati jaramonik egiten ez diozunean; Jainkoa behar bezala zerbitzatzten ez duzunean, eta gogorik ezaz zerbitzatzten duzunean; seme-alabekin eta zerbitzariekin behar besteko ahalegina egiten ez duzunean, egin behar dutena ongi egin eta Jainkoarekin leialak izan daitezten.

KB1.214.7.2 Nagikeriak sortzen dituen bekatuak hauek dira: bertutea lortzeko izaten diren oztopoi aurre egiteko beldurra; ongia egiteko adore falta; norberaren lanbidean ahalegin eskasa; jaierazko eta bertutearen praktikak utzi eta gero berriro ekiteko izaten den iraunkortasunik eza; zoritxarreko egoera horretatik irteteko itxaropenik eza; denbora galtze eta alfertasuna; espirituzko barriadura eta bihotzeko adorerik eza erlijioaren jardueran; jaierazko pertsonetik aiherkundea; Jainkoaren inguruko gauzez hitz egiteko eta hitz egindakoa entzuteko oztopoa.

KB1.214.7.3 Nagikeriaren menpean daudenak zoritxarrez bertute guztien gabeziarekin bizi behar izaten dute, ez baitute adorerik praktikatzeko; alfertasun horrek sarbidea ematen die tentazio guztiei eta obra onen meritua erauzten, hola gogo txarrez eta ahaltsunez egiten dituzte.

KB1.214.7.4 Nagikeriari aurre egiteko baliabiderik egokienak hauek dira: aitorle aditu baten aholkuak jarraitu; gure aldamenean ongira bultzatuko gaituen norbait izatea; pertsona bertutetsuekin usu harremanak edukitzea; hala Jesusen egintzak zein pairamenak nola santuen bizitzak afektuz eta arretaz irakurtzea, latik bat bertutea erdiesteko izugarri pairatu behar izan zutenenak.

KB1.215

15. kapitulua Bestelako bekatu mota batzuez

KB1.215.0.1 Bekatu edo ohitura gaizto nagusiez gain, badira gainera beste hiru bekatu mota, eta horietaz dezente jakin behar da: aipatzen ditugun bekatuak Espiritu Santuaren aurka doaz, Jainkoaren aitzinean mendekua eskatzen dutenak, eta besteen bekatuetan parte hartzean egiten direnak.

KB1.215.0.2 Espiritu Santuaren aurka bekatu egiten da Espiritu Santuak norbera salbatzeko eskaintzen dituen grazien aurka egiten denean eta haietaz abusatzen denean; eta zehazkiago esateko, Jainkoaren errukiaz eta norberaren bekatuez gehiegi hitz egiten denean, kontuan hartu gabe zein diren Jainkoak eskaintzen dituen baliabideak salbamena erdiesteko, eta, honez gain, gainera pentsatzea aukeratuen taldean dagoela bat, eta pentsatzen denean heriotzako orduan egiazko konbertsiorako grazia izango dugula.

KB1.215.0.3 Era berean, salbamena eta betiko bizitza lortzeko etsipena norberaren buruaren jabe egiten denean, dela bekatu handi bat egin delako edo hainbat eta hainbat bekatu egin direlako; egiaren bat mesprezatzen denean, nahiz eta ezagutu; norbait bekatuaren aitzinean temati agertzen denean eta barkamenik ezaren jarreran irauten denean, etengabe bekatu eginez, eta Jainkoarekiko behin betiko konbertsioari uko egiten diolarik.

Halaber, Espiritu Santuaren aurka bekatu egiten da lagun hurkoarekiko inbidia erakusten dugunean, Jainkoak grazia ugari eman dizkiolako, bada Espiritu Santuaren aurka joatea da triste jartzea Bera beste norbaitekin komunikatzen denean.

KB1.215.0.4 Bekatuok Espiritu Santuaren aurka doazela esaten dugunean ez da pentsatu behar Espiritu Santuaren pertsonaren aurka soilik doazela; Aitari eta Semeari ere iraina egiten zaie. Baina Espiritu Santuaren aurka doazela esaten da Jainkoaren ontasunaren aurka doazelako, hori baita Espiritu Santuaren berezko doea, eta honengatik hartzen dira Espiritu Santuaren aurkakotzat.

KB1.215.0.5 Itxura guztien arabera, bekatuok dira Jesusek Ebanjelioan ezin barkatuzkoak deitzen dituenak. Alabaina, kontua ez da ezin direla bekatuon barkamena erdietsi, eta izatez Jainkoak ez dituela barkatu nahi; gertatzen dena da bekatuok egiten dituztenek jarrera oso txarra izaten dutela eta baliabide guztiak errefusatzeko dituztela barkatuak izateko, hots, Espiritu Santuak eskaintzen dituen baliabideak bekatuotatik urruntzeko eta babesteko nahita baztertzeko dituztela.

KB1.215.0.6 Jainkoaren mendekua ekartzen duten bekatuak hauek dira: nahierazko giza hilketa, sodomia-bekatuak, behartsuen zapalketa, eta morroiei nahiz langileei legearen kontrako soldataren atxikipena.

Nahiz eta bekatu guztiak eskatzen duten Jainkoaren mendekua, bada ez dago bat bera ere zigor zorrotza merezi ez duenik, lau bekatuok esaten da Liburu Santuek hauek soilik deklaratu dituelako; eta bekatu horiek hain larriak dira ez dagoelako inolako aitzakiarik egiteko, naturaren eta arrazoiaren aurka eginak direlako.

KB1.215.0.7 Besteen bekatuetan esku hartzean egiten ditugun bekatuen errudun gara besteek egindako bekatuetan esku hartu dugulako edo onetsi ditugulako, bai zuzenean eta bai zeharka, nahiz eta guk geuk ez egin.

Beste baten bekatuan esku hartzen da agintzen edo aholkatzen zaionean egin dezan, hori egitera hitzez edo egintzez bultzatzen denean, egiten laguntzen dugunean, edo egiteko baliabideak eskura jartzen zaizkionean.

KB1.215.0.8 Besteen bekatua egiten zeharka bultzatzen da egiteko jarraibide edo abagunea ematen zaie; onesten direnean; alabatzen direnean edo egiten dutenean errieta egiten ez zaie; edo bigunegi edo hotzegi errieta egiten diegunean; besteen bekatuak obra on gisa aurkezten direnean; batzuen biziera besteena baino zintzoagoa izatea gaitzesten denean; eta imitatzerako eraman ordez, ikusi dutenaren aurkakoa egitera bultzatzen ditugunean, lotsati geratzeko beldurrez.

KB1.216

16. kapitulua **Bertuteez eta ebanjelio aholkuez**

KB1.216.1 Lehenengo saila
Bertuteez

KB1.216.1.1 Ezingo ditugu bekatuak baztertu, horien aurkako bertuteak ez baditugu praktikatzeko. Hau dela eta, oso da egokia bekatuek mintzatu eta gero, zertan dautzan bertuteak deitzen ditugun praktikak martxan jartzeko ezagutu behar ditugun baliabideak.

Kristau bertutea naturaz gaindiko kualitate bat da ongi egiteko erraztasuna eta joera ematen diguna, alegia, Jainkoaren amoreagatik obra onak praktikatzeko.

KB1.216.1.2 Bertute mota bi daude: batzuek zuzen-zuzenean Jainkoarekin dute zerikusia, eta bestek bizitza honetako ongiekin eta gaizkiekin, horiek egokiro erabiltzeko. Hiru bertute daude zuzen-zuzenean Jainkoarekin lotuta daudenak, eta helburutzat dute, horregatik teologalak deitzen dira: fedea, itxaropena eta karitatea; hauetaz liburu honen atarikoan hitz egin genuen.

KB1.216.1.3 Bizitza honetako ongiei eta gaizkiei begiratzen dienak egokiro erabiltzeko, moralak deitzen dira, ohiturak arautzeko balio dutelako. Asko dira eta, bereziki, bi motakoak dira. Batzuei, eskuarki, bertute kardinalak deitzen diegu bertute moralen artean printzipalena eta lehenak direlako. Bestiak, zazpi ohitura gaizto edo bekatu nagusien aurkakoak dira. Lau bertute kardinalak daude: zuhurtzia, justizia, adorea eta neurritasuna.

KB1.216.1.4 Zuhurtzia bertute bat da eta naturaz gaindiko argiaz arima Jainkoarengana eraman dezakeen guztia bereizten du eta orobat Harengandik urrundu dezakeena. Kristau zuhurtzia eta gorputz zuhurtzia bereizi behar dira. Gorputz zuhurtziak bizitza honetarako erosotasunak eta mesedeak bilatzen ditu; kristau zuhurtziak, aitzitik, Ebanjelioaren arauak erabiltzen ditu, eta Jainkoak kontuan hartzen dituen gauzekiko bereizmenak.

KB1.216.1.5 Justizia bertute bat da eta lagun hurkoari, Jainkoaren amoreagatik, dagokiona ematera eramaten gaitu. Adorea bertute bat da eta oztopoak gogo onez jasatera garamatza, Jainkoaren amoreagatik. Neurritasuna bertute bat da eta gure zentzuen plazerak bridatzera eta neurtzera garamatza, Jainkoaren amoreagatik.

KB1.216.1.6 Zazpi bekatu edo ohitura gaizto nagusien aurka doazen bertuteak hauek dira: umiltasuna, aberastasunen baztertzea edo eskuzabaltasuna, garbitasuna, lagun hurkoarekiko garra, neurritasuna, otzantasuna eta Jainkoarekiko gustua.

Umiltasuna, zeina harrokeriaren aurkakoa baita, gure ezdeusaren onarpena da eta lagun hurkoari eskaintzen diogun borondatezko esanekotasuna. Eskuzabaltasuna, zeina zekenkeriaren aurkakoa baita, gure mundu honetako ondasunak alaitasunez eta eskuzabaltasun handiz erabiltzera garamatza, norberaren eta lagun hurkoaren beharkizunetarako.

KB1.216.1.7 Garbitasuna, haragikeriaren aurkakoa baita, permitituta ez dauden gorputz honetako plazerak baztertzera garamatza, eta horretara bereziki garamatzaten mugimenduak apaltzera eta menderatzera. Lagun hurkoarekiko ongiaren garra, zeina bekaizkeriaren aurkakoa baita, lagun hurkoari gure esku dagoen eta ahal dugun ongia egitera garamatza, Jainkoaren amoreagatik. Neurritasuna, jalekeriaren aurkakoa baita, jatekoa eta edatekoa neurtzera garamatzen bertutea da.

KB1.216.1.8 Otzantasuna, zeina haserrekeriaren aurkakoa baita, datozkigun gaitzak orekaz jasatera garamatzen bertutea da. Jainkoarekiko gustua eta prestasuna, zeina nagikeriaren aurkakoa baita, Jainkoaren zerbitzariak izatera eta jaierazko ariketak prestasunez eta txeraz praktikatzera garamatzen bertutea da; era berean, Jainkoa gure begien aurrean dugula, gure eginbeharra zehaztasunez eta lastertasunez betetzera garamatza.

KB1.216.1.9 Badira beste bertute batzuk noiz-nolako egoeretan praktikatzeko obligazioa duguna. Liburu Santuek eta santuek irakasten digute horietaz. Entzun behar diegu, irakasten ditutena ikasi eta Jesus Gure Jaunaren eta santuen jarraibidea segitu, beren bizitza osoan praktikatu zituzten eta.

KB1. 216.2 Bigarren saila
Aholku ebanjelikoez

KB1.216.2.1 Benetako kristau gisa bizi nahi badugu, ezingo ginateke konformatu behar derrigorrezkoak diren bertuteak praktikatuta, eta baztertu behar ditugun ohitura gaiztoen aurka doazenak; gainera, saiatu beharko ginateke beste batzuk praktikatu, aholku gisa ematen direnak eta bekatuan ez erortzeko balio dutenak.

KB1.216.2.2 Delako aholkuok Ebanjelio Santuan sakabanatuta daude eta orobat Itun Berrian. Printzipalena hiru dira: batzuk errukizko obrak deitzen dira, beste batzuk zortzi zorientasun deitutetan sartzen dira, eta, azkenik, besteak Jesusek, bai berak eta bai haren apostolu jarraitzaileek, irakatsi zituen hainbat aginduetan aurkitzen dira, leialtasunez jarraitu nahi dutenek praktikatu ahal izateko.

KB1.216.2.3 Errukizko obrei dagokienez, batzuk derrigorrezkoak izan arren pertsona batzuentzat, alabaina, beste batzuentzat aholkuak baino ez dira. Horregatik sartzen dira aholku ebanjelioko zenbakietan. Bi errukizko obra mota daude: batzuek lagun hurkoaren arimarekin dute zerikusia, eta beste batzuk praktika daitezke gorputzarekiko harremanetan.

KB1.216.2.4 Arimari begiratzeko dieten errukizko obrak hauek dira; ez dakienari jakiteko obligazioa duenari buruz eskolatu; faltan jausten direnak obraz edo hitzez zuzendu; behar dutenei aholkuak eman zuhurtasun handiz; atsekabeturik daudenak kontsolatu; egonari handiz irainak eta laidoak eraman; gogo onez barkatu egin ditugun gaizkia; bizidunen alde Jainkoari eskatu, bereziki erasaten ditugun alde, eta garbitokian dauden hildakoen alde.

KB1.216.2.5 Gorputzari begiratzeko dieten errukizko obrak hauek dira: behar dutenei jaten eta edaten eman; ostatu eman etxerik gabe dauden atzerritarrei eta bidaiariei; jantzi janzteko arropa ez dutenei; behartsuak txeraz zaindu; gaixoak eta presoak bisitatu; gaitibuak erreskatatu; hildakoei lur eman.

Egintza hauek guztiak errukizko obrak deitzen ditugu lagun hurkoarekiko sentitzen dugun errukia eta gupida direlako bultzatzen gaituztenak haren gorputzeko eta espirituzko miseriak arintzera.

KB1.216.2.6 Zorientasunak bertute-egintza zein bertute-praktika biziki ederrak eta bikainak dira, eta arimak kristau bizitzaren santutasunera eta bikaintasunera eramaten dituzte. Jesus da Ebanjelioan proposatzen dituenak. Zorientasunak deitzen dira zeren Jesusek proposatu zituenean praktikatuko zituztenei bizitza honetan hasten den zoriona agindu baitzien, eta zeruan gozatuko denaren ditxa osoaren bermea eta erakusgarria delako.

KB1.216.2.7 Zorientasunok eta praktika santuok zortzi dira. Lehena zera da: Zorionekoak bihotzez behartsuak, haiena delako Zeruko erreinua. Bihotzez behartsuak

apalak dira, beren buruaz fidatzen ez direnak, eta bihotzetan lur honetako ondasunekiko txera jartzen ez dutenak, eta bai Jainkoarengan. Haiena da zeruko erreinua, zeren ziurtasun osoz egoera horretan hilez gero, haiena izango baita.

KB1.216.2.8 Bigarrena zera da: Zorionekoak otzanak, lurraren jabeak izango direlako. Otzanok dira biraoz josita aurkitzen direnean ez direlako haserretzen, eta ez dietelako inolako gorrotorik erakusten. Lurraren jabeak izango dira zeren, hola jokatuz, oso erraz jabetzen baita bat mundu osoaz.

KB1.216.2.9 Hirugarrena zera da: Zorionekoak negar dagitenak, kontsolatuak izango direlako. Hauek beren bekatuen barkamenerako penitentzia egiten dutenak dira, besteen bekatuez ere damutzen dira, eta lur arrotzean egoteagatik intziri egiten dute, Jainkoarengandik urruti. Kontsolatuak izango dira, espero ez duten sekulako ditzaz gozatuko dutelako zeruan, inolako tristeziarik gabe.

KB1.216.2.10 Laugarrena zera da: Zorionekoak justiziazko gose eta egarri direnak asebetek izango direlako. Hauek dira, nahiz eta Jainkoak eskatzen dien bikaintasunetik oso urruti daudela ikusi, hala ere, hartara iristeko gogoa eta irrika etengabe elikatzen dutenak. Asebetek izango dira zeruaz erabat jabetuko direlako, lurrean horretarako hainbat irrika izan zutena, noski.

KB1.216.2.11 Bosgarrena zera da: Zorionekoak errukiorrak, errukia erdietsiko dutelako. Hauek dira lagun hurkoarekin txera eta samurtasuna erabiltzen dutenak eta haien zoritxarrak arintzen saiatzen direnak. Errukia erraztasunez erdietsiko dute Jainkoak oso erraz barkatuko dituelako eta erabat haien bekatuak.

KB1.216.2.12 Seigarrena zera da: Zorionekoak bihotzez garbiak, Jainkoa ikusiko dutelako. Hauek dira bihotza ohitura gaiztoz libre dutenak eta bekatuekin harremanik ez dutenak, eta Jainkoa soilik maite dutenak. Jainkoa ikusiko dute zeren ariman ez dutenez betiko egiak ikusteko hodei beltzik, eta mundu honetako gauzekin atxikimendu eskasa baitute, zeruan Jainkoa ikusiko dute, ikuskizun garden eta sarkor gisa.

KB1.216.2.13 Zazpigarrena zera da: Zorionekoak bakezaleak, Jainkoaren seme-alabak deituak izango direlako. Hauek dira beren pasioak gainditzeko ahalegintzen direnak eta bai Jainkoarekin bai lagun hurkoarekin eta beren buruarekin bakea mantentzen dutenak. Jainkoaren seme-alabak deituko dira Harekin eta Jesusekin antz handia izango dutelako; izan ere, Jesusek beti izan zuen bake hori eta lur honetara ekartzera etorri zen.

KB1.216.2.14 Zortzigarrena zera da: Zorionekoak justiziaren izenean erasana jasaten dutenak, zeruko erreinua haiena delako. Hauek dira fedegabeek erasaten dutenak dela fedeagatik dela erlijioagatik, eta bizia santua eramanez, trufak, mesprezuak eta tratu txarrak jasaten dutenak galdukerian bizi direnen aldetik. Zeruko erreinua haiena da ez dagoelako betiko ditzga gehiago bermatzen duena Jainkoaren kausagatik erasana jasaten duena baino.

KB1.216.2.15 Badira, gainera, kristau agindu asko hemen biltzerik merezi izan ez dutenak, Itun Berriko pasarte ugaritan erraz aurki daitezkeelako. Jesusek kristauak perfekziorik gorenera deitu zituenean, berak deitu zituen eta baita bere apostolu santuek ere, eta idatziz utzi zizkien. Haien zeregina da maiztasunez irakurtzea eta hausnartzea, praktikatzeko egoera onean egoteko, baliabide honetaz, kristau perfektuak izatera iritsi ahal izateko.

KB1.300**Bigarren atala
Jainkoarekiko betebeharrak egokiro betetzeko
baliabideak****Atarikoa
Non tratatzen den Jainkoarekiko betebeharrak
egokiro betetzeko behar den graziaren inguruan**

KB1.300.0.1 Adanen bekatuak gure salbamenerako ongia egiteko izugarri murriztu baitzigu, laguntza berezia behar dugu Jainkoa ezagutzeko eta maitatzeko, hauek baitira bizitza honetako gure zereginik garrantzitsuenak, salbamena lortzea eta betiereko bizitza erdiestea.

KB1.300.0.2 Laguntza hau Jainkoaren grazia deitzen da, Bera delako bere borondate onez ematen diguna. Guk ezin dugu erdietsi gure indar eta ahalegin soil ez, ezta merezi ere edozein delarik egindako egintza. Jesusek merezi izan zigun jasan zuen guztiaz eta orobat bere heriotzaz, eta haren merituez soilik ematen zaigu. Orokorrean, grazia naturaz gaindiko kalitate bat da Jainkoak gure ariman jartzen duena, eta doan ematen diguna, gure salbamenean laguntzeko.

KB1.300.0.3 Bi grazia mota daude: ohiko grazia eta egungo grazia. Ohiko grazia naturaz gaindiko doea da Jainkoak ematen diguna, egin ditugun bekatuak garbitzen dizkigu eta atseginak egiten gaitu Jainkoaren aitzinean. Hola deitzen da etengabe dagoelako gure arimetan, nondik-eta bekatua dela-eta desagertarazten dugun. Grazia honek beste izen bat hartzen du, hots, santutzailea, gure bihotzean sartzen denean bekatua jaurtitzen duelako, eta daukatenak santuak eta atseginak egiten dituelako Jainkoaren aitzinean.

KB1.300.0.4 Batzuetan garbitzailea deitzen diogu, bera delako gure garbiketa egiten duena, esan nahi baita, gure bekatu egoeratik grazia egoerara eramaten gaituena. Geuk ezin dugu mesede hau merezi, Jainkoak ontasunak bakarrik justifika gaitzake. Preparatu ere ezin gara geu preparatu horretarako. Nahitaez Espiritu Santuak preparatzen gaitu, eta hau egungo graziaz soilik egin daiteke, hasteko preparatzen gaitu, bederen, Jainkoa ondasun guztien iturri gisa, eta egin ditugun bekatu guztien barkatuak senti gaitzen.

KB1.300.0.5 Ohiko graziak mesede handiak egiten dizkigu: horren bitartez Jainkoaren seme-alabak izatera iristen gara, Jesusen anaiak eta oinordekideak, eta betiko aintzarako eskubidea daukagu. Munduko gauza ere gauzarik preziatuena kontsideratu behar dugu, bada edukiz Jainkoa bera daukagu, bizitza honetan jada haren maitasun santuaz gozatzen dugularik; eta harekin hiltzen bagara, betiko edukiko dugu zeruan. Eta aitzitik, hura gabe hiltzen bagara, betiko galduak izango gara. Beraz, kontserbatzeko, kontu handia izan behar dugu, zeren bekatu larri bakar batek galbidera eramaten baikaitu.

KB1.300.0.6 Grazia hau ziurtatzeko eta kontserbatzeko, behar-beharrezkoa da benetan helburu hau erdietsi nahi dugula erakustea. Erakutsi behar duguna da bizitza aldatu nahi dugula, bekatura garamatzaten abaguneak saihesten ditugula, eta gure ohitura gaiztoak kentzeko ahaleginak egiten ditugula.

KB1.300.0.7 Egungo grazia naturaz gaindiko argi bat da edo Jainkoak ematen digun bulkada bat gaizkia urruti uzteko eta ongia obratzeko. Hainbeste behar dugu grazia hau ezen bera gabe ezin baitugu pentsamendu on bat ere izan. Fedea, eta federik gabe ezin dugu sinetsi, honen bitartez ematen zaigu. Eta ez dakigunez Jainkoari zer eskatu behar diogun, eta ezta nola eskatu ere, nahitaezkoa da Jainkoaren Espirituak, egungo graziaren bitartez, komeni zaiguna eman diezagun, eta gure otoitzen bidez Jainkoarengandik lortzeko egoeran jar gaitzan.

KB1.300.0.8 Era berean grazia hau da ongia nahi izaten eta praktikatzen laguntzen diguna, eta, orobat, gure natura ustelak eta deabruak salbamera arriskuan jartzeko igortzen dizkiguten tentaldiak eta eragozpenak gainditzen. Bera da gure egintza onei meritua ematen diena, eta gure baitan dugunean, delako egintzak atseginak izaten zaizkionak Jainkoari. Hura gabe, gure egintza guztiak gorputz hutsak dira arimarik gabekoak; itxuraz onak bai, baina besterik ez, paganoenak bezalakoak, eta erabat ustelak dira gure salbamenerako.

Are gehiago, hain da handia egungo graziaren beharra daukaguna gure bizitzan ongia praktikatzen jarraitzeko, Trentoko Kontzilio sakratuak ziurtatzen digu ezin garela justizian iraun Jainkoaren laguntza berezirik gabe.

KB1.300.0.9 Baldin Adanek, bekatu egin aurretik grazia honen beharra bazuen ongia praktikatu ahal izateko, zenbatenaz gehiago guk bekatuan ahul garenek eta espirituzko miseria bizi garenek ez dugu izango Jainkoa maitatzeko eta Jainkoaren amoreagatik gauzak duintasunez egiteko. Beraz, motibo guztiak ditugu gure buruaz ez fidatzeko eta Jainkoaren altzoan geure guztia jartzeko, haren graziaz babestuak sentitzeko. Eta ongiren bat burutu dugunean, Jainkoari soilik zor diogu aintza guztia.

KB1.300.0.10 Baina ez da aski graziaz gabe ezin dugula deusik egin jakitea, lortzeko ahaleginak egiten ez baditugu. Bi baliabide soilik daude lortzeko, hauek dira: otoitza eta sakramentuak. Eskuarki, Jainkoak bi bideotatik ematen digu. Otoitzaren bidez eskatu behar dugu, eta sakramentuen bidez jaso. Otoitzak iritsiko digu, gure bihotzeko jarrera egokia bada; sakramentuek eraginkortasunez komunikatzen digute, jasotzeko oztoporik ez badago; eta oztopo hau ezin da izan bekatua besterik.

KB1.300.0.11 Ohiko grazia edo santutzailea sakramentuen bitartez ematen zaigu; hauek dira Jesusek utzi zizkigunak baliabide arrunt gisa delako grazia hau erdiesteko, gehitzeko eta gure baitan kontserbatzeko; eta, bereziki, otoitzaren bitartez lortzen dugu egungo grazia.

Hau dela-eta, liburu honen lehenengo atalean kristauaren bi betebeharreri buruz tratatu eta gero, hots, Jainkoa ezagutzea eta maitatzea, eta hau kristauaren zereginik nagusiena izan behar delarik, bizitza honetan helburu absolutua eta ditxa betea delako, bigarren atal honek sakramentuak eta otoitza izango ditu aztergai.

KB1.300.1 **Lehenengo tratatua**
Sakramentuez, bada, hauek dira Jainkoarekiko betebeharrak egokiro konplitzeko nahi izanez gero, beharrezkoa den grazia erdiesteko lehenengo baliabidea.

KB1.301 **1. kapitulua**
Sakramentuez orokorrean

KB1.301.1 **Lehenengo saila**
Sakramentuen izaeraz eta kopuruaz.

KB1.301.1.1 Gizakia hain da materiala eta gisagabea ezen gogo onez eta berez kanpoko gauzetara lerratzen baita bakar-bakarrik, eta erraz ahanzten ditu barnekoak eta espirituazkoak. Honengatik neurri batean bederen izan zen beharrezkoa Jainkoak naturaz gaindiko ondasunak eman ziezazkion, eta grazia batik bat, gauza sentikorren bitartez, barneko gauzetara erraztasunez jotzeko, eta adimena eta bihotza urruntzeko kanpoko gauza huts orotatik.

KB1.301.1.2 Gizakia, dio San Krisostomok, erabat espirituazkoa izan balitz, Jainkoak bai grazia eta bai arimari dagozkion ondasunak osotoro emango zizkion kanpoko zeinuak alde batera lagata, aingeruekin egin zuen bezala. Baina gorputza eta arima baita, Jainkoa, gizakiaren izaerarekin eta ahuleziarekin egokitze aldera, egoki iruditu zitzaion graziak emateko orduan hauek emateko erabiltzen dituen baliabideak, eta beraz, erabat sentikortasunez.

Hau dela-eta, Gure Jesus Jaunak, mundu honetara gure salbamena manera errazez eta egokiro erdiesteko eraiki zituen sakramentuak, guri grazia eraginkortasunez emateko, gure grazia kontserbatzeko eta delako grazia hori gure baitan gehitzeko.

KB1.301.1.3 Sakramentuak graziaren zeinu sentikorrek eta sakratuak dira, Jainkoak gizakiak santifikatzeko ezarri dituenak. Zeinu hitzak esan nahi du beste zerbaite ematen duela ezagutzera, berez ezagutzen ez dena; eta zeinu sentikorra zentzumen eskura dagoela esan nahi du. Kea, esate baterako, zeinua da, ateratzen den lekuan sua dagoela aditzera ematen duelako; eta zeinu sentikorra da, ikusten dugulako.

KB1.301.1.4 Sakramentuak zeinu sentikorrek dira zeren, dauzkaten gauzen bitartez eta gure zentzumenei eragiten dienez, gure baitan sakramentu horrek sortzen duen grazia aditzera ematen baitigu, guk ikusi ez arren. Urak, esate baterako, bataioko sakramentuan erabiltzen den materia sentikorra, esan nahi du sakramentu horretan jasotzen den graziagatik bataiatuaren arima bekatuak sortzen dituen zetaka guztietatik libratzen dela, gorputza, uraren bitartez, zikinkeria guztia erauzita garbi gelditzen den bezala.

Nahitaezkoa da sakramentuak zeinu sentikorrek izatea, zeren sentikorrek izango ez balira, ez ziguketen ezagutzera emango deusik gure baitan sorrarazten dutenetik, izan ere jakiten ditugun gauza gehienak eskuarki zeinuen bitartez soilik ezagutzen ditugu.

KB1.301.1.5 Baita ere esaten da sakramentuak zeinu sakratuak direla, Jainkoarekin batzen gaituztelako komunikatzen diguten graziari esker, eta sakramentu horietan erabiltzen diren gauzak Jesusen bidez sakratuak izatera heldu direlako beroriekin egiten den aplikazioa dela medio.

Gutziz beharrezkoa zen Jainkoak sakramentuak ezartzea, bada Jainkoak eta ez beste inork garbitu gaitzakeenez gure bekatuetatik eta aldi berean grazia eman, ez dago beste inor, Bera ez bada, lortzeko baliabide ziurrak emango dizkiguna.

KB1.301.1.6 Florentziako kontzilioaren arabera hiru gauza dira beharrezkoak sakramentu bat izateko: materia, forma eta administratzen duenaren intentzioa. Materia sakramentua burutzeko erabiltzen den gauza sentikorra da, ura bezala bataioan; forma administratzerakoan erabiltzen diren hitzak dira, esate baterako hauek: *Nik bataiatzen zaitut*, etab.; eta intentzioa da administratzen duenaren asmoa eta nahierazko borondatea Elizak agintzen duena egiten ari denean, eta Jesus Gure Jaunak finkatu zuena, alegia, gauza bera.

KB1.301.1.7 Elizan zazpi sakramentu daude Jesus Gure Jaunak sortuak, eta hauek dira: bataioa, sendotza, eukaristia, penitentzia, oliadura, ordena eta ezkontza.

Ez gehiago eta ez gutxiago, eta egokia zen hola izatea, bada, bizitzeko eta gizakiaren gorputza zaintzeko zazpi gauza beharrezkoak baitira, bai gauza partikularretarako eta bai gauza publikoetarako, era berean arimak ere beste hainbeste gauza behar ditu graziaren bizitza izateko eta kontserbatzeko. Beharrezkoa da gizakia ernaldua izatea, haztea, elikatzea, eta gaixorik jartzen bada sendatu ahal izatea, gotortzea eta indarrak berritzea. Eta gauza publikoari dagokionez, ez dadila magistraturik falta gobernatzeko; eta kontserba dadila betiko, eta ugai dadila.

KB1.301.1.8 Gizakiak gauza hauek guztiak dauzka naturaz gaindiko arimaren bizitza elikatzeko: sakramentuak dira; izan ere, bataioaren bitartez Jesusengan sortzen gara; sendotzaren bitartez kemena eta graziak jasotzen ditugu; eukaristiaren bitartez, espirituzko jaki gisa, elikatzen da gure arima; penitentziak gure arima osatzeko balio du bekatuak zauritu duenean; oliaduraren bitartez gure bekatuen hondarrak barkatzen zaizkigu, eta indar berezia jasotzen dugu heriotzako orduan gure salbamenaren etsaien aurka egiteko eta garaitzeko; ordenak Elizako ministroei agintea ematen die gidatzeko eta gobernatzeko; eta ezkontzak balio du seme-alabak sortzeko, eta Jainkoaren zerbitzuan eta beldurrean bizitzeko.

KB1.301.1.9 Jesus da lege berriko sakramentuen egilea. Lurrera gizaki guztiak santifikatzeko etorri baitzen, eta bere heriotzaren bitartez hainbeste meritu eta grazia erdietsi baitzuten, aplikatzeko manera aurkitu zuen; sakramentuen bitartez, honetarako sortu zituen eta.

Bera da, baita ere, denboran obratzen dituen, eta Bera halaber lehenengo kausa, zeren administratzen dituen gizakiak haren tresnak baino ez baitira, haren misterioen emaileak izan arren; bada, San Joanek dioen bezala, Bera da bataiatzen duena.

KB1.301.10 Sakramentuen inguruko guztia Elizak determinatuta datorkigu, Liburu Santuetan oinarrituta, non sakramentu ia guztiak adierazten baitzaizkigu, eta tradizioan, apostoluekin hasi eta gaur arte etengabeko praktika izan delako. Elizak eta du deusik aldatu eta ezta berririk sortu ere egiteko manierari dagokionez, salbu zeremonia batzuk beharrezkotzat jo zuenean fededunen onerako.

KB1.301.2 Bigarren saila
Sakramentuen helburuez, beharrezkotasunaz, ministroez, izaeraz eta zeremoniez.

KB1.301.2.1 Jesusek zazpi sakramentu sortu bazituen bekatutik urruntzeko eta grazia komunikatzeko izan zen, eta manera horretaz, santifikatzeko; eta zenbaki hau erabili zuen sortzeko, behar ditugun graziak komunikatu ahal izateko. Denek grazia santutzaila komunikatzen digute; bataioak ez daukatenei ematen die; penitentziak bekatu larria egin ondoren galdu dutenei itzultzen die; eta beste sakramentuek orain daukatena eta jaso dutena gehitzen dute.

KB1.301.2.2 Sakramentu guztiak berezkoa duten grazia komunikatzen dute eta ziurtasun osoz komunikatzen diete hartzeko oztoporik jartzen ez dutenei eta hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztenei. Grazia hau komunikatzen zaie Jesusen heriotzaren eraginkortasuna dela medio, den-dena merezi izan baitzizkigun.

KB1.301.2.3 Nahiz eta sakramentu guztiak gauza ederra eta bikaina izan, grazia daukatelako eta komunikatzen dutelako, eta are gehiago behar-beharrezkoak direlako Elizaren onerako, sorrarazten dituzten efektuak direla medio, alabaina denek ez dute duintasun bera. Eukaristia sakramentua, zeinari beste guztien gainetik Sakramentu Txit Santua deitzen zaion, beste guztien gainetik dago, graziaren eta sakramentu guztien egilea daukalako.

KB1.301.2.4 Era berean, sakramentu guztiak ez dira erabat beharrezkoak fededun bakoitzarentzat. Bataioa denentzat da beharrezkoa, eta penitentzia beharrezkoa da soilik bataiatu ondoren bekatu larrian erori direnentzat; ordena eta ezkontza ez dira beharrezkoak fededun bakoitzarentzat, baina bai ordea Elizarentzat.

KB1.301.2.5 Sakramentu guztiak ez dira, ezta ere, beharrezkoak. Batzuk beharrezkoak dira nahitaez, bitarteko beharra dutenak dira, haiek gabe ezin delako bat salbatu. Hola, bataioa haur guztientzat da beharrezkoa.

Badira bitarteko beharra dutenak, bat ezin delako salbatu hartzen ez baditu; eta beste batzuk aginduaren beharra dutenak, Jainkoak agintzen duelako hartu behar direla. Hola, bataioaren sakramentua gizaki guztientzat da beharrezkoa eta penitentzia bataioa hartu ondoren bekatu larrian erori direnentzat.

KB1.301.2.6 Badira aginduaren beharra soilik dutenak, Jainkoak agindu duelako gizakiek jaso dezaten. Holakoa da Eukaristia sakramentua. Bi daude behar-beharrezkoak ez direnak hartzen dituzten pertsonen salbamenerako, ezta inongo fededunentzat ere, baizik eta Elizaren ontasun orokorraren mesederako soilik. Hauek ordena eta ezkontza sakramentuak dira.

Sendotza eta oliadura ere ez dira nahitaez behar-beharrezkoak, baina bai eraginkorrak fededunentzat partikularki; halere, bekatu egingo genuke, mesprezuagatik edo zabarkeriagatik jaso gabe utziko bagenitu.

KB1.301.2.7 Agintea dutenek, gizonen artean, sakramentuak administratzeko, gotzaina eta apaiza dira. Gotzainak soilik administra ditzake bai ordena eta bai sendotza. Hiru sakramentuok, hots, aitortza edo penitentzia, eukaristia eta oliadura apaizek soilik

administratzen dituzte. Haiek dira, baita ere, eskuarki, bataioa eta eukaristia administratzen dutenak, nahiz eta hasierako Elizan diakonoek bi sakramentuok biak ala biak hotsandiz administratzen zituzten, jakinik, baita ere, edozein pertsonak, beharrak eraginda, bataiatu dezakeela. Ezkontza bi pertsonen arteko baietza ematen denean gauzatzen da, erretorea presente badago bi lekukorekin.

KB1.301.2.8 Bataioa jaito bezain azkar hartu daiteke; beste sakramentuak pertsona guztiak har ditzakete, ezaguera badute.

Ordena gizonak soilik har dezakete, eta oliadura hiltzorian dauden gaixoeak.

Bi sakramentu mota daude: hilen sakramentuak eta bizien sakramentuak. Bataioa eta penitentzia hilen bi sakramentuak dira, bekatuak hil dituenak hartzeko sortuak izan direlako. Beste bostak bizien sakramentuak deitzen dira, zeren duintasunez hartzeko eta berezkoa duten grazia jasotzeko, grazia medio bizirik egon behar baita.

KB1.301.2.9 Hiru sakramentu daude behin bakarrik hartu daitezkeenak, eta dira: bataioa, sendotza eta ordena, ariman bigarren efektu bat sortzen eta ematen dutelako, karakter deitzen dena, eta Trentoko Kontzilioaren ustez espirituzko seinale bat da Jainkoarenak garelara esan nahi diguna era bereziz, eta ezin da ezabatu; horregatik, kondenatuek ere jaso izan dituzten sakramentuen karaktereak infernua berean kontserbatuko dituzte.

KB1.301.2.10 Esan esaten da baita ere delako karakter hori arimari komunikatzen zaion espirituzko botere bat dela eta gai egiten duela sakramentuak hartu edo administratzeko.

KB1.301.2.11 Bataioak ematen duen karakterra Jainkoaren seme-alaba garen seinalea da. Sendotzak ematen duen karakterra Jesusen soldadu egiten gaituen seinalea da; eta ordenak ematen duen karakterra Jesusen ministro zaren seinalea da eta, gaienra, Elizaren ofiziala.

Kondenatuek bataioaren karakterra kontserbatzen badute, Jainkoaren seme-alaba direla kontsideratzeko da, nahiz eta beren Aitarekiko bihurriak izan; izan ere, beren bekatuengatik deabruaren seme-alabak izatera iritsi dira. Sendotzaren karakterra kontserbatzen badute oraindik, desertore gisa kontsideratuak izateko da, Jesusen gudarostea abandonatu eta deabruarenean sartu zirelako. Kondenatutako apaizek ordenaren karakterra kontserbatzen badute oraindik, Jainkoaren eta Elizaren interesak abandonatu zituztelako da, traidore gisa.

KB1.301.2.12 Sakramentuak administratzen direnean zeremonia batzuk daude, oso santuak direnak, begirune handia merezi dutenak eta jaiera handia sortzeko biziki egokiak. Tradizioak utzi dizkigu eta bekatu larria izango litzateke albo batera lagako bagenitu beharrik gabe, nahiz eta sakramentuek, haiek gabe, balio bera duten, ez dietelako deusik erantzen, eta bakar-bakarrik sortuak izan ziren profesatzen dugun fedearen seinale gisa, eta hereseengandik bereizteko, halako hotsandiz administratzen diren sakramentuekiko begirune handia sustatzeko eta fededunen jaiera kontserbatu eta gehitzeko. Fededunak eskolatzeko ere balio dute, bada bataioan erabiltzen diren exorzismoekin ulertu behar dugu deabrua, zeina haurrengan baitzegoen jatorrizko bekatuarengatik, beren bihotzetik egotzen dela sakramentuak duen bertuteagatik.

KB1.301.2.13 Zeremoniak behatzen dituztenek edo sakramentueta aplikatzen direnek eta Elizan egiten diren jardueretan, grazia batzuk jaso ditzakete hauen bitartez. Baina grazia horiek fedea eta jaiera badute ematen zaizkie, eta ez zeremonien bertuteagatik; hauek graziak komunikatzen badituzte zera honengatik da, praktikatzen direnean jaiera eta bihotzeko jarrera egokiak direnean, berez ezin dutelako ez grazia eman eta ez bekatuak barkatu.

KB1.301.2.14 Badira zeremonia batzuek grazia batzuk sortzen dituztenak Elizaren otoiak direla medio, haiekin batera doazenak; beste batzuek erabiltzen dituztenen jaiarak sortzen ditu; eta badira espirituzko ondasunak kausatzen dituztenak, baina, halere, praktikatzen dituztenen jarrera ona dutenengan gertatzen direnak.

KB1.302

2. Kapitula Bataioaz

KB1.302.1 Lehenengo saila
Bataioaren beharraz eta efektuez, materiaz eta formaz, eta beronen ezarpenaz.

KB1.302.1.1 Bataioa sakramentu guztien artean lehena da, horregatik Florentziako kontzilioak espirituzko bizitzaren atea deitzen dio; izan ere, ezin da inolako sakramenturik hartu bataiatuta egon gabe, Jesusen sakramentuak kristaudentzat soilik direlako, eta bataioaren bitartez soilik zara kristaua.

Baita ere, guztien artean beharrezkoena da, bat ezin delako salbatu kristaua izan gabe, eta bataioa da kualitate hau ematen diguna. Horregatik dio Jesusek oso klarki Ebanjelioan ezen bat ez bada birsortzen uraz eta Espiritu Santuaz ezin dela Jainkoaren erreinuan sartuko.

KB1.302.1.2 Bataioa jatorrizko bekatua kentzen digun sakramentua da eta baita hartu aurretik egin genezakeenak ere; Jainkoaren eta Elizaren seme-alabak egiten gaitu, Jesusen jarraitzaile eta Espiritu Santuaren jauretze biziak.

KB1.302.1.3 Beraz, bataioa definitzeko efektuak hartu behar dira kontuan; izan ere, ezin da egokiro ezagutu sakramentu honen bikaintasuna eta handitasuna ez bada ariman sortzen dituen efektuengatik; hauek hain dira garrantzitsuak ezen libre gelditzeaz gain, bere bitartez, jatorrizko bekatutik eta gaur egun egindakoetatik, jaso baino lehen ezaguera bazegoen, gainera beraien kausaz merezitako pena, Trentoko kontzilio sakratuak ziurtatzen digun bezala, erabat barkatuta gelditzen da, eta bataiatuak ez du inolako obligaziorik zorra kitatzeko.

KB1.302.1.4 Sakramentu honek arimari grazia oparoa ematen dio, santifikatzen du eta atsegina egiten du Jainkoaren aitzinean. Hau da Tertulianok espresatzen duena esaten duenean haragia bataioan garbitzen dela arima santifikatua izan dadin.

Grazia hau dela medio Jainkoaren seme-alabak gara, Jainkoaren santutasuna bera ematen digu eta ematerakoan haren seme-alabatza hartzen gaitu, eta kontserbatzen badugu, haren aintzaren eta zeruaren oinordekoak izango gara ziurtatzen digu.

KB1.302.1.5 Sakramentu hau hartzerakoan, Elizaren seme-alabak egiten gara, eta hau ditxa handia da; honela haren ondasunetan esku hartzeko eskubidea dugu eta, bereziki, Jesusen merituak aplikatzen zaizkigu sakramentuen bitartez; eta denek hartzen dute parte horietan Jainkoak bakoitzari ematen dion neurriaren arabera.

KB1.302.1.6 Bataioaren bitartez, jasotzen duen arimari lehen itxita zituen zeruko atean zabaltzen dizkio eta, halaber, barruko deabruak uxatzen. Hau da Elizak esaten diguna bataiatua izango denaren gainean apaizak egiten dituen exorzismoen bitartez. Eta baita ere, arima horretatik deabrua kanpora jaurtikitzen dela esaten digu, Espiritu Santuak haren lekua hartzen duelarik. Arrazoi honengatik esaten da bataioaren bitartez Espiritu Santuaren jauretze bihurtzen garela.

Era berean, bataioan Jesusen Espiritua hartzen dugu, eta sakramentu honek bat egiten gaitu harekin manera intimo eta berezi batez. Hartzen dugun unean berean Jainkoak gizon egin zen Jesusen jarraitzaile kontsideratzen gaitu.

KB1.302.1.7 Beste sakramentuen antzera, bataioan ere bi gauza daude: materia eta forma. Materia da sakramentu hau administratzeko erabili behar den gauza sentikorra; eta hau ur naturala da, dela putzu batekoa, dela ibai batekoa, dela iturrikoa edo euria egindakoa, etab. Beharrezkoa da aldatua ez izatea eta ez nahastua edo usteldua. Horregatik arrosatoko ura, edo ura beste edozein likorerekin nahastua, ezin da egokia izan bataiatzeko; eta halako ur motekin bataiatuko balitz, bataioa ez litzateke baliozkoa izango.

Ur tanta bat ere ez litzateke nahikoa izango, bada bataiatzeak garbitzea esan nahi du, eta ezin da garbitu ur tanta bakar batez.

KB1.302.1.8 Bataioan gorputza garbitzeko hiru manera desberdin daude: murgilduz, bataiatzen dena uretan sartuz; ihintzatez, gorputza urez ihintzaturaz; edo isuriz, harengan ura boteaz. Egiaz bataiatuta egoteko hiru manera hauetako batez garbituta izan behar zara, nahitaez.

KB1.302.1.9 Bataioaren sakramentuan hitzok erabiltzen dira: *Nik bataiatzen zaitut, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.*

Bataiatzerakoan Trinitate Santuari dei egiten zaio misterio hau fedearen xedea eta funtsa delako, eta gizakiak honekiko profesioa egin behar du bataioan Elizaren gorpuzean ametitua izateko.

KB1.302.1.10 Bataioaren sakramentua administratzeko erabiltzen duen ura Gotzainak edo erretoreak Bazko eta Mendekoste beilan hotsandiz bedeinkatzen duena da, urarekin batera olio santuak eta krisma santua nahastaturaz. Horretarako elizetan jarritako ontzietan kontserbatzen da beti arrazoi hori dela-eta bataioko ponte santuak deitzen direlarik.

Bekatu izango litzateke beste ur mota erabiltzea, nahiz eta bataioa beti baliozkoa izaten jarraitu, baldin erabiltzen den ura ur naturala soilik bada; eta ez da beharrezkoa ur bedeinkatua izatea batek derrigorrez elizatik at bataiatu behar duenean.

KB1.302.1.11 Bataioko uren bedeinkatze hau oso aspaldikoa da Elizan, eta hasierako mendeetako Eliz Guraso santuek honetaz hitz egiten dute Eliza osoan praktikatzen zen gauza bezala eta ez zela berria.. Horregatik kontsideratu da beti Elizan egin den zeremonia ezin hautsizkoa apostoluen tradizioz.

KB1.302.1.12 Oso egokia da ur honetatik etxeetara eramatea, bedeinkatzen denean, beharrezkoa balitz bataiatu ahal izateko, eta bataioan hartu zen graziaz gogoratzeko. Era berean Elizara eraman beharko litzateke arrosa-uraren ordezt, batzuek egiten duten bezala, haur bat bataiatzera eramaten dutenean, bidean istripuren bat gertatzen bada edo berehalako arriskurik badago, bataiatzeko baliozkoa izan dadin, Elizaren espirituaren arabera.

KB1.302.1.13 Bataioko urak beste bertute bat ere badu, gure gorputza garbitzerakoan gure arima arazten du. Jesus ahalguztidunak hartu nahi izan zuen beste edozein sorkari baino lehen, zeren munduko gauzarik arruntena izanik eta aurkitzen errazena, erraza baita sakramentu hau hartzea aitzakiarik gabe, eta gainera oso beharrezkoa da gizaki guztientzat; eta urak balio duenez zetakak eta kanpoaldeko zikinkeria guztiak garbitzeko era berean bataioak arimak arazten ditu bekatu guztietatik.

KB1.302.1.14 San Joanek urez bataiatzen zuen, baina haren bataioa ez zen Jesusena bezalakoa, desberdina zen, bada berez ez zuen bekatuik ezabatzen, eta sortu zen Jesusena irudikatzeko eta harena hartzera preparatzeko.

KB1.302.1.15 Inork ez daki oso ziur Jesusek noiz sortu zuen bataioa. Santo Tomasen iritzia kontuan hartuz gero, Jordan ibaian San Joanek bataiatu zuenean izan zen, urak garbitzeko, San Ambrosiok dioen bezala, eta ez Bera santifikatua izateko. Kontu honetaz asegura dezakegun guztia zera da Gure Jaunaren hitz hauek ematen digutela aditzera bataioaren sortzea: *Zoazte, irakatsi herrialde guztiei, Aitarean, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.*

KB1.302.2 **Bigarren saila.**
Bataioa administra dezaketen inguruan, administratzeko maneraz, hartu behar dutenez eta ematen dien karakterez.

KB1.302.2.1 Bataioa hain beharrezkoa izanik salbaziorako, Jesusek sortu zuenean, gizakiei erraztasun imajina ezinak eman zizkien hartzeko. Arrazoi honengatik, nahiz eta behar izanik erretoreek soilik dute eskubidea bataiatzeko, eta nahiz eta haurrak elizara eraman behar diren, han bataioa ohiko zeremoniekin hartzeko, hala ere, edozein pertsona motak du eskubidea bataiatzeko eta hala egin behar du, beharrezkoa balitz. Hemendik ateratzen da ez dagoela permititua berriz bataiatzea herese batek edo fedegabe batek bataiatu arren, baldin eta bataiatua izan denaren gainean ura isuri badu *Nik bataiatzen zaitut, etab.,* hitzak esanez.

KB1.302.2.2 Dena den, ordenaren aurka doa emakume batek bataiatzea aurrean gizon bat badago; edo laiko batek eklesiastiko bat badago; edo elizgizon batek apaiza presente badago.

Norbait behartuta badago bataiatzera nahitaezkoa delako, ur arrunta hartu behar du, eta haurraren isuri, hitzok esanez: *Nik bataiatzen zaitut Aitarean, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.*

KB1.302.2.3 Egiaz bataiatua izateko beharrezkoa da urak gorputzaren parte garrantzitsuren bat ukitzea, adibidez, burua; eta burua ez bada argitara atera, garbiketa azaldu den parterik inportanteenean egin behar da. Gertatuko balitz urak ez duela gorputzeko zati inportanterik ukitu, haurra ez bataiatutzat hartu behar da, eta gero baldintzapean bataiatu.

Hau bera egin behar da zalantzan jartzen bada haurrak bizia duela, edo giza natura duela; edo zalantzan badago bat bataiatua izan den edo behar bezala bataiatua izan den. Halako kasutan honela bataiatu behar da, ura harengan isurtzen den bitartean, esanez: *Bataiatzeko gai bazara, edo ez bazaude bataiatua, nik bataiatzen zaitut... izenean, etab.*

KB1.302.2.4 Betidanik izan da Elizaren praktika haurrak bataiatzea. Beti kontsideratu du behar-beharrezkoa zela haurrak bataiatzea salbatzeko, eta sakramentu honen bitartez hartzen dute, infusioa dela medio eta baita grazia bereziaren bitartez ere, fedea, esperantza eta karitatea, beste bertute guztiekin batera.

KB1.302.2.5 Kristau federa datozenen obligazioa da, baita ere, bataio santua hartzea, ezaguera badute; baina Elizak haiekiko erakutsi duen jarrera beti izan da desberdina haurrekin izan duena erkatzen bada. Haurrak kristautasunean eskolatzeta batere erraza ez baita, inolako dispoziziorik gabe onartzen zituen bataiatzeko, ezin zutelako eduki. Baina ez zuen berdin jokatzeko bereizmen eta arrazoimen gaitasuna zuten pertsonekin.

KB1.302.2.6 Aurrena gure misterio santuak irakasten zizkien eta gure erlijioan jakin behar den guztia; bataioa hartzen gonbidatzen zien asmo txukunaz eta bekatuak gabeko bihotz erabat garbiaz; eta egindakoen aldeko penitentzia egitea eskatzen zien. Horregatik, bataio mota hau urtean bi aldiz soilik administratzen zen, Bazko eta Mendekoste beiletan, salbu norbait hiltzorian bazegoen; eta honetarako, egun horietan bataiatzeko balioko zuen ura bedeinkatzen zen, katekumenoiei bataioa administratu aurretik; izan ere, izen hau ematen zien eskolatuak zirenei eta sakramentu hau hartzeko preparamen zirenei.

KB1.302.2.7 Ez da pentsatu behar kristauen seme-alabak hiltzen badira bataioa hartu gabe, beren gurasoen fedea medio salbatuko direnik, edo gurutze santuaren seinalea egiteagatik, edo beste zeremoniaren bat burutzeagatik. Hau guztia alferrik izango litzaieke sakramentu hau gabe. Arrazoi honengatik, San Agustinek dio, lehenbailehen bataiatu behar direla hiltzeko arriskua badago.

KB1.302.2.8 Alabaina, Elizak beti kontsideratu ditu manera desberdinez bataiorik gabe hil diren katekumenoak, elizkoien zenbakiaren partetzat ikusi dituelako beti formatzen, eta ustez fedea eta Jainkoaren maitasuna zeukatelako beren bihotzetan. Gauza bera pentsatu du bataioa hartu aurretik martiria jasan dutenei buruz, Jesusen aldeko fede-profesioa eginez.

KB1.302.2.9 Jokaera honek hiru bataio mota daudela esatera eraman du Eliza: urez egindako bataioa, malkoz egindako bataioa (desio-bataioa) eta odolez egindako bataioa.

Baina urez egindako bataioak soilik osatzen du egiazko sakramentua; eta beste biegi bataio izena ematen bazaie, bakar-bakarrik da besteen ordezkia direlako egiazkoa hartu ezin denean, eta efektu bera egiten dutelako.

KB1.302.2.10 Sakramentu honi urezko bataioa deitzen diogu urez egiten delako. Bigarrena malkozko bataioa deitzen diogu, bekatuak direla-eta egiazko damua eta mina sentitzen direlako, Jainkoarekiko maitasunarekin batera eta Hari zerbitzeko desioarekin egiten delako; baita ere, Espiritu Santuaren bataioa deitzen diogu sakramentu honen grazia Espiritu Santuarengandik jasotzen delako, zuzen-zuzenean, bataioa hartzerik ez eta bekatuak egiteagatik bihotzeko mina eta dolua dagoenean; bada pertsona batek federik ez badu, edo ez bada Jainkoarekin adiskidetzen, edo bataioa hartzeko borondaterik ez badu, San Agustinek dio, ezin duela, inola ere, halako egoeran, sakramentu honen graziaz gozatu.

KB1.302.2.11 Odolezko bataioa zera da bataiatua izan aurretik Jesusen fedeagatik eta Jainkoaren maitasunagatik martirioa jasatea. Hala deitzen diogu era honetan hiltzen dena odoletan bataiatua izan balitz bezala kontsideratzen delako, eta bere odolaren isurtzearen bitartez urezko bataioaz jasoko zituen grazia berak jasotzen dituelako, eta orobat bekatuen barkamena; eta urezko bataioaren bitartez baino manera perfektuagoaz, martirioak Jesusen heriotza manera naturalago batez irudikatzen duelako, urezko bataioak hortik hain zuzen jasotzen duelarik duen eraginkortasuna eta bertute guztia.

KB1.302.2.12 Behin bakarrik bataia daiteke bat, Elizak hala erabaki duelako, eta sakramentu honek ezin ezabatuzko karakterea ematen duelako. Ez da pentsatu behar, beraz, haur bat etxean bataiatu eta gero elizara eramaten denean, berriro bataiatua izango denik; eramaten bada izango da bataioko zeremoniak ez zaizkiolako aurretik egin, etxean ez direlako inoiz egiten.

KB1.302.3 Hirugarren saila Bataioko zeremoniak.

KB1.302.3.1 Bataioa sakramentu lehena eta beharrezkoena baita, Elizak zeremonia askorekin ospatzea nahi du, hobeto adierazteko zein den sakramentu honen bikaintasuna, eta zerekin lotzen duen bat, hartzen duenean. Elizaren nahi honetan sartzeko eta elizkoiei bataioarekiko estimua eta aparteko benerazioa sorrarazteko, egokia iruditu zaigu hemen zeremonia horiek esplikatzea.

KB1.302.3.2 Zeremonia hauetako batzuk elizaren atarian egiten dira, ur pontera hurbildu baino lehen; beste batzuk bertara iristen denean egiten dira; eta badira bataioaren ondoren egiten direnak. Bi motakoak dira: batzuk bataio santua hartzen dutenengan Espiritu Santuak beren barrenean sortzen dituenaren kanpoaldeko seinaleak dira; besteak sortu dira sakramentua hartzerakoan obligazio zehatzekin lotuta gelditzen direla adierazteko.

KB1.302.3.3 Bi zeremonia mota daude sarritan egiten direnak bataio santua administratzen denean. 1. gurutze santuaren seinalea egiten da bataiatzen denaren bekokian, bularrean, begietan, belarrietan eta besaginetan, jakitera emateko kristauaren biziera etengabeko gurutzean eta sufrimenduan oinarritzen dela; eta bere gorputz atalak bataioaren bitartez Espiritu Santuaren egoitza bihurtu direla, eta jauretze materialak

Jainkoari eskainita dauden bezala bataioa hartzen duena ere Jainkoarena dela, hau gurutzearen seinaleaz gauzatzen delarik.

KB1.302.3.4 Gantzutze batzuk ere egiten dira, bai krisma santuaz, bai olio santuaz, graziaren barneko gantzutzea aditzera emateko, bataiatzen denaren ariman Espiritu Santuak isurtzen duena, alegia, eta olioak gorputzean sartzen den bezala eta indartzen duen, eta zauriak osatzen dituen, era berean bataioan hartzen den grazia bihotzean sartzen da eta pasioen eta irritsen aurka indartzen du, orobat arimako zauriak sendatzen dituelarik.

Baita ere, kristauaren bizitza etengabeko borroka dela adierazteko balio du; eta garai batean atletek, hots, gizakien eta piztien aurka borroka egiten zutenek, gorputza olioaz igurtzitzen zuten borrokan hasi aurretik, giharrak indartzeko, etsaiek aukera gutxiago izan zezaten harrapatzeko eta haien eskuetatik urruntzeko, era berean bataioan olio santuez igurtzitzen gaituzte, eta graziaren bitartez gure barnea gantzutzen, gure etsaien aurka kuraiaz borroka egin eta gure salbazioa atzemateko.

KB1.302.3.5 Honetarako hasierako Elizak, Eliz Guraso santu batek baiesten duen bezala, bataiatuen gorputz osoa gantzutzeko ohitura zuen. Gaur egun gantzutze hau bularren eta besagainen artean egiten da, bihotza, bularraz irudikatua, bataioaz indartuta gelditzen dela kristau erara bizitzeko, aditzera ematen duelarik; eta kristauak ausardiaz eraman behar dituela bizitzan bai Jainkoaren eta bai lege zaharreko manatuak, zeren nahiz eta neketsua egiten zaion usteldutako gure naturari, bataio santuan ematen den grazia medio erraza eta leuna bilakatzen baita eramateko.

KB1.302.3.6 Haur bat bataiatzera eramaten denean, aurrena eliz atarian utzi behar da, kanpoan, deabruaren esklabu denez, ez duelako eskubiderik oraindik Jainkoaren etxean sartzeko, zikinduta dagoen bekatuak direla kausa. Han exorzizatzen da eta fedearen misterio garrantzitsuenez dotrinatzen, Eliza katolikoan profesioa egiten den oroetan, ezagutzeko obligazioa duela jakinarazteko.

KB1.302.3.7 Baina haurrak ezin baitizkie egiten zaizkion fedearrekiko galdera nagusiei erantzun eta ezta bataioa administratzeko egiten diren itaunketa denei ere, Elizak nahi izan du beste pertsonak erantzun liezaien: eskuarki aitabitxia eta amabitxia deitzen diegu; hauek dira ardura dutenak bataiatuak bataioan hartutako obligazioak bete ditzaten, batik bat kristauen betebeharrak, eta betebeharrak praktikara eraman ditzaten. Zalantzarik gabe hau da motiboa aitabitxiak eta amabitxiak haurrari izena emateko.

KB1.302.3.8 Hain da handia aitabitxiak eta amabitxiak bataioan eskuetan izan zuten haurrerekiko hartu zuten obligazioa, ezen gurasoek edo haurrerekiko ardura duten bestelako pertsonak lan hau egiten ez dutenean, aitabitxiak eta amabitxiak egin behar dute, eta hala ez badute egiten, oso erraz eror litezke bekatu larrian.

Aski da aitabitxi bat edo amabitxi bat egotea; alabaina, Trentoko kontzilioak aitabitxia eta amabitxia biak ala biak egotea permititu zuen, baina galarazi egin zuen gehiago egotea, nahiz eta garai batean permitituta zegoen.

KB1.302.3.9 Espirituzko ahaidetasuna eta senidetasuna hartzen dute, kontzilio berberak arautu duena, aitabitxiak edo amabitxiak edo bataiatu duenak bataiatu zutenarekin edo ur pontean eskuetan izan zutenarekin ezkontzerik ez izateko, ezta bere

aitarekin edo amarekin ere, aita santuaren lekopen edo dispentsarik gabe. Horregatik Elizak gurasoei galarazten die beren seme-alaben aitabitxia edo amabitxia izatea. Ahaidetasun eta senidetasun bera hartzen da sendotza sakramentuan.

KB1.302.3.10 Eliza katolikoak bataiatua izango denaren deabruarekiko menpetasunetik askatzeko, apaizak aurretik exorzitatu egiten du, haren barrenetik uxatzeko.

Exorzismoa haurraren aurpegira hiru aldiz putz eginez hasten da, jakitera emateko Jainkoak putzaldi batez lehen gizakiari bizi espiritua eman zion bezala, era berean, apaizaren putzaldiaz, Jainkoaren espirituaz animatuta, bataioan bizi espiritua eta graziaren bizia komunikatzen dituela.

Putzaldi honen ondoren, apaizak deabruari esaten dio: *Utikan haur honengandik, Satan, eta egiozu aintza Jainko bizi eta egiazkoari, aintza Jesusi, haren Semeari, eta Espiritu Santuari, eta lekutu horrengandik, Aitaren... izenean, etab.*

KB1.302.3.11 Ondoren gurutzearen seinalea egiten du, aurrena bekokian, bataiatuak inoiz izan ez dezan lotsarik kristau gisa bizitzan aritzeko eta ezta ere gurutzea eramateko, hots, Jesusek bezala sufritzeko. Gero bularrean egiten du seinale bera, hots, bihotzaren egoitzan, gurutzea eta ez besterik maite behar duela aditzera emateko, eta sufrimenduetan soilik bilatu behar duela atsedena.

KB1.302.3.12 Gurutzearen seinaleak eta ondoren doazen otoitzak eginda, apaizak gatza exorzizatzen du, garbitzeko eta zerbait txarrik balego handik lekutzeko; eta gero, behin bedeinkatu eta gero, haurraren ahoan jartzen du, esanez: *Har ezazu jakinduriaren gatza, Jainkoaren eskutik betiereko bizitza lor dezazun. Amen.*

Zeremonia hau egiten da, bataiatuak, ustelkeria guztiaz askatuta, jainkozko jakituria hartzen duela espresatzeko, espirituzko gauzetarako gogoia ematen diola eta orobat kristau bizitzan egin behar diren praktiketarako.

KB1.302.3.13 Apaizak, haurraren ahoan gatza pixka bat jarri ondoren, haurraren belarria ukitzen du bere tuaz, belarriei, esanez: *Ireki zaitezte, Gure Jaunak egin zuen bezala gormutua sendatu zuenean, esateko bataiatua, gor hark bezala espirituzko grazia bera hartzen duela Jainkoaren ahotsa entzuteko.*

Apaizak, baita ere, haurraren sudurra ukitzen du, gauza materialetatik fedearen eta jaieraren usain ona ateratzeko irekita egon dadin.

Ondoren apaizak haurra elizan sartzen du, esanez: *Sar zaitez Jainkoaren etxean, betiereko bizitza izan dezazun eta menderen mendeetan bizi zaitez.*

KB1.302.3.14 Haurrari, bataioa hartu aurretik, deabruari uko egiten dion galdetzen zaio, eta halaber deabruaren obrei eta handikeriei, haragiaren, aberastasunen eta munduko handikerien irritsa desordenatuei uko egiten dien. Eta Elizan beti egin den moduan, aitabitxiak eta amabitxiak haren ordeztuz dute: *Bai, uko egiten diet.*

Ondo-ondoko unean Jainko Aita guztialduna eta Jesus sinesten duen; eta aitabitxiak eta amabitxiak haren izenean erantzuten dute: *Sinesten dut.*

KB1.302.3.15 Bi gauza hauek dira kristau bizitzaren zimentarri: bizioa alde batera lagatzea, deabruari uko eginez, eta Jainkoa eta Jesus, haren Semea, sinestea. Apaizak, gero, haurraren bularra igurtzitzen du, Jesusen atleta gisa, dio San Anbrosiok, munduari gerra deklaratzeko baitio, eta deabruaren, haragiaren eta munduaren aurkako guduaren hasiko baita.

Gero, ea bataiatua izan nahi duen galdetzen dio, kristaua izatekotan askatasun osoz izan behar dela aditzera emateko, eta Jainkoak ez duela inor behartzen jakiteko. Aitabitxiak eta amabitxiak haren ordezkari esaten dute baietz, izan nahi duela.

Aldi berean, kristau gisa eraman nahi duen izena ematen diote. Santuren baten izena izan behar du, imitagarria izan daitekeen baten batena, eta haren laguntza eskatzeko moduko bat izango dena.

KB1.302.3.16 Gero, apaizak haurra bataiatzen du, jarritako izenez deituz, eta bataiatu ondoren buruaren goialdean krisma santuaz igurtzitzen du, Jesusekin eta Elizarekin izango duen batasuna adierazteko, haren gorputz mistiko gisa.

Oliadura honen ondoren apaizak bataiatua izan den haurraren buruaren gainean zapi zuri bat jartzen du, esanez: *Har ezazu soineko zuri hau eta kontserba ezazu ahalik eta garbien Gure Jesus Jaunaren tribunalerara mantxarrik gabe eramateko, betiereko bizia izan dezazun eta menderen mendeetan bizi zaitezen. Amen.*

KB1.302.3.17 Zeremonia hau hasierako Elizan egiten zenaren oroitzapena da; bataiatuak tunika zuriz janzten ziren, aditzera emateko bekatutik eta deabruaren hatzaparretatik libre egonik bataioaren bitartez, erabateko askatasuna erdiesten dela. Praktika hau erromatarren ohitura zen, zeren esklabuak zuriz janzten baitzituzten libre uzten zituztenean.

KB1.302.3.18 Bazko ondorengo larunbatean edo igandean, bataiatu berriek soineko zuriak kentzen dituzte eta bakoitzari *Agnus Dei* bat ematen zaio bazko suziariaren argizari eginikoa eta aita santuak bedeinkatua. Haiek lepoan eramaten zuten eramaten derrigortuta zeuden garbitasunaren eta bizitza santuaren seinale gisa. Orain, haurrak jai berritan bataiatzen baitira, burua oihal zuriz batez estaltzen zaie, eta hau bataio santuaz garbitu eta zuritu den arimaren distiraren eta edertasunaren kanpoaldeko zeinua da.

KB1.302.3.19 Gero bataiatuaren eskuan suziri piztu bat jartzen da, adierazteko bataioan jaso duen fedea eta karitatea beragan distiratu eta dirdiratu behar duela obra onak direla medio, bizitzaren akaberan zeruko senarraren aurrera argioztia eskutan hartuta joan ahal izateko, eta harekin zeruko otoruntzan sartu ahal izateko. Hau adierazten da apaizak esaten dituen hitzetan ematerakoan.

Zeremonia hauek guztiak eginda bataiatuaren izena idazten da, Jainkoaren eta Elizaren seme-alaben zenbakietan dagoela aditzera emateko, eta bere izena lurrean idazten den bezala idatzita gelditzen dela zeruan.

KB1.302.3.20. Gero aldarera eramaten da eta gainean etzaten da, Jainkoari emana dagoela adierazten ostia bizi eta santu gisa, eta bataioaren grazia medio aldiarekin esan nahi duen batasunaz lotuta dagoela Jainkoarekin.

Azkenean, kanpaiak jotzen dira, Elizak eta zeruko santuek duten poza lau haizetara zabaltzeko, haur horrek bataioaren grazia hartu duelako.

KB1.303

3. Kapitulua Sendotzaz

KB1.303.1 Lehenengo saila Sendotzaz, bere mesede eta efektuez, ministroaz eta sakramentu honen ezaugarriaz.

KB1.303.1.1 Bigarren sakramentua sendotza da, bataioko grazia gehitzen du guregan Espiritu Santuaren betetasuna komunikatuz.

Kristaua fedean sendotzen duen sakramentua da eta Ebanjelioko egiak defenditzeko indarra ematen du, beharrezkoa izango balitz, bizia eta odola emateraino. Sakramentu honi sendotza deitzen zaio dituen efektuak direla kausa, hots, fedean sendotzen gaitu eta neurri handi batez bataioan hartu dugun grazia indartzen digu. Guk ere, sakramentua honetan, berresten eta baieztatzen ditugu bataioan hotsandiz egin genituen promesak.

KB1.303.1.2 Jesusek sakramentu hau sortu zuen gu bere graziaz, bere Espirituaz eta bere eraspenez partaide egiteko. Trentoko kontzilioak ziurtatzen digu egiazko sakramentu dela; eta hori izan da, baita ere, betidanik Elizak onartu duena.

KB1.303.1.3 Sakramentu honek ematen dizkigun mesedeak hain dira handiak eta garrantzitsuak ezen Guraso santuek, sendotza bataioarekin alderatuz, esaten duten berorren koroatzea eta bururatzea dela. Izan ere: Espiritu Santua oparo komunikatzen zaigu, doe guztiekin; apostoluek Mendekoste egunean ikusi gabe hartu zutena bera da guk hartzen duguna ikusi gabe ere sakramentu honetan. Jada ez bada elizkoiengana ikusteko eran jaisten, Elizaren hasieran egiten zuen bezala, zera honengatik da, munduan nahiko ezarrita baitago, ez da beharrezkoa mirariz eta gauza harrigarriz mantendua izatea.

KB1.303.1.4 Sendotzan Espiritu Santuak hiru grazia mota gehitzen dizkigu: Jesusen fedean irmo irauteko kemena ematen digu, horretarako gure bizia arriskuan jartzearino; indar nahikoa ematen digu gure salbazioaren aurka jartzen den oro garaitzeko, eta pazientzia Jainkoaren maitasunagatik bizitza honetako penak eta miseriak jasateko.

KB1.303.1.5 Nahiz eta herri leial batean egon, beharrezkoa da fedean irmo irautea sakramentu honen bitartez, eta hau gure erlijioaren kontrako batean bizi beharko bagenu bezala; bada gure artean dauden kristau gaiztoak arriskutsuagoak dira kristauei erasan egiten zieten paganoak baino. Tiranoek ez beti eta ez baliabide guztiekin ez zieten kristauei eskatzen Jesus ukatzea edo bere fedeari uko egitea, kristau gaiztoek egiten duten bezala; gainera, haiek hitzez soilik eskatzen zieten Jesusi uko egitea, eta kristau gaiztoek aldiz Hari uko egitea eskatzen dute egintzez eta askatasun osoz.

KB1.303.1.6 Gure salbamenaren aurka egiten duten hiru etsaien aurka borrokatu behar dugu: deabrua, mundua eta haragia. Deabrua kondanatutako aingeruen nagusia da, eta

espiritu gaizkile hauetaz baliatzen da, Liburu Santuetan deitzen zaien bezala, eta haien bitartez baliabide guztiak erabiltzen ditu gu tentatzeko eta galbidean jartzeko.

KB1.303.1.7 Mundutzat hartu behar da mende honetako espirituarekin bizi diren gizaki guztiak, eta sorkarrietan galbidera eraman gaitzakeen guztia eta, baita ere, munduan dirdira egiteko sentitzen dugun guztia, eta banitatean edo distiran bizitzeko izaten dugun joera guztia.

Haragia plazer sentsualetarako izaten dugun joera da, ongia egiteko sentitzen dugun ahulezia eta, aldiz, gaizkirako dugun joera. Adanek bekatu egin zuenetik guregan naturaltasun osoz iraun duena.

KB1.303.1.8 Nahiz eta ez den erabat beharrezkoa sendotzaren sakramentua hartzea, kemena, ahalmena eta adore handia behar dugunez gure etsai hauek garaitzeko, eta grazia oparo hau sakramentu honetan ematen baita, oso garrantzitsua da arreta ez galtzea eta ahalik eta lehenbailehen jasotzea.

Hau hala dela-eta Elizak haurrei oso gaztetxo direla administratzen die, hots, zazpi bat urte dituztenean, zeren orduan ezaguera izaten hasten direnez eta Jainkoari huts egiteko, oso da komenigarria sakramentu honekin babestea, honen bitartez izan ditzaten bekatuan ez erortzeko ahalmen guztiak. Adin hori baino lehen ez zaie ematen eta ez da komenigarria ematea ere, zeren adin horretan ez dute borrokarik izan behar ez fedearen eta ez bekatuta eramaten duen guztiaren aurka.

KB1.303.1.9 Alabaina, hastapenetako Elizaren praktikan zegoen denei sendotza sakramentua administratzea, bataioaren ondoren berehala. Baina hala egiten bazen orduan izaten zen heldu asko bataiatzen zirelako, federa bihurtzen zirenak, eta hauek beste inork baino behar handiagoa zuten sakramentu honena, zeren, fedegabeek Elizari eraso egiten ziotenez, egunero egon behar ziren prest martirio hartzeko; eta baldin sakramentu honen hartzea atzeratzen bazen, ahulak izan zitezkeen erasoaldian, laguntzarik gabe, errezibitu gabe zeudelako.

KB1.303.1.10 Trentoko kontzilioak dioenaren arabera gotzainak soilik administra dezake sendotza, eta hau Elizaren hastapenetik bete dela ikusten dugu, Apostoluek soilik ematen zutenean Espiritu Santua, esan nahi baita, sendotza; eta gotzainak dira haien ordezkatzeko hartu dutenak.

Sakramentu hau behin bakarrik hartzen da, espirituzko seinalea ezartzen duelako, karaktere deitzen dena, ariman betiko irauten duena, bertan hartzen den grazia bezala, baina, ezin du efekturik egin arima bekatupean dagoen bitartean.

KB1. 303.2 Bigarren saila
Materiaz, formaz, sendotzaren zeremoniez eta hartzeko komenigarriak diren jarrerez.

KB1.303.2.1 Sendotza sakramentua bekokia nolabaiteko isurkiz, krisma santuaz, igurtziz administratzen da, eta osagarriak oliba olio eta baltsamoa dira, eta Ostegun Santuan gotzainak bedeinkatzen du zeremonia mordoxka eginez.

Gotzainak bekokia igurtziz erpuruaz gurutze santuaren seinalea egiten du, esanez: *Nik sendotzen zaitut salbamenezko krismaz Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.*

KB1.303.2.2 Sakramentu hau Apostoluen garaian bezala administratzen da, gotzainaren eskuak ezarritik, eta honek esan nahi du sendotua eskupean dagoela, hots, Espiritu Santuaren gidaritzapean, eta, beraz, ez duela bere kabuz jardun, baizik-eta Espiritu Santuari laga behar diola bera gidatzen.

KB1.303.2.3 Krisma santuaz igurtzitzea eta gotzainak eskuak jartzea, biak ala biak, dira sendotza sakramentuaren materia, eta bi gauza hauek egiterakoan esaten dituen hitzak forma.

Sendotzan krisma santua erabiltzen da, beste edozein isurki baino sarriago, Espiritu Santuaren espirituzko igurtzitzea adierazteko, zeina sakramentu honetan bataioan baino manera osoagoan ematen baitzaigu.

KB1.303.2.4 Krisma santuak duen olioak esan nahi du Espiritu Santua gure ariman isurtzen dela, barneratzen duela eta sakramentu honen bitartez betetzen duela olioaz zeina gauza guztietara isurtzen baita, barneratzen ditu eta betetzen. Beste zera hau ere esan nahi du: Espiritu Santuak gure arima indartzen duela, olioak indartzen duen bezala gure gorputzean ahula den guztia, eta Hark ongia egiteko aurkitzen ditugun irriksak eta oztipoak leuntzen dituela, olioak gauzarik traukilenak leuntzen dituen moduan.

KB1.303.2.5 Baltsamoa olioarekin nahastuta krisma santua egiteko, esan nahi digu sendotua izan den kristauak atsegina behar duela izan Jainkoaren aurrean eta lagun hurkoari halako etsenplua eman ezen bizitza santuaren bitartez, San Paulok esaten duen bezala, Jesusen usain ona izan behar baitu.; eta baltsamoa gorputza usteltzetik babesten duen bezala, Espiritu Santuak ere hala babesten duela arima bekatuaren usteltzetik.

KB1.303.2.6 Sendotzerakoan, gotzainak bekokian egiten du igurtzitzea krisma santuaz, erpuruaz gurutze santuaren seinalea eginaz, sendotuak bere fedearen ebanjelioko aginduen profesio publikoa egin behar duela esanez bezala, horregatik lotsatu gabe eta heriotzari beldurrik izan gabe, bada bekokian izaten da eskuarki beldurra eta lotsa azaltzen diren lekua; eta guri jakinarazteko harrotzekotan Jesusen gurutzean harrotu behar dugula, gure bekokian eramanez eta ezingo garela salbatuak izan ez badaramagu eta ez badugu kristauki sufritzen. Gurutze hau oliaduraz egiten da, jakitera emateko ezen gurutzea eroatea zaila bada ere, sakramentu honek indarra eta grazia berezia emango digula arinki eramateko.

KB1.303.2.7 Gurutze santuaren seinalearen kanpoaldeko espresioa karakterearen zeinua da, gure arimaren barnealdean ezartzen dena sakramentu honen bitartez, eta hori dela medio, arima Jainkoari emana gelditzen da.

Gero, gotzainak zaplada txiki bat ematen dio sendotuari, esanez aurrerantzean preparatuta egon behar duela sufritzeko, eta pozik egon behar dela sufritzeko aukera duelako, nahiz eta maiz gogorra eta zaila izango den, zapladak berez mina eta iraina daramalako.

KB1.303.2.8 Unean berean Gotzainak zera esaten du: *Bakea izan bedi zurekin*, sendotuari aditzera emateko mundu honetan lagun hurkoarekin biziki ontsa bakeaz gozatzeko onena pazientziaraz sufritzea dela; eta zeruan oparo gozatuko dugula bakeaz, bizitza honetan gogo onez sufritzen badugu.

Ondoren, eskuarki, bekorian benda bat jartzen da, krisma santuari diogun begiruneagatik, bedeinkatua baitago; eta sendotza sakramentuan jasotako grazia kontserbatzeko erakutsi behar dugun arreta jakinarazteko, behin batean soilik ematen delako, eta guk une oro behar dugu.

KB1.303.2.9 Eskuarki aitabitxi bat eta amabitxi bat izan behar dituzu sendotza hartzera zoazenean, oraindik ahula zarela eta kristauki bizitzeko gidari bat behar duzula adierazteko; eta eraman den izena aldatzeko, santu edo santa batena ez bada, edo egokiagoa bada besterena eramatea.

Gero, gotzainak bedeinkapena emango du hotsandiz, zeina belauniko eta errespetu handiz hartu behar baita.

KB1.303.2.10 Horiek dira sendotzan praktikatzen diren zeremoniak, eta begirune handia sorrarazi behar dituzte sakramentu honen gainean.

Sakramentu honetara eraman behar diren jarrerai buruz, oso garrantzitsua da sakramentu honen mailakoak izatea eta bertan jasotzen den graziaren parekoak.

KB1.303.2.11 Ez da beharrezkoa sendotza sakramentua hartzera doazenek baraua gorde behar izatea, hastapeneko Elizan hori izan bazen ere ohitura. Baina nahitaezkoa da ongi eskolatuta egotea gure erlijioa misterio santuez eta batik bat sakramentu honi dagokion gainean; eta grazian egotea, bestela sakrilegioa egingo bailukete; eta hau hala izan ez dadin, aurretik aitor ditzatela bekatuak. Horren zaintza eduki behar dute gurasoek eta haien lekuan seme-alaben ardura dutenek, edo hauen gidaritzea dutenek.

KB1.303.2.12 Sendotza hartu behar dutenak belauniko egon behar dira, isilik eta aparteko jainera eta neurritasunaz. Espiritu Santuari bere graziaz betetzeko eskatu behar diote, eta kontserbatzeko; eta erabakia hartu behar dute sakramentu honek eskatzen duen santutasunaren arabera biziko direla. Eta hartu ondoren Jainkoari eskerrak eman behar dizkiote emandako grazia guztiengatik eta egunari falta zaiona jaiertzeko obrak egiten eman.

KB1.303.2.13 Kristau gutxi ezagutzen du zer-nolako edertasuna eta bikaintasuna duen sendotza sakramentuak eta zenbat grazia jasotzen den bertan. Horregatik dira hain gutxi sendotuak izan zirenean hartu zituzten obligazioak betetzen saiatzen direnak. Hau gertatzen da, eskuarki, oso gutxi preparatzen direlako Jainkoaren grazia behar bezala hartzera, edo ez direla behar beste ahalegintzen kontserbatzen.

KB1.303.2.14 Behar bezala eskolatuta egon ez, edo beharrezkoak diren jarrerak erakutsi gabe hartu dutenak sakramentu hau, lehenbailehen ikasi behar dute zein diren sakramentu honekiko obligazioak, eta aitortzaz edo penitentziaraz zorrak kitatu; eta gero guztatu, inolako giza lotsarik gabe, egiazko kristauaren obrak.

Bataioaren bidez Jainkoaren seme edo alaba izatera iritsi garen bezala eta sendotzan behar genuen kemena hartu badugu, nahitaezkoa dugu kemen hori kontserbatu ahal izateko elikagaien bat edukitzea: Jainkoaren semeen eta alaben ogia, Eukaristia, alegia; Jesusek sortu zuen sakramentu honek gure arimari zer jan eta edan ematen dio, eta Jesusen gorputza eta odola bera ematen dio, ogia eta ardoa antzean.

Ogiaren eta ardoaren antzak egiten dute Eukaristian Jesusen gorputza eta odola gure begiez ogia eta ardoa balira bezala ikustea eta, halaber, gainerako zentzumenak ogiarena eta ardoarena balira bezala hartzea, hala nola zaporea, kolorea, forma, etab.

KB1.304.1 Lehenengo saila
Eukaristiaren izen anitzez, materiaz eta formaz, eta Jesusen gorputzaren eta odolaren errealitateaz sakramentu honetan.

KB1.304.1.1 Eukaristiaren sakramentua denen artean agurgarriena eta santuena da, dagoen gauzarik handiena eta santuena daukalako, hots, Jesus Jainkoa eta gizona, eta arimetan efektu miresgarriak sorrarazten dituelako.

KB1.304.1.2 Eukaristia hitzak grazia edo esker ona esan nahi du. Sakramentu honi grazia deitzen diogu graziaren egilea daukalako eta grazia hau oparotasunez komunikatzen duelako. Esker onekoa deitzen diogu, sakrifizio gisa sortua izan zelako, Jainkoari eskerrak emateko Jesusen bitartez, ondasun guztiengatik hala gorputzezkoak nola espirituzkoak, harengandik hartu baititugu.

KB1.304.1.3 Eskuarki, Eukaristiaren sakramentuari beste zazpi izen ematen zaizkio. Sakramentu Txit Santua deitzen zaio Jesus daukalako, santutasuna bera, eta duintasunez hartzen dutenei goreneko santutasuna ematen dielako. Aldareko sakramentua deitzen zaio, sagaratua den lekua aldarea delako, eta kontserbatzen den lekua. Komunioa deitzen zaio Jesusekin bat egiten dituelako hartzen dutenak, eta jaunartzen dutenak beraien artean batzen direlako karitate zintzoaz eta ikusgarriaz.

KB1.304.1.4 Ostia Santua deitzen diogu Jesus daukalako, gurutzean hil zena sakrifizio gisa bere burua eskainiz, eta sakramentu honetan eskaintzen da oraindik sagaritzen denean. Seme-alaben ogia deitzen diogu arimaren elikagaia delako eta Jainkoaren seme-alaben ogia. Mahai santua deitzen diogu, oturuntza delako non fededunak Jesusen gorputzaz eta odolaz elikatzen diren. Elizako deitzen diogu, lur honetan bidaiariak direnentzat soilik delako; baina hala deitzen zaio, manera berezi batez, gaixoeekin zerikusia duelako, zeren hil zorian daudelarik sakramentu hau hartzen dutenean indartuta sentitzen baitira bidaia amaitzeko, eta erraztasun eta ziurtasun handiagoz lurretik Zerura pasatu ahal izateko.

KB1.304.1.5 Hasierako Elizan Elizako deitzen zitzaion, zeren hastapeneko kristauek edonora joaten zirelarik, Eukaristiako sakramentua beraiekin batera eramateko ohitura hatua baitzeukaten. Elizako Guraso santuek beste izen batzuek bataiatu izan zuten, baina arestian aipatutakoak dira garrantzitsuenak eta Elizan indarrean daudenak, gehienbat.

KB1.304.1.6 Eukaristian ogia eta ardoa dira sakramentu honen materiatzat hartu behar direnak, nahiz eta ez bata eta ez bestea ez diren, behin apaizak horien gainean, ogiaren gainean *Hau da nire gorputza* eta odolaren gainean *Hau da nire odola* esaten dituenean. Izan ere, orduan, ogiaren substantzia erabat aldatzen da eta Jesusen gorputza bihurtzen, ogia sagaratzekoan erabilitako hitzak medio; eta ardoaren substantzia erabat aldatzen da ardoa sagaratzekoan Jesusen odola bihurtzen delako.

KB1.304.1.7 Elizak hala sinetsi du betidanik, eta lehen mendeetako Elizako Guraso santuek esandakoak baiesten du zera hau. Nisako San Gregoriok dio bidezkoa dela sinestea ogia Jainkoaren Hitzaren haragi bihurtu dela, delako Hitzak berak esan zuelako: *Hona hemen nire gorputza*.

San Zirilok dio ezen Jesussek esan bazuen kalizan dagoena *Hona hemen nire odola*, nor ausartuko da esatera ez dela haren odola? Beste abagune batean, Kanako ezteietan, ura ardo bihurtu bazuen, ez al da sinestekoa esaten duenean ardoa odola bihurtu duela?

KB1.304.1.8 San Agustinek dio Jesussek bere goitik beherako izatea bere eskuetan zeramala, bere gorputz propioa eramaten zuelako, haren apostoluei ematerakoan esan zienean: *Hau da nire gorputza*.

San Agustinek ere biziki ontsa erakusten digu ogia hau esaten duenean fedea aitortzarazi behar digula sagarapenaren aurretik ogia eta ardoa naturak egin dituen bezala direla, baina sagarapenaren ondoren Jesus gorputz eta odola bihurtu direla, bedeinkapenak sagararuta, hots, sagarapenaren hitzak medio.

KB1.304.1.9 Beraz, egiaz sinetsi behar da eta ongi jabetu sagarapenaren ondoren ez direla ez ogia eta ez ardoa mahai gainean, baizik-eta Jesusen egiazko gorputza eta egiazko odola, ogia eta ardoaren itxurapean, eta Jesus bera, zeruan dagoena, dagoela aldi berean gure aldetan Sakramentu Txit Santuan.

Gertatzen den aldaketa honi, esan nahi baita, ogia gorputz eta ardoa odol bihurtzeari, transubstantiazioa deitzen diogu, eta funtsezko aldaketa hau sagarapeneko hitzez gauzatzen da, apaizak ahoskatu ahala.

KB1.304.1.10 Gure Jesus Jaunaren odola ogiaren itxurapean dago, gorputza bezalaxe, gaur egun Jesusena den bezala, ez da inoiz odolik gabe; eta era berean, Jesusen gorputza ardoaren itxurapean dago, odola ezin delako gorputzetik bereizita egon.

KB1.304.1.11 Beraz, bidezkoa da Eukaristiako Sakramentu Txit Santua gurtzea, Jainkoa bera gurtzen dugun bezala, zeren Jesus, Jainkoaren Semea, han egonik, Jainko eta gizon bezala gurtu behar baitugu.

KB1.304.1.12 Jesusen gorputza sentibera, ikusgarria eta ukigarria bada ere, Eukaristiaren sakramentuan beste manera batez dago: ez da sentibera, ez da ikusgarria eta ezta ukigarria ere. Ez ditu ez gorputz zentzumenak eta ez bestelako gaitasun guztiak, bete-betean badauzka ere. Ez da zalantzan jarri behar bere gorputza ostia baino handiagoa dela, hala ere ostia barruan dago eta zatiki bakoitzean oso txikiak izan arren. Eta ostia bat hainbat zati txikitzen partitzen bada ere, gorputzak beti osorik irauten du. Ogiaren eta ardoaren akzidenteez gure gorputza mantentzen eta elikatzen dute, substantzia bera balira bezala. Mirari hauek guztiak lau hitzez gauzatzen dira.

KB1.304.1.13 Beraz, ezin dira ikusi Eukaristian Jesusen gorputza eta odola; ikusten dena, ukitzen dena eta dastatzen dena ogiaren eta ardoaren akzidenteak eta itxurak dira, zeinak etengabe gelditzen baitira, sakramentuak indarrean irauten duen bitartean; baina Jesusen gorputza egiaz jaten da; eta ostiaren zati txiki batez elikatzen bazara ere, osorik hartzen duzu.

KB1.304.1.14 Itxurak gure urdailean galtzen direnean, Jesusek bere gorputzez gure barruan egoteari uzten dio, baina bere graziaz irauten du baldin Jainkoa ez badugu larriki gure baitatik urruntzen bekatua dela medio.

Gauza hauek guztiak gertatu dira eta gerta daitezke erraztasunez, bada ez dago ezinezkorik Jainkoarentzat; eta Jesusi ez zitzaion batere ezinezkoa egin sakramentu honetan geratzea eta bere gorputza nahi beste aldiz biderkatzea, nolabait esateko, giza naturari atxikitzea kostatu ez zitzaion bezala. Era berean, ez zitzaion batere kostatu leku anitzetan egotea, Ebanjelioak piztu eta gero aldi berean leku askotan egon zela esaten digulako.

KB1.304.2 Bigarren saila Instituzioaz eta Eukaristiaren ministroaz.

KB1.304.2.1 Gure Jesus Jaunak sortu zuen Eukaristiaren Sakramentua bere pasioaren bezperan, bazko bildotsa jan ondoren eta apostoluei oinak ikuzi eta gero, esan zienean: *Har ezazue eta jan, hau nire gorputza da zuentzat emango dena*, eta pixka bat geroago: *hau da nire odola, zuentzat isuriko dena*.

KB1.304.2.2 Jesusek ogia eta ardoa hartu zituen sakramentu honen materiatzat, gizakiaren bizitzan ogia eta ardoa oinarritzko euskarriak diren bezala, era berean Jesusen gorputz eta odola jainkozko elikagaiak direla adierazteko, eta gure arimen jaki ona.

Nahiz eta Jesusek sortu duen sakramentu hau bi espeziepean edo ogiaren eta ardoaren itxurapean, ez da, dena den, sakramentu bat baino, bada jainkozko otordu bakarra da, ogia eta ardoa gorputzezko otordu bakarra den bezala.

KB1.304.2.3 Jesusek sakramentu hau sortuz, era bereziz erakutsi nahi izan gurekiko maitasuna, bada harekin lotzen gaitu erabat, eta gainera imajina dezakegun txertatze estu eta bikainarekin, guri jaki gisa entregatuz, naturan dagoen txertatzerik bikainena, bestalde. Sakramentu hau hartzen dugunean Bera ez da gu bihurtzen baizik-eta gu Bera bihurtzen gara, ahal duen neurrian, aldatuz ez gure substantzia, baizik-eta gure sentimenduak eta gure ohiturak, harenekin bat egiteko. Eta gorputzezko elikadurak kide guztiei pixka bat banatzen dien bezala, era berean Jesus Gure Jaunaren gorputzak, gure urdailean osorik iraunda ere, gure ariman eta gorputzean zehar jainkozko bizi espiritua hedatzen du.

KB1.304.2.4 Jesusen gurekiko maitasuna ikusten da sakramentu honetan Bera dela guri erabat entregatzen zaiguna eta Berak duen guztia, berarentzat deusik laga gabe, hots, gorputza, odola, arima eta bere jainkotasuna, grazia eta merituak, egia-egiaz, errealki eta substantzialki, Trentoko kontzilioak dioen bezala, eta bere grazia beste sakramentuetan baino dezente oparoago ematen dizkigu.

KB1.304.2.5 Apaizek bakarrik dute, Jesusen ministroak baitira, Eukaristian Jesusen gorputza eta odola sagartzeko ahalmena. Haiei, apostoluen izenean, Jesusen ahalmen hau eman zien esan zuenean, sakramentu hau sortzerakoan: *Egizue hau nire oroigarri*; eta apaizak erabiltzen dituen hitzak Jesusen sakramentu hau sortu zuenean erabili zituenak dira.

KB1.304.2.6 Nahiz eta apaizek sakramentu hau sagaritzen duten bi espezioan pean, hots, ogiaren eta ardoaren itxurapean, eta nahiz eta hastapenetako mendeetan kristauak bi espeziokin jaunartzen zuten, Elizak, hala ere, komenigarri ikusi du aspaldiko partez, apaizek bakarrik jaunartu behar dutela bi espeziokin, Meza santuaren sakrifizioan; eta beste guztiek, bai eklesiastikoez eta bai laikoek, ogiaren espeziarekin soilik jaunartzea. Baina honek ez du oztopatu nahi beste erara ere egiteko aukera, hots, bi espeziokin jaunartzea, bada espezie bakoitzak berez bestea ere badu, biak elkarrekin bezala, Jesusen gorputza eta odola.

KB1.304.3 Hirugarren saila
Kristauak Eukaristia hartzeko duten obligazioaz eta egin behar duten maiztasunaz.

KB1.304.3.1 Elizak fededun guztiei Eukaristia hartzeko agintzen die, honi jaunartzea deitzen diogu, urtean behin gutxienez. Arau hau Letrango kontzilioaren bigarren kanonean eman zen. Kontua ez da Elizak nahi duela kristauak hain gutxi jaunartzea, bada bertan esaten du urtean behin gutxienez. Eta Trentoko kontzilioaren 13. saioan esaten da bere desioa dela kristauak begirune handia eduki diezaiotela misterio santu honi, eta maiz har dezatela, arimaren bizia eta osasuna da eta.

KB1.304.3.2 Lehenengo kristauak sarritan jaunartzen zuten, eta hori San Lukasen hitzei esker dakigu Apostoluen Egintzetan datorrelako. *Denek, dio, irauten zuten apostoluen dotrinan, anaiarteko ogiaren partiketan eta otoitzean.* Eta are gehiago, geroago dio egunero egiten zutela: *joaten jarraitzen zuten, dio, espiritu berarekin, egunero jauretxera, ogia partituz, bai etxe batean eta bai bestean.*

KB1.304.3.3 Alabaina, ez zeuden inongo manamenduaren pean, eta hain sarritan jaunartzen bazuten haien jaiera eta eraspina oso handiak zirelako izaten zen. Are gehiago, ohitura hau hain zegoen zabaldua Elizan ezen fededun guztiek jaunartzen baitzuten joaten ziren meza guztietan, Anakleto aita santuaren dekretu batean irakur daitekeenez, eta zuzenbide kanonikoan jasota dago: *Denek jaunartu dezatela beren buruak baztertuta eta Elizak gaitzetsita ikusi nahi ez badituzte; bada apostoluek hala agindu dute eta halakoa da erromatar Elizaren praktika.*

Garai hartan Elizan ohitura zen, San Dionisiok dioen bezala, apaizak ogia eta ardoa sagaratu eta gero eta berak jaunartu ondoren, herriari begiratzea eta esatea: *Zatozte, haurrideak, jaunartzera.*

KB1.304.3.4 Geroago praktika hau hainbeste baztertu zen ezen kontzilio batzuek derrigortu behar izan zuten jendea jaunartzera joatea urtean hiru aldiz gutxienez: Bazkotan, Mendekostetan eta Gabonetan. Eta denbora joan ahala ohitura hauek ez baitziren betetzen, Letrango kontzilioak, XIII. mendearen hasieran, urtean behin gutxienez jaunartu behar zela agindu zuen, Bazkotan, bestela bekatu larrian erortzeko arriskua zegoelako. Delako agindu hau Trentoko kontzilioak berritu eta berretsi zuen.

KB1.304.3.5 Santu guztiek aholkatzen digute sarritan jaunartzeko; baina ez da erraza zehaztea zer-nolako maiztasunez egin behar duen bakoitzak. San Tomasek irtenbide harrigarri bat ematen du, esaten duenean, eukaristia sakramentu gisa hartzen bada, on dela sarritan hartzea, ematen dizkigun graziak egunero hartu ahal izateko.

Horregatik dio San Ambrosiok Sakramentuen inguruko laugarren liburuan: baldin Jesusen odola isurtzen den aldi oroetan bekatuen barkamenerako bada, egunero bekatu egiten baitugu, egunero hartu behar da, horretan gure bekatuei erremedioa aurkitu ahal izateko.

KB1.304.3.6 Baina, Eukaristia hartzen bada hartzen duenaren irizpide pean, sakramentu honetara jaiera handiz baino ezin da hurbildu bat. Norbaitek preparatuta aurkitzen badu bere burua, jarraitzen du San Tomasek, ongi egingo du egunero hartzera hurbiltzen bada.

Arazoi honengatik, San Ambrosiok berak, esan ondoren: *Har ezazue egunoro egunero on egin diezazuen, jarraian gehitzen du: bizi zaitezte egunero hartzeko moduan.*

Baina gizaki oroetan jarrerak ez direnez oso egokiak, ez gorputzekoak eta ez arimakoak, egunero jaunartzeko, Eliz Irakaspen liburuan esaten da: *Ez dut onesten egunero jaunartzea eta ezta gaitzesten ere; baina aholkua ematen dut eta kontseilatzen igandero jaunartzea, bekatuarekiko atxikimendurik ez badut.*

KB1.304.3.7 Pertsona oroentzako aholkua emateko orduan, esan daiteke, jaunartze askotarikoa erregulatzeko, komeni dela aitorle aditu baten espirituzko aholkua jarraitzea; eta hari jarraituz, batek ziurtasun nahikoa izan dezake Elizak nahi duen beste aldiz jaunartzeko.

KB1.304.4 Laugarren saila
Eukaristi santua egokiro errezipitzeko behar diren jarrerez eta sakramentu honek gure baitan sor ditzakeen efektuez.

KB1.304.4.1 Erabat alferrikakoa izango zen Eukaristia sakramentua gisa hartzea, horretara prestatu gabe hurbilduko bagina. Hau dela-eta oso egokia da fededunei duintasunez hartzeko eraman behar dituzten jarrerak azaltzea.

Bi jarrera mota daude kontuan hartu beharrekoak jaunartzeko: batzuk beharrezko jarrerak dira eta beste batzuk egokitasunezko jarrerak.

KB1.304.4.2 Beharrezko jarrerak bete egin behar dira bestela ezin da jaunartu, edo bestela, sakrilegioa egingo zenuke. Bi jarrera daude tankera honetakoak: bekatu larririk ez edukitzea eta baraurik egotea.

Hauetako lehenengoa San Paulo apostoluak jakinarazten digu nork bere burua aproba dezala esaten duenean, esan nahi baita, bere arimaren egoera azter dezala, eta ez dezala ogi honetatik jan, aurretik ez badu egokiro aztertu bere burua; zeren, *duintasunik gabe jaten duenak, bere kondena jaten baitu, ez duelako Jaunaren gorpuzta bereizten.*

KB1.304.4.3 Arima bekatu larritik libre eduki gabe jaunartzea sakrilegio egitea da, egin daitekeen bekatuik gaitzenetakoa. Eliza Gurasoek Judasen eta judutarren bekatuarekin erkatzen dute, Jesus Jauna gurutziltzatu zutenarekin, alegia.

Hala gauzak, jaunartu nahi dutenak eta bekatu larriren bat egin badute, aurretik penitentzia sakramentuan garbitu behar dute bekatu hori, eta horren bitartez, Jaunaren grazian jarri. Bada Trentoko kontzilioak oso ongi esaten duen bezala, bere kontzientzian bekatu larriren bat duela dakienak, nahiz eta oso damututa egon, ezin da joan Eukaristia santua hartzera aldeztu aurretik aitortza egin gabe.

KB1.304.4.4 Jaunartzeko bigarren jarrera baraurik egotea da, hots, ezer jan eta edan gabe egotea, nahiz eta gauza pixka bat izan, jaunartu nahi den gaueko bezperatik.

Egokitasunezko jarrerak jaunartzeko zera hauek dira, hain beharrezkoak ez direnak, hau da, kontuan hartu gabe ere bekatuik egiteko motibo izango ez liratekeenak, baina bai oso egokiak direnak sakramentu santu honetan esku hartzeko eta hauen bitartez lortzen diren graziak eskuratzeko nahitaezkoak direnak.

KB1.304.4.5 Baldintzak zera hauek dira: bekatu arinik gabe egotea, asmo aratza edukitzea, eta jaunartzera kanpoaldeko neurritasun handiz hurbiltzea eta barrutik fede gartsuaz, Jainkoarekiko maitasunez eta begirunez. Azken baldintza hauek dira garai batean Elizak eliztarrei eskatzen zizkienak, jaunartu baino lehen diakonoaren ahotsez eta ozenki jaunartzera hurbilduko zirenei zera hau jakinarazten zienean: *Hurbil zaitezte, esaten zien, fedez, begirunez eta maitasunez.*

KB1.304.4.6 Sakramentu hau hartu nahi dutenei halako santutasuna eta bihotz garbitasuna eskatzen zaie ezen San Krisostomok esaten duen kalizak eta edontzi sakratuak hain garbi eta txukun badaude, orduan eta santuagoak eta garbiagoak izan behar direla gure arimak!

Sakramentu hau fede misterioa baita, San Tomasek dio sekulako fedez hurbildu behar dela hartzera; jabetu behar gara ez gara duin hartzeko, ikusirik zenbatekoa den Jainkoaren handitasuna eta zenbat gure hobenak eta gure ezereza, orduan sentimenduok sorraraziko dutela gure bihotzetan begirune sentimenduak, beldurrezko sentimenduak eta abaildura sentimenduak. Oso gauza egokia da, baita ere, sakramentu honen bitartez Gure Jaunarekin biziki txertatuta egon nahi izatea eta gu garen guztia, hari erabat entregatzea, Bera guri entregatzen zaigun bezala.

KB1.304.4.7 Eukaristia sakramentuak gure ariman sorrarazten dituen graziak eta efektuak, jarrera egokiaz hartzen dugunean, ugariak eta oso garrantzitsuak dira. Sendagaia eta gure elikadura da eta, baita ere, efektu desberdinak sortzen ditu guregan aipatu bi ezaugarriekin zerikusia dutenak..

Sendagaia den aldetik, sakramentu honek arimako gaixotasun guztiak sendatzen ditu, deabruak jarritako tentazio guztiak uxatzen ditu eta arima prest jartzen du berorietan ez erortzeko. Sexu grinaren beroaldiak hozten ditu, gure pasioak baretzen ditu eta hein batean bekatuak dugun joera murrizten du.

KB1.304.4.8 Bekatuak gure ariman sortutako itxuragabekeria ezabatzeko eta Jainkoaren kolera baretzeko, gurekin haserre egiten ditugun bekatuak direla eta, Harekiko gure fideltasunik eza agerian uzten dugularik.

Betiko heriotzatik libratzen gaitu, Gure Jaunak egin zuen promesaren arabera: ogi honetatik jan eta ardo honetatik edaten duenak beti biziko da.

Bekatu arinak barkatzen ditu eta ahaztu egin direnak. Bekatutik libratzea eta horretan errazki ez erortzea sakramentu honek sortzen duen efektuari esker da, hala dio San Bernardok.

San Ziprianok diosku halako moduz indartzen gaituela ezen munduarekiko, deabruarekiko eta geurekiko borrokan garaile ateratzen baikara.

KB1.304.4.9 Eukaristia sakramentuak gure arimaren elikadura gisa sortzen dituen efektuak honako hauek dira: bekatuak ahuldutako indarrak berreskuratzen ditu; gure egintzak graziaz eta Jesusen Espirituaz egiteko kemena ematen digu. Gainera, grazian gero eta aberatsago egiten gaitu, grazia santutzaila gehituz hartu bezain azkar; gaur egungo grazia ugari ematen dizkigu, gure beharren arabera eskaintzen zaizkigunak, ohiko grazia mantentzeko ahalmena ematen digu, eta gure arimaren grazia, alegia.

KB1.304.4.10 Sakramentu honek neurri handi batean gure arimaren ahalmenak indartzen ditu, Jainkoaren zerbitzurako diren gauzak adore handiagoz eta errazago burutu ahal izateko, eta nolabaiteko bizi espiritua komunikatzen die, gure adimena argi berriaz argizatzen duelarik, Emauseko diszipuluei gertatu zitzaizen bezala, eta irrika berrituz pizten du Jainkoari eskaini beharko geniokeen borondatea.

Eternitatera egiten dugun bidaiarako elizakoa da. Kontsolamendu eta espirituzko gogo asko sorrarazten dizkigu, diosku San Ziprianok, eta hainbeste gaitu txertatzen Jesusekin, espiritu bat eta bera osatzen dugu Harekin.

KB1.304.4.11 Sakramentu honek gure ariman ez ezik gure gorputzean ere efektu zoragarriak sorrarazten ditu: santifikatu egiten ditu Jesusen gorputzarekin duen ukituagatik; izan ere, sagaritzen ditu eta benetan Jesusen kide egiten ditu; sakramentu txit santuaren sagrario biziak bihurtzen ditu, eta era honetan, dio San Zirilok, Jainkoaren eramaileak izatera heltzen gara, guregan Jesus baitaramagu, bere gorputz sakratua gure barrenean hartzen dugunean.

5. kapitulua

KB1.305 Eukaristia opari gisa

KB1.305.1 Lehenengo saila Nola da opari Eukaristia.

KB1.305.1.1 Eukaristia ez da sakramentu soilik, opari ere bada, eta lege berriko egiazko opari bakarra. Sakramentua da Jainkoak gizakiei Jesusen gorputza eta odola, forma sentikorrez, ematen dielako santifikatzeko. Baina oparia ere bada Jesusen gorputza eta odola ogia eta ardoaren itxuraz, apaizak Jainko Aitari eskaintzen dizkionean Meza santuan, Jesusen beraren pasioa eta heriotza oroituz.

KB1.305.1.2 Eukaristia oparia soilik da Jesusen gorputza eta odola Jainkoari eskaintzen zaizkion unean berean, eta hau Meza santuaren sagarapenean egiten da, apaizak ogia eta ardoa Jesusen gorputza eta odola bilakatzen dituenean. Hemendik ateratzen da Eukaristia sakratua, sagarapenaren ondoren eta Elizako erreserban gelditzen denean, sakramentua dela eta ez jada oparia; eta sakramentua gisa irauten du ogia eta ardoa espezieak kontsumitzen diren arte, edo halako moduz ustelduta egonik ogiaren eta ardoaren itxura bera ere galzten direnean.

KB1.305.1.3 Sakramentuaren eta opariaren artean bada desberdintasun bat: sakramentua sortu bazen gizakiak santifikatzeko eta grazia emateko sortu zen, eta oparia, aitzitik, Jainkoa sortzaile eta gauza guztian menperatzaile gisa ondratzeko. Gainera, sakramentua probetxugarria da jarrera egokiek hartzen duenarentzat; baina opariak probetxua eman diezaike gizaki guztiei, bertan daudenei edo bertatik urruti daudenei, bai zintzoei eta bai gaiztoei, ongi preparatu direnei edo preparatu gabe joan direnei, biziei nahiz hildakoei, nondik eta ez diren bekatu larrian hil. Eta nahiz eta ez den sortu zuzenean gizakiak santifikatzeko, Jainkoa ondratzeko baizik, hala ere, bekatuen barkamena erdiesten du, penitentzia espiritua eta grazia ugari eskaintzen die gure asmoetan daudenei, Jainkoaren kolera baretzen duelako, ondratzerakoan eta haien alde eskatzerakoan.

KB1.305.1.4 Opari hau Jainkoari soilik egiten diogun kanpoko eskaintza sentikorra da, atsegina duenarena, eta haren omenez suntsitzen dena, egiteko eskubidea eta manatua duenaren pertsonaren partez, Jainkoarekiko menpetasuna dugula adieraziteko eta hark gauza guztiekiko duen domeinua azaltzeko.

KB1.305.1.5 Gizakiok nola sakrifikatu behar diren Jainkoaren omenez lege zaharrean dago adierazita; han biktima suntsitua izaten zen ahal zuen manieraz eta neurriaz. Oparirako biktima animalia bat bazen, lepoa moztzen zitzaion. Gauza solidoren bat bazen, adibidez, gatza, intsentsua, ogia, irina,... gauza hauek kontsumitu egiten ziren. Gauza likidoak baziren, lur gainera isurtzen ziren.

Zeremonia hauek guztiek aditzera ematen digute Meza santuan gauzatzen den suntsiketa eta Jainkoari eskaintzen zaiona, hiltzea edo suntsitzea dela, ahal den neurrian, bederen.

KB1.305.1.6 Meza santuan gauzatzen den suntsiketa ogia eta ardoa Jesusen gorputza eta odola bihurtzea da, eta ogiaren eta ardoaren substantziaren suntsiketa gauzatzen bada, Jesusek sortu zituen hitzak erabiliz burutzen da, eta apaizak sagarapenean haren izenean ahoskatzen ditu, esan nahi duten efektua produzitzen dutelarik.

KB1.305.1.7 Meza santuaren opariko biktima ez da ez ogia eta ez ardoa, Jesusen gorputza eta odola baizik, ogiaren eta ardoaren itxurapean. Sagarapenean biktima hau Jainkoari eskaintzen diogu, sagaratua eta aldi berean suntsitua Haren izenean.

Nola Jesusek ezin duen jada egiaz hil gurutzean behin hil zelako, Meza santuan hiltzen da, ahal den neurrian, mistikoa deitzen den manera batez, oparian bere gorputza eta odola bereizten direlako, beraz, sagarapenezko hitzen bitartez, jada ez dago gorputza baizik ostian eta odola baizik kalizan; nahiz eta, egitez, odola ostian egon gorputza bezala, eta gorputza kalizan, odola bezala.

KB1.305.2 Bigarren saila
Eukaristiaren edo Meza santuaren oparia eskaintzen dutenez; nori eskaintzen zaion, norentzat eta zergatik.

KB1.305.2.1 Apaizak bakarrik dira Meza santuaren oparia eskaintzen dutenak, Jainkoarengandik hartutako botereagatik eta duten izaera propioagatik, jainkozko misterio hau Jainkoari eskaini eta sagaratu behar dute, Jesusen bikario gisa, zein lehenengo apaiz nagusia izan baitzen.

KB1.305.2.2 Izan ere, Jesus da Meza santuko opariaren egiazko apaiza. Egiten duten apaizek Jesusen pertsona bera ordezkatzeko dute, eta hau oso argi gelditzen da, zeren sagarapeneko hitzak esaterakoan ez dute ahoskatzen *hau Jesusen gorputza da, hau nire gorputza da* baizik, Jesus bera balitz bezala hitz egiten duena.

Arrazoi beragatik bizimodu txarreko apaizak ospatzen duen mezak bizimodu onekoak ospatzen duenaren balio eta eraginkortasun bera du.

KB1.305.2.3 Opari hau, Jainkoa sortzaile gisa ondratzeko soilik sortu denez, ezin da santuei edo bestelako edozein sorkariari eskaini, bada Jainko maiestateari zor diogun ohorea eta omenaldia haiei eskaintzea izango litzateke. Horregatik, meza santuen ohorez esaten denean, Jainkoari soilik eskaintzen zaio, eta santuei gurekin bat egin dezatela eskatzen, eta beren meritua gure opariari eransteko, hala gure alde eginez Jainkoari atseginagoa egingo zaiolako.

KB1.305.2.4 Trentoko kontzilioak dio Meza santuko oparia apostoluen tradizioari jarraituz eskaintzen dela, ez soilik bekatuengatik, penengatik, eta bizirik dirauen bestelako edonoren beharregatik, baita ere, Jesusengan hil zirengatik eta oraindik erabat garbitu gabe aurkitzen direngatik, esan nahi baita, garbitokian daudenengatik.

KB1.305.2.5 Opari honek grazia desberdinak ematen dizkie justuei eta bekatariari. Bekatariei, Trentoko kontzilioak dio, bekatuengatik penitentzia doea ematen die, hau da, beren bekatuez damutzeko grazia. Bizirik dirauten justuei beren bekatu arinen barkamena ematen die, egindako bekatuen pena kentzen eta, baita ere, laguntza bereziak ongia praktikatzeko.

KB1.305.2.6 Fededunen ahulezia dela-eta Elizak Meza santua haien alde eskaintzea baimentzen du denborazko mesedeak erdietsi ahal izateko, baldin Jainkoarekiko menpetasunaz eskatzen badituzte eta baldin Hark egokiak ikusten baditu bere aintzarako eta eskaleen salbamenerako. Eta inoiz edo behin erdiesten ez badira eskatzen direnean, oparia eskaintzen den aldeko haiek halako faboreak hartzea merezi ez dutelako izaten da, edo bestela, ez litzazkiekeelako eraginkorrak suertatuko, kaltegarriak baizik, beren salbamenerako.

KB1.305.3 Hirugarren saila
Meza santuko opariak hauen irudi ziren lege zaharreko opariekien duen zerikusiaz.

KB1.305.3.1 Trentoko kontzilioak esaten du Meza santuko oparia lege naturalaren eta idatzitako legearen garaian egiten ziren oparien irudikapena dela, eta opari zahar haietan

aurki zitezkeen gauza on guztiak dituela oraingo opariak, batik bat, bikaintasuna eta konplimendua.

Lege zaharrea lau opari mota zeuden, eta haiek guztiak Meza santuarenean txertatuta daude. Holokausto-opariak zeuden, eukaristia-opariak, opari faboragarriak eta eskatzaileak.

KB1.305.3.2 Holokausto-opariak Jainkoari zor diogun ohorea eta omenaldirik gorena eskaintzeko sortu ziren, gure kreatzailea delako, izaera eta daukagun guztia eman diguna; gure Jaun ahalguztiduna eta gurekin nahi beste egin dezakeena, guk aurka egiterik ez dugularik; eta gure azken jomuga delako, eta dena haren aintzarako eginez gure buruak erabat entregatu behar dizkiogulako.

KB1.305.3.3 Holokausto-oparietan ostia erabat erretzen zen, ezer utzi gabe, Jainkoari esateko harengandik dena jaso genuen bezala, era berean itzultzen geniola den-dena; eta Hari oso erraza egingo zitzaion bezala guri bizia zeharo kentzea hala nahi izanez gero, halaber, oparia eskaintzen zuenari biktima hura hiltzea eta kontsumitzea egingo zitzaiola erraza baino errazagoa.

Eukaristia-opariak Jainkoari eskerrak emateko sortu ziren, naturak emandako ondasun guztiengatik eta Hark guri emandako grazia ugariengatik, bai orokorrean eta bai partikularrean, eta egunero hartzen ditugunengatik edo bizitza honetan hartzea itxaroten ditugunengatik. Opari hauei ostia baketsuak deitzen dizkiegu.

KB1.305.3.4 Opari faboragarriak bekatuen barkamena erdiesteko eta merezitako pena erazteko sortu ziren.

Opari eskatzaileak behar ditugun faboreak erdiesteko sortu ziren, bai espirituzkoak, bai gorputzezkoak edo denborazkoak.

Hiru opari mota hauetan biktimaren zati bat baino ez zen kontsumitzen, eta beste zatia apaizen eta opariak eskaintzen zituztenen bizia iraunarazteko.

KB1.305.3.5 Meza santuko oparia holokausto-oparia da, zeren bertan Jesus eskaintzen dugunean, Jainkoari berari ohore infinitua eskaintzen baitaio, eta kreatzaile dela aitortzen dugu, Jaun guztiahalduna eta gauza guztien azken jomuga.

Gauza guztien kreatzaile dela aitortzen dugu, zeren bere Semeari, eskaintzen dioguna, sorkari guztien artean hobereena baita. Jaun ahalguztidunaren ohorea ematen diogu, instante batean ogiaren eta ardoaren substantziak suntsitzen direlako eta Gure Jaunaren gizatasuna bataren zein bestearen itxurapean jartzen direlako. Eta, azkenik, Meza santuan Jainkoa gauza guztien jomuga gisa ondratzen dugu, Gure Jesus Jauna bertan opari gisa bere burua eskaintzen duelako eta Jainkoaren aintzaz kontsumitzen delako, eta gizaki oro Harekin eta Harengan, haren buruaren kide gisa.

KB1.305.3.6 Opari hau ere eukaristia-oparia da, bada Jainkoari bere Semearen eskaintza egiten baitiogu, beragandik jasotako mila aldiz fabore gehiago jasotzen baititugu.

Eta, baita ere, faboragarria da, gure aurka suminduta zegoen Jainkoaren kolera baretzen da, eta gure bekatuak eta merezi duten denborazko penen barkamena ekartzen digu, gurutzeko oparia gauzatu zuena bera delako, eta meritu haiek aplikatzen dizkigu, bistan da.

KB1.305.3.7 Bukatzeko, eskatzailea da, behar dugun guztia erdiesteko eraginkorra delako. Horregatik eskatzen da egunero behar publiko eta partikular guztien alde, eta espirituzko zein denborazko behar oro lortzeko. Jesus bera da, opari honen biktima izanik, eskaintzen duen alde erregutzen duena. Ziur egon gaitzke gure otoiak, Gure Jaunarekin bat eginda daudenez, eta Berak aurkezten dizkiolarik Jainkoari, bere Aitari, ezingo direla desatseginak izan eta ezta Hark baztertuak ere.

KB1.305.4 Laugarren saila
Zer nolako erlazioa eta aldi berean desberdintasuna duen Meza santuaren opariak gurutzekoarekin.

KB1.305.4.1 Meza santuaren oparia, lege zaharreko opariekiko helburuekin bat etortzeaz gainera, Jesus Gure Jaunaren pasioa eta heriotza gogoratzeko sortu zen era bereziz, eta, halaber, gurutzean eskaini zigun oparia kontuan hartzeko. Berak esan zigun hitz hauekin: *Hau egiten duzuen bakoitzean egizue nire oroigarri*; eta San Paulok, beste hauekin: *Ogi honetatik jaten duzuen bakoitzean eta kaliz honetatik edaten, Jaunaren heriotza iragarriko duzue bera etorri arte.*

KB1.305.4.2 Are gehiago: Meza santuko oparia Jesus Gure Jaunak guregatik eskaini zuena bera da, gurutzean hil zenean, zeren batean zein bestean biktima bat eta bera baita, Jesus bera delako, Kalbarioan behin bere burua eskaini zuena eta egunero Meza santuan bere burua eskaintzen duena; eta, baita ere, apaiza bera delako, Jesus Gure Jauna, Meza santuan bere Aitari oparia eskaintzen diona, gurutzean eskaini zion bezala.

KB1.305.4.3 Meza santuaren eta gurutzekoaren artean desberdintasun bat dago, hala ere: gurutzekoa odoltsua eta ikusgarria izan zen, eta behin bakarrik gertatu zen; aitzitik, aldarean ospatzen dena ikusezina da, Jesus bertan manera ikusezinean eskaintzen delako.; ez da odoltsua, Jesusek ez duelako bere odola gure alde isurtzen, gurutzean bezala; eta egunero errepikatzen da, bekatarien alde bere burua eskaintzen duelako, bekatariak egunero erortzen baitira hobenean, eta egunero behar izaten dute Jainkoaren grazia.

KB1.305.4.4 Bi opariok badute beste desberdintasun bat, alegia, gurutzeko oparia gizaki guztien eta hauei ematen zaizkien grazien justifikazioaren kausa da; eta hau ezin da esan Meza santuari buruz; honi indarra Jesusen heriotzatik datorriko erabat; gainera, gurutzeko opariak egin zuena izan zen Jesusek gure bekatuengatik osotoro asebate zuela gure bekatuek sortutako zorra eta beharrezkoak ditugun eta eraginkorrak zaizkigun graziak merezi zizkigula, Meza santuaren oparian aplikatzen zaizkigun bitartean bere merituak eta desirak asebetetzea.

KB1.305.4.5 Egia da sakramentu guztiak sortu zirela guri Jesus Gure Jaunaren pasioaren merituak aplikatzeko; baina haien eta Meza santuaren opariaren artean desberdintasun hau dago: sakramentuek gizakiei pasioaren merituak aplikatzen dizkiela justifikatuz, eta Meza santua aplikatzeko grazia erdietsiz. Horregatik sakramentuak oso eraginkorrak suertatzen zaizkie ongi preparamatuta daudenei, baina Meza santua

probetxuzkoa suertatzen zaie are fedegabeei eta damugabeei; batzuei konbertitzeko grazia iristen zaie, eta besteei, barkamenarena eta beren bekatuen saminarena.

KB1.305.4.6 Gainera, bada beste desberdintasun bat: Meza santuko opariak ez dauka grazia soilik, sakramentuek daukaten bezala, baizik eta Jesus bera, erreskatatu gintuena; eta Meza santuak ez du balio bizi-dunentzat soilik, garbitokian dauden hildakoentzat baizik, beren penak garbitzeko eta haietatik libratzeko; aitzitik, sakramentuek lurrean bizi diren fededunentzat soilik balio dute.

KB1.305.4.7 Oso egokia izan da Jesusek Meza santuaren oparia sortu izana, nahiz eta berak bere burua eskaini zuen gurutzan hilez eta nahiz eta opari hau nahikoa eta gehiegi izan gure bekatuetatik erreskatatzeko.

Trentoko kontzilioak hiru arrazoi ematen ditu: lehenengoa, Jesus betiko apaiza izanik, San Paulok dioen bezala, bere opariak ez zuela heriotzarekin bukatu behar, baizik eta, beren ministroen bitartez, menderen mendetan jarraitu behar zuela.

KB1.305.4.8 Bigarrena, nola ez den inoiz erlijiorik izan oparirik gabe, halaber, arrazoizkoa zen kristau erlijioak opari bat izatea eta hau duintasunez eta bikaintasunez beteta egotea.

Hirugarrena, opari honek gizakiei eskaini liezaion Jesusek haien alde gurutzan nozitu zuen heriotza gogoratzeko aukera, eta Jesusen pasioaren merituak aplikatu liezazkigun. Horregatik, dio kontzilio berak, gurutzeko opariak eta Meza santuak bat eta bera dira, eta eskaintzeko manera desberdina baino ez dago bien artean.

KB1.306

6. kapitulua

Penitentziaz bertute gisa eta honen beharraz

KB1.306.0.1 Mundu honetan bekatua nagusi izan baita beti, eta bertan lehen gizakiaz sartu baitzen, San Paulok dioen bezala, beti izan zen beharrezkoa denek penitentzia egitea, hartatik urrutiratzeko. Ez da inoiz beste baliabiderik izan hura ordaintzeko, ezta Jainkoarekin adiskidetzeko ere, Berak dioen bezala bere profeta santuen bitartez.

Horregatik aldarrikatzen du Trentoko kontzilioak penitentzia beti izan zela beharrezkoa, garai, sasoi eta aro guztietan, orokorrean, bekatuen batekin zikindutako gizaki guztientzat, grazia eta justizia eskuratzeko. Esandako hau egia dela frogatzeko San Joan Bautistaren eta Jesusen beraren hitzak ekartzeko gogora, penitentzia sakramentua sortu baino dezentere lehenago esandakoak: *penitentzia egingo ez bazenute, denak galduko zinatekete.*

KB1.306.0.2 Kontzilio santu honek dio, gainera, penitentzia beharrezkoa zela bataioaren sakramentuaz garbituak izan zitezen eskatzen zutenentzat; eta San Petriren hitz haietaz egiaztatzen du Apostoluen Eginetan: *Egizue penitentzia eta har beza bakoitzak bataioa.*

KB1.306.0.3 Alabaina, dio kontzilio berak, penitentzia ez zen sakramentu bat Jesus etorri aurretik, eta etorri eta gero ere ez da inorentzat bataioa hartu aurretik. Nahitaezkoa da, bada, sakramentuaren penitentziaz gain beste penitentzia desberdina egotea, eta hau

gabe bekatu larrian egon den edota dagoen edozein gizaki ezin izango zen lehen eta ezin izango da orain salbatu.

Penitentzia honen bitartez gure bekatuen samina hartzen dugu, erabakiz ez ditugula aurrerantzean egingo eta egindakoengatik ordainduko dugula. Hau da San Ambrosiori esanarazten diona, eta baita San Gregoriori ere, penitentzia egitea norbere bekatuengatik negar egitea dela, gehiago ez egitea eta haiengatik ordaintzea.

KB1.306.0.4 Bertute honek hiru ekitaldi behar ditu. Aurrena higuina eta herra, ez bakarrik bekatuari, hartara eraman dezakeen guztiari baizik; eta herra horrek munduan deitoragarria den beste edozer baino higuingarriagoa behar du izan, bekatua delako oroz gain egon daitekeen gaizkirik handiena.

Penitentzia bertutearen bigarren ekitaldia zera da, Jainkoaren aurka egin dugun bekatuekiko samina, gauza guztien gainetik maite behar dugulako eta gehiago ez iraintzeko erabakia izan behar dugulako.

Penitentzia bertutearen hirugarren ekitaldia Jainkoarekiko justizian datza; honek egindako bekatu guztiengatik ordaintzeko irrika bizia sorrarazten digu. Irrika honek behartzen gaitu bizitza osoa umiltasunean eta nahasmenduan ematera gure bekatuen zorra kitatzeko, eta Jainkoa iraintzera eraman gaitzakeen edozer gure bizitzetatik baztertzea.

KB1.306.0.5 Trentoko kontzilioak dio penitentiaren bitartez bekatuen barkamena eta Jainkoaren grazia hartzeko jarrerak honako hauek direla: fedea, Jainkoaren beldurtasuna, Jainkoarengan konfiantza, Jainkoarekiko egiazko maitasuna, justizia orenen iturri delarik, bekatuarekiko gorrotoa eta herra, aurrerantzean bizitza eraberritua eramateko erabaki eraginkorra, Jainkoaren manamenduak manara zehatz eta osotoro gordez.

KB1.306.0.6 Penitentzia gure bizitza guztian egin behar dugu. Hau da Trentoko kontzilio santuak espresatzen diguna kristauaren bizitza etengabeko penitentzia dela esatean. Beraz, ez dugu une bakar batez ere laga behar alde batera, bada Jainkoak barkamen hitza eman dion arren penitentzia egiten duenari, ez digu beti denbora eman egin ahal izateko.

Askok, are, heriotzako orduan egin nahi bai, baina ez dute astirik izaten, eta Jainkoak arrazoi osoz ez die ematen, bada orduan bekatuak utziko lituzke haiek, eta ez haiek bekatua. Eta aipatutako adibiderik argiena honako hau da: hiltzorian egon diren gehienak eta gero osasuna berreskuratu, eskuarki, berriro erortzen dira bekatu bertsuetan.

KB1.306.0.7 Beraz, penitentzia egin behar dugu Jainkoak horretara bultzatu bezain azkar, ez baitugu ziurtasunik ez denbora eta ez grazia izango dugunik horretarako.

KB1.306.0.8 Penitentiak, lehenengo ekitaldiari dagokionez, bekatuari gorrotoa erakustea dakar, eta azken ekitaldiari dagokionez, hots, batek egiten dituen egingiza neketsuak eta penatsuak egindako bekatuengatik Jainkoari ordaintzeko, beharrezkoa da bai justuentzat eta bataioko garbitasuna gorde dutenentzat eta bai bekatariarentzat. Izan ere, ahalik eta baliabide posible guztiak hartu behar dituzte bekatuetatik libratzeko, eta

ez da ezer hoberik gorrotatzeko, norbere bihotzaren sakonean bekatuari benetako herra sentitzea baino, eta zentzuen plazerrak saihestea, eta mundu honetan asebetetze gaitzakeen ororen aurka aritzea, bada ez da bat bekatutik urruntzen, egiteko abaguneak ekiditen ez baditu.

KB1.306.0.9 Penitentzia berez ona bada ere, hala ere, praktikatzen duten guztiek ez dute ongi praktikatzen, beren bihotzen sakonean ez dutelako benetako dolua egindako bekatuengatik, ez dutelako Jainkoa eta harekiko maitasuna gogoan. Judasek egin zuen bekatuekiko dolua izan zuen, baina horregatik ere kondenatua izan zen.

Are eta gehiago, kondenatuek ere badute dolua eta zama egin dituzten bekatuengatik, baina arrabiaz eta etsipenez sentitzen dute baina Jainkoari maitasuna eta erabateko konfiantza erakutsi gabe. Beste batzuk damu dira egintza txarren bat egin izanaz, atsekaberen bat sorrarazi dielako edo gertakizun guztiz kaltegarriren bat, eta beldur direlako besteren bat gertatuko ote zaien.

KB1.306.0.10 Batzuk daude egin dituzten bekatuengatik penitentzia egiten dutenak, hots, egindakoengatik ordaintzen dutenak, baina halabeharrez eta nahitaez egiten dute, kriminalen gisa. Beste batzuek kanpotik soilik praktikatzen dute, kanpora begira egindako penitentziekin, neketsuak, eta, eskuarki, hauen bitartez bekatuen zorrak kitatzen dituzte; baina giza errespetuagatik soilik egiten dute eta penitentzia egileak eta gizakien aitzinean mortifikatuak diren itxura gordetzeko, baina haien penitentzia gezurrezkoa da.

Asko dira Jainkoaren urrikalmenduaz harro direnak eta beren bizitzako azkenera arte egoten direnak penitentzia egiteko. Baina penitentzia hau ez da ziurra, bada gehienetan penitentiaren seinaleren bat eman nahi dutenean zeinuak edo hitzak erabili behar izaten dituzte eta dudakorrak suertatzen dira.

KB1.306.0.11 Penitentiak, ona izateko, bihotzaren sakonetik sortu behar du eta bihotzean agertu behar du kanpoaldera atera baino lehen; bestela, ezinezkoa da eta, ezta hurrik eman ere, zintzotasuna ziurtatzea.

KB1. 307

7. kapitula Penitentzia sakramentuaz

KB1.307.1 Lehenengo saila

Bere izaeraz, materialiaz eta formaz, instituzioaz; eta hartzeko jarrerez, bereziki, arima azterketaz.

KB1.307.1.1 Jesusek, ikusirik gizakiek penitentiaren beharra zeukatela bekatuen barkamena lortzeko, eta oso gutxik baliatzen zuela erremedio hau, bada gizakien gehiengoak ez zuen bere barnean benetako samina egindako bekatuen barkamena lortzeko, eta nahi baitzuen, bestalde, lege berrian bere grazia eman zeinu sentikorren bitartez, penitentzia sakramentua ezarri zuen bataioa hartu ondoren egin ahal izan diren bekatu guztien zorra kitatzeko; eta nahi izan zuen sakramentu hau izan zedila penitentzia egilearen eta apaizaren artean egindako kanpoko zeinuek osatua, gizakiak gai izan zitezten sakramentu honetara joan eta gero bekatuak alde batera lagatzeko.

KB1.307.1.2 Penitentzia hitzak damua esan nahi du, eta sakramentu hau hala deitzen da ezin dugulako sakramentu honetan gure bekatuen barkamena errezibitu ez badugu benetako damua, ez baditugu bihotzez gaitzesten eta ez badugu gogo onez jasaten merezi duten zigorra, Jainkoaren justizia ordaintzeko.

Eliz Gurasoek sakramentu honi izen desberdinak eta ederrak ematen dizkiete. San Ambrosiok dio pizten direnen sakramentua dela; Naziantzoko San Gregoriok bataio neketsua deitzen dio; San Krisostomok, sendagaia; beste batzuek, etengabeko adiskidetze sakramentua; eta Trentoko kontzilioak, San Ambrosiorekin, hondoratzeko ondorengo bigarren salbamen ohola.

KB1.307.1.3 Penitentzia sakramentuak bataioaren ondoren egin diren bekatuak barkatzen ditu. Begien bistako zeinua da, apaizak bertan egiten duen epaia penitentzia egiten duenaren gainean, Jainkoak barkatzen edo atxikitzen dizkion bekatuekiko epai ezin ikusizkoaren begien bistako zeinua delako, beharrezko baldintzak dituen sakramentu hau hartzeko, jakina.

KB1.307.1.4 Trentoko kontzilioak diosku penitentzia sakramentuak hiru zati dituela eta horiek direla penitentzia egileak nahitaez bete behar dituenak, eta hauek dira: bekatuekiko bihozmina, aitopena eta ordaintzea; hiru zatiosk sakramentuaren materia direla, eta apaizaren askepene, hots, *Nik zure bekatuak askesten dizkizut* forma dela.

Honek ez du esan nahi sakramentua ez denik erabat hartzen ordaindu baino lehen; beraz, oraingo ordaintze jarduna ez da beharrezkoa osatzeko. Nahikoa da horretarako sakramentua hartzen duenak ordaintzeko erabakia edukitzea, eta hau damu ekitaldiaren barruan dago jada.

KB1.307.1.5 Gauzak hala, penitentzia bertute gisa eta penitentzia sakramentu gisaren artean bada desberdintasun bat: lehenengoa barru-barrukoa da eta arimaren barruan sortutako hiru ekitaldiek osatzen dute, bekatuari herra, bihozmina egin izanagatik eta ordaintzeko desioa. Aitzitik, sakramentua ekitaldi sentikorrek eta kanpokoek osatzen dute, bai jasotzen duen penitentzia egilearengan eta bai administratzen duen apaizarengan.

Trentoko kontzilio santuak beste desberdintasun bat ere adierazten du: penitentzia bertutea beharrezkoa izan dela beti, bekatu larriz zikindu direnentzat, haiengatik ordaintzeko grazia jasotzeko, are gehiago, bataioa eskatzen zuten helduentzat; aitzitik, penitentzia sakramentuak, Jesusek sortua baita, kristau bataiatuak soilik derrigortzen ditu.

KB1.307.1.6 Gure Jesus Jauna izan zen, dio Trentoko kontzilioak, penitentzia sakramentua sortu zuena, bereziki piztu ondoren jarraitzaileen gainean hitzok esan zituenean: *Har ezazue Espiritu Santua. Zuek barkatzen dizkiezuenen bekatuak barkatuak geldituko dira eta atxikitzen dizkiezuenak atxikirik geldituko dira.*

Ekitaldi hain deigarri honekin eta hitz hain argiok, dio Trentoko kontzilioak, Eliz Guraso denek, iritzi berarekin beti ulertu zuten bekatuak barkatzeko eta atxikitzeko boterea apostoluei eta zilegizko jarraitzaileei eman zitzaizela, bataiatu ondoren bekatuan eroritako fededunak adiskidetzeko.

KB1.307.1.7 Sakramentu hau hain da beharrezkoa, ezen graziaren legean ezin baita bekatuen barkamena erdietsi sakramentu honen bitartez ez bada, edo hartzeko desioa eduki behar da horretarako erraztasunik ez badago.

Salbamenerako hain garrantzizkoa baita, nahitaez hurbildu behar da bertara egokiro hartu ahal izateko, jarrera batzuekin, eta garrantzizkoena arimaren azterketa ongi egitea da.

Arimaren azterketa egitea zera da zintzoki eta zehazki batek egin dituen bekatu guztien bilatzea, aitortu ahal izateko.

KB1.307.1.8 Zera da burua eta memoria ongi erreparatzea egindako egintza txar eta pentsamendu oker guztiak gogoratzeko. Hau beti egin behar da aitortzera joan baino lehen egindako bekatu larri guztiak gogoratzeko, eta hala denak errefusatzeko, egin izanagatik samina sentitzeko, eta bat bera ere laga gabe aitortzeko, eta aurrerantzean dena ekiditeko.

Hau hain da beharrezkoa, ezen bekatu larriren bat aitortu gabe geldituko balitz azterketa arinegia izan delako-edo sakrilegio egingo bailitzateke, eta ez genuke ez sakramenturik eta ez bekatuen barkamenik jasoko.

KB1.307.1.9 Arimaren erabateko lasaitasuna ziurtatzeko azterketa nahitaezkoa da, ez bakarrik aitortu baino lehen, baita egunero ere lotara joan aurretik.

Arimaren azterketa ongi egiteko edozein gauza garrantzitsua egin aurretik jarriko genukeen aparteko arreta bera jarri behar da, bada gure salbamenaz ari gara, eta hau da mundu honetan ardura sorrarazi behar digun negozioirik garrantzitsuen.

KB1.307.1.10 Azterketa hau egokiro egiteko eta era honetan aitorten on bat burututa baldintza egokietan jartzeko, hiru gauza dira beharrezkoak: 1. Nor bere barruan bildu behar da eta Jainkoari grazia eskatu bekatua guztiak ezagutzeko eta haiek egin izanagatik samina sentitzeko. Askotan grazia hau eskatu arren inoiz ez da nahikoa izango, bada Bera da eman diezazkigukeen bakarra.

KB1.307.1.11 Gero kontzientzia zehaztasun handiz aztertu behar da Jainkoaren eta Elizaren aginduen inguruan, zazpi bekatu nagusien gainean, gorputzezko eta espirituzko errukizko egintzei buruz, zentzumenen erabilera okerraren inguruan, lanbideko obligazioen aurkako hutsuneen gainean, pentsamenduak, irriksak, hitzak eta egintzak, eta Jainkoaren aurkako bekatuei buruz, lagun hurkoaren aurkakoen inguruan eta norberaren aurkakoen gainean.

KB1.307.1.12 Norberak aztertu behar dituen bekatuak era bereziz eta kontu handiz ohiko bekatuak dira, norberaren egoerakoak eta lanbidekoak, etsaitasunak eta norbaiti egindako kalteak; bada haiek dira eskuarki arreta gutxien ematen diegun bekatuak.

Ez da nahikoa egin diren bekatuak aztertzea, kasu eman behar zaizkie egingo gienutenei, abagunea izan bagenu. Bekatuok, eskuarki, dira gehienetan egitera lerratzen garenak, eskuarki ez diegu herra erakusten eta ez dugu ardura nahikoa jartzen saihesteko, ez garelako horietara garamatzaten abagunetatik urruntzen.

KB1.307.1.13 Egin diren bekatuetan lau gauza hartu behar dira kontuan: nolako izaera duen egindako bekatuak; nolako maneraz erori den bat bekatu horretan; erortzeko izan dugun motiboa edo kausa; eta bekatuak sortu dizkigun efektuak.

Bekatu baten kalitatea eta mota egokiro aztertzeko kontuan hartu behar da nola egin zen, edo pentsamenduaz, edo irrisaz, edo hitzez edo egintzaz, edo bestela, egin behar zen egintzaren bat egin ez zelako; eskandalua egon zen edo beste baten bekatuan esku hartu genuen.

KB1.307.1.14 Bekatu batean nola erori den modua aztertzeko gogoan izan behar dira zein izan ziren zirkunstantziak, bekatuaren izaera aldatzen duten edo ez, edo larritasuna gehitzen edo murrizten duten. Esate baterako: zinen bat egin bada eta zin egiterakoan esan bada *Jainkoaren buruagatik* edo *Jainkoaren erraiengatik*, ez da zin bat soilik, birao bat baizik; lapurtu bada, baina Elizan, Elizako gauzak ziren edo txakur txiki bat besterik ez den izan; Elizan egin bazen lapurretara, bekatua areagotzen duen abagunea da; txakur txiki bat besterik ez bazen izan, murrizten duen abagunea da; gertatzen bada ez zela Elizan soilik izan, baizik Elizarenak diren gauzak eta nolabaiteko balioa dutenak, bekatuaren izaera aldatzen dituzten zirkunstantziak dira eta sakrilegio bihurtzen dute.

KB1.307.1.15 Bekatua egitera bultzatu gaituen kausa egokiro aztertzeko kontuan hartu behar da bekatu horrekiko irrisa edo joera gaiztoa dugun, edo hartu dugun ohitura, edo izaera, edo eduki genuen abagunea, edo malizia hutsa, etab.

Bekatuak sortu zituen efektuak egokiro aztertzeko lagun hurkoari kalte egin zion pentsatu behar da, bere ondasunetan edo bere ohorean, norbait haserretzeko motiboa izan zen edo horren ondorioz gure aurkako gorrotoa norbaitek sentitu zuen, etab.

KB1.307.1.16 Azkenik, arreta eman behar zaio bekatuan erortzeko erraztu zuen egoerari, esan nahi baita, inklinazioak, irrisak, hartutako ohiturak, Jainkoa iraintzeko izan genituen abaguneak, tratua izandako pertsonak, egin ziren negozioak, sarritan egondako lekuak, eta gure bekatuak ongi ezagutzera eraman gaitzaketen bestelako gauzak.

KB1.307.1.17 Norbaitek bere burua aztertzen duenean ahalegindu behar da bekatu larriak eta arinak bereizten; bada bekatu larriak Jainkoaren grazia galtzera baikaramatza, eta penitentziak sakramentuak soilik barka baikaitzake, nahitaezkoa da aitortzea larrialdi hau duten guztiak, bat bera ere laga gabe, eta horiengatik arinengatik baino samina handiagoa sentitzea.

KB1.307.2 Bigarren saila **Damu osoaz, penitentzia sakramentuaren lehenengo zatia.**

KB1.307.2.1 Aitorpena egiten duenak erakutsi behar duen lehenengo gauza eta printzipalena, penitentzia sakramentua hartzeko, damu osoa da, esan nahi baita, Trentoko kontzilioaren iritziz egin diren bekatuekiko barne dolua eta samina, aurrerantzean gehiagotan ez direla egingo hitz emanez.

KB1.307.2.2 Sakramentu honen zatirik garrantzitsuena da; batzuetan, baita ere, bekatuen barkamena har daiteke, aitortzeko aukerarik ez dagoenean eta ezinezkoa egiten denean, baina orduan zeinu eta seinale batzuk erakutsi behar dira Jainkoari irain

egin zaiola adieraziko dutenak; izan ere, damu osoak badu bere baitan aitortzeko irrika bizia eta egindako bekatuengatik zorrak kitatzea, eta hau aski da, apaizaren askespenarekin, penitentzia sakramentua gauzatzeko eta berezkoa duen indarra eta bertutea emateko.

KB1.307.2.3 Damu osoari dolua deitzen diogu Jainkoari egindako iraina bihotzean sentitzen delako damuz eta saminez. Damu osoa deitzen diogu eta ahultze esan nahi du, gizakiaren bihotza penitentiaren bitartez hausten edo ahultzen edo apaltzen eta Jainkoaren menpean jartzen dela aditzera emateko.

Dolu honek bolondresa behar du izan, nahita egindako bekatu baten barkamena erdiesteko egiten delako.

Trentoko kontzilioak bi damu oso mota bereizten ditu: bata perfektua deitzen da eta honi damu osoa deitzen diogu, eta bestea ez-perfektua eta honi beldur damua deitzen diogu.

KB1.307.2.4 Damu osoa, dio kontzilio sakratuak, perfektua da Jainkoari diogun maitasunaz eta karitateaz bultzatuta egiten denean, eta gizakia Jainkoarekin adiskidetzen du penitentzia sakramentua hartu baino lehen, bere baitan duelako hartzeko borondatea.

Beldur damuak, kontzilio beraren ustez, bekatuaren lotsa eta itsusia ematen du pentsatzera eskuarki, edo zigorrarekiko beldurra eta jarraitzen zakizkion penekin.

KB1.307.2.5 Hemendik ateratzen da damu oso perfektua Jainkoari irain egin izanagatik dugun samina dela, infinituki ona delako eta infinituki atsegina eta perfektzio infinituengatik maite dugulako.

Beldur damua da Jainkoa iraintzeagatik dugun samina, bekatuarekiko sentitzen dugun herra, gure izaera deformatzen duelako, edo Jainkoaren epaiei eta justiziari beldur diegulako, edo infernuko sufrimenduen eta penen aurrean beldur antza sentitzen dugulako.

KB1.307.2.6 Trentoko kontzilio sakratuak diosku bekatuaren samina, zeinari beldur damua deitzen dion, barkamenaren itxaropenarekin bekatu egiteko irritsa alde batera uzten bada, Jainkoaren doea dela eta Espiritu Santuaren mozioa, penitentzia egilearen baitan ez dagoena oraindik, baina zeina bultzatzen eta mugitzen duena, eta zeinaren laguntzaz justiziarako bidea preparamen den. Eta nahiz eta beldur damu honek berez, sakramenturik gabe, ezin duen bekataria garbitzera eramanez, hala ere, preparamen egiten du, sakramentu honetan Jainkoaren grazia erdiesteko.

KB1.307.2.7 Trentoko kontzilio sakratuaren dotrina honetatik atera behar da beldur damua, penitentzia sakramentuan Jainkoaren grazia jasotzeko jarrera hurbila baita, nahikoa dela sakramentu honetan bekatuen barkamena hartzeko, bekatuen aitortzarekin eta apaizaren askespenarekin bat egiten badu.

KB1.307.2.8 Alabaina, dolu hau beldur damua deitu duguna erabat alferrikakoa izango zen sakramentu honetan Jainkoa ez beste motiboren bat egongo balitz tartean, bada bestela balitz, ez litzateke Espiritu Santuaren mozioaz gertatuko.

Beraz, beldur damuan Jainkoari egindako irain-dolua sentitzen bada bekatuak lotsa eta itsusia sorrarazi dituelako, izan behar da bekatuak Jainkoa iraintzen eta laidoztatzen duelako, edo lotsagarria delako kristauarentzat, apostoluak esan bezala Jesusen kide baita, bekatuan prostituitzea. Eta infernuko tormentuei eta oinazeei diegun beldurragatik izango balitz, izan behar da halakoetan norbera Jainkoaren etsaia delako, edo Jainkoaren mendekua eta justizia bihurtzen delako, edo zorionik gabe geldituko litzatekeelako, hots, Jainkorik gabe; edo gisa honetako beste motiboren bat edo besterengatik.

KB1.307.2.9 Ordea, dolu hau ikusten bada egindakoan sentitu den lotsagatik eta itsusiagatik soilik, edo infernuko oinazeak izugarriak direlako, Jainkoa kontuan hartu gabe, orduan, arrazoi natural hutsarengatik izan bada, bera ere gizatiarra eta naturala bihurtzen da, eta ez da egiaz errefusatzeko bekatuari diogun gorrotoagatik, hots, Jainkoari iraina egin izanagatik, baizik-eta berez lotsagarri izateagatik, hau da, arrazoi naturalak eskatzen digulako, edo bekatuak berarekin daraman ordainagatik soilik.

Era honetan, ez du Jainkoa azken jomuga, sorkaria baizik, dolu hau nahasmendutik eta sufrimendutatik libratu nahi duelako. Bekatariek, alabaina, justifikatuak izaten hasten dira, Trentoko kontzilioak berak dioskun bezala, Jainkoa justizia ororen iturri gisa maitatzen hasten direnean, horregatik bekatuen aurka joaten badira ez da izango soilik egindako bekatuei gorrotoa eta ukapena erakutsi nahi dielako errudun sentituz.

KB1.307.2.10 Hala gauzak, kontrizio perfektuaren eta ez-perfektuaren (beldur damua) artean dagoen desberdintasuna zera da, perfektuak, karitate-ekitaldia izanik, duen motibo bakarra Jainkoarekiko maitasun garbia dela, eta bekatua aitortu baino lehen barkatzen duela; beldur damuak, hots, ez-perfektuak, bekatuaren itxuragabetasuna izanik, edo beldurra, edo itxaropena Jainkoarekiko hasierako maitasunaz lagunduta, ezin du bekatua ezabatu eta ezta galdutako grazia ere itzuli, ez bada penitentzia sakramentura jotzen eraginkortasunez.

Kontrizioaren eta beldur damuaren arteko desberdintasunaren kausa beren motiboen arteko desberdintasuna da, arestian aipatutakoak, eta batean eta bestean aurkitzen den Jainkoarekiko maitasuna; bada, San Agustinen dotrina jarraituz, dolu orok maitasunean du jatorria.

KB1.307.2.11 Gauzak hala, Jainkoarekiko maitasun bi mota daude, hauetako batek kontrizioa sortzen du eta besteak beldur damua. Kontrizioak sortzen duen Jainkoarekiko maitasuna adiskidetasunezkoa edo onginahizkoa deitzen da, eta honen bitartez Jainkoa maitatzen da Bere amoreagatik soilik, eta delako maitasuna perfektua da. Bestea interes propioagatik da maitasuna, eta honen bitartez ez da Jainkoa maitatzen Jainkoa delako baizik eta norbera delako; eduki nahi delako ongi subirano gisa, edo galtzeko beldurrez; eta delako maitasuna ez-perfektua da.

KB1.307.2.12 Jainkoa iraintzeak beste bi samin dakartza eta bi maitasunotan dute jaiotza. Lehenengoa da bat oso kezkatuta sentitzen dela Jainkoa iraindu duelako, ona baita Jauna eta hamaika haren perfektzioak. Samin hau perfektua da eta kontrizioa deitzen diogu. Bigarrena da batek uste duela ez dela atsegina izan Jaunarekin, baina ez harekiko maitasuna erakutsi ez duelako, baizik eta norberaren maitasuna jarri duelako aurretik, beldur garelako ez ote garen geldituko Jainkoak guretzat preparatuta dauzkan

onginahirik gabe, edo haren haserrealdia ren menpean erori garelako. Samin hau ez-perfektua da, eta beldur damua deitzen diogu.

KB1.307.2.13 Jainkoarekiko beldurra damu osoan nahiz beldur damuan aurkitzen da, baina badago desberdintasuna bataren eta bestearen artean. Damu osoan, beldurra ez da motiboa, baizik eta karitate hutsa eta Jainkoarekiko maitasun perfektua; eta beldur hau Jainkoarekiko maitasunaren ondorioa baita, damu osoaren motiboa alegia, beldur abegitsua da, semeek eta alabek gurasoekin dutena bezalakoa, horregatik seme-alabena deitzen diogu. Aitzitik, beldur damuaren motiboa denean, karitate-ekitaldi formalik gabekoa eta baita Jainkoarekiko maitasunik gabekoa ere, nagusiarekiko morroi baten maitasuna bezalakoa da, eta motibo horregatik morroiarena deitzen diogu.

KB1.307.2.14 Desberdintasun hauek alde batera lagata, damu osoa eta beldur damua bat datoz beste guztian, eta bataren zein bestearen baldintzak eta ezaugarriak berberak dira.

KB1.307.3 Hirugarren saila

Damu osoak eduki behar dituen baldintzez, eta nola berberak diren kontrizio perfekturako eta ez-perfekturako.

KB1.307.3.1 Penitentzia sakramentuan, hala damu osoak nola beldur damuak sei baldintza eduki behar dituzte, berberak bientzat ala bientzat; bada nahitaezkoa da sakramentu honetan egindako bekatuengatik sentitu behar den dolua gaurkoa, barnekkoa, naturaz gaindikoa, erabatekoa, unibertuala eta eraginkorra izatea.

Gaurkoa behar da izan, bada ez da nahikoa ohituraz bihotzean sentitzea; dolu ekitaldiak egin behar dira penitentzia sakramentua hartzen den unean berean. Trentoko kontzilioak diosku.

KB1.307.3.2 Barnekkoa behar da izan, hots, bihotzaren sakonean sortu behar da; zeren ez malkoek eta ez bestelako kanpoko seinaleek ez baitira benetakoa damu osoaren adierazle hutsezinak, eta ezta beharrezkoak ere; izan ere, ez da beharrezkoak bekatuengatik sentitzen den samina sentikorra izatea, nahiz eta aitortzan nolabaiteko kanporako seinale batzuk erakutsi behar diren.

KB1.307.3.3 Damu osoa naturaz gaindikoa behar da izan, ekitaldi natural huts batekin duelako gure arimak santifikatu.

Naturaz gaindikoa behar da izan jatorrian, Jainkoaren Espirituak sortu behar duelako gure baitan. Trentoko kontzilioak dio Jainkoaren doea dela, esateko ezin garena geurez konbertitu, eta gure ahalegin guztiak honetarako alferrikakoak direla Jainkoaren graziak laguntzen ez bagaitu.

Baita ere, naturaz gaindikoa behar da izan motiboan, zeren bekatuekiko dolu hau, Jainkoa graziaren egile izanik, nolabaiteko naturaz gaindiko motiboren batekin sortu behar baitu, batetik, Jainkoa helburu eta, bestetik, Jainkoak gurekin duen harremana jomuga izango duena, gure arimen betikotasunerako eta gure espirituaren ongirako.

KB1.307.3.4 Saulen damua naturala izan zen, soilik, zeren bekatuaz damutu bazen bakarrik damutu zen bere bekatua medio erresuma galdu zuelako. Antzekoa zen Antiokorena; ez zuen damurik sentitzen berak egindako bekatuengatik, bekatuen

ondorioz jasaten zituen zoritxar guztiengatik baizik. Eta halakoa da, sarri askotan, kristau gehiengo batek sentitzen duen dolua egindako bekatuengatik.

KB1.307.3.5 Erabatekoa behar da izan, zeren dolua maitasunean oinarritzen baita, nahitaezkoa da bekatuengatik sentitzen den dolua, eta Jainkoari irain egitea baita, Harekiko sentitu behar dugun maitasuna lakoia izatea; eta Jainkoa subiranotasunez maitatu behar baita eta gauza guztien gainetik, nahitaezkoa da iraintzeak sortzen digun dolua gure baitan sortu dezakegun edozein gorroto mota baino askoz handiagoa izatea, jakina.

Erabateko dolu hori sentitzen dugula adierazteko erakutsi dezakegun seinalea zera da, beti prest egon behar dugula edozein zoritxar pairatzeko, izugarri handiak badira ere, baita heriotza ere, bekatu bakar bat bera ere egin baino lehen.

KB1.307.3.6 Alabaina, dolu hau erabatekoa izateko, ez da beharrezkoa eduki dugun edozein galera baino sentikorra izatea, edo jasan dugun edozein zoritxar baino sakonagoa izatea. Nahikoa da bihotzaren sakonean Jainkoarekiko eta beronen graziarekiko estimu handiagoa izatea munduan dagoen guztia baino, eta gauza guztien gabezia nahiago sentitzea bekatu bakar bat ere egitea baino.

KB1.307.3.7 Kontrizioak unibertsala behar du izan, hau da, samina sentitu behar dela egindako bekatu larri guztiengatik, bat bera ere ahaztu gabe, eta Jainkoari barkamena eskatzea guztiengatik. Bekaturen bati afektua dion batek, bat bakarra bada ere, ez luke egiazko kontrizioa izango, zio natural batengatik soilik gorrotatuko lukeelako bekatua, baina ez Jainkoari egindako laidoagatik; bada hala balitz, Jainkoa iraintzen duen guztia gorrotatuko luke, eta beraz, bekatu guztiak, larriak bederen.

KB1.307.3.8 Bekatari batek ez luke bekatu guztien barkamena jasoko baldin aldi berean ez bazaizkio bekatu guztiak barkatzen; izan ere, bekatuak egiten dituenak Jainkoaren etsai bihurtzen da, eta bekatuak barkatzen bazaizkio etsai izateari uzten dio bat-batean. Jainkoaren etsai izatea nahiko luke eta izatea utzi nahi. Jainkoaren etsai izatea nahiko luke bekatua maitatzen jarraitzen duelako, eta honek etsai bihurtzen du; eta izateari uko egin nahiko lioke, bekatu batzuk ezabatu nahiko lituzkeelako horretarako. Ezinezkoa nahi izango luke, beraz, eta bere buruari iruzur egingo lioke.

KB1.307.3.9 Bekatuekiko kontrizio unibertsala sentitzeko ez da beharrezkoa bekatu guztiak gogoan edukitzea, adimenean. Nahikoa da, eskuarki, denak gorrotatzea salbuespenik gabe. Sarritan, ezta komenigarria ere izaten bekatu partikular bakoitzari arreta berezia ematea.

Kontrizioa eraginkorra izan behar da, eta ez litzateke egiazkoa izango bihotzean izango ez bagenu berriro bat bera ere egiteko asmorik. Hau da Trentoko kontzilioak irakasten diguna; ebazpen honek irmoa, unibertsala, eraginkorra eta betikoa behar du izan.

KB1.307.10 Irmoa izan behar du hiltzea ere hobetsi behar delako Jainkoa iraindu baino lehen. Unibertsala izan behar du bekatu bat bera ere ez egiteko asmoa erakutsi behar dugulako, edozein delarik ere, eta nahiz eta bekaturen bati-edo atxikimendu handia eduki diogun. Eraginkorra izan behar du, gauzatzeko erabaki irmoa eduki behar dugulako, tentazioak izan arren, nahiz eta eragozpenak eta oztopoak eduki. Eta betikoa

behar du izan, formulatzekotan ez delako formulatu behar egun bakar baterako soilik edo denbora baterako, betiko baizik.

KB1.307.11 Kontrizioa eraginkorra izan dadin erdiesteko eta baita Jainkoa gehiago ez iraintzeko hartzen den asmoa, zeina penitentzia sakramentuan hartzen baita, nahitaezkoa da erabakita egotea ohiturazko bekatuak gehiagotan ez egitera eta horrekin batera muzin egitea bekatu egiteko abagune guztiei. Bada batek ez badu halako determinaziorik, bekaturen bati atxikimendua diola esan nahiko baitu. Alabaina, ezinbestekoa da bat bera ere ez egotea, prest egiteko urrikalmendua eta barkamena hartzeko.

KB1.307.12 Bekatu abagunea zera da, egitera garamatzen edozein aukera edo arriskuan jartzen gaituen oro berean erortzeko. Delako abaguneak hurbilak deitzen dira bekatu larrian eroriko garen ziurtasun handia dagoelako. Halako kasuan, ezin da bat gelditu abagune horretatik urrundu gabe, ez delako inoiz on Jainkoa iraintzeko abagune ziur batean jartzea.

KB1.307.13 Bekatu larri bat egiteko bi abagune hurbil mota daude. Batzuek berez garamatzate egitera, adibidez, biluziak, koadro eta irudi likitsak, liburuki lizunen irakurketak, askotan izaten diren elkarrizketak gizonezkoak emakumezkoekin, edo mutilak neskekin, etab.

KB1.307.14 Badira abaguneak hurbilak bihurtzen direnak gure jarrera gaiztoa delako, gure ahulezia handia delako, naturaltasunez horretara lerratzen garelako edo ohitura desbideratuak dauzkagulako. Abagune hauek dira, esate baterako, epailearen ofizioa dakienean ez duela justizia behar bezala egingo, dela beldurra duelako, dela ez dakielako edo promesa egin duelako, edo saltzaile batena ezin dionean uko egin iruzur egiteari; jokoia jokoan blasfematzen edo diru guztia galtzen duenarentzat; edo tabernak haietan mozkortzen denarentzat edo gehiegi edaten duenarentzat.

KB1.307.15 Ez da barkamena jasotzeko egoera egokian egoten baldin bekatu-abagune hurbiletatik bat aldentzen ez den bitartean, nahiz lehenengo nahiz bigarren mailakoak izan. Ez da nahikoa utziko direla esatea. Eta norbait aitortzera badoa alde aurretik utziko dituen hitza eman gabe aitortza sakrilegoa da, barkamena jasotzen bada, alferrikakoa da, eta kondenatzeko egoeran jartzen da bat.

KB1.307.16 Egiatzko kontrizioa izateko eta Jainkoa berriro ez dugula gehiagotan irainduko sarri askotan eskatu behar diogu hori, bada Hura beti dago prest guri emateko. Baina, baita ere, maiz egin behar dira ekitaldiak obra on asko lortu ahal izateko. Horretara jo behar dugu Jainkoak egin dizkigun mesede ugari gogoratuz, Jesusen heriotzaren eta sufrimenduen inguruan gogoeta eginez, zenbat eta zenbat bekatu egin dugun gogora ekarriz, eta horien guztien aurka sentitu behar dugun nazka tartean izan behar dugulako.

Behar diren baliabide guztiak hartu behar ditugu gogoan ohiko bekatu guztiak alde batera lagatzeko, egiten diren beste guztien iturri bilakatzen direlako, eta kontuan hartuta aitortzak ez duela deusik balio izango baldin berriro bekatu horietan erortzeko ahalegina egiten ez badugu.

Egunero egin behar dugu bekatuaren aurkako zerbait, konpainia gaiztoak lekutu, eta batik bat pertsona batzuk, baldin horiekin badugu bekatu egiteko ohitura edo arrisku bizia, eta, baita ere, usu hitz egin jaiera handia duten pertsonekin.

KB1.307.17 Abagunetik lekutzeko eta erabaki zuzenetan irauteko, egunero, goizez, berrizatu behar dira aitortzan hartu ziren erabaki zuzenak, aitorle berarekin bekatuak aitortu, eta tentatua sentitu bezain azkar tentazioari etsi.

KB1.307.18 Egindako bekatuengatik benetako damua dugun seinalea eta berriro ez erortzeko erabakia hartuta dugun zeinuak ondorengo hauek dira: lehen bekatua eramaten zuen guztitik urruntzea; beraietan ez erortzeko baliabideak bilatzea eta praktikan jartzea; aitorleak jarritako zigorra atsegin handiz betetzea eta norberak ere zigorren bat jartzea bekatutan berriro erori bezain azkar.

Lagun hurkoari gorroto diotenek erakutsi dezaketen dolu-frogarik hoberena harekin bakea egitea da; gaizki irabazitako ondasunak dutenek, itzuliz; difamatu dutenek, lagun hurkoaren izen ona erreparatu; eta denek, jokaera aldatuz eta Jainkoaren justiziarri zorrak kitatuz. Hau da aitortu baino lehen egin beharko zena, aitorleak agindu zain egon gabe, derrigorrez egin behar den bezala.

KB1.307.19 Egunero egin behar dira kontrizio ekitaldiak, bereziki Jainkoa iraindu denean, gauean, oheratu aurretik, egunean zehar ahal den guztietan, heriotzako arriskuan zaudenean eta tentazio izugarri batek norbait erasotzen duenean.

KB1.307.20 Kontrizio ekitaldia era honetan egiten da: Ene Jainko oso damututa nauzu iraindu zaitudalako, guztiz ona zarelako eta bekatuak nazka ematen dizulako. Zure grazia santuaren laguntzaz, erabakitzen dut ez zaitudala inoiz gehiago irainduko, bekatuen zorra kitatuko dudala eta ahalik eta lasterren aitortuko naizela.

Kontrizioa egiazkoa denean guregan barkamena sortzen du eta, gainera, baita ere, bekatuek merezi duten pena denboralaren murrizketa zati bat; Jainkoak, jakina, zigor hau jasan dezagun nahi du, bekatuen zorra kitatu ahal izateko.

KB1.307.4 Laugarren saila

Aitortzaz, penitentzia sakramentuaren bigarren zatia, eta bertan eman daitezkeen akatsez.

KB1.307.4.1 Betidanik egon da indarrean bekatuen aitortpena Elizan. Apostoluen Eginak liburuan dugu honen lekukotasuna, 9. kapituluan; hor esaten da sinetsi zuten askok aitortpena egitera jotzen zutela eta egindako gaizkia deklaratzeko zutela.

KB1.307.4.2 Eliz Gurasoek berresten digute ohitura honen jarraipena. San Ziprianok bataiatu eta gero idolatrian edo bekatuan erori zirenei egindako sermoian, apaizari pentsamenduz egindako bekatuak saminez aitortzen dituztenak laudatzen ditu, eta era berean bihozmina eta kontzientzia ona erakusten dituztenak, egindako zaurien orban bilatzen dutelako, nahiz eta txikiak eta garrantzi gutxiak izan.

KB1.307.4.3 San Basiliok, bere Araudietan, esaten du derrigorrez azaldu behar dizkiegula bekatuak berarek jasotzeko agindua hartu dutenei eta orobat Jainkoaren misterioak emateko lanbidea dutenei, gure asaba zaharrek hala egiten zutelako norma

berari jarraituz. San Leonek bekatu ezkutua denen aurrean esatea debeketzen du, nahikoa delako kontzientzia txarrez egindako hobenak apaizek soilik ezagutzea aitorten sekretuaren bitartez.

KB1.307.4.4 Eliz unibertsalak beti esan izan zuen, eta hala deklaritzen du Trentoko kontzilio sakratuak, bekatuen aitortpena Jesusek Gure Jaunak sortu zuela, eta derrigorrezkoa dela, jainkozkoaren aginduaz, bataiatu eta gero bekatuan jauzi diren ororentzat. Aitorten honi bigarren baldintza hurbila deitzen diogu penitentzia sakramentua hartu ahal izateko, eta, baita ere, sakramentuaren parte oso garrantzitsua da.

KB1.307.4.5 Aitortza, hala azalduta, bekatu guztien aldarrikapen eta akusazio nahierazkoa eta sekretua da, gotzainak aprobatutako apaiz bati egindakoa, barkamena jaso ahal izateko.

Akusazioa dela esaten da, aitortzan ez direlako bekatuak esan behar zerbaitetik onik ateratzeko, historiaren bat kontatuko balitz bezala; aitzitik, deklaratu behar dira akusazio espirituarekin eta kondenatuz, norberaren baitan mendekua hartu nahi izanez. Eta baita ere, jakitera emateko bekatuen akusazioa egin behar dela, eta ez desenkusatu, Evak egin zuen bezala, tentatu zuen deabruari errua leporatuz; edo Adanek bezala, norbait leporatuz egitera bultzatu zuela.

KB1.307.4.6 Aitortza nahierazko akusazioa dela esaten da, kriminalek epailearen aurrean egiten dutenarekin desberdintzeko; azken hau bortxatua izaten da eta hertsatuta egiten dute.

Sekretua izan behar dela esaten da eskuarki sekretuan egiten delako, baina batik bat jakitera emateko aitortpena entzuten duen apaiza derrigortuta dagoelako aitortzera joan denaren bekatu guztiak hautsi ezinezko sekretuan gordetzera.

KB1.307.4.7 Aitorten hau norberaren bekatuena izan behar da eta ez besteena, hauek isildu egin behar dira aitortzan; eta norbait behartuta badago pertsona baten izena ematera, egin duen bekatuak zer-nolako izaera duen ezagutzera emateko, nahikoa da esatea delako pertsonaren kondizioa, esate baterako: lekaide bat, lekaime bat, edo apaiz bat, edo gizon ezkondu bat, edo andere ezkondu bat; edo zer-nolako ahaidetasuna duen esatea: nire anaia da, edo nire arreba, nire lehengusua edo lehengusina, bigarren, hirugarren edo laugarren gradu. Eskuarki, ez da gehiagorik esan behar, aitortzan gaitz esatean ez erortzeko.

KB1.307.4.8 Bekatu guztiez esaten da hau, bada aitortzan bekatu guztiak esan behar dira, larrienak behintzat; eta bat edo beste isilduko balitz, aitortza alferrikakoa eta sakrilegoa izango litzateke. Dena den, obligazio hau betetzeko nahikoa da batek gogoratzan dituen bekatuak aitortzea. Hau da Trentoko kontzilio sakratuak deklaritzen duena esaten duenean kontu, arreta eta gogo handia hartu ondoren batek deklaritzen dituenak, esaten ez direnak ere barne daudela, orokorrean, aitorten berean.

Delako kontzilio sakratuak dio baita ere, ezen bekatu guztiak aitortzeko aitortpenean argitu behar direla bekatu mota guztien abaguneak. Eta honetarako ematen duen arrazoa zera da, bestela, dio, bekatuak ez ziren nahikotasunez azalduta geldituko aitortpena egiten duenaren aldetik, ezta nahiko ezagutuak ere aitortlearen partetik; izan

ere, hauek, aitorleak, epaileak dira, esan nahi baita, bekatuaren larritasunaren inguruan estimu zuzena egin behar dutenak, penitentzia burutu behar dutenei zigor egokia ezartzeko.

KB1.307.4.9 Kontzilioak berak bi arrazoi ematen ditu bekatariek beren hoben guztiak aitortzeko, ez eskuarki, baizik eta detaileak emanez eta zehatz-mehatz. Lehenengoa da aitorleak, Jesusek eman baitie aginpidea bekatuak barkatzeko edo ez barkatzeko, eman ahal dezaten barkamen edo kondena epaia, zeren begien bistakoa baita ezingo luketela delako aginpidea gauzatu kausa-ezagutzarik gabe, eta ezta justuak izan zigorra jartzeko orduan, penitenteek bekatuak orokorrean esango balituzte eta ez xehetasunez eta zehatz-mehatz. Arrazoi honek frogatzen du baita ere ezin direla aitortzen esan egin ez diren bekatuak.

KB1.307.4.10 Bigarren arrazoiak da bekatu larriek, pentsamenduzkoek ere bai, gizakiak koleraren semeak eta alabak egiten dituztela eta, gainera, Jainkoaren etsaiak, horregatik da beharrezkoa hoben guztien barkamena eskatzea aitortzen zintzoaren bitartez.

KB1.307.4.11 Aitorpenean nahi izanda bekatuen bat ezkututzen dutenak, dio kontzilio berak, ez diote Jainkoari apaizak barka dezakeen ezer aurkezten; hemendik atera behar da aitortuak izan diren beste bekatu guztiak ez zaizkiela barkatzen, eta egin duten aitorpena izugarritzko bekatua eta sakrilegioa dela.

KB1.307.4.12 Nahiz eta Trentoko kontzilioaren arabera ez den erabat beharrezkoa bekatu arinak aitortzea, ez digutelako Jainkoaren grazia kentzen eta beste baliabideez barkatuak izan daitezkeen, hala ere, dio, mesedegarria eta eraginokorra dela egitea, zeren Penitentzia sakramentuaren bitartez grazia eta ziurtasun handiagoz barkatzen baitira, eta aitortzen ditugunean hobeto ikasten dugu nola ezagutu eta nola zuzendu; eta, azkenik, baliabide oso egokia delako geroago bekatu larriak ez erortzeko, sakramentuan grazia ugari jasotzen direlako eta aitortzen dituztenek bekatu txikiak garbiketa atzeman dezaketelako, bekatu handiagoak ez egiten ahalegin handia jarri.

KB1.307.4.13 Esan daiteke, are, bekatu arinak soilik egiten dituztenak eta ez dituztenak aitortzen, arriskuan jartzen direla bekatu larriak erraztasunez erortzeko, penitentzia sakramentua hurbiltzeko arretarik jarri ez dutelako, zeina ez baita soilik erremedio oso egokia bekatu astunak barkatzeko, baizik-eta, baita ere, etorkizunean berorietan ez erortzeko antidoto bikaina.

Trentoko kontzilioak dio, eta hala esaten da, bekatuak aitorle bati esan behar zaizkiola, jakitera emateko barkamena erdiesteko ez dela nahikoa Jainkoari bekatuak bihotzaren barruan aitortzea, eta apaizek bakarrik daukatela agintea penitentzia sakramentuan barkatzeko.

KB1.307.4.14 Esaten da, azkenik, bekatuen aitorpena barkamena hartzeko egin behar dela, jakitera emateko ez direla aitortzen bakarrik deklaratzeko edo haiei erremediorik jartzeko, edo umiliatzeko, baizik eta apaizaren askepenaren bitartez barkamena erdiesteko.

Badaude aitortzen egin daitezkeen akats garrantzitsu batzuk, eta hauek, eskuarki, alferrikakoa eta sakrilegioa egiten dute. Komeni da fededunak hauetaz jakin gainean jartzea, kontu handiz ibil daitezen berorietan ez erortzeko.

KB1.307.4.15 Adibidez, akats garrantzitsu bat da bekatu batzuk ez aitortzea, nahiz eta ahantzi, azterketa ez oso serioa edo arinegia egin delako aitortu aurretik, bada halako kasuan aitortpena baliogabea eta sakrilegoa da.

Ez da gauza bera gertatzen batek bekatu batzuk ez dituenean gogoratzen azterketa serioa egin arren; bada, orduan, dio Trentoko kontzilioak, aitortutakoen barnean daudela kontsideratzen dira, eskuarki, besteak aitortzen direnean. Hauek dira profetak gogorarazten diguna esaten duenean: *Garbi iezazkidazu, Jauna, nire bekatu ezkutua.*

KB1.307.4.16 Batzuetan pertsona dorpeak topa ditzakezu eta berez ez dira gauza izaten egindako bekatuak behar bezala ezagutzeko ez dutelako oroimen egokirik; hauei, jakina, ezin zaie bekatuak ahanzte leporatu. Pertsona hauek aitortuari eskatu behar diotena laguntza da, bekatuak gogoratzeko laguntza; orduan, honek galderak egingo dizkie.

KB1.307.4.17 Alabaina, batzuek bekatuak aitortzera joateko asmoa bai baina bekatu batzuk ez aitortzeko asmoa izango balute, aitortleak ez badie galdetzen, sakrilegioa egingo lukete.

Aitortzerakoan egin daitekeen beste akats handi bat zera da, beharrezkoa zer den jakin gabe aitortzea, jakin behar zenean; esate baterako, norbait gure erlijioko misterio nagusien inguruko gaiak ez ezagutzea ardurarik izan ez duelako, bada errudun izan daiteke bat ezagutzen ez diren denbora guztian.

KB1.307.4.18 Akats larria da, baita ere, bekatu bat ez aitortzea, batek ez dakielako bekatua dela, jakin behar zuenean. Baina, hau da askotan gertatzen dena, batik bat behar bezala eskolatu ez direnen artean. Esate baterako, abokatu bat edo prokuradore bat aitortzera doa eta ez ditu beren lanbideko bekatuak aitortzen ez dituelako ezagutzen. Era berean sendagile bat, baldin bere laneko bekatuak aitortzen ez baditu ezagutzen ez dituelako; edo merkatari bat daukan negozioan egin daitezkeen bekatuak ez dituelako antzematen. Hau da arrazoiak ez aitortzeko, eskuarki.

KB1.307.4.19 Gauza bera gertatzen zaie elizara joan ez eta horregatik jakin gabe gelditu direnei aste horretan barau egun bat dagoela: okela jan dute eta baraurik egin ez. Ezjakite hau ezin da desenkusatu. Edo norbaitek zalantza egin bazuen hau edo bestea bekatu zela, eta egin aurretik informaziorik eskatu ez duelako ez baditu aitortu. Ezjakite hau aurrekoa bezain erruduna da, eta aurrekoa bezala, aitortza mota hau alferrikakoa dela jakin behar du.

KB1.307.4.20 Baita ere, izaera bertsuko akatsak dira lotsa dela-eta edo beldurra tartean sartzen delarik aitortu gabe uzten diren bekatu guztiak; edo bekatuen bat zuzitzea aitortleak pentsa dadin berez dena baino arinagoa dela; ez esatea, edo bekatuen kopurua edo zertzeladak ezkutetzea daukaten izaera aldatzeko asmoz. Hobe lukete era honetan jokatzen direnek aitortpenari uko egingo baliote, izan ere, era honetan deklaraturako bekatu bat bera ere ez zaie barkatuko, eta ondoren, eskuarki, ez dute kontzientzia lasaitasunik izaten.

KB1.307.4.21 Lotsaren eraginpean jartzen denak jakin beharko luke bekatuak Jainkoari esaten zaizkiola, eta Hark ezagutzen dituela; ez dagoela inor Jainkoa iraindu ez duenik; zorion handia dela aitortzan bekatuak esateko aukera izatea, zuzendu nahi denean eta

ezabatu nahi direnean; mundu honetan deklaratu behar direla edo kondenatua izan; eta aitorleak ezingo duela bekatu horietaz hitzik esan inoiz Jainkoaren uste ona galdu nahi ez badu eta betiko sutara joan.

Gogoeta hauek aski serioak dira aitorleak lotsa alde batera laga eta hala aitorpen txarrak ez egiteko.

KB1.307.4.22 Azkenik, kontuan hartzeko akatsa da aitortzeko baimenik ez duen aitorle batekin aitortzea; aitortzeko momentuan ez edukitzea aitorleak jar dezakeen penitentzia betetzeko asmorik; edo bekataria benetako damurik izan gabe aitortzea edo berriro egingo ez diren bekatuekiko erabakia ez hartzea. Hau da aditzera ematen dena bekatuen abagune hurbilak saihesten ez direnean, aitortzerakoan norbaitekiko gorrotoa mantentzen denean, iraindu duzun norbaiten izen ona edo ohorea berriro itzultzen ez duzunean, edo norbaiti bere ondasunak ematen ez zaizkionean bidegabekeriaz lapurtuta, eta aitortu ondoren beti bekatu bertsuetan erortzen zarenean.

KB1.307.4.23 Abagune hauetan guztietan, halako egoeretan egindako aitorpenak sakrilegoak dira, eta bekatuen barkamena jasotzeko, berriro aitortzeko obligazioa dago, behar diren baldintzak kontuan hartuta, baliogabetzat eman ziren aitorpenetan deklaratu ziren bekatu guztiak. Baina sarri askotan erraza ez baita deklaratu ziren bekatu guztiak gogoratzea, hoberena eta egokiena izango da, eskuarki, bizitza osoko aitorpen orokorra egitea.

KB1.307.4.24 Bekatu berean erortzen da gisa desegokiz egindako bekatuak banan-banan eta oso argi deliberatuki esaten ez direnean; bada beharrezkoa da aitortzen den bekatuaren gainean esatea zenbatetan erori den horretan. Bada, adibidez, behin bakarrik blasfematu bada, bekatu bakarra dugu, baina hamabi aldiz egin bada, hamabi bekatu dira, eta beraz deklaratu egin behar dira, bestela aitorleak ez luke epai zurrta eta ongi oinarritua egingo.

Baldin batek ez badu gogoratzen zenbat aldiz egin duen bekatu bat, esan behar da egunean, astean edo hilabetean, zenbat aldiz egin den gutxi gorabehera, eta aitorpenean esan, adibidez, Jainkoaren izena blasfematu dut egunean hiruzpalau aldiz, edo astean, edo hilabetean, eta gutxi gorabehera esan zenbat aldiz egin duen bekatu. Eta era bertsuan jokatu behar da egin diren beste bekatuekin.

KB1.307.4.25 Baldin bekatuaren bitartez lagun hurkoari min egin badiogu, nahitaezkoa da aitorpenean esatea, eta zertan egin diogun kalte, bere ondasunetan izan bada, bere ohorean, bere bizitzan edo ariman. Baldin, adibidez, norbaiti eskandalua sortu badiogu, eta delako eskandaluak Jainkoaren izena iraintzera bultzatu bazuen.

Ezin ditu batek gauza hauek guztiak utzi esan gabe aitorpenean.

KB1.307.4.26 Aitorpen taxuzko batek dakartzan mesedeak zera hauek dira; batetik, bekatuak barkatzeaz gain, hurrengo batean saihesteko behar dugun grazia lortzen digu; ohitura txarrak garaitzen ditu eta deabruaren tentazioei aurre egiten die; bestetik, arimari Jainkoaren maitasuna itzultzen dio eta beronen bitartez sekulako kontzientzia lasaitasuna ematen.

KB1.307.5 Bosgarren saila
Ministroaz, askespenaz eta penitentzia sakramentuaren gaineko
zeremoniez.

KB1.307.5.1 Penitentzia sakramentuaren administratzea gotzainei eta apaizei dagokie, Trentoko kontzilioak dioskun bezala; hauek, dauden egoeran daudelarik ere, nahiz eta bekatu larriari egon, Jesusen ministroak baitira bekatuak barkatzeko ahalmena dute, ordenatu zirenean hartu zuten Espiritu Santuaren bertuteaz.

KB1.307.5.2 Penitentzia egiten duenaren ekitaldiak, Trentoko kontzilioaren arabera, kontrizioa, aitortpena eta kitagarria, sakramentu honen materia diren bezala, eta jainkozko instituzioa gisa penitentzia egiten duenarengan eman behar baitira, penitentzia sakramentuaren osotasuna eta bekatu guztien eta erabateko barkamena, zeinetan dagoen nagusiki bere indarra eta bertutea, apaizak esaten dituen hitzotan dago: *Nik askesten zaitut.*

KB1.307.5.3 Apaizaren askespena, dio kontzilioak berak, epai ekitaldi moduko zerbaite da, zeinaren bitartez apaizak, epaile gisa, epaia ematen duen, eta ematerakoan barkatzen ditu bekatuak, edozein delarik kantitatea edo kalitatea, baldin aitortzen dituenak aitortpena egokiro egin badu eta haiekiko damua benetakoa bada.

KB1.307.5.4 Trentoko kontzilioak aldarrikatzen badu askespena egiazko epai ekitaldia dela, dio, ez delako bakarrik ministerio hutsa edo bekatuak barkatuak izan direlako deklarazio huts bat, edo otoitz egiteko forma bat edo Jainkoari egiten diogun erregu huts bat non apaizak eskatzen dion penitentzia egiten duenaren bekatuak barkatzeko, baizik eta *Nik askesten zaitut* esaten duenean penitentzia egiten duenaren bekatuak egiaz eta zinez kitatzen dituelako, apaiza ordenatu zenean gotzainak eman zion jurisdikzio-agintaritzagatik honako hitzok esan zizkionean: *Bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatuko zaizkie, eta ez zaizkie barkatuko barkatzen ez dizkiezuenei.*

KB1.307.5.5 Apaizek bekatuak barkatzeko boterea hartzen duten arren ordenatzen dituztenean, Trentoko kontzilio sakratuak aldarrikatzen du, hala ere, ez apaizek eta ez apaizgo erregularrek, ezingo dutela laikoan aitortzarik entzun, ezta apaizena ere, baldin delako apaizak parrokoaren funtzioa betetzeko baimenik ez badu, edo gotzainak ez badu gai ikusten horretarako eta beraz haren onespenerik ez badu.

Arrazoiak kontzilioak berak ematen duena da beste leku batean, hots, askespen bat baliorik gabea dela, baldin eman behar duenaren gaineko jurisdikzio arruntik edo baimenik ez badu delako apaizak; bada ordenaren eta edozein eparen esentziarena da ezin dela inolako eparirik eman laikoa ez badago delako apaizaren menpean.

KB1.307.5.6 Dena den, nahiz eta bekatuak barkatzeko boterea ordenatzerakoan eman apaizei, jurisdikzio boterea, pertsona bat edo beste askesteko, ez dute erdiesten, ordea, arimak zaintzeko boterea dutenean baizik, orduan dute parrokoa bateko pertsonetikiko jurisdikzioa, edo gotzainaren baimena dutenean; honek barrutiko arima guztien gaineko jurisdikzioa baitu eman diezaike apaizei nahi duen neurrian eta moduan.

KB1.307.5.7 Gure antzinako Gurasoek, dio Trentoko kontzilioak, beti pentsatu zuten aparteko garrantzia zuela, kristau herriaren diziplina onerako, bekatu larri batzuk ez zirela edozein apaizak barkatzeko, ezta horretarako onespenerik ez ere, baizik eta

lehen maila zutenek, hau da, gotzainek. Hau dela-eta aita santuek, Eliza unibertsalaren gaineko boterea eman baitzitzaizen, bere esku gorde zituzten nolabaiteko bekatu ikaragarri batzuen ezagutza; eta ezin da zalantzan jarri gotzain guztiek, nor bere barrutian, askatasun bera duela.

Alabaina, ondoren aldarrikatzen du ez dagoela kasu bereziren bat erreserbatuak heriotzaren ordurako, eta apaiz guztiek, baita baimena ez dutenek ere, baldin ezin bada besterik eduki unean berean, askestu dezaketela zentsurarik gabe penitentzia egile guztien edozein bekatu.

KB1.307.5.8 Aita Santuak eta gotzainek, beraz, hartzen dute beren ardurapean aparteko bekatu larri eta eskerga batzuen barkamena, barkamena lortzeko oztopoak geldiarazi ditzan bekatariak eta ez daitezzen eror delako bekatu izugarrietan.

KB1.307.5.9 Apaizak bekatuak barkatzeko eta ez barkatzeko ere boterea duenez, beharrezkoa da aditzera ematea zer den eta zertan datzan delako boterea. Apaizak bekatariari jakinarazten dio zer egin behar duen Jainkoari egin dion iraina ezabatzeke eta, halaber, delako bekatuekin bere buruari egindako zauriak osatzeko; era berean, penitentzia egileari barkamena atzeratzera baldin berau ez badago behar bezala prestatua, dena bekatariari bere salbamenerako hobekien dagokiona izango delarik.

KB1.307.5.10 Edozein apaizak ukatu edo atzeratu diezaieke barkamena gure erlijio santuko misterio nagusiak enoratzen dituztenei, Jainkoaren eta Elizaren manamenduak, hartzera behartuta dauden sakramentuak, etengabeko bekatu larri egoeran daudelako, eta ezin zaielako eman gauza hauek guztiak ez dakizkiten bitartean.

Era berean, barkamena ukatu edo atzeratu diezaieke besteari ebansitako zerbait itzultzen ez dioten bitartean, hartu eta entregatzen ez dituztenei, eta, orobat, lagun hurkoari ohoreari dagokionez egindako kaltea erreparatzen ez dioten bitartean.

KB1.307.5.11 Apaizak ezin dio barkamena eman, ezta ere, norbaiti egindako kalteak sortu duen gorrotoari uko egiten ez dion bitartean, edo bere etsaiekin bakeak egin nahi ez dituztenei, edo etengabeko bekatu larriko egoera ohikoan bizi direnei, abandonatu nahi ez dutenean.

KB1.307.5.12 Era berean, apaizak penitentzia egileei barkamena ukatu edo atzeratu behar die bekatuekiko damua dutela esan bai, baina egintzetan delako damurik ikusten ez denean, eta portaera ikusita aditzera ematen dutenean ez dituztela beharrezko baldintzak penitentzia sakramentua hartzeko; izan ere, hori Jesusen odolaren fruitua profanatzera izango litzateke, sakramentu honetan baitago, eta apaizek, Jainkoaren eta gizakien arteko bitartekariak direnez, justiziaz, zuhurtasunez eta karitatez eman behar dute.

KB1.307.5.13 Baldin apaiza batek baldintza desagokietan dagoen bati barkamena emango balio, barkamena alferrikakoa izango litzaiokie, aitortza, baliorik gabea, penitentzia egileak are eta bekatariago jarraituko luke izaten, eta apaizak nahiz penitentzia egileak, biak ala biak, sakrilegioa egingo lukete, eta bekatu oso larria da.

Apaiza batek norbaiti barkamena ukatzen edo atzeratzen dionean, aldi berean bekatu horiek uzteko baliabideak eskaini beharko lizkioke eta era berean nola ordaindu Jainkoari sor dion justizia.

KB1.307.5.14 Beren bekatuak barkatuak izateko nolabaiteko baldintzak jartzen zaizkienei baina delako baldintzak onartzen ez dituztenek, etengabeko erorialdiekin eta Jesusen lekua duten ordezkoei esanekotasunik eza erakutsiz, frogatzen dute aitortzerakoan ohitura hutsaz baliatzen direla eta ez dutela egindako bekatuekiko benetako damurik, ezta Jainkoarengana itzultzeko egiazko asmorik ere, hala galbidean jartzen dira eta, halaber, kondentatzeko arriskuan.

KB1.307.5.15 Penitentzia egileek ontzat eman beharko lukete apaizak barkamena ukatzea edo atzeratzea hartzeko behar bezala preparatuta ez daudela jakinarazten dienean, esan nahi baita, barkatuak izateko nahitaezkoak diren baldintzak betetzen ez dituztenean, hauek gabe sakrilegio egingo bailukete. Alderantziz, biziki gustura sentitu beharko lirakeke, are gehiago, desiratu egin beharko lukete barkamena atzeratzea, baldin atzeratze honek mesedea ekarriko diela ikusten dutenean, hala Jainkoak eskatzen eta beraiek lortzeko kapaz diren gaitasunak erdietsi ahal izateko, beraiei dagokien santutasuna bizi ahal izateko edo Jainkoak deitzen dien perfekziora iristeko.

Batzuetan, are, komenigarria izango da apaizak barkamena atzeratzea bekatu arinak soilik egin dituenari, horrela zuzentzeko ahaleginak egin ditzan eta eror ez dadin beti edo ia beti egiten dituen bekatu bertsuetan.

KB1.307.5.16 Penitentzia sakramentuaren zeremoniak.

Penitentzia sakramentua administratzeko apaiza eserita egon behar da, penitentzia egilearen epailea delako, eta sakramentuan urrikal epaia ematen duelako, bekatuak barkatuz, edo justizia epaia, bekatuak barkatu gabe utziz.

Eskua luzatu behar du jakitera emateko sakramentu honen bidez Jainkoak bekatutik libratzen gaituela eta salbamenezko bidera garamatzala.

KB1.307.5.17 Gero gurutze santuaren seinalea egiten du, guri erakusteko, San Paulori bezala, gurutzearen bitartez gauzatzen dela Jainkoarekin adiskidetzea.

Penitentzia egileak belauniko jarri behar du apaizaren ondoan, begiak beherantz jarrita, eskuak elkartuta eta nahasitasun handi batean murgilduta, epailearen aitzinean dagoen kriminalaren moduan.

KB1.307.5.18 Baita ere, gurutze santuaren seinalea egin behar du, Jainkoari eskatuz, Jesu Kristoren bitartez, jaurti dezala deabrua, honek eragozten du eta, ongi aitortzeko behar diren baldintza egokiak edukitzea.

Gero apaizaren bedeinkapena eskatu behar du, esanez: *Bedeinka nazazu, aita, bekatu egin dut eta*, Jainkoarengandik lortzeko, apaizaren ministerioaren bitartez, aitorpen on bat egiteko grazia.

KB1.307.5.19 Ondoren hitzokina hasten den otoitza esango du: *Confiteor Deo, etab.*, eta frantsesez, *Je confesse à Dieu / Ni bekataria, Jainkoari aitortzen diot...* Une horretan

penitentzia egileak Jainkoari bere bekatuak esaten dizkio, Andre Maria txit Birjinari, aingeruei, santuei eta Eliza guztiari.

Jainkoari bere bekatuak aitortzen dizkio asko iraindu duela onartzeko eta Harengandik hartu nahi duen barkamena egokiro hartzeko apaizaren ministerioaren bitartez.

KB1.307.5.20 Andre Maria txit Birjinari aitortzen dizkio haren Semeari iraindu duenean bera ere iraindu duelako, zeina beragatik hil baitzen, eta haren zauriak eta heriotza berriro gogoratu dituelako bekatu berriak egiterakoan.

Santuei bere bekatuak aitortzen dizkie Jesu Kristorengandik urrunduz haiek ere iraindu dituelako, jainkozko buru horrekin uztartuta dauden kideengandik alde egiterakoan, eta santuak kide printzipalenak dira, jakina.

KB1.307.5.21 Elizari bekatuak aitortzen dizkio Elizaren santutasuna beragan bortxatu duenean Eliza iraindu duela onartzeko, bera ere Eliza horretako kide baita, Jainkoa ere iraintzen duelarik, zeren Elizak berak Jainkoaren interesak partekatzen baititu neurri handi batean. Aitortzen dio, azkenik, Elizari, apaizaren pertsonarengan, Elizako kide bat delako.

KB1.307.5.22 Penitentzia egileak delako otoitza esan ondoren: *Mea culpa, mea culpa*, edo frantsesez, *c'est par ma faute / nire erruz, nire erruz...* esaten du, eta bekatu guztiak aitortzen ditu neurritasunez, apaltasunez eta oso argi, zenbat aldiz egin dituen argituz eta zirkunstantzia guztiak zehaztuz.

Gogoratu dituen bekatu guztiak aitortu ondoren, apaltasun handiz erregutu behar dio apaizari galde diezaiola, eta neurritasunez eta hitz gutxi erabiliz erantzungo dio, bekatu bat bera ere gorde gabe.

KB1.307.5.23 Gero bularra kolpatu behar du, publikanoak egin zuen moduan, esanez: *Mea culpa, mea culpa*, edo frantsesez *c'est par ma faute / nire erruz, nire erruz...etab.*, egindako bekatuengatik sentitzen duen horrorea eta nahasitasuna erakusteko. Ondoren, *confiteor* otoitzari amaiera emango dio.

Apaizak emango dizkion aholkuak arreta handiz entzungo ditu eta baita ere bere bekatuei uko egiteko eskainiko dizkion baliabideak berriro beraietan eror ez dadin; eta aholku horiek praktikara eramateko abagunea datorkiokeenean.

KB1.307.5.24 Jarraian apaizak ezarritako penitentzia apaltasun handiz onartuko du, lehenbailehen betetzeko asmoz, egiaz.

Apaizak askespena eman diezaionean, apaltasunez makurtuko da pentsatuz ez dela gai delako askespena hartzeko, eta Jainkoari bere bekatuen barkamena eskatuko dio bihotzaren barne-barnetik.

KB1.307.5.25 Penitentzia egileak, aitortu ondoren eta askespena errezibitu eta gero, Jainkoari eskerrak emango dizkio bekatuak barkatu dizkiolako, bere bihotzaren barnean erabakiko du ez dituela berriro egingo, horretarako grazia eskatuko diolarik, eta lehenbailehen beteko du ezarri dioten penitentzia, apaizak esan dion oro betez.

Horra hor penitentzia sakramentuan praktikatu behar den guztia eta penitentzia egileek errezibitzerakoan gogoan izan behar dituztenak era bereziz.

KB1.307.6 Seigarren saila **Ordainaz, beharrezkotasunaz eta ordain mota desberdinez.**

KB1.307.6.1 Penitentzia osatzen duten elementu guztien artean, ordaina izan zen beti Eliz Gurasoek gomendatu ziena kristauei, dio Trentoko Kontzilioak. Eta gero arrazoia ematen du: egia dela, dio, bekatuengatik ematen dizkiguten ordainak neurri handi batean haiengandik urruntzen gaituztela, penitentzia egileak galga bat balitz bezala geraraziz, etorkizunean kontu handiagoaz ibiltzen sustatuz eta zuhurragoak izaten; bekatutik gera daitekeenari erremedio jartzeaz aparte, gainera, kontrako bertuteen bitartez bizitza desordenatuaren bitartez hartutako ohitura txarrak suntsitzen dituzte.

KB1.307.6.2 Hain zuzen ere, ordainak izena eman dio penitentzia sakramentuari, eta hain da garrantzitsua ezen neurri batean esan baitaiteke aitortpena baino garrantzitsuagoa dela; bada aitortpenak apaizari bekatariaren portaeraren inguruko informazio ematea du helburu eta egindako bekatuei buruzko zerbakiak eta izaera; baina ordaina penitentzia egilearen ekitaldia da, eta honen bitartez Jainkoarekiko justizia asebetetzen du egindako bekatuengatik, haren haserrea baretzeko.

KB1.307.6.3 Egia da oso Jesusek ederki asko ordaindu zuela, eta egin zezakeena baino gehiago, gure bekatuengatik; baina, Trentoko kontzilioak dio, Jesusek ordaindutakoa ez dela itzalpean geratzen eta are gutxiago murrizten, alderantziz, guk bekatu mota hauengatik ordaintzen dugun bitartean, Jesusen antzeko egiten gara, zeinak gugatik ordaindu baitzuen, eta harengandik datorkigu ongia egiteko gaitasuna.

Eta honek ziurtasuna ematen digu, haren glorian esku hartuko dugula sufrimenduekin bat egiten dugun heinean. Are gehiago, gure bekatuengatik ordaintzen duguna, ez da gurea bakarrik, Jesusen bitartez gauzatzen eta egiten da, penitentzia fruitu ugari sortzen dizkigularik, harengandik jasotzen ditu bai kemena eta bai merituak; honek Aitari eskaintzen dizkio eta haren bitartez Aitak jaso eta errezibitzen ditu. Hau guztiau Trentoko kontzilio sakratuak esaten du.

KB1.307.6.4 Gainera, gehitu behar da, Gure Jaun Jesusen ordainaren meritua aplikatzen zaiela bakarrik beren bekatuengatik Jainkoaren justiziarri berez ordaindu diotenak. Hau dela-eta, nahitaezkoa da haiengatik ordaintzea, mundu honetan zein bestean, eta hori egin gabe ezin da zeruan sartu, beharrezkoa delako Jesusen merituz guztiak aplika dakizkigun gure arima erabat garbitzeko egindako bekatu guztietatik, zeruan ez delako zikin dagoen deusik sartzen.

KB1.307.6.5 Hau dela-eta, apostolu santuek jakin arren Jesusen merituz infinituak ordaindu ahal izateko, San Petrik berresten digu Jesusek guregatik ordaindu zuela, haren urratsak jarrai ditzagun; eta San Paulo ausartzen da esatera berak osatzen duela Jesusen Pasioari falta zaiona.

KB1.307.6.6 Aitortpen on bat egiten denean, bekatu guztiak erabat barkatuak gelditzen dira. Baina zeharo faltsua da, dio Trentoko kontzilioak, eta Jainkoaren hitzetik erabat urrunduta gelditzen da, bekatua ez dela erabat barkatzen Gure Jaun Jesusengatik zigorra

erabat ordainduta ez dagoen bitartean; bada betiko zigorra askotan aldi baterako zigorra bihurtzen da.

KB1.307.6.7 Kontzilioak berak sei arrazoi ematen ditu Jainkoak honen inguruan hala jokatzeko duen maneraz. Lehen zera da, badirudiela Jainkoa manera desberdinez jokatzeko dela grazia emateko bataiatuak izan aurretik bekatu egin zutenekin ez zekitelako zer egiten zuten, eta behin askatuak izan ondoren bekatuen eta deabruen morrontzapetik, ez zutenekin lotsarik izan profanatzeko, manera jakin batez, beren bihotza, zeina Jainkoaren tenplua baita, eta honela Espiritu Santua atsekabetzen duten.

Bigarrena da bekatuak ordaintzeko ezartzen diren zigorrek haietatik urruntzen gaituztela neurri handi batean, bekatariak galga baten moduan geraraziz, etorkizunean arduratsuagoak eta arretatsuagoak izaten laguntzen dituelarik.

KB1.307.6.8 Hirugarrena ondorengo zera hau da, bizitza desordenatua medio hartu diren ohitura gaiztoak suntsitzen dituela, kontrako bertuteen praktikaren bitartez.

Laugarrena da ez dagoela bide seguruagorik Jainkoak gizakiei egiten dien etengabeko mehatxuetatik urruntzeko.

Bosgarrena zera hau da, ordain mota hauen bitartez, Jesusen antzeko eta irudiko egiten garena, Berak hala ordaindu baitzuen gure bekatuengatik.

Seigarrena da, horrela, seguru egon gaitezen esku hartuko dugula Jesus Gure Jaunaren zeruan, hark jasan zituen pairamenetan parte hartzen badugu.

KB1.307.6.9 Hala gauzak, bai bizitza honetan eta bai bestean, garbitokian, egindako bekatuak garbitu egin behar baitira, fede eskasa edukitzea izango litzateke eta baita zentzu gutxi ere, garbitokian garbitzeko uztea, han penak gogorragoak izanik, eta gainera ezinezkoa delarik meriturik lortzea eta iraupen luzekoak izanda.

KB1.307.6.10 Jainkoari kitatu behar dizkiogun zorrak bekatariak ematen dion ordaina da egindako bekatuengatik egintza penagarriak eta umilgarriak eginez. Bi ordain mota daude: batzuk barnekoak eta beste batzuk kanpokoak.

Barneko ordaina arima Jainkoarengana itzultzea da bekatuekiko lotura uzten denean. Kanpoko ordaina egintza penagarrien eta nekagarrien bidez egiten dena da.

Kanpoko ordain mota bi daude: sakramentuzkoak eta borondatezkoak.

KB1.307.6.11 Are eta gehiago, esan daiteke sakramentuzko ordain mota bi daudela. Hauetako bat lotuta dago edo, hobe esanda, nahitaezkoa zaio sakramentuari, eta penitentzia egilearen bi lehenengo ekitaldien barnean dago, kontrizioa eta aitorpena, eta hauei eransten zaizkie apaizak agindutako guztia egiteko borondate eta asmo irmoa. Bada, San Tomasek ongi asko seinatu zuen bezala, penitentzia egileak kontrizioan eta aitorpenean pairatzen duen pena, bada jada ordainaren zati bat; eta hala pentsatu zuen, berak baino lehen, antzinako egile batek ere, esanez ordain handia eskaini duela jada, lotsa garaituz, Jainkoaren ministroari egindakotik deusik ezkatuta ez dionak.

KB1.307.6.12 Sakramentuzko beste ordain mota kanpokoak da eta sakramentuaren ondorengoa; eta delako ordaina penitentzia egileak berak berez betetzen duen zigorra da, eta penitentzia sakramentuan apaizak ezarri diona, Jainkoari egin zion iraina eta bere bekatuez lagun hurkoari erreparatzeko, aldi bateko pena konplitu.

KB1.307.6.13 Borondatezko ordainak gure kontura egiten ditugunak dira, edota Jainkoaren aldetik otzantasunez hartzen ditugun penak, hala nola gaixotasunak, ondasunen galerak eta pairarazten dizkiguten bestelako nahigabeek, edo gizakien aldetik ez datozenak, nolabait esateko: kalumniak, irainak eta tratu txarrak. Izan ere, Jainkoaren borondatea eta lokabetasuna hain da handia, dio Trentoko kontzilioak, ezen Jainkoari ordain diezaiokegu ez bakarrik guk onartzen ditugun zigorrekin bekatuak kitatzeko, edo apaizak ezartzen dizkigunak aitortu ditugun bekatuengatik, baizik eta baita ere, haren maitasunaren azken froga gisa, munduan igortzen dizkigun atsekabeengatik, pazientziatz jasaten ditugunean.

KB1.307.6.14 Sakramentuzko eta borondatezko ordainen artean bada desberdintasun bat: aurrenak indar eta eraginkortasun handia dute Jainkoari asebetetze emateko. Adibidez, penitentzia sakramentuan apaizak ezarritako barauak errazago ezabatzen du bekatuarengatik merezi izan dugun zigorra gure kasa egindakoak baino; bada, San Tomasen arabera, sakramentuzko ordainek ez dute bakarrik bekatuengatik jasotako zigorra kitatzen, aldez, sakramentuaren parte baitira, berez duten grazia komunikatzeko bertutea daukate jasotzeko baldintza egokia erakusten dutenei.

KB1.307.6.15 Alabaina, oso egokia da nork bere buruari zigor batzuk ezartzea egindako bekatuengatik ordaintzeko, apaizak ezartzen dituzenez gainera penitentzia sakramentuan, bada orokorrean, penitentzia handia izan arren, ez dira nahikoak gure baitan gelditzen diren bekatuen arrastoak kitatzeko, eta bizitzan zehar, beti behar dugulako garbitu penitentziaren bitartez.

Are eta gehiago, goizero Jainkoari bekatuengatik ordaina eskaini behar zaio, penitentzia espirituagatik, egunean zehar etor dakizkigukeen penak, Jesus Gure Jaunak jasan zituenekin bat eginez.

KB1.307.6.16 Ordainek, hala sakramentuzkoak nola borondatezkoak, mesede oso onak ekartzen dituzte, bada ez dituzte bakarrik murrizten bekatuengatik irabazitako penak, zeinengatik derrigorrezkoa baita Jainkoaren justiziarri asebetetze eskaintzea barkamena lortu eta gero, gainera, kontzientziari lasaitasuna ematen diote, bizitza honetako nahigabeak pairatzeko indarra ematen dute, meritua gehitzen dute, ohitura txarrak eta bekatuarekiko joerak desegiten dituzte eta Jesus Gure Jaunaren merituetan eskuhartzaile egiten gaituzte. Arrazoi hauek direla medio ez da inola ere komeni egun bat bera ere pasatzea penitentzia ekitaldiren bat burutu gabe.

KB1.307.7 Zazpigarren saila.

Zertan datzan ordaintzea eta aitorpenean ezarritako penitentzien onartzeaz eta betetzeaz.

KB1.307.7.1 Ordaintzea, dio Trentoko kontzilioak, barauen, erremusinen, oititzen eta bizitza espiritualeko bestelako eraspenezko jardueren bitartez gauzatzen da.

Barua esaten dugunean elikagaiak alde batera lagatzea esan nahi dugu eta orobat bestelako gorputzari dagozkion hildurak; erremusinak esaten ditugunean miseriak obrak esan nahi ditugu, bai gorputzezkoak eta bai espirituak; eta otoiak esaten ditugunean esan nahi ditugu ahozko otoiak edo bihotzekoak, Jainkoari bihotzez egiten dizkiogun eskariak, jarduerak Jainkoari eskaintzen dizkiogunean, Eliz Ofizioetara joaten garenean, dotrinara goazenean edo predikuetan presente gaudenean.

KB1.307.7.2 Trentoko kontzilioak nahi du ezarritako ordaintzeak eta penitentziak hiru baldintza bete behar dituztela. Jaunaren apaizek, dio, Espiritu Santuak eta beren kontzientziak esaten dieten heinean, ordaintze egokiak eta osasungarriak ezarri behar dituzte, pekatuen larritasuna kontuan izanda eta orobat penitentzia egilearen egoeraren eskatzen duen neurrian. Era berean, dio, ezartzen dien ordaintzea zigor gisa ezarri behar dutela egindako bekatuak ordaintzeko, penitentzia egileen doluari erremedioa jartzeko eta biziera berria babesteko.

KB1.307.7.3 Apaizek ezarri behar dituzten obra onak, era bereziz penitentzia egileari, Jainkoari zor dion justizia asetzeko, egitera lerratuta dagoen bekatuen aurka doazenak izango dira, ohitura txarrak suntsitzeko eta daramaten zigorra bitarteko, bekatuarekin batera izan zuen plazerari kalte-ordainak emateko, Liburu Santuak dioen bezala.

KB1.307.7.4 Harroari eta handizaleari, adibidez, umiliatze obrak ezarri behar zaizkie; mendekatzaileari, otzantasun ekitaldiak; sabelkoiari, barauak; eta lotsagalduari gorputzeko hildurak. Zigor hauek guztiak izan behar dira Jainkoari egin irainekin lortu zuen plazeraren tamainakoak, San Paulok dioskun bezala, gure desio desordenatuak ordaintzeko, era berean sagaratu behar ditugu gure gorputzak, antzeko kartsutasunez, aurrerantzean Jainkoaren aintzarako eta gure salbamenerako soilik balio dezaten. Izan ere, ez dugu penitentziarik egingo egindako bekatuen aurka doazen obrak egiten ez baditugu: *Egin itzazue*, dio San Joane, *penitentzia obra duinak*.

KB1.307.7.5 Penitentzia sakramentuan ezarritako egintza neketsuak eta mingarriak gure bekatuak ordaintzeko ditugun arrazoiak, Trentoko kontzilioak aipatzen dizkigu, esanez bat bataioaren efektua dela eta bestea penitentiarena.

Bada bataioaren bitartez Jesusez janzen bagara, orduan sorkari berria izatera iristen gara, Harengandik jasotzen dugularik gure bekatu guztien erabateko barkatzea; baina penitentzia sakramentuaren bitartez ezin gara iritsi erabateko barkatze osora, ez bada txilio handiez eta Jainkoaren justiziak eskatzen dizkigun lan neketsuez. Honengatik, arrazoi oroz, Eliz Guraso santuek penitentiari nolabaiteko bataio neketsua eta penagarria deitu izan diote.

KB1.307.7.6 Apaltasun handiz onartu behar da apaizak ezarritako penitentzia, eta ez betetzeko arrazoizko ziorik bada, esan egin behar zaio.

Penitentzia ahal bezain azkar bete behar da, eta ahaztuko balitz, konturatu bezain fite konplitu beharko litzateke.

Mesprezuz edo alferkeriaz sakramentuak ezarritako penitentzia beteko ez balitz, bekatu larria egingo litzateke.

KB1.307.7.7 Kontu handia eduki behar da ezarritako penitentzia grazia egoeran hartzeko, bada, San Paulok dioen bezala, *Jaunak ez ditu begi onez ikusten gaizkileen eskaintzak*.

Nahiz eta bekatu larrizko egoeran egon, apaizak derrigorrez ezarritako penitentzia betetzen da, baina ez da deusik merezi izaten, ezta egoera horretan egindako beste edozein obra onarengatik ere; ezta gutxitzen ere bekatuengatik merezi izandako zigorra eta lehen bezain zordun izaten da bat jainkozko justiziarekin, izan ere Jesusek ez ditu isurtzen jarraitzaile hilen gainean bere merituen eraginak eta ordaintzeak, eta ezta karitatearen bitartez Harekin uztarturik ez daudenen gainera ere.

KB1.307.7.8 Ez da nahikoa Jainkoari ordaintzea, gainera lagun hurkoari ordaindu behar zaio mina egin zaionean; eta lagun hurkoari min diezaiokegun bai gorputzean, bai ariman, bai bere ohorean eta ondasunetan, ordaindu egin behar zaio aipatu hauetako arlo batean egindako kaltea.

ainkoñri egiten dizkiogun ordaintzeetan eta lagun hurkoari egiten dizkiogunetan desberdintasun bat dago: Jainkoak kita gaitzake berari zor dizkiogunak, aitzitik inork ez du eskubiderik lagun hurkoari zor dizkiogunak kentzeko.

KB1.307.7.9 Lagun hurkoari ariman kalte egin zaionean, sortutako eskandalua barne, ordaintzeko, eskandalua ezabatu behar da, egin izan geniezaiokeen kaltea ordaindu eta jarraibide ona eman.

Lagun hurkoari gorputzean kaltea egin diogunean, dela zaurituz, kolpatuz edo akabatuz, zorra kitatu behar diogu kolpatutakoari edo zauritutakoari, edo akabatu genuenaren ondorengoari, ahal dezakegun neurrian. Kontu honetan apaiz aditu eta zuhur baten aholkua jarraitu behar dugu.

KB1.307.7.10 Lagun hurkoaren izen ona kaltetu dugunean, haren aurkako sasi-egiak aldarrikatuz, ahal delarik, gezurtatu behar dira, egindako kaltea sinestu zuten guztien aurrean, eta bestearen gainean esan zen guztia faltsua zela baietsi. Norbaitek bekatu ezkutua ezagutzera ematen dunean, hartaz ongi hitz egin behar du abagunerik dagoenean eta haren gauza on guztiak lau haizetara zabaldu.

Lagun hurkoari ondasunetan kalte egiten zaionean, berea zen dena itzuli behar zaio, espeziean edo duen balioan, eta besteek sorrarazi dizkioten galerak eta kalteak itzuli.

KB1.307.7.11 Lagun hurkoari egindako kaltea ezin bada erabat ordaindu, ahal dena itzuli behar da, eta falta dena itzultzeko erabakia hartu behar da egiteko abagunea ikusten denean.

Baldin batzuk badira beste baten ondasunak itzultzeko asmorik ez dutenak hala aitortu dutelako edo lagun hurkoari egin dioten kaltea erreparatzeko gogorik, ezin dute barkamena errezibitu kondenatuak izateko arriskuan beren burua jarri gabe.

Zorrak kitatzeko obligazioa dago, morroien eta langileen soldatak ere bai, eta lagun hurkoari egindako kalte guztiak, ukapena eta atzerapen bidegabeba erabili direnean haiekin.

KB1.307.7.12 Abagune hauetan guztietan ez da aski aitortpean apaizari lagun hurkoari egin diogun kaltea esatea, edo egin nahi den hilburukoan jartzea. Aitortzerakoan halako disposizioan egon litekeena, aitorten sakrilegoa edo baliorik gabekoa egiteko abagunean egongo litzateke.

KB1.307.7.13 Penitentzia sakramentua errezibitu ondoren ezin da, alabaina, seguru egon Jainkoaren graziaren jabe zarenik. Sekretu hau Jainkoari soilik dagokio, Hark bakarrik daki, bada inork ezin du jakin erabateko ziurtasunez azterketan ez zela inolako akatsik izan, edo kontrizioan edo aitortpean; inor ezin da seguru egon ezta ere, Jainkoarengana itzuli dela bihotz-bihotzez, eta erabat ziur daudenei ematen zaie delako grazia sakramentu honetan.

KB1.307.7.14 Dena den, nolabait, grazia berreskuratu bada eta batek berarekin badauka jada, bat ez denean bekatu garrantzitsuetan erortzen behin eta berriz, batek bere akatsak zuzentzen dituenean, batek bere burua arretaz zaintzen duenean, tentazioari ausardiaz aurre egiten zaionean, eta ajeari sekulako herra erakusten diozunean, bertuteari aparteko afektuaz eta Jainkoaren maitasunarekiko kartsutasunaz baliatzen zarenean...

Seinale hauek guztiak daukazunean, barne-bakea kontserbatu behar da eta Jainkoaren barkamena jaso duzun konfiantza erakutsi.

KB1.307.8 Zortzigarren saila **Induljentzien bitartez bekatuengatik egiten den ordaintzeaz**

KB1.307.8.1 Jainkoari dagokion justizia ordaintzeko, baita ere, induljentziez balia gaitzke. Induljentzia deitzen diogu bekatuak direla medio ematen dizkiguten zigorrak kentzeari, eta Elizak penitentzia sakramentutik at ematen dizkigu, bekatuak eta berauek merezi izan duten betiko zigorra sakramentuan barkatu eta gero.

KB1.307.8.2 Jesus izan zen, dio Trentoko kontzilioak, Elizari induljentziak emateko boterea eman ziona, San Pedrori *zeruetako giltzak emango dizkizut* esan ondoren: *lurrean lotzen duzun guztia zeruan ere lotuta geldituko da, eta lurrean deslotzen duzuna zeruan ere deslotuta geldituko da* erantsi zuenean; eta San Markosen, apostoluei gauza bera esan zienean, ondorengo hitzon bitartez bekatuak barkatzeko eskumena eman zienean eta gainera bekatu batzuen parteren bat gutxienez, horretarako arrazoirik izanez gero.

KB1.307.8.3 Hau da dirudienez San Paulok korintiar intzestugile batekin egin zuena, penitentzia ezarri zionean, korintiarren eskaeraz induljentziak eman baitzizkion Jesusen pertsonaren izenean, merezi izan zuen zigorraren zati bat kendu ziolarik, egindako bekatuarengatik sentitu zuen dolu sakona medio, delako bekatuak zama izugarria sortzen ziolako, tristeziaren itxurapean.

San Anbrosio eta San Zirilo etsenplu honetaz baliatzen dira Elizak bere seme-alabei ematen dizkien induljentziak justifikatzeko.

KB1.307.8.4 San Pauloren jokaera honek aditzera ematen digu induljentzien erabilera Eliza bezain antzinakoa dela. Are gehiago, esan daiteke Jesusek berak ere emakume bekatariari osoko induljentzia eman ziola, orobat adulterioan harrapatutako andereari eta

ohoin onari, bekatuak barkatu zizkienean alde zurretik inolako penitentziarik eskatu gabe.

Elizak, hastapenetatik, dio Trentoko kontzilioak, Jainkoak eman dion botere hau erabili izan zuen.

KB1.307.8.5 Aita Santuak Eliza osoan induljentziak emateko agintea du eta gotzainek beren elizbarrutietan; eta aginte hau dute Jesusen pertsonaren izenean jaso dutelako, Jesusen ordezkokoak direlako, eta, halaber, Elizako altxorren banatzaileak.

KB1.307.8.6 Induljentziek, berez, ez dute botererik bekatu larriak barkatzeko eta ezta bekatu arinak ere, barkatzekotan bihotzeko ustelkeria erauzita barkatzen direlako, eta hau ezin dute induljentziek egin. Baina egindako bekatuengatik zorrak kitatu ez dituztenei falta zaiena kentzen diete induljentziek, eta beraz, baita ere, nozitu behar zituzten penak, bai bizitza honetan eta bai bestean garbitokian hil ondoren, Jainkoaren justiziari eman beharrekoa asebetetzeko. Izan ere, garbitokian nozitzen dena ez da beste gauza penitentziaren osagarri bat baino, bizitza honetan zorrak erabat kitatu ez direlako-edo.

KB1.307.8.7 Jesusen merituak direlako medio, zeinaren bertuteaz santuek Jainkoari errukia eskatzen baitiote gure alde, Elizaren hastapenetan ezarri ziren induljentziak, eta erabilerak; hori ateratzen da San Paulok Korintoko inestugileari emandakotik; eta meritu hauetatik ateratzen dute beren indar guztia induljentziek.

KB1.307.8.8 Kontua da Elizak ez diela penitentzia egileei egindako bekatuengatik merezi duten pena kentzen induljentzien bitartez, baizik eta Gure Jesus Jaunaren meritu oparoak eta baita santuenak ere aplikatuz, haiei falta zaiena osatzeko.

Meritu hauek guztiek osatzen dute Elizako altxorra, Jesusek gure bekatuengatik Jainkoaren justiziari zor geniona baino dezente gehiago nozitu zuelako, eta martiri santuek ez ezik beste askok ere egindako bekatuengatik baino gehiago nozitu izan zutelako.

KB1.307.8.9 Jesus karitatearen bitartez uztartuta baitago santuekin, eta gorputz bakar bat eta bera baino ez baitute osatzen lurrean dauden fededunekin, meritu hauen partaide egin ditzake behar duten neurrian, beren penitentziari falta zaiona, erabat amaitu ez dutenean, eta hau induljentzien bitartez egiten da.

KB1.307.8.10 Hau da hastapeneko Elizan praktikatzen zutena oraindik bizirik zeuden martiriek, fedarengatik nozitzen zutenak; izan ere, gotzainei idazten zieten eskatuz batzuei ezarritako zigor eskergaren zati bat barka ziezaietela, batik bat, idolatrian eta eskandaluzko bekatuan eroritakoei, atsegin handiz aplikatuz fedearen alde jasandako martiriaren merituak; eta hauxe da sarri askotan gotzainek ematen zutena, martiri santuek eskatuta.

KB1.307.8.11 Garai hartan, gotzainek soilik zuten eskubidea induljentzia mota hauek emateko, San Ziprianok dioenez. Eta ez da inoiz izan, harrezkero, besterik, salbu aita santuak eta gotzainak, Elizan zegoen ohitura zahar haren arabera; bada haiek soilik, dio San Ziprianok, dute Elizako gobernamendua eta gidaritzak, zeinari Jesusek eman baitzion

merituen eta asebetetze guztien banatzaile izateko agintaritza, bai berenak eta bai santuenak.

KB1.307.8.12 Eliz Gurasoek induljentziei askapena, barkatzea, askespena, bakea eta adiskidetzea deitu izan diote. Hiru motakoak dira induljentziak: osoko induljentziak, ez-osoko induljentziak eta jubileua.

Osoko induljentzia egindako bekatuengatik merezi izandako denborazko zigorra erabat barkatzea da.

Ez-osoko induljentzia zigor horren barkatze partziala baino ez da, ematen duenaren intentzioaren arabera eta hartzen duenaren prestutasunaren arabera.

KB1.307.8.13 Jubileua sekulako osoko induljentzia da eta aita santuak fededun guztiei ematen die, pribilejio berezi batzuekin.

Menderen mendetan ez da bereizkuntzarik egin osoko induljenzien eta urte edo egun batzuetako induljenzien artean, bada gotzainek boterea zuten induljentziak emateko bereizkuntzarik eta murrizketarik gabe, eta egin gabe zegoen barkatzea ematen zuten; hau osoko induljentzia izaten zen, inolako erreserbarik gabe ematen zelako.

KB1.307.8.14 Denbora joan ahala, bekatu bakoitzarengatik egunak eta urteak zehaztu baitziren, XII. mendearen inguruan induljentziak zatitu egin ziren eta hala batzuek Elizak ezartzen zituen penitentzien egunak eta urte batzuk soilik murrizten zituzten, eta beste batzuek zigor guztia. Arrazoi hau dela-eta induljentzia mota honi osoko induljentzia deitu zioten.

Baina gotzain batzuek erraztasun handiegiaz eskaintzen baitzituzten induljentziak eta inolako mugarik gabe, Letrango kontzilioak, 1215ean ospatutakoak, erabaki zuen gotzainek ezin izango zutela urte bateko baino luzeagoko induljentzia eman elizaren bat dedikatzen zutenean, eta bestelako egoera guztietan ezin izango zutela berrogei eguneko induljentzia baino handiagoa eman; honez gainera, beren elizbarrutian baino ez zuten ahal izango induljentziarik eman.

KB1.307.8.15 Aita santua Eliza osoko nagusia baita, Eliza guztiari induljentziak eman diezazkioke, eta bere botereak mugarik ez baitu, osoko induljentziak edo ez-osokoak eman ditzake, fededunen onerako egokiak eta eraginkorrak ikusten baditu.

KB1.307.8.16 Ez dugu pentsatu behar inola ere induljenziek bekatuengatik zorrak kitzatetik libratzen gaituztenik eta nahikoa dela irabazteko asmoa izatea pekatuen zigorra ez betetzeko. Aitzitik, osokoak izan arren, beti suposatu behar da bete dela penitentziaren erdia gutxienez edo egiteko jarrera egokian dagoela bat, indarra eta denbora baditu batek, bada Elizak ematen baditu batek egin behar zuen penitentziaren osagarritzat ematen ditu, eta ez hartaz erabat libre gelditzeko. Bada Jainkoa baita penitentzia egiteko obligazioa ezarri diena bataiatu eta gero bekatu larriren batean jauzi direnei, inork ezin dio uko egin arau horri betetzeari, izan ere, San Ziprianok dioen bezala inor ezin da jarri Jainkoaren gainetik.

KB1.307.8.17 Arrazoi honengatik santu honek dio Jainkoaren legearen eta Ebanjelioaren aurka bekatu egiten dela induljentziak ematen badira aurretik arrazoizko

dembora batean penitentzia egin ez dutenei; eta martiriei arautzat eman zien, zeini idatziz eskatzen baitzitzaizkien induljentzia promesak, ez emateko egindako bekatuek merezi zuten penitentzia erabat bete arte.

Ez dago zalantzarik, arrazoi berberetatik dio Trentoko kontzilioak, Elizak onartutako ohitura zahar bati zehazki jarraituz, induljentziak erreserba handiarekin eta neurritasunez eman behar direla; eta Elizak, jubileuak irabazi nahi dituztenak otoitzak, barkauak eta erremusinak egitera behartzen ditu.

KB1.307.8.18 Egia da santuen eta bereziki Jesusen meritu opariei esker, Elizaren altxor berezia bestalde, induljenzien bitartez partaide egiten baikaitu, aski baino gehiago dela, bekataririk handienen bekatuak barkatzeko. Baina honetarako, nahitaezkoa da aplikatuak eta komunikatuak izatea; eta ezin aplikatuzkoak dira penitentziaren bitartez horretarako prest ez daudenengan eta ezta bekatuen ordainetan Jesusen nozitu zituen penak berak pairatzen ez dituztenengan ere.

KB1.307.8.19 Trentoko Kontzilioak aldarrikatzen du induljentziak erabiltzea oso osasungarria dela kristau herriarentzat, hauek erremediatzen dituztelako penitentzia egileen ahuleziak eta prest jartzen Jainkoaren ditzaz gozatzeko; eta, egia esan, hau ez da mesede kaxkarra, beraz fededunak induljentziak irabaztera bultzatu behar ditu gogo biziz.

KB1.307.8.20 Induljentziak eta jubileua irabazteko beharrezkoak diren baldintzak honako hauek dira besteak beste: 1. Asmo garbia eduki behar da eta ez bakarrik penitentzia bukatzeko gogo, esan nahi baita, bekatuen barkamena gogo biziz erakutsi behar dela, Jainkoaren poztasunez gozatu ahal izateko. Jainkoaz lehenbailehen gozatzeko desioa ez da kristaua eta ezinbesteko motiboa bekatuek sortutako ordainaren barkamena erdiesteko, induljenzien bitartez. 2. Jainkoaren grazia eduki behar da eta, ondorioz, bekatu larritik urrun bizi, eta bekatu larrian erortzeko arriskuak ezabatu erabat; bada ezin da Jainkoaren inolako graziaz eskuratu haren etsaia izan ez gero.

KB1.307.8.21 3. Bekatua erabat errefusatu behar da; izan ere, ezin da bekatuen barkamena erdietsi harkiko atxikimendua dagoen bitartean. 4. Azkenik, Elizak agintzen duena bete behar da, hots, bekatuak aitortu behar dira benetako samina erakutsiz, jaunartu, otoitz batzuk esan eta erremusinak eman, horretarako izendatuta dauden elizak bisitatuz.

Honez gain, Elizak jubileua irabazteko hiru eguneko baraualdiak agintzen ditu. Gauza hauek guztiak aita santuak induljentzi buldetan honetarako esaten dituen garaian egin behar dira, edo bestela gotzainek beren disposizioetan; eta, jakina, beste garai batean praktikakatu lituzketenek ez lituzkete irabaziko.

KB1.307.8.22 Are eta gehiago, ezingo lirakeke aldatu induljentzi buldetan agindutako gauzak gero horiez baliatu ahal izateko, baldin aita santuak edo gotzainek konfesoeei baimenik emango ez balie beste jainera egintzekin trukatzeko, eta hau beti adierazten da aita santuen buldetan eta gotzainen disposizioetan.

Gauzak hala, bada, induljentziak irabazteko egindako bekatu guztien aldeko egiazko penitentzia egin behar da, baldintza hau ezinbestekoa da, hau ez bada betetzen ezingo dira inola ere irabazi, eta ezingo lirakeke beste arrazoi batzuenatik trukakutako. Gainera, baldintza honekin bat dator induljentzia, bada bera da Jainkoarekin batzen gaituena eta

haren graziarekin elkartzen gaituena. Eta, are eta gehiago, hain beharrezkoa da, ezen Jainkoak, haren errukia hainbestekoa izanik ere, ez bailizkiguke barkatu ahal izango gure bekatuak, baldin gure baitan benetako damua eta konbertsioa ez balitu ikusiko.

Hau dela eta, hauxe duzue aita santuek eskatzen duten lehenengo gauza induljentiak ematen dizkietenei, honako hitzokin beti gogoraraziz: *Vere paenitentibus*, hots, benetako damudun direnei.

KB1.307.8.23 Nikolas V. aita santuak era bereziz azaldu zuen 1450.eko jubileurako egin zuen buldan; bertan esaten du jubileuaren grazia jaso nahi dutenek Jainkoarekin adiskidetu behar direla penitentiak duen zama bere baitan hartuz, gutxiesteak, nahigabeak, bihotzeko damua eta erremusinak praktikatzuz.

Honek guztiak adierazten digu Elizak ez dituela induljentiak besterik gabe ematen, baizik eta ematen dituela bekatariek ohitura txarrak erreforma ditzaten eta erakusten duten portaerarekin Jainkoarekiko damua benetakoa dutela adieraz dezaten, bihotza Jainkoarengan dutelarik.

KB1.307.8.24 Baldintza hauek erakusten ez dituztenei Jainkoak ez die induljentiarik ematen. Eta inor ezin da fio induljentiarik edo jubileua irabazi duela ez badu geroago bizitza zuzena eta ezberdina erakusten eguneroko eginkizunetan.

KB1.307.9 Bederatzigarren saila Arimen zorrak kitatzea garbitokian.

KB1.307.9.1 Garbitokiko arimen aldeko otoitzen bidez irabaz daitezke induljentiak, alegia, intentzio zehatzek eskaintzen badira, edo Jainkoari eskatuz Gure Jesu Kristoren merituak aplika dakizkien, induljenzien bidez guk ere eskuratu ahal izan baititugu.

KB1.307.9.2 Gu, bizitza honetan gauden bitartean, neurri handi batez, laguntza eman diezaiekegu garbitokian dauden arimek, eta nozitzen ari diren penak arindu, hala Jainkoaren justiziarekiko bekaturen zorrak kitatzeko. Gure otoitzez egin dezakegu, gure erremusinez, gure sufrimenduez eta nahierazko penitentziez, Meza santuaren bitartez, gure jaunartzeak baliatuz eta bekaturen zorrak kitatzeko egin ditzakegun hainbat egintza onen bidez.

Ez dugu inolako zalantzarik gure betebeharra dela laguntza mota hau, izan ere kristau karitateak hau egitera behartzen gaitu, eta sarritan, baita justiziak berak ere.

KB1.307.9.3 Betebehar hau konplitzera bultzatzen gaituen arrazoia zera hau da: arima hauek Jainkoaren adiskideak dira eta Gure Jaun Jesu Kristoren kide bihiak; gu haiekin bat eginda gaudela eta gorputz bat eta bera osatzen dugula eta baita elkarte bera ere; haien tormentuak oso latzak direla eta iraupen luzekoak; beraiek ezin diotela beren buruari lagundu, eta garbitokitik atera bezain azkar zoriontsuak izango direla zeruan eta Jainkoaren aurrean gure alde egingo dutela.

KB1.307.9.4 Are eta gehiago, oso probetxugarria da Garbitokiko arimen alde egitea eta arinduren bat haien baitan sortzea, bada haiek ezin baitute deusik egin beren alde, eta garbitokian dauden bitartean gure alde ere egiten dute. Bada nahiz eta ezin duten beraientzat inolako graziaz lortu, badute, ordea, bestentzat lortzeko eskumena. Beraien

otoitzak oso eraginkorrak izan dakizkiguke, eta haiekin erakusten dugun karitatea dela medio, gure grazia, bertutea eta meritua gehitu daitezke; eta gure heriotzaren ondoren, Jainkoak saria emango digu orain haien alde egin dugun zerbitzua dela eta, garbitokitik libratuz edo beste batzuei eraginez gure alde egin dezaten.

KB1.307.9.5 Lurrean bizi diren fededunek egiten dituzten otoitzak garbitokian daudenen alde neurri handi baten arima hauei kontsolamendua ematen diete, eta Jainkoa berehala ikusiko eta posedutuko dutelako itxaropena ematen diete.

KB1.307.9.6 Nahiz eta gogo onez nozitu Jainkoak egindako bekatuengatik ezarri dizkien penak, eta nahiz eta etsi onez jasan berauek Jainkoaren borondatearekin bat eginez, halere, izugarriko gogo handia dute leku horretatik ateratzeko, ez bakarrik gehiago ez nozitzeko, baizik eta maite duten Jainkoaz den bezala gozatzeko eta ez urruntzeko inoiz harengandik.

Beraz, ezin zaie gauza egokiagorik egin handik ateraraztea baino otoitzen bidez eta obra onak eginez; eta ezinezkoa izango litzateke esker onekoak ez izatea etorkizunean.

Zortzigarren kapitulua

KB1. 308 **oliaduraz**

KB1. 308.1 **Lehenengo atala**
Oliaduraren ministroaz, izaeraz eta ondorioez, materiari eta formaz.

KB1.308.1.1 Gizakia oso lotuta dago eragozpen asko eta larriekin, batik bat bere bizitzaren azken aldian, horregatik da egokia Jainkoaren espirituzko erremedioren bat halako eragozpenetan egoera arintzeko edo bestela pazientziak jasaten laguntzeko. Hau dela eta, Jesusek oliadura sakramentua eraiki zuen, eta oso eraginkorra da noski larriki gaixorik daudenentzat.

KB1.308.1.2 Oliadura Jesusek gaixoentzat eraiki zuen sakramentua da beren bekatuen arrastoak garbitzeko, deabruaren erasoei aurre egin ahal izateko eta heriotzako orduan aurkitu ditzaketen eragozpenak garaitzeko, ongi hiltzen laguntzeko edo bestela osasuna itzultzeko, beharrezkoa edo eraginkorra izango balitzaie beren salbaziorako.

KB1.308.1.3 Sakramentu honen erabilera aditzera emana dago, dio Trentoko kontzilioak, San Markosen 6. kapituluan, eta Santiagok, Jaunaren anaia eta apostoluak, bere jarraitzaileei gomendatua: *Norbait gaixorik al dago zuen artean?, dio. Dei egin diezaiela Elizako apaizei eta otoi egin dezatela haren alde, igurtzi dezatela olioiz, Jaunaren izenean, eta fedez egindako otoitzak gaixoa salbatuko du, Jaunak jaiki dadin egingo du, eta bekatuak eginak izango balitu, barkatuko zaizkio.*

KB1.308.1.4 Sakramentu honi oliadurazkoa deitzen diogu bizitzaren azken aldian ematen delako, hiltzorian daudenen sakramentua ere deitzen diogu, kristauak bere bizitzan hartzen duen azken oliadura delako, eta, orokorrean, penitentzia eta Eukaristia sakramentuak hartu dituztenei soilik ematen zaielako.

KB1.308.1.5 Antzinatean Elizak beste praktika bat jarraitzen zuen, erabat desberdina, San Ambrosioren eta San Krisostomoren historian ikus daitekeen bezala, eta baita San

Malakiasenean, San Bernardok idatzita; horretan irakurtzen da santuok lehendabizi oliadura hartu zutela eta ondoren bideko santua.

Elizak izan zuen arrazoia praktika hau aldatzeko honako hau da; Belarmino Kardinalaren ustez, oliadura hartzea ahalik eta gehien atzeratzen bazen gaixoei tristura ez emateko, gerta zitekeen hauek konortea galtzea eta gero jaunartzeko aukerarik ez edukitzea.

KB1.308.1.6 Halere, ez dago itxaron beharrik gaixoa azken larriunean egon dadin sakramentua hartu ahal izateko; eta oso egokia da denek har dezaten, ahal delarik, konortearekin, Elizaren eta ematen ari den apaizaren otoitzekin eta intentzioekin bat egin dezaten. Horregatik gaixoek oliadura eskatu behar dute eta eman egin behar zaie gaixotasuna larria dela ikusten den unean berean.

KB1.308.1.7 Nahiz eta erabat beharrezkoa ez izan sakramentu hau hartzea, halere eraginkortasun handikoa da; eta ezin da baztertu hartzea, mesprezuz, dio Trentoko kontzilioak, bekatu larria egin gabe eta Espiritu Santua iraindu ezik.

KB1.308.1.8 Sakramentu honek, dio kontzilioak berak, ohiko grazia gehitzen du, eta efektu hau beste sakramentuena bezalakoa da.

Ariman beste bi efektu ere sortzen ditu, Santiagok hala esanda. Aurrena, ondoko hitzok erabiliz, hots, *lasaituko du*, bada indartu egiten du eta gaixoaren arima lasaitzen, dio Trentoko kontzilioak, honek Jainkoaren errukian konfiantza handia izango du, eta honi esker errazago jasango ditu gaixotasunaren erosotasunik ezak eta minak, eta indartsu egiten du deabruak eskaini diezazkiokeen tentazioen eta azpizjokoek aurka zeinetan berehala eroriko litzatekeen sakramentu honen bidez hartzen den grazia berezia tartean izango ez balitz.

Gaixoaren espiritua suntsitzen dituen penak heriotzaren pentsamendutik datoz, iraganeko pekatuen oroitzenetik, epaiketaren hurbiltasunetik, infernuko penak gogoratzetik, eta batzuetan deabruak ikustetik.

KB1.308.1.9 Ariman sortzen duen bigarren efektua bekatuen barkatzea da, Santiagoren hitzotan uler daitekeenez: *Bekatu batzuen errudun izango balitz, barkatuko litzazkioke.*

Lehenengoz eta behin, egin dituela gogoratzen dituen bekatu larriak, baldin aitortzerik izan ez eta kontrizio perfektua izan gabe, sakramentu hau benetakoa beldur damuz hartzen badu. Bada halako kasuan sakramentu honek aitortzarik eza eta kontrizio perfektua ordezkatzeko, eta bekatu guztiak barkatzen ditu. Honelako egoeran sakramentu hau hain da beharrezkoa ezen bat ezingo bailitzateke salbatu errezibitu gabe.

Bigarrenez, gaixoari gordeta dituen eta ezagutzen ez bekatu larriak barkatzen dizkio. Egia da beste sakramentuek botere hau dutela, baina bakarrik ustekabea, izan ere grazia ezin da bizi bekatuarekin batera; baina bada oliadura sakramentuaren berezko efektua eta bere-berea bakarrik, helburu horrekin eraiki zelarik.

KB1.308.1.10 Trentoko kontzilioak sakramentu honi penitentiaren bururatzea deitzen dio, bekatuen arrastoak ere kentzen dituelako, arima gogo faltatik libratzen duelarik, tristeziatik, nolabaiteko ahultasunetik eta bekatuak utzitako neurri bateko desgogara arriskutsutik, penitentiak ez duelako erabat berrezarri.

Gainera, bekatu arin guztiak ezagunak eta ezezagunak ezabatzen ditu, eta baita haiek merezi izandako penak ere, bai bekatu larriarengatik eta bai bekatu arinarengatik, sakramentu honek erabat edo baita ere neurri handi batean murrizten dituelako.

KB1.308.1.11 Batzuetan, baita ere, gorputzaren osasuna hartzen du, berau arimaren salbaziorako egokia denean.

Ordea, oso kristau gutxi dira sakramentu honen efektuaz gozaten dutenak, gehiengo batek gehiegi itxaroten duelako hartzeko eta konortetik gabe daudenean hartzen baitute; batzuetan, baita ere, gaixoarentzat heriotza osasuna baino probetxugarriagoa delako; baina era bereziz izaten da disposizio oso eskasa edukitzen delako eta jainera gutxi behar bezala hartzeko, batik bat batzuen.

KB1.308.1.12 Sakramentu hau behin baino gehiagotan har daiteke, hiltzeko arriskuan zauden beste abagunetan, gaixotasun desberdinak badira; baita ere, behin baino gehiagotan hartzerik badago gaixotasun bertsuan berau luzea bada, baldin une desberdinetan heriotzako ordua datorkiola begien bistakoa bada.

KB1.308.1.13 Apaizek bakarrik eman dezakete oliadura sakramentu hau. Gotzainak bedeinkatutako olio baliatu behar dute eta arrazoi honengatik gaixoen olio deitzen diogu, hau da sakramentu honen gaia. Santiagok aditzera ematen digu zera hau esaten digunean: gaixoa Jaunaren olioaz igurtzi behar dela. Olio honek indar berezia ematen digu, hots, Espiritu Santuaren ahalmena, zeina sakramentu honen bidez ematen baitzaio gaixoari.

Apaizak esaten duen otoitza, hau forma izango litzateke, honako hitzotan dago: *Oliadura honen bitartez eta Jainkoaren erruki handia dela medio, barka biezakizu delako zentzumenez, adibidez, begiez, belarriez, etab. egindako bekatu guztiak.*

KB1.308.1.14 Jesusek nahi izan zuen sakramentu honetan olio erabiltzea honen efektua guri hobeki aditzera emateko, izan ere, olioak leundu egiten du, indartu eta sendatu, eta oliadura sakramentuak gaixotasunak sortutako min latzak arintzen ditu, tentaldien aurka indartzen du eta arima bekatuetatik libratzen du, are eta gehiago, gorputzari gaixotasuna eta minak kentzen dizkio, baldin jainkoari egokia edo beharrezkoa baderitzo salbaziorako.

KB1.308.2 Bigarren atala **Oliadura hartzeko disposizioez eta sakramentu honen zeremoniez**

KB1.308.2.1 Oliadura sakramentua hartzeko egoera egokian egoteko kristaua izan behar da, arrazoi adina eduki eta gaixorik eta hiltzorian aurkitu; izan ere, osasuna dutenek penitentzia praktika dezakete, eta oliadura penitentzia egiterik ez dutenentzat da.

Heriotza zaurirekin eta izurridun daudenek hartu dezakete.

KB1.308.2.2 Komenigarria da, baita ere, heriotza arriskutan dauden haurrei ematea, baldin zazpi urte beteta badituzte, eta era berean adineko pertsoneri, zeren ahaleginak egin behar baitira har dezaten Jainkoari irain egiteko gai diren guztiek, eta irain dakioke ezagueran sartu orduko.

Eta baita ere sakramentu honek haiengan egin dezaketelako pertsona helduengan sortzen dituen efektu bertsuak, eta ez dago batzuei beste batzuei baino motibo gehiagorik emateko. Hauxe duzue San Buenaventuraren eta San Antonioren iritzia. Nola ez bada, eman dakieke zoroei eta eldarnioak dituztenei, baldin ez badira egoera horretan beti egon.

KB1.308.2.3 Eskomikatuei ukatu egin behar zaie oliadura, baita oraindik ezaguera ez dutenei ere, damugabeei, bekatu larri argi eta garbian hiltzen direnei, buruz buruko borroka egitera doazenei eta heriotzara kondenatuta daudenei. Era berean ez zaie oliadura eman behar itsasoaren arriskueta beren burua jartzen dutenei, eta presondegietan betiko kondena dutenei, salbu gaixorik edo heriotza arriskuan baldin badaude.

KB1.308.2.4 Sakramentu hau hartzeko nahitaezko baldintza zera da, bekatu larririk ez edukitzea; motibo honengatik, prezeski, Elizak ez du sakramentu hau ematen alde zurretik aitortu ez bada eta bidekoa hartu ez badu.

Baita ere, sakramentu hau hartu ahal izateko baldintza hoberenetan konfiantza handia izan behar da Jainkoarengan, gutxienez Jesusengana sendatzera joaten zirenek erakusten zutena bezalako; eta norberaren intentzioak eta otoitzak Elizarekin bat egitea, sakramentua hartzen den unean berean.

KB1.308.2.5 Orokorrean otoitz luzeak esaten dira norbaitek oliaduraren sakramentua hartzen duenean, ez ordea beste sakramentuak hartzen direnean, baina hau hala bada, gaixoak une horretan behar handia duelako izaten da, izan ere, une horretan besteen beharra baitauka berak ezin duelako eskatu.

Esan daiteke, baita ere, gaixoak eta bertan presente daudenek egiten dituzten otoitzak sakramentu hau eman aurretik, beste sakramentuetan eskatzen diren dispozizioak ordezkatzeko dituztela. Orokorrean penitentzia-salmoak errezatzen dira, sakramentu hau penitentziaren osagarria baita, eta Trentoko kontzilioak dioen bezala, kristauaren bizitza etengabeko penitentzia delako; horregatik, penitentzia egin behar izan baita, penitentzia sentimenduekin ere hil behar da.

KB1.308.2.6 Igurtziak olio bedeinkatuaz gurutze bat eginez burutzen da, sakramentu honen bidez hartzen den grazia Jesusen pasioa eta heriotzari esker lortutako merituengandik datozkigula aditzera emateko, eta deabruaren aurkako arma beldurgarri gisa erabili ahal izateko, bestalde oso indartsua ongi ezagutu eta garaitzeko.

KB1.308.2.7 Igurtziak begietan, belarrietan, sudurrean, ezpainenetan, eskuetan, bihotz ondoko bularrean, eta hanketan, zeren nola batzuk diren gure zentzumenen organoak, eta beste batzuk gure sentimenduen eta afektuen zeinuak eta gure obretan erabilitako tresnak, hala dira, baita ere, bekatuak egiteko tresnak; eta organo hauek bekatuak usteldu eta profanatu dituztenez, Elizak sakramentu honen bitartez garbitu egin nahi ditu, Jesusen presentziak eta ikuskariak merezi duten era bikainez.

KB1.308.2.8 Bost zentzumenetan igurtziak egiterakoan, sakramentu honek eskatzen dituen hitzak esaten dira bakoitzaren gainean; eta bukaeran gorputzeko organo horren izena ahoskatzen da. Begietan ikusmena esaten da, sudurrean usaimena, belarrietan entzumena ahoskatzen da, ezpainetan dastamena eta mintzamena, bularrean sentimenduak, eta hanketan ibiltzea ahoskatzen da.

KB1.308.2.9 Begietan igurtzia egiten da begiez egindako bekatuak ezabatzeko, esan nahi baita, begiradak, kuriostasunak, irakurketa txarrak, komediak, desioak eta lurreko ondasunen erabilera desegokia, honi begien irritsa edo sexu grina deitzen zaio. Gero belarrietako igurtzia egiten da gaixoak entzumenaz egin zituen bekatuak kitatzeko, adibidez, gaitz esateak, hitz likitsak, harreman galgarriak, atsegin handiz entzun diren abesti mundutarrak eta arriskutsuak, eta Espiritu Santuaren inspirazioei egindako ukaldiak.

KB1.308.2.10 Sudurreko igurtzia egiten da gaixoak usaimenaz egindako bekatuak garbitzeko, lurrinaren, usainen eta loreen bidez, eskandaluen eta jarraibide txarren bitartez, alde guztietan bizitza sano baten usain ederra zabaldu behar zenean.

Ezpainetan edo ahoan igurtzia egiten da ahoz egindako bekatuak kitatzeko, adibidez, jalekeria, mozkorkeria eta jan edo edateko orduko fintzea; eta mingainez egin zirenak, zeina, Santiagok dioen bezala, bekatu-mundu bat baita.

KB1.308.2.11 Eskuetan igurtzia egiten da gaixoak ukimenaz egin zituen bekatuak ezabatzeko, hatzen puntetan dagoelako sentiberatasunik zorrotzeta; ebasteak erreparatzeko, borrokak, krimenak eta menbrua hauen bitartez egindako hainbat bekatu kitatzeko; eta ahaztuta egin gabe utzitako hainbat egintza, eskuek sinbolizatzen dituztenak.

Bularrean igurtzia egiten da pentsamenduez egindako bekatuen zorrak kitatzeko, adibidez, harrotasuna, bekaizkeriak, hirak, herrak, afektu desordenatu eta gutxietsizkoak; bekatu ezkutak eta besteenak.

KB1.308.2.12 Hanketan igurtzia egiten da ibiltzeak ekarri dituen bekatuak garbitzeko, leku arriskutsu samarretara joanez, ibilaldietan, eta hankek sinbolizatzen dituzten bekatuen zorrak kitatzeko, eta sorkariekiko lotura larria edo arina izanda egin ziren bekatuak ezabatzeko.

Iritzia izango balitz ezin direla zentzumenen organo guztietan igurtziak egin, ez dira egingo, lehendabizi, zentzumenen zentzu bikoitza dutenen organoetan, hala nola, ikusmena, entzumena eta ukimena, bada aski da igurtzia bietako batean soilik egitea, hots, begi, belarri eta esku bakar batean; eta beharrak hala eskatzen badu, ez dira egingo giltzurrunetakoak, bularretakoak eta hanketakoak.

KB1.308.2.13 Are eta gehiago, egin liteke, bost zentzumenetako organo bakoitza behin batean igurtziz, gurutze santua egin gabe, eta behin bakarrik esanez honako otoitz hau: *Oliadura santu honen bitartez eta haren erruki handia dela medio Jainkoak barka diezazkizula ikusmenez, entzumenez, usaimenez, dastamenez, mintzamenenez eta ukimenenez egin zenituen bekatu guztiak.*

KB1.308.2.14 Gero apaizak gaixoari gurutzea erakusten dio, deabruari nahasmena sorrarazteko, gurutzea ikustean uxatu egingo baita, eta gaixoa ahalik eta ongien preparatzeko hil behar duen unean berean; eta gaixoarengan Jainkoarekiko konfiantza handia pizteko, pentsatuz nolako meritu eskergak irabazi zituen Jesussek bere pasioaz eta heriotzaz, eta orobat gaixoak eraman ditzan pazientzia handiz Jainkoak beragan permititzen dituen nahigabe guztiak, oso bortitzak badira ere, Jesusen jarraibideari ekinez, zeinak gogo onez nozitu baitzuen Jainkoak nahi izan zuen egintza oro, gure bekatuak zirela eta, gurutzean hiltzeraino.

KB1.308.2.15 Gero suziri bedeinkatu bat jartzen da gaixoaren eskuan, hiltzeaz dagoenean, deabruak uxatzeko, lainoetako espirituak baitira, apaizak bedeinkatu eta gero bertute espeziala baitu suziriak; kristautasunaren espirituaz hil nahi duen lekukotasuna uzteko, bataioan hartu zuena, orduan ere suziri bat jarri baitzitzaion eskuan; eta adierazteko Jesusekin bat eginda egon nahi duela hil arte, eta haren dotrinarekin, zeina benatako argia den, eta bera argi kiskalgarria eta distiratsua izan nahi duela Jainkoaren aurrean, haren maitasunagatik itzaltzen ari dela, bizitzako azken uneak hari eskainiz, bere bihotzeko afektu guztiaz.

Bederatzigarren kapitulua Ordenaz

KB1 309

KB1.309.1 Lehenengo atala
Ordenaren sakramentuaren izenaz, gaiaz, instituzioaz eta erabileraz, eta zazpi ordenez era bereziaz.

KB1.309.1.1 Beharrezkoa zen Jesusen ministroak eta agintariak Elizan egotea Jainkoari Eukaristiaren sakrifizioa eskaintzeko, fededunei sakramentuak emateko eta erlijioan eta betebeharrak guztietan eskolatzeko.

Horretan lagundu zuen Jesussek, graziaren legearen legetaririk nagusia, Elizaren burua eta fundatzailea, ordenaren sakramentua emanez; honen bitartez hartzen dutenei Elizaren funtzioak eta ministerioak eskaintzeko agintea komunikatzen zaie, eta aldi berean egokiro betetzeko grazia.

KB1.309.1.2 Sakramentu honi orden izena ematen diogu maila batzuk dituelako, batzuk beste batzuen menpean, funtzio desberdinak dituzte, eta mailaz maila igotzen dira, azken ordenatik lehenengora, alegia, apaizgoa, zeinetara bideratzen diren denak helburu gisa.

Sakramentu honek Jesusen apaizgoa ordezkatzeko digu eta misioa Jainkoaren eta gizakion arteko bitartekaria izatea da.

Badirudi Jesussek egin zuela pasioa nozitu baino lehen bere apostoluei ogiaren eta ardoaren azpian dagoen Jesusen gorputza eta odola sagartzeko agintea eman zienean, eta berpizkundearen ondoren bekatuak barkatzeko ahalmena eman zienean.

KB1.309.1.3 Jesusek Elizari komunikatu zion, apostolu santuen izenean, ministroak ordenatzeko eta besteei pasatzeko aginpidea. Apostoluek lehenbiziko gotzainei pasa zieten, eta gotzainek ondorengoei, etengabe eginez, eta hala iraungo du Elizan menderen mendetan.

Bai Liburu Santuen bidez eta bai tradizio apostolikoaren bitartez ezagutzen dugu Elizan egon den ministroen ordenatzea.

KB1.309.1.4 San Paulok Titori, Kretako gotzainari, egindako epistolari ezagutzera ematen digu apaizen ordenatzea. *Kretan utzi zaitut*, diotso, *hiri bakoitzean apaizak ordenatzeko eta ezartzeko*. Eta Timoteori: *Begira ongi ez ditzazun eskuak jarri inorengan azkarregi*. Eta baita berberari ere, *Arren biziarazi ezazu zure baitan dagoen Jainkoaren grazia eta eskuak jartzerakoan hartu zenuena*.

KB1.309.1.5 Hau dela eta, Trentoko kontzilioak dio inork ez duela zalantzan jarri behar delako orden sakramentua Elizak eraikitako zazpi sakramentu horietako bat dela, bada gauza argia eta garbia da, Liburu Santuek dioskutelako, apostoluen tradizioa dagoelako eta Eliz Guraso ororen irizpidea hau bera delako, esan nahi baita, ordenatze sagaratuaren bitartez, kanpoko hitzez eta zeinuez egiten baita, grazia ematen dela.

KB1.309.1.6 Zazpi maila daude sakramentu honetan zeinari orden izena ematen zaion. Hiru sakratuak izenarekin ezagutzen direnak, apaizgoa, diakonotza, eta azpidiakonotza, Jainkoari beren buruak era bereziz eskaintzen dizkiotelako, hartu dituztenak ezin direlako mundura itzuli, eta egiten dituzten funtzioak oso santuak direlako. Apaizak Jesusen gorputza sagaritzen dut Meza santuan, eta diakonoei eta azpidiakonoei laguntzen diote sakrifizioaren egintzan.

KB1.309.1.7 Lau orden daude txikiak deitzen direnak, hots, ostiariora, irakurlea, exorzista eta akolitoa. Txikiak deitzen diegu orden sakratuekin desberdintzeko; izan ere, haiek garrantzitsuagoak dira.

Orden guztiok ezarri ziren gure misterioen bikaintasuna jakitera emateko, hainbat ministrok eskatzen dutena, bestalde; haietako batzuek Eukaristia sagaritzen dute, beste batzuek banatzen dute eta hirugarrenek herria preparamen dute hartzeko.

KB1.309.1.8 Ordenaren maila guztiok sakramentuak dira, bada bakoitzean hartzen da, ikus daitezkeen zeinu sentikorrez, aginte sakratu bat eta praktikara egokiro eramateko grazia berezia. Ordea, ez dira zazpi sakramentu, baizik eta bat eta bera, bada denek dute helburu bertsua.

Elizan hiru funtzio nagusi daude: lehenengoa Jesusen gorputza eta odola sagaratea da; bigarrena bekatuak barkatea eta beste sakramentuak ematea da; eta hirugarrena Jainkoaren hitza aldarrikatea da.

KB1.309.1.9 Apaizek, funtzio hauek guztiak egiteko agintea baitute, ordenatuak izaten dira eta Jesusen gorputza eta odola sagaratzeko aginpidea dute, gotzainak kaliza ukiarazten dienean, non ardoa baitago, eta patena, zeinetan sagarapenerako ogi bat dagoen, eta aldi berean zera esaten dienean: *Har ezazu Jainkoari sakrifizioa eskaintzeko aginpidea eta baita meza ospatzekoarena ere, bai bizi direnen alde eta bai hildakoen alde*.

Bekatuak barkatzeko edo ez barkatzeko aginpidea hartzen dute gotzainaren bigarren esku-inposatzeaz batera, eta aldi berean esaten dizkien hitzez: *Bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatu egingo zaizkie, eta barkatzen ez dizkiezuenei ez zaizkie barkatuko.*

KB1.309.1.10 Diakonoak ordenatzen direnean Elizan Ebanjelio Santua irakurtzeko aginpide hartzen dute, Jainkoaren hitza aldarrikatzeko eta, orobat, Eukaristia banatzeko, hauek dira eta, bere ordenaren berezko funtzioak, eta bataioa zeremonia guztiarekin elizan emateko.

Gotzainak eskuak jartzen dizkienean dira ordenatuak eta honako hitzok esaten dizkienean: *Har ezazue Espiritu Santua, kementsuak izateko eta deabruari aurre egiteko Jaunaren izenean.* Eta gero gotzainak Ebanjelioak ematen dizkienean, eta ukiaztatzen, esaten die: *Har ezazue Ebanjelioa irakurtzeko aginpidea Jainkoaren Elizan, bai bizi direnen alde eta bai hildakoen alde.*

KB1.309.1.11 Azpidiakonak ordenatzen direnean apaizari zerbitzeko aginpidea hartzen dute gotzainak kaliza hutsa patenarekin batera ukitzeko ematen dienean, esanez: *Begira zuen ministerioak eskaintzen dizuena; beraz, joka zaitezte Jainkoari atsegin izateko moduan.* Eta gero gotzainak epistolen liburua eman eta ukiaztatzen dienean, esanez: *Har ezazue Epistolen liburua eta elizan irakurtzeko aginpidea, bai bizi direnen alde eta bai hildakoen alde.*

KB1.309.1.12 Akolitoak ordenatzen dira eta sakrifizioarako suziriak pizteko eta eramateko aginpidea hartzen dute gotzainak argimutil bat ematen dienean, non suziri bat dagoen, eta ukiaztatzen dienean esaten dien bitartean: *Har ezazue argimutil hau, eta jakizue derrigortuta zaudetela, Jaunaren izenean, elizako argiak piztera.*

Sakrifizioarako ardoa eta ura preparatzeko eta aurkezteko aginpidea dute gotzainak bi urardo ontziak ukitzeko eskaintzen dienean, non jartzen diren sakrifizioarako ardoa eta ura, esanez: *Har itzazue ur-ardo ontziok, Jaunaren izenean, Jesusen odolaren Eukaristiarako ardoa eta ura emateko.*

KB1.309.1.13 Exorzistak ordenatzen dira eta deabruak hartuta daudenak exorzitatzeko aginpidea dute gotzainak exorzismoen liburua ematen dienean eta ukitzera behartzen dituztenean, esanez: *Har ezazue liburu hau, ikas ezazue buruz, eta har ezazue astakirtenen gainean eskuak jartzeko aginpidea, esan nahi baita, deabruak hartuta daudenen gainean, bataiatuak izan edo katekumenoak izan, zeinak bataioa hartzeko eskolatzen dituztenak diren.*

KB1.309.1.14 Irakurleak ordenatuak dira eta Elizan jainkozko ofizioa abesten denean bertako irakurgaiak irakurtzeko aginpidea hartzen dute, gotzainak elizako irakurgai-liburua eman eta ukiaztatzen dienean, esanez: *Har ezazue liburu hau, irakur iezazue herriari Jainkoaren hitza; eta lan hau lehiatasunez eta eraginkortasunez egiten baduzue, hasieratik Jainkoaren hitza egokiro aldarrikatu dutenen saria bera jasoko duzue.*

Ostiarriak ordenatuak dira eta elizako atea zabaltzeko eta ixteko aginpidea hartzen dute gotzainak giltzak ematen dizkienean, esanez: *Bete ezazu ongi zuen ministerioa zeren Jainkoari kontuak eman behar baitituzkiezue giltza hauez egiten duzuen guztiaz*

KB1.309.2 Bigarren atala
Orden sakramentuaren ministroaz, har dezaketenez, erakutsi behar dituzten disposizioez, eta tontsuraz

KB1.309.2.1 Gotzainak soilik eman dezake orden sakramentua. Hau da guk dakiguna apostoluen tradizioaren bitartez eta Trentoko kontzilioak definitu duena.

KB1.309.2.2 Kristauei soilik eman dakieke orden sakramentua eta gizonezkoei soilik, bada, emakumezkoek, San Pauloren arabera, ezin dute ez irakatsi eta ez agindu Elizan.

Egia da antzinatean Elizan zenbait funtzio egin zituztela, eta batzuei diakonisak deitu zien; haien zeregina zera zen, sexu bereko pertsoneri laguntza ematea eta arropak erantztea, bataioa ematea, eta arropaz erantztea uretan sartzen zirenean bataiatuak izateko.

Baziren beste batzuk diakonisak deitzen zirenak, are eta gehiago sazerdotisak, beraien senarrak diakonoak edo apaizak zirelako, biak adostasunera iritsi eta gero, edo adina zela medio, horretarako preparatu zirelako; izan ere, sazerdote hitzak agurea esan nahi du. Baina emakumezkoetako inor ez zen sekula ondratua izan orden sakramentuarekin, bakar-bakarrik izena erabili zuten.

KB1.309.2.3 Orden sakramentua hartzen dutenen aldetik barrualdeko eta kanpoaldeko disposizioak eduki behar dira.

Barrualdeko disposizioak hauek dira: zintzotasuna, kastitatea, fedean tinkotasuna eta zientzia.

Kanpoaldeko disposizioak hauek dira: Elizarako adin egokia edukitzea, gorputza ongi formatua, menbrua guztiekin, zentzuen erabilera osoa, batik bat ikusmenarena eta entzumenarena, esklabu ez izatea eta zilegizko semea izatea.

KB1.309.2.4 Trentoko kontzilioak dio ez dela inor bultzatu behar orden sakramentua hartzera hogeita bi urte bete baino lehen, diakonotzara hogeita hiru urte baino lehen, eta apaiz izatera hogeita bost urte baino lehen; baina nahiko izango litzateke azken urtea hasita egotea.

Lau orden txikiak hartzeko nahiko izango litzateke diskrezio adina edukitzea. Laikoek benerazio eta begirune handia erakutsi behar diete apaizei eta bestelako eklesiastikoei, Elizako artzainak direlako, Jainkoaren ministroak eta haren misterioen emaeleak.

KB1.309.2.5 Orden hauez gainera, bada beste zeremonia bat biziera eklesiastikora sarrera ematen duena, eta gotzainak egiten du. Zeremonia sakratu honek tontsura du izena, ileak moztzen direlako. Antzinatean dena-denak moztzen ziren, erabat, jasotzen duenak zenbat aldendu behar duen mundu honetako ustelkerietatik eta huskerietatik adierazteko.

Tontsura zeremonia oso xumea da, Elizak ezarria, adierazteko delako pertsona mundutik bereizten dela eta Jainkoaren zein honen Elizaren zerbitzurako izango dela.

KB1.309.2.6 Tontsura hartu dutenei elizgizonak deitzen diegu, Jainkoa ondare gisa hartu dutelako, izan ere *clérigo* hitzak zatia edo ondarea esan nahi baitu. Baita ere, elizakoak deitzen diegu, Elizaren zerbitzurako ematen dutelako bizia.

Trentoko kontzilio sakratuak eskatzen du ez dadila inor onartua izan tontsura hartzeko honako lau baldintzok ez baditu: sendotza sakramentua hartua izan behar du, fedearen oinarriko printzipioak jakin behar ditu, irakurtzen eta idazten jakin behar du, eta argi eta garbi eduki behar da bizitza mota hau hartzerakoan Jainkoari zerbitzeko eta ez beste ezertarako hartzen duela. Gainera, zilegizko ezkontza batetik jaioa dela eta ez duela bere baitan ez zentsurarik edo bestelako edozein irregularitasun motarik.

KB1.309.2.7 Disposizio hauez gainera, oso da egokia tontsura hartzera hurbiltzen direnak Jainkoaren grazian egotea eta honez gain erakuts dezatela seinale batzuen bidez eliz artzain izateko egiazko bokazioa dutela.

Erakutsi dezaketzen seinaleak honako hauek dira: biziera honetara etortzea ez erosokerian edo alferkerian bizi ahal izateko, mundu honetan ondasunak pilatzeko edo senideren edo adiskideren baten lekua hartzeko, edo adimen edo gorputz gaixotasunen bat duelako; baizik eta, Trentoko kontzilioak iradokitzen duen gisa, Jainkoari zerbitzua eskaintzeko bizitza osoan eta Eliari zerbitzu egokia eskaintzeko; apaiz elizkoi, zuhur eta eskuzabal bati-edo aholkua eskatu eta gero, baldin apaiz honek eliz espiritua badu, jakina; pietatea, kastitatea, zientzia eta apostolu-garra edukitzea Elizan egokiro zerbitzeko eta berezko bizierak eskatzen dituen betebeharrak konplitzeko; eta oso ongi preparatuta sartzea.

KB1.309.2.8 Norbait eliz bizierara deitua ez dagoen seinale batzuk honako hauek dira: garbi ez izatea, ondasunen bat soilik eduki nahi izatea, biziera santu honetan nola bizi behar den ez arduratzea, sekular baten biziera totala eramatea, mundutarren konpainianaldi oro bizitzea, jokoarekin bat eginda egotea eta atsegin handiz plazerretan murgilduta bizitzea.

KB1.309.2.9 Biziera mota honetara datozenak eta tontsura hartzen dutenak bakar-bakarrik diru-iturri hobeak izateko eta orobat mesederen baten bidez aberasteko, bekatu larria egingo dute, eta baita honela egitera euren semeak bultzatzen dituzten gurasoek ere, inola bokazio-seinalerik gabe, etxeko zama arintzeko, edo familian mesederen bat kontserbatzeko; sarritan euren kondenaren kausa dira eta Jainkoaren aurrean erantzun beharko dute semeen bitartez egin duten eskandaluaz, Eliza osoaren aurrean.

KB1.309.2.10 Beraz, nahitaezkoa da gurasoek, arazo hauetan eror ez daitezen, kontu handia har dezaten, beren semeren batek tontsura hartzera eraman baino lehen; aztertu beharko dute elizarekiko bokazioa duten, eta benetako zuhurtzia eta pietatea duten halako biziera sakratuan sartzeko. Gainera, asko errezatu beharko dute eta praktika onak egin, Jainkoaren bitartez semearen bokazioa ezagutzeko, aitolarren bati edo debozio handiko apaiza bati edo elizako jakitunen bati aholkua eskatu. Are eta gehiago, nahitaezkoa beren semeei biziera honen obligazioak azaltzea eta galdetzea ea betetzeko asmo sendoa duten, eta Elizari mesede egitea eta bere arima salbatzea diren helburu bakarrak. Behin euren semeak tontsura jaso eta gero, derrigorrezkoa dute elizgizonen jantzia eta tontsura eramatea, horretara bultzatuko dute eta horrekin batera aukeratutako bizierak santuak eskatzen duen bizi-generoa betetzera.

KB1.310.1 Lehenengo atala
Ezkontzaren izaeraz, bikaintasunaz eta instituzioaz, eta Jainkoak izan zuen asmoaz sortzerakoan

KB1.310.1.1 Jesusek graziaren legea sortu baitzuen, dena graziaren bidez egin zedila nahi izan zuen. Horregatik, jakinik egintzarik ustelenetakoa ezkontza zela, gizaki gehienek Jainkoak ez bezalako asmoarekin egiten dutelako, kristauak derrigortu nahi izan zituen hartara hurbiltzerakoan asmorik sanoenaz eta garbienaz hurbil zitezela, hala egintza hau, hots, gizona eta emakumearen arteko elkartze eta bateratzea, sakramentu maila duinera igo zuen.

Egiterakoan senarrari eta emazteari eskaintzeko bizierarekiko betebeharrak bete ahal izateko baliabideak, graziaren laguntzaz, elkarrekiko sufrimenduak erraztasunez eroateko eta elkarrekiko leialtasun zorrotza gordetzeko.

KB1.310.1.2 Hala, bada, ezkontza gizona eta emakumea bateratzeko sakramentua da seme-alabak eduki eta Jainkoaren beldurrean hezteko. Hau gutzitia Trentoko kontzilio sakratuari esker dakigu.

KB1.310.1.3 San Paulok dio sakramentu hau handia dela Jesusengan eta Elizan; eta, egia esan, Jesusek Elizarekin duen hautsi ezinezko ezkontza adierazten du, eta giza izaeraren batasuna Gizakundeko Hitzarekin, zeina berarekin uztartu bazen, Jainkoari, bere Aitari, zegozkion seme-alabak emateko izan zen, eta haren Espirituaz bizitzeko.

Era berean, Jesusen asmoa da eta Jainkoarena berarena ezkontza sakramentuan, senarra gauza bat eta bera izatea emaztearekin, Jainkoaren Espirituaz, helburu bakar honekin, esan nahi baita, Jesusi jarraitzaileak emateko eta Elizari seme-alabak.

KB1.310.1.4 Ezin da ezkondu, Trentoko kontzilio sakratuak esan duen bezala, bi parrokietako apaiza bat presente ez badago, bi lekukoekin. Eta ezkontza burutu denean, ezin da eten, eta senarra eta emaztea ezin dira banandu; hau da, senarra ezin dela beste emakumearekin ezkondu, ezta emaztea beste gizonarekin ere, non eta ez den egiten bietako bat hil ondoren.

Alabaina, ezkontza ez bada burutu oraindik, bietako parte bakoitza aske da erlijioan sartzeko, beste partearen oniritzia jaso gabe; baina hori ezin du bi parteetako inork egin behin ezkontza burutu eta gero.

KB1.310.1.5 Jainkoa da ezkontzaren egilea eta sortu zuena, gizona sortu ondoren Eva egin zuenean Adanen gorputzetik eta emaztetzat eman zionean, esanez aldi berean: *Hara non gizonak bere aita eta ama utziko duen eta bere emaztearekin bat egingo duen biak haragi bakar bat izango direlarik.* Jesusek, hitzok aipatu eta gero, eta jakitera emateko Jainkoaren asmoa ezkontza sortzerakoan gizona eta emakumearen batasuna eten ezinezkoa izan behar zela, beste hitz hauek eranstean ditu: *Beraz, jada ez dira bi, baizik eta haragi bakar bat. Ez dezala, bada, banandu gizakiak, Jainkoak uztartu duena.* Hau dela eta, dio San Agustinek ezkontza edozeinetan ere jainkozkoa dela.

KB1.310.1.6 Baita ere, paganoek, dio Elizako Aita santu honek, ezagutu zuten ezkondu zirenean argi santurik eta jainkozkorik bazela ezkontzan; gainera, nazio guztiek adostasun orokorrera iritsi dira adulterioa kondenatu behar dela esateko orduan eta, baita ere, garbitasunaren aurkako bestelako aje guztien inguruan iritzia eman dutenean, eta, halaber, estimu handitan izan dute beti bai kastitatea eta bai moderazioa edo neurritasuna haragizko plazerrei dagokienean.

KB1.310.1.7 Hasieraren hitzak, *gizona emakumeari lotuko zaiola*, jakitera ematen digute Jainkoak ez zuela asmo bakarra, hots, gizonaren eta emakumearen gorputzak lotzea soilik ezkontzan, bien bihotzen barneko batasuna sortzea baizik, eta, gorputzen batasuna kanpora begira ematen den seinalea baino ez da, nolabait esateko. Gainera, ezkontza, bi gorputzen batasunik gabe, hala ere, egiazko ezkontza izango litzateke, bada, izan ere, hala gertatu zen San Josef eta Birjina Txit Santuaren artekoarekin.

KB1.310.1.8 Jainkoak izan zuen berezko asmoa ezkontza sortu zuenean gizona eta emakumea elkarri laguntzen egon zitezen bizitza honetako atsekabeak eta oztopoak azalduko zirenean. *Eman diezaiogun*, esan zuen Jainkoak, *berari dagokion laguntza*, mundu honetara seme-alabak ekarri eta Jainkoaren beldurrean hezi ditzaten. Hau da Jainkoak Adani eta Evari esandako hitzotatik atera daitekeena: *hazi eta ugaltu zaitzte*.

Eta inkontinentziari erremedioren bat jartzeko, izan ere hau da San Paulok esan nahi duena ondorengo hitzok: *Edozein likiskeria saihesteko, gizon bakoitzak izan dezala bere andrea eta andre bakoitzak bere gizona*.

Eta hau ere izan zen Jesusen asmoa ezkontza sakramentu mailara igo zuenean; eta nahi izan zuen, gainera, berari atxikita dagoen graziaren bitartez, senarra eta emaztea elkarri laguntzeko prest egon daitezen bai oztopoetan eta bai ustekabeetan, sekula banandu gabe.

KB1.310.1.9 Badago desberdintasun bat fedegabeen, judutarren eta kristauen arteko ezkontzaren artean. Paganoek ezkontza hitzarmen huts gisa hartzen dute; gizona eta emakumea elkartzen dira elkarrenganako adostasun batez seme-alabak izan eta hezteko; ondorioz, egintza sozial hutsa da, desordena eta munduko nahasmena saihesteko ezarria.

KB1.310.1.10 Judutarrek ezkontzan zerbait santu ikusten dute, Jainkoa egilea delako eta bedeinkatu duelako. Baina, batik bat, mesiasen etorrera erraztu behar zuelako zeinak gizakia libratu behar baitzuen bekatu orotik.

Baina kristauak, ezkontza sakramentu gisa ondratzerakoan, egiterakoan behar dute jarri arreta berezia Jainkoarengan, egiaz presiditzen duena, eta honen bitartez ematen zaien grazian. Horregatik ezkondu behar dira begirada Jainkoarengan soilik jarrita, Elizari seme-alabak emateko eta Jesusen bidean hazteko; bada ezkontza, zeina hastapenetan mundua populatzeko sortu baitzen, orain zerua populatzeko dago finkatua.

KB1.310.2 Bigarren atala **Ezkontzaren xedeez eta sakramentu honetan hartzen den graziaz.**

KB1.310.2.1 Hiru xede daude komunak eta naturalak direnak ezkontza guztientzat, Jainkoaren asmoari dagokionez. Lehena da senarra eta emaztea estu-estu lotzea. Bigarrena da elkarrekin biziartztea batak besteari laguntza emateko beharrian

guztietan. Eta hirugarrena da baliabideak ematea seme-alabak zilegitasunez mundura ekartzeko.

KB1.310.2.2 Jesusek finkatutako ezkontzan ere hiru xede daude. Izan ere, haren asmoa zera izan zen ezkontutako pertsonak ezkontzan santifika zitezten eta batak besteari lagundu ziezaion santifikatzen. Horregatik dio San Agustinek fededunen ezkontzetan, sakramentuaren santutasuna hobe dela eta ugalkortasun bertutea baino xede gehiago dagoela.

Sakramentua izan zedila nahi izan zuen, hautsi ezina izateko, honako hau esan zuenean: *Edozein delarik ere emaztea arbuia dezakeena beste batekin ezkontzeko, adulterioan erortzen da.* San Agustinek esaten du ezen, Elizan, egiaztatzen dela ez bakarrik ezkontzen lotura, baizik eta sakramentua, hala gizonak ezingo dio bere emakumea beste inori eman.

Jesusen xedea izan zen, baita ere, ezkontutako gizonak eta emakumeak eduki zezaten, sakramentuaren bitartez, berezko grazia elkarrekiko maitasuna eskaintzeko eta ezkontzaren betebeharrak konplitzeko, Jainkoaren ikuspegia kontuan izanik.

KB1.310.2.3 Haurrak egitea ez da nahitaezkoa egiazko ezkontza finkatu ahal izateko, eta oso ongi adierazten du San Agustinek San Josefen eta Maria Txit Birjinaren ezkontzaren adibidearekin; honetatik ateratzen du benetako lekukotasuna dela, fededun ezkontuentzat, alegia, biak bat badatoz kontinentzia gordetzeaz, baliagarri izan daitekeela eta ezkontza deitu dakiokela, ez sexuen gorputz batasunagatik, afektuaren arrazoi eta espirituaren batasunagatik baizik.

KB1.310.2.4 Sakramentuan grazia santutzaile gehigarri eta berezkoa hartzen da. Lehenengoa beste sakramentuei dagokiena bera da. Bigarrena sakramentu bakoitzarena da, bakoitzak duen berezkoa eta sakramentu-grazia deitzen da. Ohiko graziaz hartzen dena gehi laguntza oparoagoa da, Jainkoak eman ohi diguna, hartu denean eskuratu ditugun obligazioak egokiro bete ahal izateko.

KB1.310.2.5 Ezkontzaren sakramentu-grazia Jainkoak ezkontutakoei ematen diena da biziera horretan garbi eta santutasunez bizi ahal izateko, batu-baturik, ezkontzak dituen eragozpenak garaitu ahal izateko, eta hitz emandako promesak konplitzeko. Grazia honek erlazioa du ezkontutako pertsonen hartzen dituzten hiru obligazioekin, hau da, beti elkarrekin bizitzea, banandu gabe, elkarrekiko leialtasuna zaintzea, eta seme-alabak elikatzeaz gain kristautasunean hezte.

KB1.310.2.6 Ezkontutako pertsonen dagokien lehenengo obligazioari buruz, zeina beti elkarrekin bizitzea baita, banandu barik, sakramentuaren graziak elkarri maitasuna emateko kemena ematen die, Jesusek bere Eliza maite izan zuen bezala; elkarri laguntza emateko ahalmena, batak bestearen akatsak jasan ahal izateko eta nekatu gabe elkarrekin bizitzeko; eta elkarri zor diotena emateko indarra.

Ezkontutakoen bigarren obligazioari buruz, hots, leialtasunaz, ezkontzaren sakramentu graziak laguntza berezia ematen die ezkontzan ez egiteko permititua ez dagoena, beste inor ez maitatzeko eta honi buruzko tentazioei aurre egin ahal izateko, konpainietan aurkitu baitaitezke halako egoerak.

KB1.310.2.7 Ezkondutakoen hirugarren obligazioari buruz, zeina seme-alabak Jainkoaren beldurrean heztea baita, sakramentu-graziak kristau heziketa eta jarraibide ona ematen laguntzen die, seme-alaba asko edo gutxi izateaz kezurik erakutsi barik, eta Jainkoak ematen dizkiela pentsatuz.

KB1.310.2.8 Ez da ohikoa kristauek sakramentu honen grazia hartzea, gehiengo bat giza kontsiderazioa dela-eta ezkontzen baita, edo zikoizkeria dela medio, familia ezartzeko, eta askatasunez sentsual plazerrez gozatu ahal izateko; eta beraz, Jesusen ez bezalako interes okerrarekin. Rafael aingeruak, Tobiasen 6. kapituluaren, erakusten digu deabruak pertsona mota hauen baitan eragin handia duela, eta buruz dakizkiela zer-nolako ondorio beldurgarriak dituzten halako ezkontzek, bakar-bakarrik eginak beren pasioa ase eta zikoizkeria elikatzen.

KB1.310.2.9 Ezkontza-sakramentua asmo onez eta grazia egoeran hartzen dituztenei soilik ematen die Jainkoak sakramentu honek berezkoa duen grazia; eta, batek bere erruagatik hartu ez duenean, eta ez da erabat ezinezkoa ez hartzea, oso zaila suertatzen da, bederen.

KB1.310.3 Hirugarren atala **Ezkontza-sakramentuan eduki behar diren disposizioak**

KB1.310.3.1 Ezkondutako pertsonengan ematen diren nahasmendu gehienak zera honetatik datoz, hots, jende oso gutxi ezkontzen dela sakramentu hau eta beronen grazia hartzeko behar diren disposizio egokiek; eta San Pauloren hitzez esateko, oso jende gutxi ezkontzen dela Jaunarekin, Jainkoaren arabera eta kristautasunaren espirituaren gidaritzapean. Horregatik da oso garrantzitsua kristauei jakitera ematea zer-nolako disposizioak eraman behar dituen sakramentu honetara.

KB1.310.3.2 Ezkondu aurretik eduki behar den lehenengo disposizioa zera da, Jainkoak deitua izatea biziera honetara, bada Jainkoak ez ditu sakramentu honen graziak ematen ezkontzara deituak direnei ez bada. Eta hau, gainera, ez da nahikoa; nahitaezkoa da lotuko zaren pertsona Jainkoak eman nahi dizuna izatea, bada, Salomonek dioen bezala, Jainkoari dagokio zuhurtzia duen emakumea ematea.

KB1.310.3.3 Norbaitek ezkontzara Jainkoak deitu duen jakiteko baliabideok izan behar ditu kontuan: otoitz asko egin; haren nahi santua ezagutzeko harekin hitz eman aurretik; pertsona jakitunei, zuhurrei eta zintzoei aholkua eskatu; begiak jarri dituzun pertsona Jainkoaren beldurrean jantzia dagoen, eta ea pixka bat itxaronez gero salbatzeko laguntza jasoko duen ezkontzak eskatzen dituen baldintzak bete ahal izateko.

KB1.310.3.4 Hau dela eta, batek ongi ikusi behar du biziera honetarako joera duen, beronetan ongi bizi ahal izateko eta obligazio guztiak betetzeko, bada joera erabat aurkakoak badituzu, ez zaude biziera honetara derrigortua; era kristau batez familia bat zuzentzeko eta gobernatzeko gaitasuna baduzu, eta zure agindupean dauden guztiak obligazioak konplitzeko gauza badira, esan nahi du Jainkoak deitu dizula biziera honetara, bada Jainkoak ez dio inori deitzen balio ez duen gauza baterako; ikusi beharko duzu salbatzeko erratasun handiagoa izango duzun biziera honekin edo beste batean baino egokiagoa lortuko duzun delako salbazioa.

KB1.310.3.5 Beste disposizio oso garrantzitsua zera da, intentzio garbia edukitzea eta ez ezkontzea plazer hutsagatik; bada, San Agustinek esaten zuen bezala, norberaren basakeria gordetzeko edo ezkutatzeko ezkontza aukeratzea, sakramentu honen santutasunaz abusatzea izango litzateke. Sararen zazpi senarrak, Tobiasen liburuaren seigarren kapituluan esaten den bezala, ez ziren lotsaz gorritu plazer hutsaz ezkondu zirelako, eta deabruak agintea du motibo honekin ezkontzen direnen gainean.

KB1.310.3.6 Ezkondu ere ezin da ezkondu interes hutsagatik, bada, asmo honekin ezkontzen direnei gertatzen zaie, dio San Krisostomok, ondasun gutxien dutenak gehiago dutenen menpean gelditzen direla. Oso egokia da, gainera, ezkontzera doazenak, ahal delarik bederen, baldintza berak izateaz gain bertute handikoak direla erakustea.

KB1.310.3.7 Ezkontzera doazenei Elizak eskatzen dien beste disposizioa zera da gure erlijioiko misterio nagusiak ezagutzea eta *Gure Aita, Agur Maria eta Kredoa* otoitzak jakitea, Jainkoaren manamenduak eta Elizarenak, zazpi sakramentuak, batik bat bataioari buruzko sakramentuaren gainekoa eta ematerakoan ahoskatu behar diren hitzak; Penitentzia, Eukaristia eta ezkontzaren gainekoa, eta biziera horretarako beharrezkoa dena.

KB1.310.3.8 Baina sakramentu hau era egokiz hartzeko erakutsi behar den disposizioa da grazia egoeran jartzea ezkondu aurretik, aitortza ona eginez eta egun batzuk aurretik jaunartuz; izan ere, sakrilegioa izango litzateke ezkontzea Jainkoaren grazian egon gabe, eta sakramentuaren grazia hartzeko oztupoak jartzea, zeren hori gabe moralki ezinezkoa baita salbatzea.

KB1.310.3.9 Bukatzeko, ezinbesteko baldintza ezkontzeko zera da, ez dezala inork izan bere baitan ezkontzea galarazten duen øer. Badira eragozpenak ezkontza batere baliorik gabe uzten dutenak, eta beste batzuk batere baliorik gabe uzten ez dutenak, eragozten dutenak soilik, eta hartzerakoan bekatu larria eginarazten dutenak.

KB1.310.3.10 Ezkontzarako lehenengo eragozpena pertsonari dagokio, bat ezkontzen bada pertsona batekin, beste batekin ezkontzen dela pentsatuz, Jokobi gertatu zitzaion bezala, Liari entregatu zitzaionean, Rakeli entregatu ordez.

Bigarren eragozpena zin-hitz nagusia da, hots, monasterio batean erlijioso eta lekaiame izateko egiten den profesa, edo azpidiakonoa izateko ordena hartzen denekoa.

KB1.310.3.11 Ezkontzarako hirugarren eragozpena ahaidetasuna da senide edo ahaide zarenean laugarren gradu arte, azken hau barne, alboko erroaz, hala nola, anai-arrebak, lehengusu txikiak, eta besteak; izan ere, lerro zuzenekoak direnak, aita eta alaba, aitona eta iloba, etab., ez dute ezkontzerik izango sekula, nahiz eta lerro urrutikoak izan.

KB1.310.3.12 Senarrak ezkontza ahaidetasuna hartzen du emaztearen ahaideekin eta emazteak senarrarekin, gauzak hala, bietako bat hil dadinean, bestea ezingo litzateke ezkondu bestearen ahaideekin laugarren maila arte, azken hau barne. Era berean ezkontza ahaidetasuna hartzen da ezkontzatik at abusatu den pertsonaren ahaideekin, bigarren gradu arte gutxienez.

Baita ere, ezkontza ahaidetasuna erdiesten da bataioaren eta sendotzaren bitartez eta espirituzkoa deitzen da. Eta ahaidetasun hori lortzen da bataiatzen duenaren eta bataiatua denaren artean, eta bataiatuaren aitaren eta amaren artean; eta aitabitxi eta amabitxiren artean, eta bataiatuaren edo sendotuaren aitaren eta amaren artean.

KB1.310.3.13 Ezkontzarako laugarren eragozpena sexu ezintasuna da, bietako batek ezin duen ezkontza kontsumatu.

Ezkontzarako bosgarren eragozpena zera da bizi den pertsona batekin lehenago ezkondu izana; bada ezkontzarekin hitz ematen dutenak ezin dira beste pertsona batekin ezkondu aurrekoa bizi den bitartean.

Ezkontzarako seigarren eragozpena erlijio aniztasuna da, bada kristau bat ezin da fedegabe batekin ezkondu, baina katoliko bat herese batekin bai.

KB1.310.3.14 Ezkontzarako zazpigarren eragozpena giza hilketa-krimena edo adulterioa da, senar batek, adibidez, beste emakume batekin ezkontzeko asmoa izanik, berea hiltzen duelarik; edo beste batekin adulterioa egiten duenean, eta ezkontzeko hitza ematen dio bere aurreko emakumea hil eta gero, bada ezingo da inoiz ezkondu beste horrekin. Gauza bertsua gertatzen da emaztearekin; honek ere ezingo ditu erabili aipatutako baliabideak beste senar batekin ezkontzeko.

KB1.310.3.15 Ezkontzarako zortzigarren eragozpena indarra eta gogorkeria da, batek bere hitza ematen duenean indarra eta inposaketa dela medio, edo bidegabeko mehatxupean.

Ezkontzarako bederatzigarren eragozpena moduzkotatzen publikoa, pertsona batek hitza eman edo beste batekin esposatu denean, ezkontza kontsumatu ez denean oraindik; halako kasuan, bietakoren bat zentzen bada, bestea ezingo da ezkondu hildakoaren anaiarekin edo arrebarekin. Eta heriotza gertatzen bada ezkontza kontsumatu eta gero, bizi denak ezingo ditu ezkondu hildakoaren ahaideak laugarren gradu arte.

KB1.310.3.16 Ezkontzarako hamargarren eragozpena bahiketa da, gizon batek, adibidez, gazte bat bahitzen duenean; bada nahiz eta gazteak amore eman, ezingo da gizon horrekin ezkondu bere gurasoengana itzultzen duen arte.

Ezkontzarako hamaikagarren eta azken eragozpena izaten da ezkontza ez denean egiten parrokoaren aurrean eta bi lekuko presente ez badaude.

KB1.310.3.17 Ezkontza baliorik gabe uzten ez duten baina egiteko baimenik ematen ez duten ohiko eragozpenak, gainera, gauzatzen bada bekatu larrian erortzen baitzara, haiek dira: Elizak debekatutako garaian ezkontzea, kastitate- edo erlijio-botoa egin izana, eta beste pertsona batekin hitz emanda egotea.

Ezin da ezkondu Abenduko lehenengo igandetik Errege Magoen jaia pasatu arte, eta Hausterre egunetik Bazko zortziurrenkoa pasatu arte.

KB1.310.3.18 Elizak egoki ikusi du garai horietan ez ezkontzea zeren Abenduko eta Garizumako egunak penitentzia egiteko direnez, eta otoitzerako erabili behar direnez, fededunak erraztasun handiz urrunduko bailirateke praktika hauetatik ezkontza jaietan,

zeinetan, orokorrean, mahai onari, gehiegikeriari eta alferrikako egintza askori ematen baitaio garrantzia eta erraztasun handiz horietara lerratzen.

KB1.310.3.19 Izan dira kontzilioak ezkontzak igandeetan galarazi izan dituztenak, kristauak oztoporik aurkitu ez zituzten parroketan igandeko mezatarara eta jainkozko ofizioetara joateko, eta egun horiek profana ez zituzten Jainkoari zor zaion eskuerakutsiarekiko zerbitzuarekin zerikusirik ez dutelako.

KB1.310.4 Laugarren atala

Ezkon hitzez eta bestelako prestamenez, ezkontza sakramenturako berehalako disposizioez

KB1.310.4.1 Gainera, Elizak beste disposizio bat erantsi du ezkontzarako, berak ezarritako zeremonia da eta ezkondu aurretik egitera behartzen du; zeremonia honi ezkon hitza deitzen zaio.

Zera honetan datza, alegia, sexu desberdinetako bi pertsonen elkarri promes handia egiten diote, Elizaren aurrean, senar eta emazte izatea elkar onartzen dutela.

KB1.310.4.2 Promes hori ez betetzea bekatu egitea da, salbu zilegizko kausa badago, orduan Elizari dagokio hori erabakitzea eta onartzea. Beraz, ezkon hitzak Elizaren agintaritzaz soilik eten daitezke, eta hori gerta daiteke biek ala biek nahita erretiratzen dutenean elkarri eman zioten hitza, edo bietako bat beste batekin ezkondu denean, hitzez edo presentez, edo kastitate botoa eginez.

KB1.310.4.3 Elizak ez du permititzen ezkon hitza elkarri eman diotenak etxe berean elkarrekin bizitzea, eta nahi du ezkon hitza eman dutenean aurrean egon den apaizak debeka diezaiela, gerta daitezkeen eskandalu arriskutsuak saihestu ahal izateko eta gainera ondorio txarrak ekar baititzakete; eta pertsona horien gurasoek tentu handiz zaindu behar dute harreman estuegirik izan ez dezaten, eta begiratu lekukoaren aurrean baino hitz egin ez dezaten, hauxe bera egin behar dute lekukoek.

KB1.310.4.4 Oso egokia da ezkondu baino dezente lehenago ezkon hitza ez ematea, eta halako promes motarekin berehala ezkontzeko oso ongi preparatuta ez dagoenari hitz emaraztea, hitza gordetzeko beldur direlako edo bestela delako promesek bekatu larriak egiteko aukera ematen dietelako.

Ezkon hitzak parroko elizan egin behar dira eta sekula ez beste inon. Elizak etxean egitea debekatzen du, zeremonia sakratua delako eta ezkontza sakramenturako prestakuntza.

KB1.310.4.5 Zeremonia honetan apaizak aurkezten diren biei galdetzen die ez agian eгина duten kastitate edo erlijio botorik, edo ezkon hitza beste norbaiti emana dioten, ea gurasoen baimena duten bien artean ezarri nahi duten batasuna gauzatzeko, edo bestela, ez diren horretara behartuak izan mehatxua edo indarra dela medio, edo beste pertsona baten beldurra edo agintaritza dela bide.

Gero apaizak hitz emateko agintzen die biei senar eta emazte gisa hartuko dutela elkar, beranduen berrogei egun barru, Eliza santuak horretarako baimena ematen badu.

KB1.310.4.6 Oro har, ezkon hitza eman eta gero eta ezkontza burutu baino lehen kargu-hartzeak argitaratzen dira, esan nahi baita, ezkonduko diren pertsonen bi elizetan egingo den ezkontza iragartzen da, ezkontza eragotzi dezakeen zerbait bada jakiteko, eta parrokiko guztiak mugi daitezten bakoitzaren ongia gertatzeko egoerarik egokienak ezagutzeko, gorputz bertsuarekin kide baitira, eta Jainkoari etengabe eskatzeko egitera doazen ezkontzak bere bedeinkapenak izan ditzan.

Hitz emanda daudenek, sarritan egin behar diote otoitz Jainkoari, besarkatu nahi duten bizieran Jainkoaren grazia oparoak jaso ahal izateko.

KB1.310.4.7 Oso egokia da ezkonduko direnek otoitz beroa egin dezaten ezkonduko diren egunean, eta debozio sentimendu sakonak izan ditzaten Jainkoaren bedeinkapenak ekartzeko bai beretzat eta beren senideentzat, bai oraingorako eta bai eternitaterako. Batik bat saihestu behar dituzte luxuzko jantziak eta harrokeria, jabeturik bataioan Jainkoaren graziaz jantziak izanik, ezkontzan ez dutela delako Espiritua erantzi behar, bertan oparotasun handiagoz hartuko baitute.

KB1.310.4.8 Elizara neurritasun eta jaiera handiz joango dira, eta han isilik eta begirune handiz itxaron, pentsatuz zer-nolako egintza santua egitear dauden; eta apaizaren aurrean egon daitezenean haren instrukzioak arreta eta esanekotasun handiz entzun behar dituzte, eta haren aurrean elkarrekiko baietza eman, aldarrikatuz senar eta emazte gisa onartzen dutela elkar.

KB1.310.5 Bosgarren atala Ezkontzaren zeremoniez

KB1.310.5.1 Sakramentu hau ongi hartzen gehien laguntzen duen gauzatariko bat zera da, delako sakramentua administratzerakoan egiten ari dena ongi ezagutzea eta ulertzea.

Hau oso garrantzitsua da ezkontza sakramentuari dagokionez eta biziki ontsa lagun dezake disposizio santuekin hartzeko orduan. Horregatik iruditu zaigu egokia eta eraginkorra izango zela hemen azaltzea eta adieraztea fededunei, jabeturik honek ezkontza begirune handiz ikusiko dutela eta kristau espirituak soilik bultzatuta hartu behar dela.

KB1.310.5.2 Ezkondu direnak bedeinkatzen dituen apaizak lehendabizi eraztuna bedeinkatzen du eta gizonari ematen dio, esanez ez duela ezkonduko den emaztea baino maitatu behar. Hau dela eta, antzinatean, seiluaren aliantzak ezkontzen ziren pertsonen izenekin markatzen ziren.

KB1.310.5.3 Gizona eta emakumea elkar entregatu dutenean bion borondatearekin, senarrak emaztearen hatzean eraztuna jarriko du, jakinarazteko berak ere ez duela beste gizonik maitatu behar; izan ere, eraztuna senarrak eta emazteak elkarri zor dioten leialtasunaren eta maitasunaren sinboloa da; eta bata besteari entregatzen zaionean ezkontzan bihotzen batasuna ematen dela adierazteko izaten da.

KB1.310.5.4 Elkar maite duten pertsonen artean eraztuna elkarri ematea aspaldiko kontua da, eta Itun Zaharrean praktikatzen zen jada, Hasieran azaltzen den bezala, non esaten den Tamar-ek Jakob-i bere eraztuna eskatu ziola erakusgarri gisa.

KB1.310.5.5 Gero senarrak txanpon bat edo batzuk aurkezten ditu emaztea elikatzeko obligazioa hartzen duela eta ondasun elkartean sartzen direla adierazteko. Apaizak txanponok bedeinakatu ditu Jainkoari eskatzeko ezkontutakoena lana bedeinka dezan, eta eman diezazkiela bizitza honetarako behar dituzten ondasunak. Hau guztia hala izan dadin, leku batzuetan apaizak, diru hau ezkontuei emanez, zera esaten du: *Zuen eskuez egindako lanez biziko zarete, Jainkoak bedeinakatu du eta zoriontsuak izango zarete.*

KB1.310.5.6 Ezkontzera doazen pertsonak apaizaren aurrean daudenean, honek galdetzen die ea senartzat eta emaztetzat elkar hartu nahi duten, eta Elizak positiboki: *Bai* erantzuteko eskatzen du; izan ere, ezkontza zilegia izateko aske eta bolondresa izan behar da eta ez indarpean egina; eta beharrezkoa da nahia hain positiboa izatea ezen ez bailuke inolako zalantza izpirik sortu behar benetakotasunak.

KB1.310.5.7 Senarrak eta emazteak elkarri eskua ematen diote, berresteko zin-hitz baten bidez bezala, elkarri eskaini nahi dioten maitasuna. Eskuin eskua eskaintzen diote elkarri, bada bi eskuin esku baturik leialtasunaren sinboloak izan dira herri guztietan.

Senarrak emaztearenaren gainean bere eskua jartzen du, bere emaztearen buru dela adierazteko, eta hark menekotasuna zor diola, eta bera izan behar dela lehena leialtasuna eskaintzen.

KB1.310.5.8 Zeremonia hau mundua bezain zaharra da. Liburu Santuak diosku Ragüelek, Tobias gaztearekin bere alaba ezkontzera emanda, bere alabaren eskuin eskua hartu zuela eta Tobiasi aurkeztu ziola.

Senarra eta emaztea, bata bestearen eskutik helduta egonik, beren ezkontzako promes nagusiak egiten dituzte, elkarri eskaintzen dioten gorputza onartuz parrokoaren eta lekukoaren aurrean.

Promesok presente egonik egiten dira, eta bost gauza egitera derrigortzen dituzte: elkarri leialtasuna eskaintzera; elkar maitatzera; ezkontza kastitatea gordetzera; beren seme-alabak Jainkoaren beldurrean zaintzera, Hari egoki baderitzo ematea; eta elkarri laguntza eskaintzea biziera horretan sor dakizkiekeen arazoetan.

KB1.310.5.9 Antzinatean, hitz emate hauek senarrak egiten zuen zeremonia batez gauzatzen ziren, bere eskua emaztearenean pausatuz, Ruten liburuan ikusten den bezala.

Ezkontzaren azken zeremonia bedeinkapen nagusia da, apaizak Elizaren izenean ematen duena, esanez: *Nik batzen zaituztet Aitarene eta Semearene eta Espiritu Santuarene izenean. Amen.* Aditzera emateko senarrak eta emazteak egin duten batasuna zeruan berretsia izan dela, eta Jainkoak sortu baitu ezkontza, Hark ere bedeinkatu behar du.

KB1.310.5.10 Bedeinkapen hau Jainkoak Adani eta Evari emandakoaren luzapena da, *hazi eta ugaldu*, eta orduz gero erabili izan da, Tobiasen liburuan esaten den bezala, Ragüelek, Tobias bere suhia eta Sara bere alaba bedeinkatu zituen bezala, ezkontzarako entregatu zituenean.

KB1.310.5.11 Ezkontza ospatu ondoren Meza santua egiten da eta ezkondu berriek debozio handiz entzun behar dute; hau beti izan da kontuan Elizan, Tertulianok

esandakoari kasu ematen badiogu eta halaber San Ebaristo aita santuari lotzen zaion testu batean agertzen den bezala.

Antzinatean ezkonduak bertan jaunartzen zuten, zeren Eukaristiari Eliz Gurasoek sakramentuen eta grazia guztien perfektzioa eta kontsumazioa deitzen baitiote, eta, gainera, Jesusen odolak, zeina isuria izan baitzen eta Meza santuan eskainia baita, ezkonduak ezkontzan egin dituzten promesak santuagoak eta ezin hautsizkoak egin ditzan.

KB1.310.5.12 Bertan, ezkonduak suziri piztu eta zuriari eusten diote, bataioaz gero kastitatea kontserbatu behar izan dutela adierazteko, eta preparatuta egon behar direla, argiak piztuta, Ebanjelioan esaten den bezala, benetako senarrarengana joateko, hots, Jesusengana.

Eskaintzan esku hartzen dute, denen aurrean garbi uzteko ezkontza Jainkoari atsegin zaion gauza dela eta Elizak ondratzen duela, bere bakea ematen dielako ezkontzen direnei eta haiek egiten dituzten eskaintzak hartzen dituelako. Baita ere, egiten da jakitera emateko Jainkoari beren bizitza santu eta atseginak eskaini behar dizkiotela, ezkontza garaian Haren alde sakrifikatu behar direla, beren sexu grina mortifikatuz eta orobat irritsa desordenatu guztiak.

Nikolas aita santuak diosku honetaz zeremonia oso zaharra dela eta Elizan garai guztietan praktikatu.

KB1.310.5.13 Apaizaren jaunartze ondoren, ezkonduen gainean mantelina hedatzen da, hauek belaniko jarrita daude aldarearen oinean. Zeremonia honek esan nahi du, Tertulianoren iritziz, emakumeak gizonari zor dion menpetasuna, eta San Anbrosioren ustez, esan nahi du emakumearen apaingarririk ederrenak ahalkea eta neurritasuna direla, ezkontzatik ezin bereizizkoak, bestalde.

KB1.310.5.14 San Anbrosiok berak dio zeremonia hau lege naturaletik datorrela, bada Hasiera liburuak dio Rebekak, Isaak ikustean, zeinekin ezkondata baitzegoen, bere burua eta aurpegia estali zituela, jakitera emateko, dio Eliz Guraso honek, ahalkeak beti hartu behar diola aurrea ezkontzari. Praktika hau fedegabeek ere erabiltzen zuten, zeinen artean, Tertulianok dioen bezala, emazteak, mantelina batez estalita, eramaten zituzten senarren aurrera.

KB1.310.5.15 Mantelina, egia esan, emakumeei soilik dagokie edo eta are gehiago birjinei soilik; ez dagokie emakume alargunei, duen esanahiak ez duelako eraginik haiengan. Dena den, senarrari ere dagokio erakusteko, dio San Isidorok, begirune handia zor diola emaztearen ahalkeari, eta haren gorputza begirune eta ohore handiz tratatu behar duela, apostoluak agintzen duen bezala, eta esku hartu behar duela ezkontzan izango diren bai eragozpenetan eta bai lanetan..

KB1.310.5.16 Momentu honetan, apaizak, ezkonduak begiratuta, Jainkoari eskatzen dio, ezkontzaren egilea eta santifikatu duena denez, ezkonduak elkarrekiko afektu benetakoa eta zintzoa emateko.

Gero, era bereziz, emaztearen alde eskatzen du, ezkontzaren bidez hartzen duen uztartaria bakezkoa eta maitasunezkoa izan dadin eskatuz, eta Jesusek nahi bezalako asmoak bete

ditzan ezkontzan; senarrarekin maitagarria izateko Rakel bezala, zuhurra Rebeka bezala eta leiala Sara bezala; etengabe bete ditzala Jaunaren manamenduak; eredu izan dadila erakutsitako ahalkea eta seriotasunagatik, eta jakituna jainkozko gauzetan; etorkizuneari zorionekoa izan dadila; kontserba ditzala kosta ahala kosta kastitatea eta inozentzia; eta baliabide hauen bitartez zeruko santuen konpainiaren duintasuna lortzeko gauza izan dadila.

KB1.310.5.17 Jarraian bakea ematen die, jakinarazteko bizitzako azken momentura arte leialtasun handiz kontserbatu behar dutela; eta ezkontza, bat eginda ez badira bizitzen, jasan ezinezko zama egingo zaiela, infernuaren hasiera izango delarik.

Ezkonduak egunaren beste zatia neurritasun handiz iragan behar dute, edarian eta janarian gehiegikeriak saihestuz, eta, halaber, dantza limuriei eta mota guztietako irritsei galga jarritz.

KB1.310.5.18 Jakina, oturuntza eman dezakete, baina nahitaezkoa da kristau eratakoa izatea, bada oturuntza horiek Bildotsaren ezkontzara gonbidatuak daudenen espirituzko poza ordezkatzeko dute, eta beti egin izan dira, Liburu Santuan ikus daitekeen bezala, hots, bat ospatu zela Jakob Rakelekin ezkondu zenean, eta Tobias gaztea Sararekin, Ragüelen alabarekin, ezkondu zenean.

Alabaina, Eliz Gurasoek ez dute begi onez ikusi jai mota hauek, ez debekatu nahi izan dituztelako, baina bai horietan gehiegikeria anitz egiten eta lizentzia gehiegi hartzen delako, oso zailak saihesten, bestalde.

.....

KB1.400 **Bigarren tratatua**

Otoitzaz, zeina Jainkoarekiko betebeharrak egokiro konplitu ahal izateko grazia erdiesteko baliabidea baita

KB1.401 **1. Kapitulua** **Otoitzaz berenez**

KB1.401.1 **Lehenengo atala** **Zer da otoitza.**

KB1.401.1.1 Jesus Gure Jaunak sakramentuak sortu zituen ohiko grazia eskuratzeko baliabide gisa eta, era berean, delako grazia hau kontserba genezan beste baliabide bat eskaini zigun, gaur egun behar ditugun graziak erdietsi ahal izateko.

Sakramentuen erabilerak grazia anitz ematen digu eta daukagun grazia kontserbatzeko ahalmena ematen. Baina, sakramentuak ez direnez egunero hartzen, eta hala ere grazien beharra etengabe dugun gure egintzak ongi burutzeko, gainean ditugun tentazioak uxatzeko eta ongian irauteko, derrigorrezkoa izan da Jainkoak eman digun beste baliabidea egunero mesede hauekin gozatu ahal izateko.

KB1.401.1.2 Hau da oso erraz lortu dezakeguna otoitzaren bidez, eta honetarako sortu du Jainkoak eskura dugun gure sorospen gisa, eta edozein momentutan balia dezakegu, bizitza honetan behar dugun guztia Jainkoarengandik erdiesteko, salbazioa lortu eta betiko bizitza eskuratzeko.

KB1.401.1.3 Otoitza gure adimenaren aplikazioa eta gure bihotza Jainkoari eskaintzea da, gure omenaldiak eskaini ahal izateko, eta gure salbaziorako behar ditugun gauza guztiak Hari eskatzeko.

Otoitza gure adimenaren aplikazioa dela esaten dugu; izan ere, edozein delarik ere egiten dugun otoitza, eta edozein delarik ere egiten dugun egintza, Jainkoak ez ditu berari zuzendutako otoitzat, non eta ez dugun gure adimena aplikatzen otoitzak dioen horretaz.

KB1.401.1.4 Esaten da, baita ere, otoitza gure bihotza Jainkoari eskaintzea dela, zeren otoitzean sentikorrek diren gauzen gainetik ibiltzen baikara Jainkoaz soilik okupatzeko; izan ere, Jainkoari hitz egiten diogulako otoitzean ahoz baino gehiago bihotzaz; eta otoitzak Jainkoarengana joateko preparamen gaituelako, harenganaino igotzeko eta Harekin bat-bedera izateko, afektuen batasunean, Bera nahi izateko beste edozeren gainetik eta lehenago, edo Berarekin dugun harremana bitarteko delako.

KB1.401.1.5 Jainkoari gure omenaldiak eskaintzen dizkiogu gurtzen dugunean, eskerrak ematen dizkiogunean Berarekin batera dugun guztia ematen digulako.

Jainkoa gurtzea bere handitasun infinitua onartzea da, sorkari guztien gainean duen agintea eta aldi berean denen aldean duen independentzia; eta hau pentsatzen dugunean apaltasun handiz egin behar dugu, haren jainkozko begirune sakona gure sentimendu gisa barneratzeko.

KB1.401.1.6 Jainkoari eskerrak ematea eman dizkigun ondasun natural guztiengatik esker oneko izatea da, jakinik Bera gabe ezingo genituzkeela erdietsi, adibidez, sortuak izan garelako, egunero bizitzeko aukera ematen digulako, gure gorputzari behar haina elikagai eskaintzen diolako; azken batean, gorputzaren garapenari eta biziaren kontserbatzeari begiratzen dion guztiarengatik; izan ere, Jainkoaren grazia infinituaren efektua baita gizakiarentzat, merezi du eskerrak eman diezazkigun.

KB1.401.1.7 Baita ere, Jainkoaren onberatasuna aldarrikatzea da eman dizkigun grazia guztiengatik eskerrak ematea, bai orokorrak, adibidez, gure bekatuetatik libratu gaituelako, herri kristau eta katoliko batean jaiotzeko fabore handia egin digulako, eta orobat fedean gorde gaituelako; edo, baita ere, partikularrak, Harengandik jasotakoak jai garenetik, hala nola, sakramentuak hartzeko zoria izan dugulako, tentazio askotatik libratu gaituelako, sarritan ongia egiteko goiko argia bidali digulako, edo maiz praktikatzeko kemena eskaini digulako; edo bestelako grazia partikularrak oparitu dizkigulako, adibidez, areriores bati barkatzeko autua eman digulako, edo harrokeria eta lizunkeria tentazioren bat garaitzeko kemena izan dugulako, etab.

KB1.401.1.8 Jainkoari nork bere burua eskaintzea eta orobat daukan guztia, norbera den guztia eskaintzea da, norberaren sentimendu guztien entrega egitea, hitzen eta egintzen eskaintza egitea, eta ondasun guztiena, bai espiritualak eta bai denborazkoak; hitz batez esateko, mundu honetan dugun guztiaren entrega egitea, Jainkoari aditzera

emanez Haren menpean gauden bezala, era berean ematen dugula geu garen guztia Haren zerbitzurako; ziurtatuz, are, batek ez duela bere kabuz deusik erabaki nahi, baizik-eta haren nahiari amore ematen diola erabat, eta eskatuz ez ditzala permititu gure baitan ez pentsamenduak eta ez hitzak Haren aldeko borondatearekin bat ez badatoz eta guri eskatzen digunarekin adostasunik ez badago. Halaber, eman dizkigun grazia guztiak presente egingo dizkiegu, esanez ez dugula haren ondasunez abusatuko eta eskainitako gauza bat bera ere ez dugula alferrik galduko; eta, bukatzeko, naturaren doe guztien eta gureak diren bestelako ondasunen eskaintza eginez, Harengandik jaso baititugu eta ez beste inoren eskuetatik, eta jakinaraziz Haren alde soilik erabiliko ditugula.

KB1.401.1.9 Norberaren eskaintza hau, daukagunaren eta jaso dugunaren eskaintza, adorazio otoitzarekin lotuta dago, non Jainkoaren menpean gaudela onartzen eta aldarrikatzen den; izan ere, gauza hauek guztiak horregatik eskaintzen zaizkio Berari, hala edukitzeko nola kontserbatzeko; eta, gainera, Berak eman badizkigu hauen bitartez bera laudatzeko eta ondratzeko da.

Jainkoari gure salbaziorako behar ditugun gauzak eskatzen dizkiogu ongia praktikatua eta gaizkia uxatzeko behar ditugun graziak eskatzen dizkiogunean, eta, orobat, bekatuen barkamena eskatzen diogunean.

KB1.401.1.10 Jainkoari ongia egiteko beharrezko grazia eskatzen diogunean erregutzen ari gatzaizkio delako obra on hori egiteko baliabidea eta erraztasuna eman diezazkigula, praktika horretan zailtasunak izango ditugulako, adibidez, gaizkia egin digun pertsona bati barkatu nahi diogunean, eta delako pertsonari ahalik eta on gehien egin nahi diogunean, zehazki esanda, pertsona horrengana hurbildu eta nola aurkitzen den galdetu, eta karitate handiz harekin hitz egin, nahiz eta hori egiteko nazka edo higuina sentitu; edo bestelako edozein obra on praktikatua, bai berehala edo bestelako une batean.

KB1.401.1.11 Jainkoari gaizkia saihesteko beharrezko grazia eskatzen diogunean erregutzen ari gatzaizkio bekatuak ez egiteko beharrezko grazia eman diezagula, edo bekatu bereziren batean ez erortzeko, aukera oso hurbil dugunean, edo aurrerantzean etor dakigukeenean. Adibidez, erregutzea da lagun diezagula tentazioan ez erortzen, bai harrokeria tentazioan eta bai lizunkeria tentazioan; sutan jartzeari edo pazientzia galtzeari uko egitea honelako uneren baten aurrean aurki gaitzkeenean; irainetara ez lerratzea; edo gezurrik ez esatea, baldin halako batean hutsune, hutsegite eta akats horietan erortzeko abaguneari aurkitzen bagara.

KB1.401.1.12 Otoitzak gauza hauek guztiak hartzen baditu ere, hala ere, partikularra dena eta izatez otoitza deitzen dioguna Jainkoari egiten dioguna da graziaren bat edo beste eskatzeko; izan ere, *otoitza* hitzak esan nahi du Jainkoari egiten diogun eskaria, apaltasunez eta etengabe. Horretaz, era bereziz, hitz egiten dugu tratatu honetan.

KB1.401.2 Bigarren atala Otoitzaren beharraz.

KB1.401.2.1 Gizakia Jainkoarentzat soilik sortua izan baita, dudarik ez dago, badu obligazio bat eta zera da, Jainkoari omenaldiak egin behar dizkio; eta etengabe

Jainkoaren beharra baitu, era berean maiz eta sarri askotan zuzendu behar zaio Jainkoari otoi-tzetan, graziak erdiesteko eta haren ontasun infinituaz eman diezazkion eskatzeko.

KB1.401.2.2 Eta Jainkoa baita gizakiari eman diona daukan guztia, honek askotan eskaini behar dio omenaldia; sorkari gisa, derrigortuta dago begirunea eta gurtza eskaintzera, eta hala kanpotik nola barrutik umiliatzera eta abailtzera Haren aurrean, ikusirik zein ezereza eta gauza eskasa den, eta, berriz, Jainkoa zein handia den eta zernolako maiestate bikainekoa; sorkari guztietan distira islatzen duena eta zeinaren aurrean den-denak atomoak baino txikiagoak diren.

KB1.401.2.3 Jainkoarengandik hartu eta egunero hartzen segitzen ditugun hainbat graziak, Harengana jotzea behartzen gaituzte eskerrak emateko. Jainkoari esker txarreko izatea ez baitzaio batere atsegin, nahi du Bera zerbitzen dutenek onar dezatela daukaten guztia Hari zor diotela; eta orokorrean ez dizkie graziak ematen baizik eta eskerrak ematen dizkioten heinean Harengandik hartuta guztiarengatik.

KB1.401.2.4 Jainkoaren seme-alabak baikara, Jesusen jarraitzaileak eta Espiritu Santuaren Tenpluak, egunero Jainkoari gure arimak eskaintzera eraman behar gaitu, Espirituaz bete-bete eginda gelditzeko, eta gure gorputzak eskaintzen dizkiogun bezala eskaintzeko, Hari erabat sagaratuak baikalde; aurrerantzean, ezingo dira erabili, jakina, erabilera profanorako, ezta hain lotsagarria izango litzatekeen bekatua egiteko.

Eta eskaintza hau hain da inportantea, ezen Jainkoaren bedeinkapenak ez baititugun erdietsiko, hauekiko leialtasuna erakusten dugun heinean ez bada.

KB1.401.2.5 Zalantzarik ez izan, argia behar-beharrezkoa dugu zērura garamatzen bidea ezagutu eta ikusteko eta orobat erdiesteko praktikatu behar diren bertuteak. Argi hau gabe itsu baten gisa ibiliko ginatete eta etengabe galduko ginatete.

Hau da egiaz gertatuko zaiguna, San Krisostomok hala esanda, ez bagara gogo biziz otoi-tzean aritzen; izan ere, hau, Aita beraren arabera, gure arimaren argia da, arima argitzen duena, eguzkiak gure gorputza argitzen duen bezala. Are eta gehiago, esaten du askoz gehiago, ezingo dugula kristau bizitza egin otoi-zari ekiten ez badiogu, zeina, dio, gure arimaren bizitza baita; eta Jainkoari etengabe otoi-tz egiten ez diona hilik dago, miserablea da eta ez du mugimendurik, arimarik gabeko gorputzari gertatzen zaion legez, hots, baita ere, bizirik gabe dago.

KB1.401.2.6 Danielen jokaera adibide argi bat da, esan nahi baita, nahiago izan zuela hiltzea hiru egunetan otoi-tzik egin gabe egotea baino; izan ere, gure Jainkoak ez badu erabakitzen gure beharretan laguntzea, gure arima ez da gauza izango edozein ongi egiteko; eta Jainkoak, hala ere, ez du erabakiko gu laguntzea eta gure atsekabeak arintzea, ez bagara ohitzen hari eskatzera otoi-tzaren bitartez.

KB1.401.2.7 Hau dela eta, santu berberak baieztatzen digu, Jainkoak eman digun manamendua dela, Jesusen bitartez esan zigunean etengabe eskatu behar genuela eta gure bizitzari baino arreta handiagoa eman behar geniola Jainkoaren kultuari. Ematen duen arrazoia zera da, ezin dugula kristautasuna biziki ontsa bizi izango eta ezta jaieran hazi ere edo gure bihotz barruan gorde altxor preziatua bailitzan, otoi-tzaren bitartez ez bada.

KB1.401.2.8 Izan ere, norbait baldin bada garbitasuna maite duena, edo beste norbait erraztasunez kastitatea kontserbatu nahi duena, edo sumindura kontrolpean jarri eta neurritasunaren bertutea praktikatu, zikoiztasuna uxatu, edo, azkenik, debozioz bizitzen saiatu, otoitzean aritzen bada, erraztasun handia erdietsiko du horretarako.

Eta ez da gertatuko Jainkoari garbitasuna, justizia, neurritasuna, eskuzabaltasuna eta beste bertute guztiak eskatuz gero, erraztasunez ez erdiestea, zeren Jesusek ziurtatzen baikaitu Jainkoari zerbait eskatzen badiogu, emango digula, bada, eskatzen duenak jasotzen du; eta gaiztoak direnek ematen badute, zernahi gertatu ere, gauza onak beren seme-alabei, zenbat eta arrazoi handiagoz ez ote die emango zeruko Aitak bere Espiritu Santua eskatzen diotenei.

Arrazonomendu molde hau guztia San Joan Krisostomoren da, eta azkenean esaten digu gauza erraza dela ulertzea nekez ibili gaitzkeela bertutearen bidean gure otoitza albo batean utzi eta haren laguntzarik gabe.

KB1.401.2.9 San Agustinek dio, baita ere, otoitzaren bitartez ez bada, ezingo ditugula erdietsi zenbait bertute; hala nola, dio, grinekiko neurribidea, jakinduria eta ongian iraunkortasuna; eta Liburu Santuen bidez egiaztatzen du. Bada Jakitunak dio inork ezin diola grinari eutsi, baldin Jainkoak horretarako graziarik ematen ez badio; eta Donejakuek, bestalde, dio, norbaitek jakinduria behar badu nahitaezkoa dela fedez eta konfiantzaz eskatzea, eta Jainkoak emango diola.

Kontua ez da San Agustinek esan nahi duela badirela bertute batzuk otoitzik gabe erdietsi ahal daitezkeenak; baizik eta, bertute hauek erdiesteko nahitaezkoa dela otoitza, bai, baina era bereziz, zeren, edukitzeko, sarritan eskatu behar baitzaizkio Jainkoari, sugar handiagoz eta iraunkortasun irmoagoz.

KB1.401.2.10 Egia bada ongia praktikatu ahal izateko otoitzaren beharra daukagula, era berean eta ez gutxiago behar dugu gaizkia urrutiratu eta bekatutik aldentzeko. Hauxe da era miragarri batez San Kristostomok berak aditzera ematen diguna zera dioskunean, alegia, pertsona batek akats asko izan eta egin arren otoitz zalea izanik, berehala libratuko dela bekatutik eta erabat garbi geldituko dela. Bada, izan, bada, jainkozko sendagaia gaixorik eta bekatuak kutsatuta dagoen arimarentzat, eta bihotzaren barrenean sartzen denean, bertan aurkitzen duen malizia guztia kanporatzen du eta justiziaz betetzen.

KB1.401.2.11 Jesusek berak ziurtatzen digu Ebanjelio santuan deabrua, hots, bekatu likitsua, bihotzetik erazten okerreana, haren jabe egin denean, otoitzaren eta barauaren bidez soilik desagertaraz daitekeela.

Honetatik erraza da ondorioztatzen, ezen munduak argia behar duen bezala, gorputzak bizia kontserbatzeko, eta gaixoak sendagaia osatzeko, arimak ere, Jainkoari zerbitu nahi badio bekatuen hatzaparretan usteldu gabe, otoitza nahitaezkoa duela.

KB1.401.3 Hirugarren atala Otoitzaren onurez

KB1.401.3.1 Otoitza hain beharrezkoa izango ez balitzaigu ere gure salbaziorako, hartatik lortu ditzakegun onurak eta eraginkortasunak bultzatu behar gintuzke hartara aplikatzen.

Ezin dira hobeto azaldu onura hauek San Krisostomok egin zuen moduan baino, otoitzaren bikaintasuna, beharrezkotasuna eta eraginkortasuna adierazteko egin zituen bi liburutan. Horregatik aurrerantzean santu horrek gai honi buruz esandakotik baino ez dugu beste deusik bilduko.

KB1.401.3.2 Santu honek jakinarazi nahi digu otoitz egiten duen horrek gozatzen duen lehendabiziko onura Jainkoarekin hitz egitea dela. Eta onura hau hain da handia, dio santu berberak, eta imajina dezakeguna baino hain dago goian, aingeruekin batera harremanetan jartzen baikaitu, otoitza aingeruen zeregina delako.

Baiki, ez al du ematen Jainkoak aingeruak sortzerakoan otoitz egiteko sortu zituela? Jainkoaren aurrean apaliki, ohorea eta omenaldiak eskaintzen dizkiote, zaintzen dituzten gizakien alde erregutzen dute, edo Jainkoari gure eskariak aurkezten dizkiote. Beraz, otoitz egitea aingeruen betebeharra egitea da. Eta gizakion eta aingeruen arteko desberdintasuna handia izanagatik ere, otoitza, alabaina, komunean duten ariketa da.

KB1.401.3.3 San Krisostomok gehiago esaten du oraindik: otoitzak gizakia aingeruen duintasunaren gaineratik jartzen du; izan ere, aingeruek, egiaztatzen du, ez dira Jainkoaren aurrean azaltzen omenaldiak eskaintzeko, baldin ez bada begirunez eta nolabaiteko beldur pittin batez; ordea, gizakia otoitzean ari denean, Jainkoarekin hizketan dihardu aurrez aurre erabateko fidantziarekin.

KB1.401.3.4 Gizakiak, egiaz, espirituzko goreneko asebetea sentitu behar du eta pozez gainezka egin, pentsatuz nolako ohorea egiten dion Jainkoak, hilkorra izanik, harekin hizketan egiten duela ikusita eta ematen dion tratua jabetuta; eta delako ohorea are eta handiagoa da, gizakia hilkorra eta hauskorra izateari uzten dionean, dio San Krisostomok, horregatik otoitzean sarritan aritzeak bizitza hilezkorrera eramazarazten du gizakia.

KB1.401.3.5 Otoitzaren bidez, baita ere, dio santu honek, gizakiak Jesusen tenpluak izatera iristen dira, eta marmolak, urreak eta harri bitxiak erregeren etxeak hornitu eta apaintzeko balio duten bezala, manera bertsuan otoitzak gure arimak Jesusen tenplu bilakatzen ditu; eta balio du, era berean, dotoretzeko, eta halako edertasuna eta distira ematen dizkio, ez du ematen lehenago zena, beste zerbait baizik.

Horregatik San Krisostomok esaten du San Paulok, egindako otoitzen bidez, fedegabeen bihotzetan Jesus biziari zuela; eta otoitzak halako moldez aldatu zuela Ninive hiria hain denbora gutxian, ezen aurretik ezagutu zuena geroago sartu izan balitz ez zukeela inola ere ezagutuko, behin bizitza lizuna utzi eta pietateari eman ondoren.

KB1.401.3.6 Esaten du era berean ezen etxe baterako zimentarria den bezala badela molde bertsuaz otoitza gure arimarako; eta bera dela gure jaiera oinarritzen eta ziurtatzen duena. Hau dela eta, esaten du arima otoitzari sarritan atxikitzen zaionean, aldi berean sartzen direla hartan bertute guztiak.

Ba ote da justuagorik eta santuagorik, dio Aita santu berak, Jainkoarekin harremanak dituztenak baino? Ezin da imajina zein handia den haien jakinduria, haien zuhurtzia, haien ondasuna, haien neurritasuna, eta zein den, bukatzeko, haien bertutea eta ohituren garbitasuna. Izan ere, otoitzaren gauzarik miresgarriena zera da harrapatzen dituen bihotzak justiziaz betetzen dituela bertan egoitza eginez. Horregatik ezin du gaizkirik ametitu eta erraztasun handiz egiten du garbia bekatuak harrapatutako arima.

KB1.401.3.7 Hau guztia froga daiteke, dio San Krisostomok, Ebanjelioko publikanoarenarekin, Jainkoarengandik bere bekatuen barkamen osoa hartu baitzuen eskatu bezain azkar; eta emakume bekatariarenarekin, zeina bizitza guztia likiskeriatan eta lizunkeriatan eman ondoren, arimaren salbazioa eta sendamena erdietsi baitzituen Jesusen oinetan makurtu zenean.

KB1.401.3.8 Nahiz eta otoitzak arimari onura handia eman, bertutearen praktikan ari izanez, eta bihotzean duen malizia guztia jaurtikiz, eta bekatu guztiak garbituz, bere eraginkortasuna ez da mugatzen, ordea, honetara; horretara dedikatzen direnak, baita ere, arrisku mota guztietatik libratzen ditu, bai espirituuzkoak eta bai materiuzkoak.

KB1.401.3.9 Espirituzko arriskuei dagokienez, hots, tentazioez, gure baitatik badatoz eta guk dugun gaizkirako joeratik, otoitzak halako moldez indartzen du gure arima pentsamendu txarren aurka, itzaltzen ditu edo ez-kaltegarriak bilakatzen ditu, bestela.

Baldin deabruaren aldetik badatoz, espiritu gaizkileek konturatzen direnean arima indartuta dagoela eta otoitzen murgilduta, dio San Krisostomok, atzera egiten dute; baina otoitzaren laguntzarik eta babesik gabe aurkitzen badute, bekatu mota askoren barrenean nahasten dituzte eta haien baitan miseria baino ez dute ereiten. Halako beldurra diote otoitzak ematen duen balorea eta indarrari, ez dira ausartzen egoera horretan dagoen arimaren hurbiltasunera joaten. Horregatik dio San Krisostomok otoitza izugarriko gotorlekua dela deabruentzat

KB1.401.3.10 Arrisku iragankor eta denborazkoei buruz, esan nahi baita, munduan aurki ditzakegunen inguruan esan, nahikoa dela otoitz egitea haien hatzapparretatik urruntzeko. Horixe da San Krisostomok frogatzen duena Moisesen eta Daviden kasuak aipatzen dituenean; bada, lur honetako erregek ez bezala, hauek soldadu kopuruan eta hauen trebezian oinarritzen baitute garaipena eta gerrarako abilezian, Moises eta David otoitzean soilik oinarritzen ziren etsaien aurkako garaipena lortze aldera, hori baitzen arerioak inguratzeko gotorlekua.

KB1.401.3.11 Hori izan zen ikusi zena israeldarrek agindutako lurraren aurka zetozen lurreko herrien kontra borroka egiten zutenean. Moisesek otoitza baino ez zuen jarri etsai andana haren aurka, hala jokatzekoan erakutsiz justuen otoitzak armak baino indartsuagoak direla gehiago eta ausartagoak direnak makurrarazteko. Bada, Moisesek otoitz egiten zuenean, israeldarrek garaitzen zuten, eta otoitz egiteari uzten zionean, bat-batean galtzen zuten ordura arte erdietsitako alde.

KB1.401.3.12 Gauza bera gertatu zen San Pedro presondegian egon zenean, Elizak otoitz egin zuen haren alde eta presondegiko atak parez pare zabaldu zitzaizkion. Sarritan gorputzeko gaixotasunak osatzeko balio digu, hala suertatu zitzaion lepra zuenari, Jesusen oinetara makurtu zenean, bat-batean sendatuta gelditu zen. Horregatik dio San Krisostomok, ezen Jainkoak halako azkartasunez sendatu bazuen gaixotasunak

ustelduta zeukan gorputza, hainbat eta egokiago eta errazago sendatuko dituela gure arimak, bekatuaren gaixotasunak eta leprak hartuta egon arren.

KB1.401.3.13 Sarri askotan otoitzak badu beste ondorio bat, Jainkoaren gizakiekiko hira baretzen du. Hori da Moisesi gertatu zitzaiona Jainkoa israeldarrekin erabat suminduta egon zenean; hainbeste otoitz egin zuen ezen, Hark nahi ez izan arren, eragotzi baitzion herri haren aurka mendekua hartzea. Izan ere, Liburu Santuak hau ziurtatzen du, hots, Jainkoak Moisesi zera esan ziola: *Utz nazazu aske, ez eragotzi gero niri herri honen aurka nire sumina erabiltzen.*

KB1.401.3.14 Baita ere, ahalmen berezia ematen du jasan beharreko guztia nozitu ahal izateko, nahiz eta hainbatetan oso zail izan. Otoitzak eman zion, izan ere, San Paulori, gorputzean hartu zituen azote eta kolperik handienak ere jasan ahal izateko kemena, estatua bat bailitza, gauaren erdia otoitzean eman eta gero.

KB1.401.3.15 Otoitzak munduko plazerrak baztertzera garamatza eta gure arima lurreko gauzetatik urruntzera.

Horra hor otoitzaren efektu nagusiak, San Krisostomok erakusten digunez, eta aski ongi ezagutzera ematen diguna otoitzetik atera dezakegun onura, eta zein probetxuzkoa den otoitzean etengabe aritzea.

KB1.402

2. Kapitulum

Otoitzari lagundu behar dizkioten zertzeladak

Otoitza egiterakoan ematen diren zertzeladak direla eta, ulertu behar dira kontutan hartu behar diren baldintzak onuragarria izan dadin eta Jainkoari atseginak gerta dakizkion; hala nola momentuak eta lekuak otoitz egiteko, eta orobat erakutsi behar den postura eta jarrera. Hau guztia azalduko dugu hurrengo bi ataletan.

KB1.402.1 Lehenengo atala

Otoitzak izan behar dituen baldintzak.

KB1.402.1.1 Ez da aski hitzak ahoskatzea edo kanpotik otoitz egiten ari zaren itxura ematea otoitza atsegin gerta dakion Jainkoari, onuragarria izan dadin zeuretzat eta halaber lagun hurkoarentzat, ez. Honetarako, nahitaezkoa da otoitzak baldintza batzuk izan ditzan; izan ere, baldintza hauek izan gabe ez litzateke atsegina izango Jainkoaren aurrean eta gutxi balioko luke edo, are eta gehiago, alferrikakoa izango litzateke osotora.

Otoitzak izan behar dituen zortzi baldintza garrantzitsuak honako hauek dira, hots: bihotz garbitasuna, arreta, debozioa, gogo bizia, apaltasuna, etsi ona, konfiantza eta jarraitutasuna.

KB1.402.1.2 Bihotz garbitasuna izateko derrigorrezkoa da bihotza bekatutik libro egotea; eta hau hain da garrantzitsua otoitzean ari izan nahi dutenentzat, ezen Jainkoak ez ditu inola ere bere graziak igortzen bihotza bekatuz lepo eginda daudenen erreguak entzuterakoan. Hau bera adierazten du biziki ontsa Errege Profetak, esaten duenean Jaunaren begiak justuaren gainean pausatzen direla eta haren belarriak erne egoten

direla erregutzen diotenean; ordea, ez diela kasurik egiten bekatarien erreguei, bada haren etsaiak izanik, ezin ditu Hark entzun eta ezta eskatzen dutena erdietsi ere.

San Krisostomok bi arrazoi ematen ditu horretarako. Lehenengoa da ezen izanik otoi-tza gizakiaren indar natural guztien gaineratik dagoena, nahitaezkoa da Jainkoaren Espiritua norberarekin presente egotea, adore emateko eta otoi-tzean gidatua izateko; eta Espiritu Santua gure baitan dagoela bekatutik urruntzen garen heinean eta harekiko herra dugun neurrian.

KB1.402.1.3 San Krisostomok ematen duen bigarren arrazoa zera da, deabruak ahaleginak eta bi egiten dituela otoi-tzean gauden bitartean gure adimenaren pentsamendu santuak eragozteko; horregatik, arima santifikatua denean Espiritu Santuaz, deabruak ez du erraztasunez aurkituko sarrera delako arima horretan, eta nekez lortuko duela une horretan gure arre-ta durduzatzea, otoi-tzaren garapena oztopatzea edo gure otoi-tzen ondorio onak eragozte-a.

KB1.402.1.4 Baita ere, oso da garrantzitsua erne egotea otoi-tzean ari garen bitartean, bada Jainkoak ez ditu begi onez ikusten, arre-ta handiz egiten ez badira, esan nahi baita, ez badira Jainkoaz edo eskatzen zaionaz pentsatuz egiten. Eta arrazoa San Ziprianok ematen duena da igandetako otoi-tzaren inguruan berba egiten duenean, hots, ez dela egokia gizakiak Jainkoari entzun diezaion eskatzea, nor-k bere buruari entzuten ez badio otoi-tzean ari denean; eta akats handia dela pentsamendu profanoen menpean egotea Jainkoari otoi-tz egiten diogunean. Une horretan Jainkoaz pentsatzea baino zer-bait hoberik balego bezala.

KB1.402.1.5 Jainkoari otoi-tz egitea arretarik gabe, gure adimena pentsamendu okerrekin edo alferrikakoekin galtzen uztea da; eta horri otoi-tzean oharkabeak edukitzea deitzen diogu. Nor-bait horretan gelditzen bada nahita edo oharkabe aritu izan delako, bekatu da, eta egiten duena da otoi-tzak inolako fruiturik ez ematea. Baina, oharkabeak nahita izan ez direnean, bekatu ez, alderantziz, askotan meritu izan daitezke Jainkoaren aurrean.

Alabaina, erne ibili behar da halako abaguneak saihesteko eta, are gehiago, ahal delarik, norberarengandik urruntzeko; eta honetarako, egunean zehar gure zereginean egin behar dugunaz eta gure salbazioaz pentsatzen aritzea da.

KB1.402.1.6 Egia da zail dela adimena etengabe otoi-tzean pentsatzen edukitzea eta oharkabeak saihestea, gizakiaren adimena ez delako bere pentsamenduen jabea. Horregatik da garrantzitsua erne egotea otoi-tz egiten dugunean, eta norberaren barrenean sarri askotan sartzea, gure adimenari beste pentsamendu hutsalen sarrera saihesteko, eta, hala ere, baten bat sartzen bada, kalterik ez egiteko.

KB1.402.1.7 Arretak otoi-tzari balioa eta meritu-a ematen dion bezala, era berean debozioak eusten dio. Berak otoi-tz egiten dutenei grazia oparoak ematen dizkie, eta Jainkoak eskatutako graziak erraztasun eta atsegin handiz helarazten dizkie.

Deboziaz otoi-tz egiten da Jainkoarekiko egiazko xera sentitzen denean, haren zerbitzuko gauzekin atxikimendua dagoenean edo haren aintza lortzen denean. Desio eta afektu honek egiten dute guk benera dezagun eta omenaldiak egin diezazkiogun.

KB1.402.1.8 Zail da otoitza Jainkoari atsegin gerta dakion deboziorik ez bada erakusten bertan. Alabaina, ez da beharrezkoa debozio hau sentibera izatea eta kanpotik ikusi ahal izatea; alderantziz, batzuetan onuragarriagoa da barrukoa soilik izatea. Eta gure bihotza erabat beteta badago otoitzarekin, gure Jainkoa orduan eta poz handiagoz egongo da, gure otoitzak bihotzezko edo espirituzko oldarrez eta hasperenez beteta balego baino, zeren honek harrokeria eta sasi poza sorraraziko bailuke gure baitan.

KB1.402.1.9 Otoitzean erdiesten dugun gauzarik onena zera da Jainkoaren ezagutza eta maitasuna, edo graziaren bat bata zein bestea erdiesteko. Honengatik Jainkoari eskatu behar dizkiogu deboziorik etaugarrez, Jainkoaren dohain preziatuena direlako eta orobat onura izugarri ederrak eskuratzen laguntzen dizkigutelako.

Jainkoak gure aldetik edukitzeko gogo bizia erakustea nahi du; eta gogo bizi hori zenbat eta sutuagoa izan, orduan eta lastertasun handiagoz ematen ditu Jainkoak. Hau da Jainkoak Danieli aditzera eman ziona, aingeru baten bitartez jakinarazi zionean bere otoitza entzun zuela desio-gizona zelako.

KB1.402.1.10 Gure otoitz guztiei gogo biziak lagundu behar badie ere, alabaina, ezin diogu Jainkoari manifestatu eskatzen diogun guztia emateko desioa. Ahal dugu, are eta gehiago behar dugu, desiratu gogo biziz espirituzko ondasunak eta gure arimaren salbazioari dagokion guztia. Horregatik ez dago inor Jainkoari eskatu behar ez dionik bekatuarekiko herria, ongiarekiko maitasuna, tentazioarekiko garaipea, akats baten menpean bagaude horrekiko askatasuna, bertute baten lortzea eta jaierekekiko iraunkortasuna; izan ere, hauek dira desiratu behar diren gauzak.

KB1.402.1.11 Baita ere, egokia da otoitzari indar handiagoa ematea abagune berezi batzuetan, adibidez, tentazio handiren baten menpean dagoenean bat, alegia, bekatu lerratzeko arriskuan jartzen duena; edo ekintza onen bat egin nahi bai, baina hori lortzeko zailtasunak daudenean; edo nazka ematen duen zerbaiti aurre egin behar zaionean.

KB1.402.1.12 Baina mundu honetako ondasunei dagokienez edukitzeaz antsia debekatuta dagoenez, ez baitakigu onuragarriak izango ote diren gure salbaziorako, ezin dira desiratu era absolutu batez. Horregatik, eskatzerakoan gogo bizia erakusten bada, Jainkoari merezi duen ohore berezia eskaintzen diogulako izan behar da eta otoitz egiten diogulako, baina ez eskatzen duguna lortzeko dugun desioa adierazteko.

KB1.402.1.13 Zalantzarik gabe, apaltasuna otoitzerako jarrera aparta da, eta halako garrantzia du ariketa honetan, ezen bera da eragilea Jainkoaren aurrean eskatzen dioguna erraztasun handiagoz erdietsi ahal izateko.

Abrahamek egin zuena da, alegia, imajina ditzakegun hitzik umilgarrienak erabili zituen Jainkoari Sodoma eta Gomorra ez suntsitzeko eskatu zionean. *Nire Jaunari hitz egingo al diot, esan zuen, neuk hautsa eta errautsa baino ez naizen honek?* Juditi ere honek eman zion sekulako konfiantza, berak bakarrik, judutarren aurka zeudenekiko garaipea erdiesteko, kontsideratuz Jainkoari beti izan zaiola atsegina apalen otoitza.

KB1.402.1.14 Adiera hau du Kohelet liburuan esaten denak, hots, *apaltzen denaren otoitzak zeruak zartatzen dituela*; eta San Krisostomok ematen duen honen inguruko azalpena zera da, apaltasunak Jainkoari gure otoitza zuzentzeko balio duela.

San Jeronimok beste testu batean diosku Jainkoa bera hain ona dela apalekin, non hain txikiak baitira eta ezin duten Harenganaino igo, haienganaino jaisten dela haien otoitzak entzuteko eta kasu emateko. Hau ikusten da garbi Ebanjelioko publikanoaren kasuan; ez zen ausartzen begiak jasotzera, Tenpluaren atzeko ate ondoan egoten zen, eta bat-batean entzuna izateko ditxa izan zuen, haren otoitzaren apaltasuna bikaina izan zelako.

KB1.402.1.15 Gure otoitzetan erakutsi behar dugun apaltasunak Jainkoaren borondatearekin bat egitera eraman behar gaitu, eskatzen dioguna lortzearren bai, baina Hark nahi duen eran, maneran edo moldean. Eta hau zergatik? Berak beste nehork baino hobeto dakielako behar duguna eta komeni zaiguna; eta beti dagoelako desiratzen emateko, eskatzen badiogu.

Jesusek bere bizitza guztian erakutsi zuen disposizio bera da, baina batez ere Olibadian egin zuen otoitzean Pasioa nozitu baino zerbait lehenago, bere Aitari kaliz mingots hartatik libra zezala erregutu zionean, baina ondoren zera gehitu zuenean: *Alabaina, ene Aita, egin bedi zure nahia eta ez enea.*

KB1.402.1.16 Otoitz egiten dugunean Jainkoarekiko eduki behar dugun etsi onak nolabaiteko ezaxola sorrarazi behar digu, pentsatuz Jainkoari eskatzen diogun guztia ez dugula erdietsiko.

Baina ezaxola hau ez da berdina izan behar Jainkoari zerbait eskatzen diogun kasu guztietan; izan ere, Jainkoak mundu honetan ez baikintuen jarri baizik eta salbatzeko, ziur gaude horretarako baliabideak eman nahi dizkigula, eta ondorioz, desiratu egin behar ditugu, bilatu eta Jainkoari etengabe eskatu; eta jabetu behar gara manera honetaz desiratuz eta eskatuz gero, beti egongo garela Jainkoaren borondatearen menpean, bada, Jainkoaren borondatea da, San Paulok dioen bezala, gure salbazioa erdiestea; eta ondorioz, baita ere, nahi du guk eskatzea lortzeko behar diren baliabideekin batera, bada, orokorrean ez ditu ematen ez badizkiogu eskatzen.

KB1.402.1.17 Ez da gauza bera gertatzen mundu honetako gauzekin, zeren, benetako ondasunak ez direnez gero, berdin kaltetu dezakete gure salbazioa eta berdin mesede egin. Honengatik, nahiz batzuetan Jainkoari eskatzea permitituta egon, ezaxola handiarekin baino ez dakigu egiten, jabetuta Jainkoak nahiko ontasuna izango duela emateko, Haren zerbitzurako behar izango ditugun heinean; izan ere, honek behar du izan gure lehenengo eta benetako ardura, Jesusek Ebanjelio santuan dioskun bezala.

KB1.402.1.18 Otoitz egiterakoan Jainkoari erabateko entrega erakutsi behar badiogu, honek ez du eragotzi behar gure aldetik ahalik eta konfiantzarik handienaz egitea; izan ere, guk Hari eskatu behar dioguna aplikazio handiaz egiten badugu ere, are handiagoa da ezbairik gabe Hark guri emateko duen prestutasuna. Ez al da Bera, izan ere, Ebanjelio Santuan zera esaten diguna: *Eskatu eta hartuko duzue; zergatik ez duzue ezer eskatu nire izenean?* Ez al da Bera etengabe otoitz egitera bultzatzen gaituena, eta eskatzen diogun guztia hartuko dugula ziurtatzen diguna?

KB1.402.1.19 Halakoxea izan zen kananearren eta Ebanjelioko ehuntariaren otoitza, hain handia eta harrigarria izan zen, Jesusen arreta bera ere piztu zuen, eta bat-batean eskatzen zutena emateko arrazoia hauxe izan zen.

KB1.402.1.20 Gure otoitzak onura onak izango ditu Gure Jesusen merituengan bermatzen bada soilik; izan ere, Haren bidez, San Paulok esaten duen bezala, dugu sarrera Betiko Aitaren baitan, Hura izan zelako, gure bekatuen alde egin zuena egin ondoren, Jainkoarekin bakea eskaini ziguna, gure bekatuen aldeko egitea burutu zuena, gure baitan zegoen bekatua suntsitzeko, San Paulok dioen bezala.

KB1.402.1.21 Hala ere, nahiz eta handia izan otoitzean Jainkoarengan jartzen dugun konfiantza, oso balio gutxikoa izango litzateke iraunkortasunik izango ez balu; zeren, nahiz eta egia izan Jainkoak ez duela inor baztertzen Harengan konfiantza jartzen badu, sarri askotan ez du otoitzean eskatzen diotena ematen, etengabe jarraitzen dutelako eskatzen; eta maiz egiaztatzen du Harengan konfiantza dugula iraunkorrek garen heinean eskatzeko orduan.

Arazoi honengatik, Gure Jaunak, bere apostoluei nola otoitz egin irakatsi eta gero, ondoren aditzera eman zien bi parabolak bitartez, Jainkoarengan jarraitzen bazuten eskatzen etengabe, beren adiskideak izanagatik ere ez bazien entzuten, nola Harekin bat eginda zeuden grazia medio, edo gogaikarri izateagatik agian, nolabait esateko, lortuko zutela behar zuten gutzia.

KB1.402.1.22 Ez gaitzeen harritu bada Jainkoak ez badigu eskatutakoa ematen eskatu ahala; bada Jainkoak entzuten tardatzen duenean, dio San Agustinek, ez du esan nahi ukatzen digunik. Jokamolde horrekin aditzera eman nahi digu arreta handiagoz begiratu behar diogula ematen digunari; eta orduan asebeste handiagoa lortzen da aspaldian eskatu ditugun gauzekin.

Ez utzi otoitz egiteari, dio San Efrenek, nahiz eta Jainkoak tardatu entzuten; ez etsi horrengatik; gogora ezazue kanearra eta imita ezazue haren iraunkortasuna. Jainkoak hainbeste denbora tardatu bazuen eskatzen ziona ematen, alabaina ez zuen gustua egin gabe joaten utzi, haren jarraibideaz guk ere otoitzean iraunkortasunari eusten ikas genezan, berehalakoan ez ditugunean behar ditugun graziak jasotzen.

KB1.402.2 Bigarren atala **Zein lekutan, zein garaitan eta zein posturatan egin behar den otoitz.**

KB1.402.2.1 Ez dago leku bat Jainkoari otoitz egitea ezinezkoa denik; San Anselmok haxe frogatu nahi du Gure Jaunaren hitzak aipatzen dituean: *Otoitz egin nahi dezazuean, sar zaitez zure gelan.* Eta San Paulok, Timoteori igorritako lehenengo epistolari agintzen dio egiteko otoitz leku oroetan.

Are eta gehiago, santuen etsenplua dugu, hauek edozein lekutan egiten zuten otoitz, bada leku guztietan egin daiteke otoitz Jainkoari, eta ez dago leku bat bera ere non Bera presente ez dagoenik; edo Jainko gisa aitortu beharko ez genukeenik eta hala gure omenaldiak eskaini.

KB1.402.2.2 Baina Jainkoari otoitz egiteko lekurik egokiena eliza da; izan ere, leku guztien artean, hau da era bereziz otoitz egiteko sagaratuta dagoena. Arrazoi honengatik Jesusek Jainkoaren etxea deitzen dio eta otoitzaren etxea.

Are eta gehiago, baditugu arrazoiak sinesteko bertan beste edozein lekutan baino lehenago eta errazago entzungo dituela gure otoitzak. Bada baldin Jainkoak hitz eman

bazion Salomoni Jerusalemeko Tenpluan entzungo zituela egindako otoitzak, gure gaurko elizetako irudia baino ez baitzen, zenbat eta arrazoi handiagoz entzungo ditu gure otoitzak gaurko elizetan, bada Jesus bertan egoten da etengabe Aldareko Sakramentu Santuan eta guk daukagu Harengan jainkozkoaren betetasuna.

KB1.402.2.3 Edozein garai egokia da otoitz egiteko; momentu oro egin daiteke, egunez eta gauez. Davidek, nahiz eta errege izan eta estatuko gauzatan lanpetuta egon, esaten du gauez jaikitzen zela Jainkoari otoitz egiteko; eta gauero egindako bekatuez pentsatuz, etzanda zegoela, hain umildua eta abaildua sentitzen zen, eta hainbeste negar egiten zuen, ohea ere busti egiten zuen bere malkoez, damututa zegoelako Jainkoari hainbeste atsekabe eman izanaz.

KB1.402.2.4 Jesus bera gure jarraibide da denbora horri dagokionez, bada Ebanjelio Santuan Hartaz esaten da sarri askotan ematen zituela gauak otoitzean. Gainera, denbora hori oso egokia eta komenigarria da otoitzean emateko, orduan ez gaudelako arretarik gabe eta inork ez gaituelako otoitza eteten; eta deabruak orokorrean indar handiagoz eta maizago tentatzen baitu denbora horretan, grazia gehiagoren behar handiagoa izaten da, eta beraz, otoitz egiteko obligazio handiagoa.

Zalantzarik gabe arrazoi hauengatik dio San Krisostomok neguak oso luzeak izanik, neguan komenigarria dela ordu horietako zati handi bat otoitzari emanda egotea; hala gauzak pozik egon beharko ginateke ikusiz Jainkoari kultua emateko denbora luzeak ditugula.

KB1.402.2.5 Egia bada ere oso jende gutxi dagoela praktika hau aurrera eramaten duena, inork ez luke denbora luzerik pasa behar egunean zehar bizpahiru aldiz otoitzik egin gabe. San Krisostomok nahi du eguzkiari aurre hartu beharko geniokeela goizean, zeren, zer nolako aurpegiarekin, dio Eliz Guraso honek, begiratzer ausatuko gara halako astro eder honi, astroaren argiaz gozatzeko baimena eman diguna ez badugu aurrena gurtzen?

Eta ondoren gehitzen du, lotara bildu baino lehen otoitz egiteko nolabaiteko obligazioa badugula, bada lotara joango bagina zerez edo nola defenditu jakin gabe, oso erraz izango ginateke espiritu gaizkileen harrapakinak, eta gauez tentatuko gintuzkete erraztasun handiaz.

KB1.402.2.6 Aitak, baita ere, nahi du mahaira eseri aurretik errezatzea, eta erakutsi nahi digu zein esker txarrekoa den eman digun hari gure esker ona ez azaltzea, jakinik hainbat eta hainbat doe ematen dizkigula.

KB1.402.2.7 Santu honek asko eskatzen die kristauei eta esaten die ez dutela eguneko unerik txikiena ere pasatzen utzi behar Jainkoari otoitzen bat eskaini gabe, gure otoitzek bat egin dezaten egunean zehar egiten dugun guztiarekin.

Era honetan, kristau guztiek bat egin dezakete Gure Jaunak Ebanjelioan gomendatzen duenarekin, egizue otoitz etengabe; eta aldi berean San Paulok hasierako kristauei esan ziena lehenbiziko gutunetan, alegia, jakin zezatela Jainkoaren borondatea dela eskatzea, ez bakarrik afektuz baizik eta maiztasunez.

KB1.402.2.8 San Agustinek, etengabe erreztzeko eskatzerakoan, esan nahi du egia dela ezin garela egon beti belauniko edo ahuspez emanda, besoak altxatuta otoitz egiteko; baina, ordea, arazo handirik gabe erreza dezakegula etengabe, izan ere hala egiteko nahikoa da egun bat bera ere ez uztea otoitzari denbora neurtua eman gabe.

KB1.402.2.9 Eliz Aita beraren iritziaren arabera, otoitz egitea bada baita ere, ekintza guztietan Jainkoaz gozatzeko gosea eta asmoa edukitzea. Era berean egin daiteke, dio santu honek, Egiptoko bakartiek egiten zutena praktikatzu, izan ere, haiek oso otoitz laburrak baina sutsuak esaten zituzten, horregatik deitzen ditugu *otoitz laburrak* eta baliagarriak ziren Jainkoarekiko arreta bizarazteko; bada, otoitza, dio, etengabea da Jainkoarekiko arreta sutsu mantentzen denean.

Santu honek diosku, azkenean, esku lanean ari direnek ezerk ez diela eragozten Jainkoaren legeaz otoitz egiteko eta ezta Jainkoaren laudorioak etengabe kantatzeko ere; eta are gehiago, oso eraginkorra eta komenigarria dela otoitzari denbora ematea ezer garrantzitsurik egiteko ez dagoenean; eta era honetan pasatutako bizimodua, erabat emana obra onak egitera edo otoitzari dedikatuta, etengabeko otoitz bailitzan hartu behar dela.

KB1.402.10 Edozein posturatan otoitz egiterik badago ere, kristau jaiarak eta Jainkoari zor zaion begiruneak eskatzen dute, era partikularrean erreztzen denean, lurrean belaunikatzea, ahuspeztu gabe, orpoetan eseri gabe, eta kanpoko itxura neurtzu eta barnera bilduta .

Are gehiago, oso da Jainkoarekiko begirune gabe jokatzea, diosku Tertulianok, eserita erreztatzea, salbu lanean edo bestelako derrigorrezko egintza egiten ari bazara, eta adimena beste pentsamendu santuetan baduzu, zeina askotan gomendatzen baitu San Agustinek, beste momentu batean Jainkoarekiko duzun betebeharra egiten baduzu belauniko denbora pixka batean.

KB1.402.11 Hala erreztzen zuten apostolu santuek, eta hala egiten zuela San Paulok diosku berak, Jesu Kristoren jokaera imitatuz, zeina Olibadian zegoela belauniko jarri zen, aurpegia lurrarekin bat eginda, bere Aitaren aurrean gizaki guztien izenean azaldu nahi izan zuenean, bekataria bailitzan; eta horixe da Elizan praktika izan zena penitentzia egunetan, San Ambrosiok dioen bezala.

KB1.402.12 Alabaina, Elizaren praktika, Tertulianok irakasten digun bezala, edo San Ambrosio berak edo San Agustinek, Jainkoari zutik otoitz egitea izan zen baina Bazko garaian eta baita urteko igande guztietan ere, hala adierazteko nolako poza duten kristauek Jesu Kristo Gure Jaunaren bizkudearengatik, igande batean piztu baitzen.

San Paulok nahi du gizonek burua estali gabe edukitzea otoitz egiten dutenean, eta emakumeak aldiz estalita; hau da orokorrean kristauek gogoan izaten dutena otoitzari ematen diotenean.

KB1.402.13 Baita ere, ohitura nahiko zabaldua da eskuak baturik otoitz egitea. Elizan praktika oso zaharra zen, Tertulianok hala dio, zerurantz jasotzea; eta hori da Davidek berari dagokionez esaten zuena, otoitz egiten zuenean.

Batzuek besoak zabaldua dauzkate gurutzearen formarekin, hala egiten zuen Moisesek, israeldarrek amaleziten aurka borroka egiten zutenean, hala adierazteko kristauek izango duten mesedea eta erraztasuna etsai guztiak mendekatzeko otoitzarekin, Gure Jaunak lortu zituen merituengatik bere Pasioaz. Horixe da, baita ere, Tertulianok eta San Ambrosiok praktikatzen zutena lehenengo kristauekin Ostiral Santuan.

KB1.402.14 Begiei dagokienez, batzuek zerurantz jasotzen dituzte, Jainkoari otoitzak zuzentzen dizkiotela adierazteko, zeina era bereziz zeruan bizi baita. Hala egin zuen behin baino gehiagotan Jesus Gure Jaunak berak Aitari graziaren bat eskatu zionean. Beste batzuek jaitsi egiten dituzte, publikanoak bezala, apaltasunez, bekatuengatik daukaten nahasmendua goioan daukatelako eta Jainkoari ere errespetua zor diotelako.

KB1.402.15 Garai batean, Elizan izan zen praktika bat oso erabilia, eta zera zen, Ekialdera begiratu behar zen otoitz egiteko, batik bat, eliztarren herri batzarretan. Hau dela-eta elizak, orokorrean, Ekialdera begira eraiki ziren. San Basiliok diosku hau hala egiten zela paradisua Ekialdera begira zegoelako, eta Elizak nahi duelako kristauek praktika honekin espresatzea, gogo bizia daukatela eragotziak izan ziren lekura berriro itzultzea, hots, hasierako zintzotasunerara. San Agustinek dio zera egiteko dela, alegia, otoitz egiten dutenak Jainkoari emanda egon behar direla, eta hau Ekialdeak ematen du aditzera.

KB1.402.16 Eta San Joan Damaszenok gehitzen du ondorengo hau, kontua hau guztia dela Jesu Kristo Ekialderantz gurutziltzatua izan zelako, eta Elizak, noski, zera nahi du, otoitz egin dezagunean beti gure bitartekari gisa edukitzea; gainera, arrazoi beragatik gure elizetan gurutzia Ekialdera begira egon behar da jarrita, gure begien aurrean beti daukagularik, gure eredia denari bezala begiratu ahal diezaiogun.

KB1. 403

3. Kapitulua

Otoitz egin behar eta ahal den zeraz eta haietaz

Gure otoitzak ez lirateke batera eraginkorrak izango baldin Jainkoari haren gogokoak diren gauzak eskatuko ez bagenizkio, eta, era berean, berak nahi dituenen alde erregutuko ez bagenio. Hauxe da erakutsiko duguna ondorengo bi ataletan.

KB1. 403.1 Lehenengo atala

Jainkoari otoitzean eskatu behar eta ahal diezaiokegunaz

KB1.403.1.1 Ez da bidezkoa gogora datorkigun guztia Jainkoari eskatzea, eta gure otoitzak oso gaizki arautuak izango lirateke gure irizpide soila jarraituko bagenu. Izan ere, San Paulok dio ez dakigula zer eskatu Jainkoari, eta, beraz, nahitaezkoa dela Espirituak gure barnean eragitea eta gurekin batera otoitz egitea, hala berak jarriko gaitu bideak Jainkoari komeni zaiguna soilik eskatzeko, hots, gure eta gure lagun hurkoaren salbamenerako nola Jainkoaren laudoriorako komenigarria dena eskatzeko.

KB1.403.1.2 Tertulianok dio Jesu Kristok, zeina mundu honetara etorri baitzen gauza guztiak berriztatzen eta haragizkoak espirituzkoak bilakatzeko, diszipuluei irakatsi nahi izan ziela lurreko gauzak ez eskatzen, aitzitik, zerura garamatzatenak soilik; eta arrazoi honengatik hain zuzen Berak konposatu zuen otoitzean, zeina igandetako otoitza edo

Jaunarena deitzen baita, otoitz egiteko modu berria irakatsi zuela, hain bikaina, ezen Tertulianok berak esaten baitu otoitz horren barruan Ebanjelio osoa dagoela eta honen laburpena dela.

KB1.403.1.3 Otoitz hau beti izan zen hartua begirune handiz Elizan, eta lehenengo Eliz Gurasoek askotan azaltzen zien eliztarrei, batez ere katekumenoiei eta bataiari berriei.

Era berean, ohitura zen Elizaren lehenengo urteetan egunean hiru aldiz erreztatzea; eta zalantzarik gabe arrazoi honengatik esaten du San Agustinek aitek eta amek beren seme-alabei irakatsi behar dietela eta kristau guztiek buruz jakin beharko luketela; hara ba, Elizari egoki iruditu zitzaion kontzilio orokorraren 7. kanonean jartzea, eta esatea bekatu izango zela nahita edo norberaren zabarkeriaz ahaztea.

KB1.403.1.4 San Agustinek diosku Jesu Kristok otoitz hau eman zigunean, Jainkoari zer eskatu eta nola eskatu, era zintzoan eta probetxuz, erakutsi nahi izan zuela.; eta hauxe da era miragarritz adierazten duena otoitz honek, hots, Jaunak utzi zigula otoitza helburu honetarako, beste guztien eredu izango zen otoitza, beraz.

Are eta gehiago, esaten du beste otoitzetan ez dugula aurkituko ezer otoitz honetan ez dagoenik, eta nahiz eta norbera libre den bestelako hitzak erabiltzeko otoitzean ari denean, ez da, dena den, libre Jainkoari otoitz horretan dauden gauzetatik at eskatzeko, baizik bere horretan daudenak.

KB1.403.1.5 Izan ere, delako otoitzean zera eskatzen da, Aita beraren gurariaz, bizitza honetan behar dugun guztia eta baita datorrenerako behar dena ere, hemengo eta goiko beharkizunak, gaitz guztietatik libre sentitzeko grazia, bai iraganekoak eta bai oraingoak edo gerokoak.

Arrazoi honengatik, eliztarrei aditzera eman nahi bazaie Jainkoari eskatu diezaiokegun guztia, ez zaie egin behar igandetako otoitzean eskatzen diren zazpi gauza horiek irakastea baino, Tertulianok eta San Agustinek hala egiten zuten.

KB1.403.1.6 Gure Jaunak irakatsi zigun otoitzean eskarazten diguna zera da, Jainkoaren izenaren santifikazioa. Kontua ez da, Tertulianok dioen bezala, Jainkoaren izena berez santua eta santifikatua ez izatea, Bera baita beste guztiak santifikatzen dituena; eskatzen duguna, jakina, otoitz honetan, dio San Agustinek, zera da gizaki guztiek har dezatela Jainkoaren izena santu eta onartu gisa, jabetzeko ezin dela beste ezer santuagorik izan; eta honetaz jabetuz gero jarraitzaileek ez diezaioten irain, eta egiten dituzten egintza oroetan Jainkoaren laudorioa gogoan har dezaten.

KB1.403.1.7 Otoitz honetan eskatzen dugun bigarren gauza zera da Jainkoaren erreinua etor dadila. San Agustinek dio hitzok gure Jainkoaren Erreinuaren betiko bizitzarekiko irrika pizten dugula; eta horretara, dio santu honek, lerratu behar da lur honetan desio dezakegun guztia.

Eliz Guraso beraren arabera, hitzok aplikatu dakizkioke justuei buruzko Jainkoaren Erreinuari, haren grazia santua medio, zeren Gure Jaunak Ebanjelio Santuan esaten du, Jainkoaren Erreinuaren zuen barruan dagoela; eta Jainkoari beti bizi dadila gure bihotzetan

eska dakioker, eta gero gehiago santifika ditzala, zeruan haren erreinuaz parte izateko duin izan gaitezen.

KB1.403.1.8 Tertulianok esaten du hirugarren eskarian Jainkoari mundu honetan salbatzeko baliabideak eman diezazkigun eskatzen diogula, bada hori da Jainkoaren borondatearen osagarria eta helburua gizonentzat; eta era horretan Jainkoari eskatzen diogu lagun diezagula Berak emandako manatuak betetzen halako leialtasunez eta zehaztasunez nola aingeruek betetzen dituzten haren aginduak, edo geuk zeruan haren nahia beteko dugun legez, bertan egoteko ditxa izan dezagunean. Izan ere, Jainkoaren borondatea betetzen dugulako ziurtasuna izango dugu, dio San Agustinek, Jaunaren manamenduak betetzen ditugunean.

Santu honek dio, baita ere, Jainkoari eskatzen diogula gure gorputza espirituaren mendean egon dadila, bada Jainkoa bilatu nahi duen arimari gerta dakiokeren gauzarik okerrenea zera da ikustea gorputza edo haragia etengabe borrokan dagoela espirituaren aurka, mundu honetan gauden bitartean.

KB1.403.1.9 Laugarren eskarian, *emaguzu gaur eguneroko ogia*, dio San Agustinek elikadura materiala eta espirituala eska ditzakegula.

Eskatzen dena gorputzaren elikadura bada, dio santuak, eskaria ez doa oso urrutira; baina, hala ere, bat dator Ebanjelio Santuan agintzen denarekin, ez arduratzeko hurrengo egunaz; eta era berean bat dator Apostolu santuak ohartarazten digunarekin, bizitzeko eta janzteko adina izanda, konforme egon gaitzkeela.

KB1.403.1.10 Jesusek ogia aipatzen duenean, gorputzak eduki ditzakeen behar guztien alde eskatzeko agintzen digu, bada Liburu Santuan beharrezkoak diren gauza guztiak hitz honekin espresatzen dira; eta guri jakinarazteko ez dugula ez desiratu eta ez eskatu behar erabat beharrezkoak ez diren gauzak.

Aberatsek behartsuek bezala, Jainkoari eguneroko ogia eskatzeko obligazioa daukate; bada, gabezian ez egon arren, behar dute, ordea, ezagutu Jainkoa dela ondasun materialak eman dizkiena, eta ken diezazkiekeela gogoak eman diezaionean.

KB1.403.1.11 Baita ere, beren esku lanez gorputzaren beharrak zaintzekoa irabazten dutenek zuzentzen diote Jainkoari otoitz hau, eman behar dioten Hari bezala, bada nahitaezkoa da egiten duten lana bedeinka dezan Jainkoak; eta bedeinkatuko ez balu, alferrik izango litzateke, erabat.

KB1.403.1.12 Hitz hauen bitartez arimaren elikadura eskatzen bada, dio San Agustinek, Eukaristia sakramentuaren gainean ari gara, zeina eguneroko ogia deitzen baita, egunero har dezakegulako; edo, baita ere, Jainkoaren graziarena, behar duguna, ez egunero soilik, baizik une oro; edo, era berean, legearen gogoetarena eta Jainkoaren hitzarena. Bada, gauza hauek guztiak arimaren indarra berritzeko behar ditugu eta, baita ere, zoriontasun gorenera gida gaitzaten.

KB1.403.1.13 Bosgarren eskarian, *barkatu gure zorrak*, garbi dago Jainkoari, dio San Agustinek, egin ditugun bekaturen barkamena eskatzen diogula; eta Jainkoari soilik eskatzen diogu ez dagoelako beste inor barka gaitzakeenik.

Jabetu behar gara otoitz honek gure baitan eragina edukitzeko eta Jainkoaren aldetik grazia lortzeko, denok dugula obligazioa bihotzez jaso dituzten irainak eta laidoak barkatzeko; eta jarrera honetan ez daudenek, otoitz hau erreztatzerakoan Jainkoaren madarikazioa eta kondena ekartzen dute beren baitara.

KB1.403.1.14 Justuek ere otoitz hau errezatu behar dute, bekatariak errezatu behar duten bezala, denek behar dutelako Jainkoaren urrikalmendua, eta ez dagoelako mundu honetan gizaki bakar bat ere bekatutik libre dagoena, bekatu horiek oso arinak izan arren; izan ere, bekatu arinok aise garbi daitezke otoitz honen bitartez.

KB1.403.1.15 San Agustinek dio seigarren eskarian, *ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen*, Jainkoari eskatzen diogula ez gaitzala gure indarrak jasan ezin duen tentazioan jausten laga; eta horretarako, *ez gaitzala tentazioaren mendean utzi*, haren hatzaparretan ez erortzeko; bai ordea, eman diezagula tentazioari eusteko kemena eta hortik atera dezakegun onura aprobetxatzeko.

KB1.403.1.16 Jainkoari askotan zuzendu behar diogu otoitz hau, bizitzan sarritan gaudelako tentazioan erortzeko arriskuan, maiz saihestu ezinik ibiltzen baikara. Azken aurreko eskarian, *libra gaitzazu gaitzetik*, Jainkoari bekatuek sortutako penetatik libra gaitzala eskatzen diogu, beste bizitzako gaitzetatik, hots, garbitokitik edo infernutik, eta bizitza honetakoetatik, edo bestela, eramanez jasateko ahalmena eman diezagula. Edo, baita ere, gorpuzteko eta espirituko nekeetatik baldin gure salbamenaren alde lan egitea eragozten badigute.

KB1.403.1.17 San Agustinek dio bizitza honetako tribulazioetan eta oztopoetan hain zuzen ere ez dakigula ongi zer eskatu behar diogun Jainkoari, eraginkorrak edo baita ere kaltegarriak gerta dakizkigulako. Baina berez gogorrek eta gogaikarriak baitira, eta naturaren aurka doazenak, gizakiaren desira guztia Jainkoari eskatzea da ken diezazkiola.

Alabaina, ez dugu pentsatu behar Jainkoak kasurik egiten ez digunik haietatik libratzen ez bagaitu. Alderantziz, Jainkoari eskerrak eman behar dizkiogu haiengatik, jabeturik askoz garrantzitsuagoa dela Jainkoaren borondatea betetzea eta ez gurea, eta jasan ditugunean erakutsi dugun pazientiak, mesede handiak ekarriko dizkigula.

KB1.403.1.18 Gauzak hala, ez da zilegi Jainkoari hemengo gaitz guztietatik libra gaitzala eskatzea, salbu gure arimaren onerako bada, edo bestela bekatuan erortzeko arrisku ziurra izango balira; aitzitik, eskatzeko obligazioa daukagu, apaltasunez eta benetan, betiko heriotzatik libra gaitzala, bada hori da beti saihestu behar den gaizkia.

KB1.403.1.19 Era berean, San Agustinek esaten digu Jainkoari hemengo ondasunen eskatzen diogunean neurritz eta beldur pixka batez eskatu behar diogula, eta jakinik Jainkoak, ongi irizten badio, eta mesedegarriak badira emango dizkigula. Baina, alderantziz, irizten badio kalte egingo digutela, uka diezazkigula. Egia da, Jainkoak ongi irizten diola guk eskatzeari, baina malgutasun moduko zera batez, jakinik gizakiok ahulak garena.

Arrazoi honengatik, dio santuak, ez dugu inoiz eskatu behar hemengo helbururik duen zerbait, ezer finkorik, baizik eta eman diezagula komeni zaiguna soilik, guk askotan ez baitugu ezagutzen zer bai edo zer ez.

KB1.403.1.20 Hala, bada, ez dira aberastasunak bilatu behar, dio santu honek, izan ere batzuk galdu egin ziren behin lortu eta gero; ezta gozatzea ere lur honetako irritsaz eta ondasunez, bada norberaren satisfazioak bilatzea Jainkoari irain egitea da; ezta Jainkoari eskatzea ere ohorezko lanbideak eta ogibideak, gehienetan handikeria eta harrokeria baino ez baitute erakusten eta jasoko den ohore faltsua dela eta; nahiz eta hau ameti daitekeen, baldin bakarrik bada agindu digutenen ongia jokoan badago, eta ogibide soil izateagatik besterik gabe. Komenigarriena, bukatzen du Eliz Guraso honek, zera da, otoitzean lur honetako ondasunak ez eskatzea inoiz.

KB1.403.2

Bigarren atala

Otoitz egin ahal eta behar dugun haietaz

KB1.403.2.1 Jainkoak eman digun agindua gure salbamenaz arduratzea izan baita, eta otoitza hauxe erdiesteko lehenengo baliabidea eta garrantzizkoena baita, otoitzean ari garenean, izan behar da, aurrena, gure alde, behar dugun guztia Jainkoarengandik erdiesteko, mundu honetan Jainkoaren maitasunaz eta graziaz gozatzeko eta betiko bizitza lortzeko.

KB1.403.2.2 Baina Jainkoak agindu baitu lagun hurkoaren ongia kontuan hartu behar dugula, eta kristau karitateak, zeina gure erlijioa apaingarririk hoberena baita, behartzen gaituzenez gure buruaz soilik ez pentsatzera, baizik besteak ere laguntzera, ahal dezagun neurrian, besteen salbamina laguntzera, eta denek baitugu delako obligazioa, ondorioz, beraz, gure betebeharra gizaki guztien alde otoitz egitea da.

Hauxe da San Paulok agintzen eta Timoteori gomendatzen diona lehenengo gauza gisa, hots, kristauak saia daitezela batzarretan honetaz ardua hartzen; eta era berean San Anbrosiok ohartarazten diguna, horretara bultzatzeko esaten duenean, gure alde soilik otoitz egiten badugu, gure otoitzaren meritua soilik daukagula, baina denen alde otoitz egiteko karitatea badugu, horiek guztiek gure alde ere egingo dutela otoitz.

San Agustinek are eta gehiago esaten digu: Jainkoak bere urrikalmendua dela medio ematen badu besteen alde eskatzen dioguna, zeruan sari bikoitza jasoko dugula, alegia.

KB1.403.2.3 Gure obligazioa kristauen alde batik bat otoitz egitea da, gure anaiak direlako Jaunarengan. Santiago dela bitarte dakigu hau. Honek eliztar guztiei batzuek besteen alde otoitz egitea agintzen zien, salbatu ahal izateko. Bada, San Jeronimok dioen bezala, sarritan, anaia batek, hots, kristau batek, bere anaiaren otoitzari esker laguntza jasotzen du.

KB1.403.2.4 San Agustinek ohartarazten digu ez errezzatzeko Elizaren barruan bizi direnen alde soilik, baizik-eta gure otoitzak askotan Elizatik urrunduta daudenentzat ere izan behar direla, hots, zismatikoen alde, Elizako buru denari men ez egin arren, eta hereseen alde, beste dotrinaren jarraitzaile izanik ere, haren gorputzetik ihes eginda bizi baitira.

Anaia gisa haien alde otoitz egin behar dugu, dio Eliz Guraso honek, nahiz eta haiek ez duten izan nahi gure Elizakoak, eta haien alde Jainkoari eskatu, ezagut dezaten eta maitatu, hala ez da artalde eta artzain bakar bat besterik izango eta.

Juduen alde errezatu behar dugu, dio, Jainkoaren madarikazioa gainean duten arren; are eta gehiago, baita paganoen alde ere, nahiz eta sinestu ez Jainkoa eta ez Jesu Kristo, ezagut dezaten egiazko Jainkoa eta unibertsuaren Jauna.

KB1.403.2.5 Bertutean ahulak direnak, mundua biziki atsegin dutenak eta beraien aginduen arabera bizi direnak laguntza gehien behar dutenak baitira eta gutxien eskura dezaketenak bestalde, kristauen artean haiek dira, San Agustinek dioen bezala, gure laguntza bereziki behar dutenak, beraz, haien alde eskatu behar diogu Jainkoari arren eta arren, era bereziz, baldin geu ibili bagara haiekin batera errorean, ordenarik gabe eta galdukerian. Santu honek diosku, haien lagunak izan baginen neurrigabekeria, haiek izan behar direla lehenak gure jaiera jasotzen eta sentitzen.

KB1.403.2.6 Justuak grazian eta Jainkoaren adiskidetasunean bizi diren arren, ez daude ziur, dena den, kontserbatuko dutena. Arrazoi honengatik, ezin gara ahaztu haietaz gure otoiitzean; eta hauxe da San Krisostomok berak hasierako kristauen jarraibidearekin irakasten diguna; hauek ausartu ziren, dio, San Petriren eta San Pauloren alde otoiitze eginen, Elizaren zutabeak zirelarik garai hartan.

KB1.403.2.7 Baita ere, etengabe egin behar dugu otoiitze, dio San Jeronimok, Elizaren zabalkuntzaren alde. Baina, bereziki, gure otoiitzak Eliza zuzentzen dutenen alde zuzendu behar ditugu, hots, Elizan agintaritzak eta erantzukizuna dutenen alde, bai espirituaren erantzukizuna, hau da, aita santua, gotzainak eta erretoreak, dutenen alde, eta bai mundu honetako gidaritzak dutenen alde, esate baterako, erregeren alde, lurreko printzeen alde eta magistratuaren alde.

Hauxe da praktikatu zena, dio Tertulianok, Elizaren hastapenean, eta San Paulok Timoteori gomendatzen diona, alegia, agintzeko bere mendean zituen guztiei.

KB1.403.2.8 San Paulok berak zera nahi du Ebanjelioaren zabaltzaileen alde otoiitze egitea, Jainkoak beharrezko argiak eman diezazkien Gure Jaunaren misterioak aldarrikatzeko eta Jainkoaren hitza egokiro iragartzeko.

Gure gurasoekiko obligazioak ere baditugu, bada haien alde ere egin behar diogu otoiitze gure Jainkoari haien mesederako izan daitekeen guztia lor dezaten. Elizak nahi du, gainera, gure adiskideen alde otoiitze egitea eta, baita ere, gure ongileen alde, halakoentzako otoiitzak ere ezarri dituelako.

KB1.403.2.9 Baina gure adiskideen alde otoiitze egitea gutxi izango litzateke, gure etsaien alde ere egingo ez bagenu. Hauxe agindu zigun Jesus Jaunak eta hala gomendatu zigun berak Ebanjelio Santuan, esanez, horretara bultzatzeko, gu maitatzen gaituztenen alde soilik otoiitze eginez gero, ea zer sari itxaron genezakeen, horrekin paganoek baino gehiago ez genukeelako egingo. Eta pentsatuz hori hain zuzen zail samarra izango zela praktikatzeari, jarraibide eman nahi izan zigun, gurutziltzatzen ari zutenen alde denen aurrean eskatuz.

Baldin, dena den, dio San Agustinek, ez garea gauza Gure Jesus Jauna imitatzeko uste badugu, ezin dugu santuen jokaera imitatu gabe laga, Jaunaren zerbitzariak izan zirenak gu bezala; antzeko kasua izan zen San Estebanena, lehenengoetako diakono bat, eta Santiago Apostoluarena, Justua deitua, hauek belaniko jarrita eraso zituztenen alde otoiitze egin zuten.

KB1.403.2.10 San Agustinek esaten du ez gabela konformatu behar Jainkoari bizien alde eskatzeaz; era berean, eskatu behar dugu hildakoen alde, bada, oso eraginkorrak dira gure otoitzak, dio Liburu Santuak, bizitza honetan zorrak kitatu ezinik ibili zirentzat.

Hauxe da San Agustinek sarritan egin zuela esaten duena bere amaren alde; eta hauxe da Elizak, dio santu honek, beti praktikatu zuena; ospatuz, are, denen aldeko oroitzapen bat, inoren izenik esan gabe, ikusteko Elizak ez dituela ahanzten bere otoitzetan hildakoak, batik bat, ez badute lur honetan haien alde egingo duten ez etxekorik eta ez adiskiderik. Gainera, eransten du, Jainkoari hildakoen alde egingo ez bagenu, alferrik izango litzatekeela leku sagaratueta lur ematea.

KB1.403.2.11 Ordea, ez da otoitz egin behar ez deabruen eta ez kondenatuen alde, libre gelditu daitezten, Jainkoaren urrikalmendua medio, justiziak ezarritako zigorra betetzetik, jada ezinezkoa dela egindako bekatuen alde penitentzia egiterik, dio San Agustinek, eta Jainkoaren urrikalmendua bigunzerik; beraz, Elizak ez du ezer entzungo haien faboretan.

KB1.403.2.12 Era berean, ez da otoitz egingo santuen alde, jada daukatelako ditxa gorena, eta ezin dutelako ez itxaron eta ez desira beste ezer gehiagorik. Haien alde otoitz egiten ausartzea, izango litzateke, are, Jainkoaren aurkako iraina. Zorionekoen alde egin dezakegun guztia zera da, Jainkoari eskerrak ematea haiei eman zien grazia guztiengatik eta zeruan gozatzen ari diren aintzagatik.

KB1.404 **Laugarren kapitulua** **Nori zuzendu ahal eta behar diogun otoitza**

Ez da nahikoa jakitea zer eska dezakegun otoitzean; baita ere, beharrezkoa da jakitea nori zuzendu behar diogun behar ditugun gauzak eskatu ahal izateko. Hauxe azalduko da ondorengo hiru ataletan.

KB1.404.1 Lehenengo atala **Jainkoari eta Gure Jesus Jaunari gure otoitzak zuzendu behar dizkiegu**

KB1.404.1.1 Gure Jainkoa gauza ororen ongilea baita eta nola ez dagoen inor Harengandik jaso ez duenik, Santiago Apostoluak dioskun bezala, ezin dugu jo beste inorengana, ez bakarrik hemen behar ditugun gauzetarako, baita betiko ondasunak ziurtatzeko ere eta eskuratzeko behar ditugun graziak erdiesteko.

Arrazoi honengatik askotan Elizak Jainkoari buruz berba egiterakoan esaten digu Harengandik datozkigula ondasun guztiak, graziaren bat lortu nahi dugunean, alegia.

KB1.404.1.2 Jainkoak Aitaren funtzioa hartzen du sarritan Liburu Santuan eta gauza bera egiten du gurekin, horregatik behartzen gaitu zerbait eskatu nahi diogunean Harengana jotzea Hark soilik eman diezagukeelako guk eskatzen dioguna. Zalantzarik gabe, arrazoi honengatik Gure Jaunak ez zion beste izenik eman gure beharrak eskatzeko erakutsi zion otoitzean.

Jainkoaren Espirituak, dio San Paulo apostoluak, gure egintza guztiak bizitu eta animatu behar ditu; eta Jainkoari soilik baitagokio haren kontueta guk parte hartzea, Hari

bakarrik, ondorioz, laguntza eska diezaiokegu, profeta baten espresioaren arabera, graziak oparo guregana isurtzeko.

KB1.404.1.3 Egin ditugun bekatuak ikaragarriak iruditzen bazaizkigu ere edo ez hain garrantzitsuak agian, Jainkoak soilik dauka eskubidea barkatzeko. Horixe da Elizak esaten diguna bere otoitzetan gogorarazten digunean hau Jainkoari soilik dagokiola. Hala jokatzan da zeren, jakinik Jainkoak soilik eman diezagukeela bekatu gehiagorik ez egiteko ahalmena, Hari soilik eskatu behar diogula esaten baitigu, bekatuen barkamena eskatzen diogunean Hari bakarrik eskatzen diogun bezala.

KB1.404.1.4 Era berean, derrigortuta gaude Jainkoari eskatzera bizitza kontserba diezagula, bai gorputzarena eta bai arimarena. Elizak hau egiteko otoitzetan esaten digu, zeren, Jainkoa izanik bai bata eta bai bestea ematen duena, bera baita luzaro eman diezagukeena.

Jainkoa eta ez beste inor baita gure saria, eta haren ontasunari esker goza baitezakegu Hartaz gure ondasun gorena gisa, alferrikakoa izango litzateke hura ez beste inorengana jotzea lortzeko.

KB1.404.1.5 Beraz, lur honetan desira dezakegun edozein mesede, lortu nahi dugun edozer grazia, zeruan itxaron dezakegun edozein ditxa, Jainkoa bat eta bakarra baitugu eman diezagukeena, Hari soilik eska diezaiokegu.

KB1.404.1.6 Gure otoitzak, baita ere, Jesus Gure Jaunari zuzendu behar dizkiogu, gizakia den bezala Jainkoa ere badelako; eta Jainkoaren aurrean gure bitartekaria denez gero, bakarrik Haren bitartez, San Paulok dioen bezala, iritsiko gara Betiko Aitarengana, eta bakarrik haren bitartez itxaron dezakegu gure otoitzen efektua eta gure promesen konplimendua. Hau dela-eta Eliza bere otoitzak bukaera honekin egiten ditu: *Per Dominum nostrum Jesum Christum*, esan nahi baitu, *Gure Jaunaren bitartez*.

Eta ez da graziaren bat berriro erdietsi edo eman behar digulako. Gehiago da zera honengatik, gu salbatzeko behar genituen graziak erdiesteko asko jasan eta bere burua eskaini zuelako. Bere Aitari jasan zituen nekeak eta saminak etengabe eskaintzen dizkio, esateko aplikatzen diezazkigula delako sufrimendu horien emaitzak; eta Bera Jainkoa baita, gizakia den bezala, eman diezaguke, nahi badu, otoitzean eska diezaiokegun guztia.

KB1.404.2 Bigarren atala **Gure otoitzak santuei ere zuzendu diezazkiekegu**

KB1.404.2.1 Nahiz eta derrigortuta gauden gure otoitzak Jainkoari zuzentzerako eta Harengana soilik jotzera, behar duguna eskatzeko, Hark soilik eman diezagukeelako, hala ere, ahal dugu baita ere, aingeru eta santuengana jotzea; eta praktika hau, zeina beti egon baitzen praktikan gure Elizan, oso probetxuzkoa da eta laguntza handiak eman diezazkiguke.

KB1.404.2.2 Egia da santuek eta aingeruek botere handia izanagatik Jainkoarengandik oso hurbil daudelako, ezin dutela, hala ere, berez eman gure salbamenerako eta bizitzaren mantenturako probetxuzkoa dena, baina bai lortzeko laguntza eskaini. Arrazoi hau dela-eta ezin diegu eskatu Jainkoari eskatzen diogun modura.

KB1.404.2.3 Hala, bada, santuengana eta aingeruengana jotzen dugunean ez da zerbait eskatzeko, hots, graziaren bat edo bizitza honetako gaitzetatik eta oztipoetatik libra gaitzabela erregutzeko; baizik-eta bakarrik, San Krisostomok dio, Jainkoaren adiskideak baitira, bitartekari gisa gure alde egin dezaten Haren aurrean, haren borondateatik behar duguna erdiets diezaguten.

KB1.404.2.4 Jainkoari errezatzerakoan dugun helburua eta intentzioa eta santuekin edo aingeruekin duguna ez da gauza bera eta hau otoiitz egiterakoan erabiltzen dugun maneran ikusten da; izan ere, Jainkoari zuzentzen gaitzaitzkieanean beti esaten dugu *erruki Jauna*, santuei bakarrik esaten diegu *otoi gure alde*, argi uzteko Jainkoarengandik soilik jaso ditzakegula otoiitzean eskatzen dizkiogun gauzak, eta santuek, beren otoiitzekin, lortzen lagundu baino ezin dutela egin; eta ezta beraien meritu pertsonalengatik ere, baizik-eta Jesus Gure Jaunaren merituengatik, haren seme-alabak izanik parte hartzaileak direlako.

KB1.404.2.5 Kontua ez da gure otoiitzetan santuei ezin diegula gutaz errukitzeko esan; baina desegokiro hitz egitea izango litzateke eta espresio horretan beste zera hau ulertu beharko genuke, alegia, halako egoera penagarrian erorita gu ikustean gure aldeko hunkigarritasun pixka bat erakutsi beharko luketela, eta laguntza eman beren otoiitzekin.

KB1.404.2.6 Batzuetan emaitza onak izango ditu santuei gure alde eskatzeak. Bada, bizi zirenean, dio San Bernardok, halako errukia erakusten bazuten behartsuekin eta bekatariekin, are eta gehiago orain izango dute errukia gizakiok, erruki iturri dena begien aurrean daukatelako; eta orain gure miseriak hobeto ezagututa, haien karitateak gutxitu baino gehiago handitu egin delako, ezbaierik gabe.

KB1.404.2.7 Ez zaio inori burutik pasatu behar santuei zuzendutako otoiitzak Jainkoari gustatuko ez zaizkionik, inola ere ez, ezta berea duen laudorio ere murriztuko diotienik; bada santuei otoiitz egiten dietenek, dio Teodoretok, ez dituzte jainkotzat hartzen, baizik-eta haiengana jotzen dute jainkozko gizakiak izan direlako, Jainkoaren aurrean gure abokatuak izango direlakoan.

Ezta ere, ez dute beren otoiitzean eskatzen Jainkoari egiten dizkioten otoiitzetan eskatzen dizkioten gauza bertsuak gure alde, Jesus Jauna gure bitartekaria bakarra izan dadila, bada Jesus bera da santuen otoiitzei indarra eta meritua ematen diena, eta santuek Jainkoari merituak eta indarra Jesus Jaunaren izenean soilik eskatzen diote. Gure laguntzaileak eta bitartekariak badira, Jesus Jaunarengana eta Jesus Jaunarengatik soilik dira bitartekariak eta laguntzaileak, zeinak, San Pauloren arabera, etengabe eskatzen baitu gure alde Jainkoaren aurrean; eta santuen otoiitzek gurekin ontsua izatera baino ez dute eramango gure Jainkoa, eta hau Jesus bere Semearen meritu infinituen direla bitartez.

KB1.404.2.7 Nahiz eta derrigorrezkoa ez izan santuei otoiitz egitea, oso eraginkorra den zerbait da, eta ziurta daiteke haien otoiitz egitea ahaztu egiten dutenek, beren salbamena bera ere arriskuan jartzen dutela eta zailtasun handia izango dutela erdiesteko. Bada Nizeako II kontzilioan esaten den bezala, santuei zuzentzen dizkiegun otoiitzek eta eskaintzen dizkiegun ohoreek, beraien santutasunean esku hartzeko balio digute, eta obra on guztietan perfektuak izateko.

KB1.404.2.8 Kontzilio santu honek, santuei zuzendu behar dizkiegun otoitzak esaterakoan, seinalatzen digu aurrena Andre Maria Birjinari zuzendu behar dizkiogula, gero aingeru santuei eta ondoren beste santu guztiei.

KB1.404.3 Hirugarren atala

Birjina Txit Santua dela lehena, santu guztien artean, gure otoitzak zuzendu behar dizkioguna, bereziki eta maiz, eta Elizan haren omenez erreztatzen den otoitzik printzipalena.

KB1.404.3.1 Probetxuzkoa bada guretzat santu guztiei otoitz egitea, mesedegarriagoa da guretzat oraindik gure otoitzetan Birjina Txit Santuarengana zuzentzea, zeren, sorkaririk bikainena eta goratuena izanik, botere handia baitauka Jainkoaren aurrean; eta, gainera, gure salbamena erdiesten lagun diezagukeelako eta, era berean, gure behar guztietan haren bitartekari lanaz; hau ez dio inoiz ukatuko inori zintzotasunez eta bihotz erabat apalez eskatuz gero, bekatuaren bidetik urrunduz gero.

Ohitura zaharra da Elizan Birjina Txit Santuari santuei baino maizago eta sarriago otoitz egitea, Jainkoaren Ama delako. Hau dela-eta Elizak egoki iritzi zion otoitz bereziak egiteari haren ohorez, leku guztietan erabiliak izateko eta erreztatuak Eliza guztian, bai era pribatuan eta bai publikoan.

Birjina Txit Santuari zuzendutako otoitzik printzipalena, eta bide batez ederrena dena igandetakoa otoitza aparte utzita, guk aingeruarena deitzen duguna da, Gabriel goiaingerua lehenengo egilea izan zelako.

KB1.404.3.2 Otoitz hau hain garrantzitsua egiten duena zera da: 1. Aingeruak Birjina Txit Santuari Gizakundearen misterioa iragarri zionerako konposatua izan zen: *Agur Maria, graziaz betea, Jauna da zurekin*; 2. Santa Isabelek Birjina Txit Santuari hitz zoragarriak esan zizkion bisitan joan izanaren ditxa izan zuenean: *bedeinkatua zu andre guztien artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua*.

Goiaingeruaren hitzokin eta andre santa harenekin, Jainkoaren Espirituaz beteta, osatu du Elizak otoitz hau. Baina diosala baino ez baita, Elizak, eliztarrek Jainkoari Birjina Txit Santuaren bitartez egunero graziaren bat eska ziezaiola nahirik, beste hitz batzuk itsatsi zizkion hasierakoei, denei, orokorrean, otoitz gorputza emateko.

KB1.404.3.4 Otoitz honek hiru gauza dauzka, eta hauen bitartez goratzen dugu Birjina Txit Santua otoitz egiten diogunean: 1, agurtu egiten dugu; 2, goratzen dugu; 3, eskatzen diogu.

Gabriel goiaingeruaren hitzez Birjina Txit Santua agurtzen dugu eta graziaz eta bertute mota guztiez beteta dagoela esaten diogu, Jainkoaren Ama izateagatik zor diogun begirunea erakusten diogularik.

Goiaingeru santuaren azken hitzez, *Jauna da zurekin*, goratzen dugu, onartuz zer nolako ditxa duen Jainkoa beti berarekin izateaz, eta Espirituaz beteta egoteaz.

Eta Santa Isabelen hitz hauen bitartez bedeinkapen mota guztiak eskaintzen dizkiogu, sorkari guztien aurrean duen maila berezia onartzen dugularik, eta daukan bikaintasuna den gainetik, zeruko graziez eta bedeinkapenez beteta dagoelako. Eta Jainkoaren Ama

baita, Jesus Jauna bedeinkatzen eta gurtzen dugu, Jainko Gizon eginaren Semea, Birjina Txit Santuari egin zion ohorea eskertzeko, andere guztien artean amatzat aukeratu baitzuen.

KB1.404.3.5 Elizak diosala honi, laudorio eta bedeinkapen hauei atxiki dizkion hitzekin, erregu egiten diogu Birjina Txit Santuari; zeren, Jainkoaren Ama izanik, erabateko boterea dauka gizonekin eta ondasun mota guztiak lor baitiezazkieke; eta gizaki guztien aldeko interesa baitauka hauen salbamena dela kausa, beti dago jarrera egokiarekin laguntzeko. Batik bat, Birjina Txit Santuari gure arimaren salbamena eskatzen diogu; eta Jainkoaren aurrean eskatzen dioguna lor dezala erregutzen diogu, hots, Jainkoaren grazia bizitza honetan eta bestean aintza.

KB1.404.3.6 Elizak halako estimuan dauka otoitz hau, ia beti lotzen du igandeetako otoitzarekin, eta nahi du eliztarrek, orokorrean, ez dezatela erreza bata bestea ere errezatu gabe. Hala, Jainkoari behar dituzten graziak eskatu ondoren, Birjina Txit Santuaren babesa eta bitartekotasuna nahitaezkoa daukate, haren bitartez eskatutakoa erdietsi ahal izateko; gainera, erregutzen diote ofizio santuan bat egin dezala haiekin eta Jainkoari haien otoitzak eskain diezazkiola.

KB1.404.3.7 Oso egokia da, beraz, aingeruarena errezatzea sarri askotan, jaiera eta gogo biziz egiten badugu; gizakundearen misterioa ekartzen digulako gogora, Birjina Txit Santuaren bertuteetan formatzeko aukera ematen digulako, eta beste edozein otoitz baino gehiago interesarazten duela gure salbamenaz.

KB1.405

5. Kapitulu

Otoitz egiteko manera desberdinez

Kristauek askotan egin behar baitute otoitz, oso garrantzizkoa da jakitea zein diren otoitz egiteko manera desberdinak eta zein egoeratan ahal eta behar duten egin. Hauexa da erakutsi nahi duguna jarraiko bost ataletan.

KB1.405.1 Lehenengo atala Otoitz mota desberdinez.

KB1.405.1.1 Gizakiak gorputz eta arima dituenek, oso zuzena da biek Jainkoari omenaldia eskaintzea eta ondra ematea. Honetarako, jakina, Eliza ez zen konformatu kristauek erlijio ekitaldiak egiteaz, gainera, buru-makurdurak egitea agindu du, belauniko jartzea, eskuak ekartzea eta zabaltzea, bularra kolpatzea, ahuspeztea, bai Jainkoa kanpoaldeko egintzez ondartzeko eta bai egindako bekatuengatik batek sentitzen duen damua zeinu sentikorrez adierazteko.

KB1.405.1.2 Jainkoak helburu bera erdiesteko nahi izan du gizakiak otoitz egitera jotzea bestelako bi manera desberdinez, bihotzarekin eta ahoarekin. Bihotzeko otoitzari orokorrean gogamen otoitza edo meditazioa deitzen diogu, gorputzak ez duelako horretan esku hartzen. Honen bitartez Jainkoari gure omenaldiak eskaintzen dizkiogu eta dauzkagun beharren alde eskatzen, bihotzaz soilik berba eginez.

KB1.405.1.3 Ahoko otoitzari ahozko otoitza deitzen diogu, ahoaz eta berbaz egiten delako, hauetaz baliatzen gara Jainkoari ondra emateko, eta gure salbamenerako beharrezkoa eta eraginkorra dena adierazten diogu.

KB1.405.1.4 Davidek, berak primeran erakusten baititu zein diren otoitz egiteko manera desberdinak, egin zituen salmoetan argi eta garbi adierazten digu sarritan bai bata eta bai bestea erabili zituela. Batzuetan diosku Jainkoaren aldeko alabantzak beti ahoan egon direla, bere ezpainak poztu egin direla Jainkoa alabutzen eta haren mingaina beti egoten zela okupatuta Jainkoaren justiziarri ohorea eskaintzen; eta beste batzuetan, diosku, oihu izugarriak egiten zizkiola Jaunari, erregutuz eskatzen zionari kontu emateko, arren.

KB1.405.1.5 Baina haren bihotzaz barruan egiten zituen otoitzez berba egiten duenean kanpoaldera erakutsi gabe, diosku kontu handiz ibiltzen zela adimena beti Jainkoaren presentziaren aurrean edukitzeko, Jainkoaren legea izaten zela bere gogamen otoitzaren gaia, gauerdian ohetik altxatzen zela Jainkoaren epaiez pentsatzeko, seriotasun handiz pentsatzen zuela iraganeko urteez, eta maiz eternitatea bere espirituan egoten zela, askotan pentsatzen eta birpentsatzen zuela horretaz eta hau guztia gauze pentsatzen zuela eta gogoratzen bere bihotzaren barnean.

Batzuetan esaten du zein ziren gartsuki eta gogo biziz egiten zituen gogamen otoitzen ondorioak eta hauek zirela arrazoi nagusia batzuetan oihuka ari izateko eta gau osoa negarrez emateko, ohea bustitzeraino.

KB1.405.1.6 Alabaina, bihotzaz otoitz egiteko manera hau ez zen sarri askotan erabiltzen Itun Zaharrean; hala azaldu zen Heli apaiz nagusiaren harridura, Anak, Samuelen amak, jauretxean otoitz egiterakoan, ez zituelako ia ezpainak mugitzen. Handik aitzakia hartu zuen hitz itsusiak leporatzeko, ardoz beteta balego bezala, eta esateko jauretxetik atera behar zuela digeritzeko. Arrazoia da judutarrak zabarrak zirela, eta haien erlijioa kanpoaldeko praktikekin gauzatzen zutela.

KB1.405.1.7 Baina Jesu Kristok, mundu honetara lege berria jartzera etorri baitzen, barnealdeko praktikan oinarritu baitzuen bere burua, bere jarraibidearekin eta hitzekin, Jainkoari bihotzaz ahoaz baino gehiagotan erreztatzen erakutsi zigun, bada esaten da maiz gauak ematen zituela otoitzean. Eta praktika hau erabiltzera bultzatzeko, hots, Jainkoari bihotza otoitz egitera, esaten du, Jainkoa espiritua izanik, gure omenaldiak eskaini nahi diezazkiogunean spirituaz egin behar dugula; eta heldu dela egiazko ordua eta benetako gurtzaileek Betiko Aitari spirituaz eta egiaz gurtuko diotena.

KB1.405.1.8 Kontua ez da Gure Jaunak ez duela atsegin ahoz egiten den otoitza, Berak bat konposatu baitzuen eta haren jarraitzaileei hartaz baliatzeko agindu zien Aitari erreztatzerakoan. Baina nahi izan zuen guk ulertzea otoitz egiteko manerarik hoberean bihotza erabiltzea dela; izan ere, San Ziprianoren iritzi, ez da ahoak baizik bihotzak, Jainkoari hitz egiten diona; eta askotan, Jainkoak dioen bezala profeta baten bitartez, Jainkoa ezpainez ondartzten denean, bihotza oso urruti dago Harengandik.

KB1.405.1.9 Bihotzeko otoitzak edo gogamen otoitzak, alde on bat dauka ahozko otoitzarekin erkatuz gero, berez ona eta eraginkorra da; eta ez dago zalantzarik arrazoi honengatik Gure Jaunak dio Jainkoa spirituaz adoratzea egiaz adoratzeko dela. Ahozko

otoitza ona da gogamen otoitzari eta bihotzari atxikitzen zaionean, beti animatu behar duena, hartatik ateratzen baitu bere indar guztia eta efektua. Horregatik dio Davidek Jainkoari bere mingainak Jainkoaren justizia otoitzuko duela, zeren eta, mingainak hitz egiten duen bitartean adimenak ez badu otoitzen, ahoak esaten duen otoitzak ez baitauka onurarik.

KB1.405.1.10 Gainera, gizakiak abantaila handi bat dauka, Jainkoari otoitz egin diezaioke bihotzez edozein unetan eta abagunetan. Hala, gerta daiteke, dio San Krisostomok, norbait kalean barrena badoala eta arreta handiaz otoitz egiten joate; beste bat, lagunekin dagoela, bere espiritua Jainkoarengan jarrita edukitzea; edo, azkenik, edozein gauza egiten duelarik, Jainkoari dei egitea bere barnean jaiera eta debozio handiz. Horixe da garai zaharreko eremutarrek egiten zutena; hauek beti egiten zuten otoitz beren bihotzean, egile sutsu eta zahar batek dioen bezala.

KB1.405.1.11 Jainkoari bihotzez otoitz egiten dakioke manera desberdinez, baina bereziki honako hauekin.

Egin daiteke isilik eta Jainkoaren aurrean egonik, adorazioaren eta begirunearen eraginpean, Jainkoari ezer espresatu eta eskatu gabe. Dirudienez, otoitz honetaz hitz egiten du Kasianok haren 9. hitzaldian, esaten duenean, batzuetan, otoitzean adimena bera ezkutatu egiten dela isiltasun sakonean.

KB1.405.1.12 Pentsamenduaz ere otoitz egin daiteke, hitzik erabili gabe. Otoitz mota honi buruz San Krisostomok diosku bikaina izan daitekeela espirituaren sutsua berarekin dagoelako.

Otoitz egin daiteke, gainera, afektuez, Jainkoari zerbait eskatzen diogunean bihotzaren desirekin soilik. Hala errezatzen omen zuen Anak, Samuelen amak, San Ziprianoren ustez.

Jainkoari otoitz egiten diogu akzioez, obra onak egiterakoan Jainkoarengan begiak eta gogoak jartzen ditugunean Haren aldetik grazia erdietsi ahal izateko.

Baina Jainkoari bihotzaz otoitz egiteko manerarik ederrena sufrimenduz otoitz egitea da, eta egiten da Jainkoak bidalitako nahigabeak pazientzia handiaz eramaten ditugunean, ohorea eskaintzeko asmoz edo mesederen bat lortzeko, bai espirituala eta bai denborala.

KB1.405.1.13 Ahozko otoitzak denen aurrean edo pribatuan egin daitezke. Denen aurrean egiten diren otoitzak kristauak elkarrekin elizetan egiten dituztenak dira. Partikularrak nork bereak pribatuan egiten dituenak dira.

Denen aurrean egiten direnek abantailak daukate pribatuan egiten direnekin erkatuz: Espiritu Santuak ordenatuta daude, eta honek Eliza zuzentzen du; haien bitartez errazago lortzen dugu Jainkoari eskatzen dioguna, elkarrekin otoitz egiterakoan bihotzen batasunak bestelako eragina daukalako; eta bakoitza besteekin batera otoitz egiterakoan denen merituen partaide sentitzen da.

KB1.405.1.14 Denen aurrean egiten diren otoitzik ezagunenak iharduera erlijiosoak dira, kristauek elkarrekin eta batera igandeetan eta jaiegunetan egiten dituztenak, adibidez, parrokiako meza eta orduen liturgia.

Era pribatuan kristauek orokorrean egiten dituzten otoitzik ezagunenak goizaldean eta gualdean egiten dituzte, Meza santuan eta zenbait abagunetan egunean zehar.

KB1.405.2 Bigarren atala

Denen aurrean egiten diren otoitzik printzipalenak, hots, parrokiako meza eta orduen liturgia.

KB1.405.2.1 Parrokiako meza eliztarren batzar publikoetan egiten den erlijio iharduerarik printzipalena da. Kristauak mezatarako biltzen diren elizak parrokiak deitzen dira, eta Eliza bera bezain instituzio aspaldikoa da; izan ere, lehen kristauek egiten zituzten batzar guztiak, are, apostoluen garaian ere, misterio santuak ospatzeko, egia esan, parrokia-batzarrak ziren.

KB1.405.2.2 Hasiera mendeetan eliztarren batzar hauetan Liburu Santuak irakurtzen edo azaltzen zizkieten. Apostoluek, eta haien ondorengoek gotzainek eta apaizek, Jesus Jaunaren gorputza eta odola sagaritzen zituzten, eta haietaz elikatu eta gero, bertan zeuden eliztarrei esku hartzera gonbidapena luzatzen zieten; eta haiek eta eliztarrek, batera, Jainkoaren alabantzak kantatzen zituzten, eta Jainkoari batzuek besteen alde eskatzen zioten, eta baita Elizaren alde ere, beharkizun espiritualen eta denboralen alde, batasun espirituarekin eta bihotz apalarekin.

KB1.405.2.3 Kristau guztiak esku hartu behar dute parrokiako mezatan beren batzarretara joaten ziren lehen kristauen bezalako espirituarekin, haien parrokoarekin bat egin eta Jainkoari, harekin batera, Jainkoaren grazia guztiak eta baita laguntzak ere eskatzeko, batik bat, aste osoa kristau eran pasatzeko. Arrazoi honengatik Elizak nahi du parrokoek meza hau eliztarren alde eta ez beste inoren alde esatea. Gainera, Ebanjelioa kantatu eta berehala esplikatzen agintzen die, erlijioaren aginduetan eta egietan eliztarrak eskolatzeko eta benetako kristauen modura bizitzen ikasteko.

KB1.405.2.4 Nahiz eta parrokia-meza berez eta erakusten dituen hainbat gauzatan ez den desberdina meza arruntekin eta errezatzen direnekin, zeremonia batzuk izan ezik, bada, hala ere, diferentziaren bat bertara joaten diren eliztarrentzat: errezauek diren mezetara joaten direnean esku hartzen dute daramaten intentzioaren arabera eta jartzen duten arretaren arabera, baina parrokia-mezetan apaizaren intentzioekin ere bat egiten dute, honek espreski haien alde eskaintzen duenari, instrukzioan, zeremonia desberdinetan eta bertan abesten den oroetan. Elizaren espiritua zera da, bertan apaizekin bat egitea, elkarren ahotsa Zerura goratu ahal izateko, handik behar ditugun grazia eta Jainkoaren errukiak eliztarren batzarrera etor daitezten.

KB1.405.2.5 Eliztarrek parrokiako zeremonietan esku hartzen dute bereziki eskaintza egiten denean, ogi bedeinkatua eta agurraren unean. Hauek guztiak esplikatuta dira Meza santuaren inguruko instrukzio-liburuan.

Orduen liturgia otoitz publikoaren beste adibide bat da, eta erlijio bigarren iharduerarik printzipalena, honetan ere kristauek esku hartu behar dute parrokitan, igandeetan eta jaietan.

KB1.405.2.6 Elizak kristauak igandeak eta jaiak santifikatzera derrigortu ditu, baina horretarako eman nahi izan die egun horiek jaierazko ihardueretan emateko baliabidea. Arrazoi honengatik otoitzak preparatu eta erregulatu ditu, publikoki kantatzeko eliza desberdinetan eta egunaren ordu diferenteetan

Otoitz hauek guztiak Orduen Liturgia deitzen dira, alegia, Jainkoarekiko betebeharrak, kristauek Jainkoarekin burutu behar dituzten obligazioak aurkitzen direlako, hots, Bera adoratzea eta laudatzea, haren hitza ikastea eta hari errezatzea.

KB1.405.2.7 Egia da, Elizak orduen liturgian dauden otoitzak egokiera ederrean preparatu ditu kantatu nahi dituztenei aipatu hiru gauza horiek egin ahal izateko: horregatik, orduen liturgian salmoak, gorazarreak eta batzuetan abestiak sartu ditu, Jainkoa laudatzeko balio dute; irakurgaiak Liburu Santuetatik hartuta daude eta baita Eliz Gurasoen liburuetatik ere, eliztarrak Jainkoaren hitzaz eskolatzeko; eta kolektak, orduen liturgia bakoitza bukatzerakoan Jainkoari haren lege santua eta hitza betetzeko grazia eskatuz. Egia da salmoak askotan jainkozko instrukzioz beteta daudela eta baita otoitz sutsuz; baina Elizak Jainkoa laudatzeko erabili dituen bereziki, orduen liturgian Jainkoari eskaintako laudioak baino ez dira kontsideratu behar.

KB1.405.2.8 Orduen liturgiak zati batzuk dauzka, eta orduaren liturgia deitzen dira, garai batean Elizan ordu zehatz batzuetan errezitatzen zirelako.

Lehenengo ordua matutiak deitzen da, eta gauean abesten ziren. Bigarrena goresmenak deitzen da, eta egunsentian abesten ziren. Hirugarrena prima deitzen da, eta egunaren lehen orduan abesten zen, hots, goizeko seietan. Laugarrena, tertzia deitzen da, eta hirugarren orduan abesten zen, hots, bederatziatan. Bosgarrena, sexta deitzen da, eta eguerdian abesten zen. Seigarrena nona deitzen da, eta arratsaldeko hiruretan abesten zen. Zazpigarrena, bezperak deitzen da, eta arratsaldeko seietan abesten zen. Kompletak, oheratu baino lehen abesten dira, eta garai batean liturgiari erantsi zitzaion arratskeko otoitz gisa.

KB1.405.2.8 Orduen liturgia hau guztia ez da kontserbatu gure elizetan bezperak eta kompletak izan ezik, hauek igandeetan eta jaiegunetan abesten dira, eta hauen bezperetan. Alabaina, ia eliz guztietan den-dena abesten da jai handietan.

Arrazoizkoa da oso eliztarrek esku har dezaten maiztasunez beren parrokiatan orduen liturgian; izan ere, haien osatu ziren denek esku har zezaten; Elizak asko arindu ditu kontuan hartuta denek ez dutela gaitasunik jatorrizko bertsioan egiteko, dela ahul samarrak direlako dela jaiera eskasekoak direlako, eta alde batera utz ez ditzaten saihesteko.

KB1.405.3 Hirugarren atala

Beste otoitz publiko garrantzitsu baten inguruan, hots, Birjina Txit Santuaren ofizioaz.

KB1.405.3.1 Elizak ezarri dituen otoitzen artean, garrantzitsuenetako bat Birjina Txit Santuaren omenez eginarazi zuena da; hau eliztarren izenean abesten den otoitz publiko garrantzitsuenetako bat da.

Praktika zaharrenetakoa zen Elizan ofizio santu hau errezzitatzea eta jainkozko ofizioa abesten den eliza partikular guztietan onartu eta erabili zuten; gauzak hala, ofizio nagusiaren ostean denbora luzean abestu zen.

KB1.405.3.2 Ikusirik ohitura hau axolagabeki baztertzen joan zela eliza batzuetan Pio V Aita Santuak, Jainkozko Ofizioa erreformatzeko eman zuen buldan, derrigortuta ikusi zuen bere burua deklaratzeko aurrerantzean Birjina Txit Santuaren jainkozko ofizioa errezzitatu ez zutenek ez zutela inolako bekaturik egingo; baina abesteko ohitura zuten elizetan, kontserbatzeko, eta aldaketarik gabe egiten jarraitzeko.

KB1.405.3.3 Orduz gero, ohitura hau eliza partikular askotan mantendu zen, batik bat eliza katedralan eta erlijiosoenen gehienetan, hauetan oraindik Birjina Txit Santuaren jainkozko ofizioa abesten da ofizio nagusiaren ostean, salbu jai handiren bat ospatzen bada.

KB1.405.3.4 Otoitz hau hain zabaldua dagoenez eta Elizak gomendatzen duen, eliztar guztiak errezzitatu beharko lukete sarritan, eta Elizaren asmoa da eliztarrak saia daitezela helburu honetan. Eta honetara animatzeko, Pio V.ak errezzitatu zutenei egindako egun bakoitzeko ehun eguneko induljentzia eskaini zien leialak baziren egiten.

Helburu berarekin, laikoentzako liburukietan eta otoitz formula asko dituztenentzat, elizara doazenek errezzatzeko, beti sartzen da, orokorrean, Birjina Txit Santuaren ofizioa; denek erakusteko Elizaren borondatea eta nahia dela modu partikularrean errezzatzea, eguneroko betebeharrak uzten badizkiete bederen, eta otoitz egiterakoan bat egiteko apaizen intentzioekin, Elizako ministro hauek egunero denbora handi bat Elizan otoitz egiten ematen duten bezala eta, halaber, ofizio santua errezzatzen, Jainkoarengandik Eliza guztiarentzat graziak lortze aldera, haiek ere, ofizio labur hau errezzatzerakoan, Eliza guztiarentzat Birjina Txit Santuaren babes iraunkorra erdietsiko dute.

KB1.405.3.5 Nahiz eta ofizio hau Birjina Txit Santuarena deitu, dena den, dauzkan otoitz guztiak ez daude Birjina Txit Santuari zuzenduak; bada bertan errezzitatu diren salmoak jainkozko ofizioan aurki daitezkeen berak dira, neurri batean. Baina hala deitzen dira zeren ofizioaren otoitzen bukaeran, alegia, kolektetan, eta ofizioaren beste zati txikietan, Birjina Txit Santuaren bitartekaritza eskatzen baita.

Ordea, Elizak ofizio honetarako aukeratu zituen salmoetan Birjina Txit Santuari egindako aipamenei bat edo beste aurki daiteke, errezzatzen dutenek Jainkoa goresteko, eta harengan Jainkoa goratzeko, Jainkoari zuzentzen baitzaizkio Elizan egiten diren ofizio guztiak, azken helburua delako.

KB1.405.3.6 Ofizio honek, beste guztiak bezala, hiru ekitaldi garrantzitsu dauzka. Lehenengoa, Jainkoari aplikatzea da, aurrean dagoela onartzen dugulako; bigarrena gorestea; eta hirugarrena, erregutzea.

Ofizio honen ordu bakoitzak beste hiru gauza hauek dauzka. Jainkoaren maiestateaz eskolatzen da eta Birjina Txit Santuaren handitasunaz irakurgaiak eta kapitulak erabiliz, Liburu Santuetatik ateratakoak. Jainkoa laudatzen da Birjina Txit Santuarengan, eta Birjina Txit Santua Jainkoarengan, salmoekin, gorazarreekin, antifonekin eta erresponsoekin. Eta ofizioaren azken ordu amaitzen duten otoitzez Jainkoari eskatzen

diogu norberaren eta Elizaren alde, Birjina Txit Santuaren bitartez, behar ditugun graziak.

KB1.405.3.7 Nahitaezkoa da Birjina Txit Santuaren ofizioa errezitatzen dutenek delako iharduera jaineraz eta debozio bereziaz egitea, eta Elizak nahi duen fruitua erdiesteko, kontuan izan behar dituzte zera hauek: 1. Birjina Txit Santuaren ohorez egiten dutela eta beronen bikaintasuna eta duintasuna ez direlako nolana hikoak. 2. Haren babespean jartzen direnak karitatez betetzen direla. 3. Zein beharrezkoa dugun haren laguntza Jainkoaren aurrean.

KB1.405.4 Laugarren atala
Egunero egin behar diren otoitzez era partikularrean, bereziki goizean eta gauean.

KB1.405.4.1 Kristau guztiei egunero eta une oro Jainkoaren grazia behar baitute, behar lukete, arestian esan den bezala, Jainkoari otoitz egitea, ez bakarrik egun oro, baizik, are, etengabe. Alabaina, gehiengo batek familia zaindu behar baitu eta kontu denboraletan lan egin, Eliz Gurasoek esaten zieten aski zutela goizean otoitz egitea, jaiki eta berehala, eta gauean, ohera joan aurretik.

Otoitza, batik bat bi momentu hauetan, beharrezkoa eta derrigorrezkoa iruditu zaie, ez ditugulako beste baliabideak Jainkoari behar bezala zerbitzeko. Gainera, salbamena lortzeko erakutsi behar dugun arretarik eza izango litzateke eta halaber Jainkoari uko egitea goizetik ez adoratzeari, edozein egintza hasi aurretik, eta gauean eskerrak ez ematea lotara joan aurretik, egunean zehar emandako graziengatik, edo barkamena ez eskatzea egindako bekatuengatik.

KB1.405.4.2 Jainkoa egunero leialtasunez adoratzera eraman behar gaituena zera da, ezin dugula eguneko une bat bera ere pasatzen utzi behar Jainkoa adoratu gabe, egunean zehar haren graziari beharra dugula nahi eta nahi ez, eta gure betebeharra dela Hari eguneroko gure egintzak eskaintzea.

KB1.405.4.3 Gauean gauza bera egin behar dugu egunean zehar eman dizkigun grazia guztiak eskertu ahal izateko, jardunaldian zehar egindako huts, kale eta bekatu guztiengatik barkamena eskatzeko, eta gaua ongi pasatzeko behar ditugun graziak lortu ahal izateko; eta inolako bekatuan ez erortzeko ezin gara joan ohera Jainkoari otoitz egin gabe.

Are eta gehiago, esan liteke, bi obligazio hauek ez betetzea Jainkoa ezagutzen ez duen pagano baten gisa bizitzea izango litzatekeela.

KB1.405.4.4 Nola orokorrean inork ez duen eduki behar Jainkoari otoitz egitea baino zera handiagorik, ez litzateke zentzuduna izango, edo, are eta gehiago, logelatik kristau betebeharrak hau bete gabe ateratzea Jainkoari zor diogun begirunea zauritzea izango litzateke; bada hau guztia nahitaezkoa da Jainkoaren grazia partikularrak ekartzeko eta bereziki haren laguntza, eguneko egintza guztiak bikain egiteko.

KB1.405.4.5 Batek ezin du aitzakiarik jarri gaueko otoitza ez egiteko, alegia, ezin da esan logalez zaudela edo gogogabetua, edo gorputza leher eginda duzula. Halako kasuetan gogor egin behar diogu gure buruari Jainkoaren izenean, bada justua eta

arrazoizkoa da ezen egunean zehar egintza neketsuak egin baditugu gorputzaren beharrak asetzeko eta ondasun denboralak irabazteko, gutxienez, egunaren bukaeran arimaren alde zerbait egitea ondasun eternoak irabazi ahal izateko.

Jabetu gaitzen otoiutzaren betebeharrak haur konplitu ahal izateko goizean eta gauean ez dela aski Jainkoari ohean otoiutz egitea edo bat janzten ari denean edo erantzten ari denean, edo lanean; bada hori ez litzateke Jainkoari omen egitea merezi duen begiruneaz.

KB1.405.4.6 Oso egokia izango zen etxeko jaunak familia biltzea egunero, esan nahi baita, seme-alabak, morroiak, Jainkoari otoiutz egiteko elkarrekin goizean eta gauean. Egintza santu honekin jarraibide oso egokia emango lieke eta beren lana egokiro egiteko dispozizioan jarriko lituzke, eta bai berarentzat eta bai familiarentzat Jainkoaren bedeinkazioak ekarraziko lituzke baliabide honen bitartez. Praktika hau betez gero bere burutik kezka galanta erazuziko luke, alegia, ez luke arazorik izango bere buruan, seme-alabek eta morroiek otoiutz egin duten edo ez gauean erlijio espirituarekin.

KB1.405.4.7 Goizean Jainkoari otoiutz egokiro egiteko adoratu egin behar dugu, gauean eman dizkigun grazia eskertu, eta barkamena eskatu, iraindu badugu. Gero imajinatu egin behar ditugu egunean zehar egingo ditugun egintzak, eta Jainkoari eskaini eta gero, eskatu egin ditzagula bere maitasun santuaren izenean. Une honetan oso egokia izango da kontuan hartzea zein izango diren unerik larrienak Jainkoari huts egiteko, egunean zehar nondik barrena ibiliko garen, eta baliabideak hartu Jainkoaren grazia dela medio abagune kaltegarri horietan ez erortzeko.

Baita ere, probetxugarria izango da egunero gaintu beharreko akats bat-edo proposatzea, batik bat, norbera gehienbat lerratuta aurkitzen den hori, eta baliabiderik zuzenenak hartu delako hori saihesteko.

KB1.405.4.8 Gaueko otoiutz taxuz egiteko goizean Jainkoarengandik hartutako graziez pentsatu behar da eta eskertu. Gero kontzientzia arakatu behar da, egin diren akatsak aitortzeko, gaizki erabili den denbora eta Jainkoaren izena kontuan hartu ez eta egin gabe gelditu diren egintzak. Akats guztiak errebisatu ondoren, Jainkoari barkamena eskatu behar diogu, eta hurrengo egunean edo bizitza osoan ez egiten saiatuko garen erabakia hartu. Ez da otoiutz hau bukatu behar gaua ongi pasatzeko grazia eskatu gabe, eta batik bat, inolako bekatan ez erortzeko eskatuz, ezta pentsamendu likits bakar batean ere.

KB1.405.5 Bosgarren atala
Egunean zehar Jainkoari otoiutz egitea komenigarriak diren abagune desberdinak eta egiteko manieraz.

KB1.405.5.1 Nahiz eta Elizak kristauei etengabe errezatzen jarduteko eskatu ez, nahiko luke, hala ere, ezer ez egitea tartean otoiutzen bat egin gabe, zeren bat bera ere ez baitago Jainkoaren laguntza eta grazia behar ez duenik ongi egiteko.

KB1.405.5.2 Elizaren eta Jesu Kristo beraren intenzio honetara moldatzeko, beharrezkoa da Jainkoari otoiutz egitea egintza bakoitzean, hiru manieraz: aurrena, Jainkoari eskaini behar zaizkio; bigarrena, haren laguntza eskatu behar da; hirugarrena, egiterakoan arreta jarri behar da Jainkoarengan.

Gainera, Jesu Kristok egintzak egiterakoan izan zituen intentzioei eta dispozizioei lotu behar gatzazkio, eta kontu handia jarri Jainkoaren maitasunaz burutzeko; ondorioz, egintza horretan ez dadila deus izan, ezta ezer nabaritu ere, intentzio edo dispozizio horien aurka doanik. Honela ari izan behar gara egintzaren bat hasi behar dugunean, edozein delarik ere, bereziketarik gabe

KB1.405.5.3 Egintza guztiak Jainkoari zuzendu behar dizkiogun arren, badira, dena den, batzuk era bereziz eskaini behar dizkiogunak, eta beraz, otoitz batzuekin lagundu eta preparatu behar ditugunak. Hori da egitea komeni dena ohetik altxatzean, ur bedeinkatua hartzean, lekuren batean sartzen edo ateratzen denean, lanera joatean, etxetik atera baino lehen, otorduen aurretik eta ondoren, ohera joan aitzin edo oheratuta zaudenean.

KB1.405.5.4 Esnatu bezain azkar Jainkoaz pentsatu behar duzu, Jainkoak gutaz pentsatzen duelako. Une horretan gure burua Jainkoari eskaini behar diogu eta bai une oro eta bai eguneko egintza guztiak hari sagaratu.

Ur bedeinkatua hartzen denean (sarritan egin behar da, bereziki jaikitzean eta oheratzean) Jainkoari gure arima bekatutik libra dezala eskatu behar diogu, delako uraren bertutea dela medio.

KB1.405.5.5 Leku batean sartzen zarenean lehenengo gauza Jainkoa gurtzea da, bera han baitago eta dena betetzen du, eta bedeinkapen santua eskatu, bertan gauden bitartean ezer okerrik ez egiteko.

Leku batetik irten aurretik Jainkoari beragandik ez urruntzeko grazia eskatu behar diogu, haren presentzia santutik at gera ez gaitezen.

KB1.405.5.6 Lanera joaten zarenean, pentsatu behar duzu bekatua izan zela lan egitera eraman gintuena bizi ahal izateko, orduan Jainkoari eskatu penitentzia espirituarekin lanera joatea, eta eskatu, aldi berean, lanean gauden denbora guztian ez gaitzeza bekatutan erori.

KB1.405.5.7 Etxetik irten behar zarenean Jainkoari beti berarekin ibiltzeko grazia eskatu behar diozu bere aurrean zoazela gogoratu, eta erne ibili zure adimena eta zentzuak bekatuta eraman zaitzaketen ezertan ez jartzeko.

Otorduak egin aurretik Jainkoari jan behar ditugun elikagaiak bedeinka ditzala eta era berean jango dituztenak, eta grazia eman diezaiela denei jaten dutena ez dadila izan bera iraintzeko, baizik jaiera, adore eta leialtasun handiagoz zerbitzeko.

KB1.405.5.8 Otorduen ostean Jainkoari eskerrak eman behar dizkiogu jateko eman dizkigun janariengatik eta barkamena eskatu jaterakoan egin genitzakeen bekatuengatik.

Oheratu aurretik Jainkoari loa eskaini behar diogu eta bere grazia santua eskatu gaua ematen dugun bitartean.

Etzanda zaudenean Jainkoari eskatu behar diogu gaua bere maitasun santuan eta iraindu gabe igarotzeko grazia, eta lo hartu baino lehen adimenean pentsamendu egokiren bat burura ekarri.

KB1.405.5.9 Badira beste abaguneak, baina ez dira egunero gertatzen, eta hauetan derrigorrezkoa da otoitzera jotzea, momentu batzuetan besteetan baino behar handiagoa dugulako otoitzarena. Hona hemen abagune batzuk: Negozio edo bidaiaria hasten denean, bisitaren bat egitera goazenean edo egin eta gero itzultzen garenean, irainen bat nozitzen denean, gaixorik zaudenean edo ondoezak jota, tentaldiren bat presentatzen denean edo Jainkoa iraintzeko abagune larrian zaudenean, eta bekaturen bat egin duzenean.

KB1.405.5.10 Negozioaren bat hastera zoazenean, Jainkoari bere borondatearen arabera gidatzeko eskatu behar diogu, eta ez dezala permiti bere gustuko ez den ezer egiterik.

Bidaiaren bat egiten denean Jainkoari hiru gauza eskatu behar zaizkio: aurrena, zuzendu gaitzala joaterakoan eta itzultzerakoan; bigarrena, bere aingeru horietako bat eman diezagula gure gidaria izan dadin; hirugarrena, ez gaitzala bekatuan erortzen utzi.

KB1.405.5.11 Norbait bisitatzen zoazenean hiru gauza hartu behar dira kontuan. Aurrena, Birjina Txit Santuak santa Isabel bisitatzen joan zenean erakutsi zuen espiritu berarekin, intentzio berarekin eta disposizio berarekin joan behar gara; bigarrena, Jainkoari eskatu behar diogula izango ditugun elkarriketek berari buruzko maitasuna gehitzeko balio behar dutela; eta hirugarrena, garai horretan Jainkoari bera ez iraintzeko grazia eskatu behar diogula, bereziki maitasunaren aurka ez egiteko.

KB1.405.5.12 Bisita batetik itzultzen garenean Jainkoari barkamena eskatu behar diogu elkarriketetan izan ditugun hutsuneengatik eta baita galdu ahal izan dugun denboragatik.

Molestiaren bat kausatzen digutenean, irain bat edo bidegabekeriaren bat, hiru gauza egin behar ditugu: aurrena, Jainkoaren justizia gure baitan gurtu; bigarrena, Jesus Gure Jaunaren pazientzia adoratu eta pixka bat eman diezagula eskatu; eta hirugarrena, Jainkoari eskatu, jaso dugun min hori mesedegarri izan dadila guretzat, eta ondasun bat gure salbamenerako.

KB1.405.5.13 Gaixorik zaudenean edo ondoezak jota, onartu behar duzu gaixotasun hori Jainkoarengandik datorrela, hari eskaini behar diozu, eskerrak eman eta pazientziarengatik grazia eskatu, horretaz erabilerarik onena egite aldera.

Gertatzen bada norbait tentaldiren batek jota daukala, edo Jainkoa iraintzeko abagunean dagoela, Jainkoari eskatu behar diogu egoera hori guregandik urrun dadila edo beraren mendean ez erortzeko grazia eman diezagula.

Bekaturen baten mendean erori bagara, berehala barkamena eskatuko diogu Jainkoari iraindu dugulako, eta norik bere buruari penitentziaren bat jarriko dio, egokia noski, zorrak kitzatzeko, eta gerora berriro ez erortzeko balioko duena.

KB1.405.5.14 Baita ere, komeni da noizean behin eta etor daitezkeen abagune desberdinetan kristau bertuteen ekitaldiak, hala nola: fede-ekitaldia, adibidez, fedearren aurkako tentaldirik daukagunean; edo Jainkoaren maitasun-ekitaldia, iraindu dutela ikusten dugunean; Jainkoaren begirune-ekitaldia eta haren izen santuarena, norbaitek birao egiten duenean edo madarikatzen gure aurrean; itxaropenaren eta Jainkoarekiko konfiantzaren ekitaldia, norbait adiskiderik hoberenak abandonatuta bere burua ikusten duenean, edo, are eta gehiago, mundu guztiak abandonatu duela uste duenean;

apaltasun-ekitaldia, irainen bat egin digutenean; edo Jainkoaren borondatearekiko etsipen-ekitaldia, ustekaberen bat gertatzen zaigunean; edo, azkenik, Jainkoarengana eraman gaitzakeen beste ekitaldiren bat.

KB1.405.5.15 Otoitz guztiok guregan eragin dezaketen efekturik printzipalena Ebanjelio Santuan dauden aginduak praktikaaztea da. Hori bera da ekar diezaguketen mesederik handiena, honela misterio sakratuen ezagutza erdietsi baitezakegu eta Elizaren dotrina bera gureganatu.

AMAIA

Aurkibidea
KRISTAUAREN JAINKOAREKIKO BETEBEHARRAK
ETA EGOKIRO BETETZEKO BALIABIDEAK
KB 1

Obraren aurkezpena.....
Prefazio gisa balio dakion lehenengo zatiari.....

Lehenengo partea
Kristauaren Jainkoarekiko betebeharrak:
ezagutzea eta maitatzea

Lehenengo tratatua.
Kristauaren lehenengo betebeharraz, Jainkoa ezagutzeaz.....

- 1. Kapituluua.** Fedez eta honen bidez Jainkoa ezagutzen dugula mundu honetan.....
 - Lehenengo atala.* Zer da fedea
 - Bigarren atala.* Fede-ekitaldiak egiteko obligazioaz.....
 - Hirugarren atala.* Idatzitako eta idatzi gabeko egiez, Liburu Santuez eta tradizioaren bidez ezagutuak.....
 - Laugarren atala.* Fede-egien sinbolo laburtuaz.....
 - 2. Kapituluua.** Jainkoaz eta Jainkozko hiru Pertsonaz.....
 - 3. Kapituluua.** Munduaren sorreraz.....
 - 4. Kapituluua.** Gizakien erredentzioaz
 - Lehenengo atala.* Jainkoaren Semea gizon egina.....
 - Bigarren atala.* Jesu Kristoren jaiotzaz eta egintza printzipalenez bataiatu arte.
 - Hirugarren atala.* Apostoluen bokazioaz eta misioaz, predikazioez, Jesu Kristoren mirariez eta bizimodu behartsuez.....
 - Laugarren atala.* Jesu Kristok konbertitu zituen pertsona printzipalez.....
 - Bosgarren atala.* Farisearren gorrotoa Jesu Kristori, eta Jesusek farisearrei zien ezinikusia.....
 - Seigarren atala.* Jesu Kristoren sarrera Jerusalem eta Afariaraz.....
 - Zazpigarren atala.* Jesu Kristoren pasioaz, Olibadian eta Kaifasenean nozitu zuenaz.....
 - Zortzigarren atala.* Jesusek Pilatosen etxean nozitu zuenaz.....
 - Bederatzigarren atala.* Jesu Kristoren heriotzaz eta piztueraz.....
 - Hamargarren atala.* Piztueraz, Jesu Kristoren igokundeaz eta Espiritu Santuaren etorreraz.....
- 5. Kapituluua.** Elizaz.....
 - Lehenengo atala.* Zer den Eliza eta zerk ematen duen ezagutzera.....
 - Bigarren atala.* Elizako menbruez.....
 - Hirugarren atala.* Elizaren autoritateaz eta botereaz.....
 - Laugarren atala.* Elizaren gobernamentuaz.....
 - Bosgarren atala.* Elizako artzainez eta buruaz, daukan jurisdikzioaz eta mendekotasunaz.....
 - Seigarren atala.* Elizako ministro txikiez.....
- 6. Kapituluua.** Epaiketa unibertsalaz, gorpuen piztueraz eta bizi eternalaz.....

Bigarren tratatua.
Kristauaren bigarren betebeharraz, Jainkoa maitatzeaz.....

1. **Kapitulua.** Jainkoa maitatzera mugitzen gaituen karitateaz.....
Lehenengo atala. Jainkoa maitatzeko beharraz.....
Bigarren atala. Jainkoa maitatu behar den manieraz eta horretarako erabil ditzakegun seinaleez.....
Hirugarren atala. Gure lagun hurkoa maitatzeko dugun beharraz.....
2. **Kapitulua.** Jainkoaren manamenduez orokorrean.....
3. **Kapitulua.** Jainkoaren manamenduez partikularrean.....
 Jainkoaren lehenengo manamenduaz.....
4. **Kapitulua.** Jainkoaren bigarren manamenduaz.....
5. **Kapitulua.** Jainkoaren hirugarren manamenduaz.....
6. **Kapitulua.** Jainkoaren laugarren manamenduaz.....
7. **Kapitulua.** Jainkoaren bosgarren manamenduaz.....
8. **Kapitulua.** Jainkoaren seigarren manamenduaz.....
9. **Kapitulua.** Jainkoaren zazpigarren manamenduaz.....
10. **Kapitulua.** Jainkoaren zortzigarren manamenduaz.....
11. **Kapitulua.** Jainkoaren bederatzita hamargarren manamenduez.....
12. **Kapitulua.** Elizako manamenduez.....
13. **Kapitulua.** Bekatuaz orokorrean.....
14. **Kapitulua.** Zazpi bekatu edo aje kapitalez.....
Lehenengo atala. Harrokeriaz.....
Bigarren atala. Zekenkeriaz.....
Hirugarren atala. Lizunkeriak.....
Laugarren atala. Bekaizkeriaz.....
Bosgarren atala. Sabelkeriaz.....
Seigarren atala. Hiraz.....
Zazpigarren atala. Alferkeriaz.....
15. **Kapitulua.** Bestelako bekatu motez.....
16. **Kapitulua.** Bertuteez eta ebanjelio aholkuez.....
Lehenengo atala. Bertuteez.....
Bigarren atala. Ebanjelio aholkuez.....

Bigarren partea **Jainkoarekiko betebeharrak egokiro konplitzeko**

Prefazioa. Hemen Jainkoarekiko betebeharrak egokiro betetzeko behar den graziaz tratatzen da.....

Lehenengo tratatua.

Sakramentuez, hauek lehenengo baliabideak dira Jainkoarekiko betebeharrak egokiro betetzeko behar dugun grazia lortze aldera.

1. **Kapitulua.** Sakramentuez orokorrean.....
Lehenengo atala. Sakramentuen izaeraz eta kopuruez.....
Bigarren atala. Sakramentuen izaeraz eta zeremoniez, ministroez, beharrezkotasunaz eta helburuaz.....
2. **Kapitulua.** Bataioaz.....
Lehenengo atala. Bataioaren beharrezkotasunaz eta efektuez, materiak eta formaz, eta bataioaren instituzioaz.....

	<i>Bigarren atala.</i> Bataioa administra dezaketenez, administratzeko maneraz, hartu behar dutenez eta ematen dien izaeraz.....
	<i>Hirugarren atala.</i> Bataioaren zeremoniaz.....
3. Kapitulua.	Sendotzaz.....
	<i>Lehenengo atala.</i> Sendotzari berari buruz, onurez eta efektuez, ministroaz eta sakramentu honen izaeraz.....
	<i>Bigarren atala.</i> Materiaz eta formaz, sendotzako zeremoniez eta hartzeko beharrezko disposizioez.....
4. Kapitulua.	Eukaristiaz sakramentu gisa.....
	<i>Lehenengo atala.</i> Izen desberdinez, Eukaristiaren materiaz eta formaz, sakramentu honetako Jesusen benetako gorputzaz eta odolaz.....
	<i>Bigarren atala.</i> Eukaristiaren instituzioaz eta ministroaz.....
	<i>Hirugarren atala.</i> Kristauek Eukaristia hartzeko daukaten obligazioaz eta hartu behar duten maiztasunaz.....
	<i>Laugarren atala.</i> Eukaristia sakramentua hartzeko behar diren disposizioez eta sakramentu honek gure baitan eragin ditzakeen efektuez.....
5. Kapitulua.	Eukaristia erre opari gisa.....
	<i>Lehenengo atala.</i> Eukaristia erre opari, baina nola.....
	<i>Bigarren atala.</i> Eukaristia edo meza santua eskaintzen dutenez, nori eskaintzen zaio, norentzat eta zertarako.....
	<i>Hirugarren atala.</i> Meza santuan eskaintzen den erre opariak lege zaharrear eskaintzen zirenekin duen erlazioa.....
	<i>Laugarren atala.</i> Meza santuak gurutzeko erre opariarekin daukan erlazioa eta desberdintasuna.....
6. Kapitulua.	Penitentzia bertute gisa eta honen beharrezkotasunaz.....
7. Kapitulua.	Penitentiaren sakramentuaz.....
	<i>Lehenengo atala.</i> Izaeraz, materiaz eta formaz, instituzioaz, eta hartzeko disposizioez, kontzientzia azterketaz bereziki.....
	<i>Bigarren atala.</i> Kontrizioaz, penitentzia sakramentuaren lehen parte.....
	<i>Hirugarren atala.</i> Kontrizioak behar dituen baldintzez, komunak dira bai perfakturako edo inperfakturako.....
	<i>Laugarren atala.</i> Aitortzaz, penitentzia sakramentuaren bigarren parte eta izan ditzakeen efektuez.....
	<i>Bosgarren atala.</i> Ministroaz, barkamenaz eta penitentzia sakramentuaren zeremoniez.....
	<i>Penitentzia sakramentuaren zeremoniez.</i>
	<i>Seigarren atala.</i> Zorrak kitatzeaz, beharrezkotasunaz eta zorrak kitatzeko manera desberdinez.....
	<i>Zazpigarren atala.</i> Zertan datzan zorrak kitatzea eta aitortzan jasotako penitentzien onartzeaz eta betetzeaz.....
	<i>Zortzigarren atala.</i> Induljentzien bitartez egiten den bekatuen zorrak kitatzea....
	<i>Bederatzigarren atala.</i> Arimen zorrak kitatzea garbitokian.....
8. Kapitulua.	Azken oliaduraz.....
	<i>Lehenengo atala.</i> Izaeraz eta efektuez, materiaz eta formaz, azken oliadura ematen duen ministroaz.....
	<i>Bigarren atala.</i> Azken oliadura hartzeko disposizioez eta sakramentu honen zeremoniez.....
9. Kapitulua.	Ordenaz.....
	<i>Lehenengo atala.</i> Izenaz, materiaz, instituzioaz eta orden sakramentuaren erabileraz.....

Bigarren atala. Orden sakramentuaren ordenaz, har dezaketenez, behar dituzten disposizioez, eta tontsuraz edo koroaz.....

10. Kapitulum. Ezkontzaz.....

Lehenengo atala. Izaeraz, ezkontza instituzioaren bikaintasunaz, eta Jainkoak izan zuen intentzioa sortu zuenean.....

Bigarren atala. Ezkontzaren xedeez eta sakramentu honetan hartzen den graziaz

Hirugarren atala. Ezkontza sakramentuan erakutsi behar diren disposizioez.....

Laugarren atala. Ezkon hitzez eta ezkontza sakramenturako bestelako prestakuntzez eta disposizioez.....

Bosgarren atala. Ezkontzaren zeremoniez.....

Bigarren tratatua.

Otoitzaz, hots, bigarren baliabideaz Jainkoarekiko betebeharrak burutzeko nahitaezkoa dugun grazia erdietsi ahal izateko.

1. Kapitulum. Otoitzaz berez.....

Lehenengo atala. Zer da otoitza.....

Bigarren atala. Otoitzaren beharrezkotasunaz.....

Hirugarren atala. Otoitzaren onurez.....

2. Kapitulum. Otoitzean eman behar diren abaguneak.....

Lehenengo atala. Otoitzak eduki behar dituen baldintzez.....

Bigarren atala. Zer lekutan, zer momentutan eta zelako jarrera izan behar den otoitz egiteko.....

3. Kapitulum. Otoitza egin ahal eta behar den horretaz eta haietaz.....

Lehenengo atala. Otoitzean Jainkoari eska dakioken eta behar diogunaz.....

Bigarren atala. Eskatu behar eta ahal dugunez.....

4. Kapitulum. Nori zuzendu ahal eta behar dizkiogun otoitzak.....

Lehenengo atala. Jainkoari eta Jesus Gure Jaunari zuzendu behar dizkiegula gure otoitzak.....

Bigarren atala. Santuei ere zuzendu diezazkiekegu gure otoitzak.....

Hirugarren atala. Birjina Txit Santua da santu guztien artean, gure otoitzak era bereziz zuzendu behar dizkioguna eta sarrien, eta Elizan haren ohorez errezatzen den otoitz printzipalenez.....

5. Kapitulum. Otoitz egiteko manera desberdinez.....

Lehenengo atala. Otoitz mota desberdinez.....

Bigarren atala. Denen aurrean egiten diren otoitzik printzipalenez, hau da, parrokiako mezaz eta orduan liturgiaz.....

Hirugarren atala. Denen aurrean egiten den otoitz inportanteaz, hau da, Birjina Txit Santuaren ofizioaz.....

Laugarren atalaz. Egunero eta era pribatuan egin behar diren otoitzez, bereziki goizean eta gauean.....

Bosgarren atala. Zer abagunetan, egunean zehar, komeni den Jainkoari otoitz egitea era pribatuan eta egiteko manieraz.....

